


ARGI  
DONEA



Euskal Biblioteka Labayru



1016552  
RELIGIÓN / N. 257



AITA GUREA, zeruetan zagozana: SANTIFIKADU bedi  
zure izena; BETORKIGU zure EREÑUA; EGIN BEDI zure  
borondattea zeruan lez lufeán be...

## ARGI DONEA

JAUNGOIKO ZALE'REN IDAZTIAK

# ARGI DONEA

BALTZOLA'TAR PRANTZISKO ABAK EGIÑA  
TA

«ARGIA»REN BATZALDIAN SARITUA

EGUZKITZA'TAR JON U. JAUPARIAK  
BIZKAYERAZTUTA



ZORNOTZA'N  
JAUNGOIKO-ZALE'REN IRARKOLAN

1935

Nihil obstat

Victoriae die 10 martii 1928

EMMANUEL DE LECUONA

Censor

Imprimatur

Victoriae 12 martii 1928

Vicarius Generalis

DR. ASSUMPTIO GURRUCHAGA

L. S.

## IRAKURLEARI

### O A R A

Liburu au gipuzkoeraz agertu zan lenen-goz. Donostia'ko *Argia*'ren arduraz eta ordañez. Esku artean erabili eben abade-lagun askori entzun geutsen orduan: «Bizkayan be onakoze baten bearlean gagoz eta auze berau, gure euskeraz ba'lego ondo banño obeto letorkigu».

Oren nai ziñanok, emen daukazue «Argi Donea» Bizkai'ko euskeraz, zerbaite aldautua, baña guztiz gitxi. Gipuzkoeraz eta Bizkayeraz Mesa-liburu bat eta barditza euki-tea egoki litzakela-ta, Bizkai'ko euskaldunak eresago aitu edo uleitzeko bear zana baño beste gauza andirik ez dogu aldatu.

Beste edozetzaz lez Eleiz-liburuetzaz be bakotzak bere eretziak daukaz. Batek baño geyagok esan dausuke: «Argi Donea» bizkayeraz ipintekotan, liburu bi egin bear litzakez: bat txikia, gauzariak bearénakaz, umeai ta... merkeago saldu naiz saritzat

coteste buone popolazioni il culto della pietà cristiana nello spirito della Santa Liturgia.

Ben lieto di una pubblicazione che é, nel tempo stesso, opera nobilissima di fraterna carità spirituale, l' Augusto Pontefice forma per essa i migliore voti; e mentre si augura dal libro i piú abbondanti frutti in ordine alla vita religiosa e devota, paternamente invia al zelante Autore l' Apostolica Benedizione.

Mi é grato aggiungere il paterno compiacimento di Sua Santitá per l'altro nobilissimo Manuale «Eliz-Abestiak»; e nel presentarle i miei personali sinceri ringraziamenti per il delicato pensiero avuto a mio riguardo, mi valgo volentieri de l'incontro per professarmi con sensi di stima.

Revmo. Signore  
Victor Garitaonandia  
Direttore de «Argia»  
SAN SEBASTIAN

di V. S. Revma.  
affmo. per servirla  
P. Card. Gasparti.

«Aita Santuaren Onesprena» da Batikanotik  
da 1925ko urtarrila 17n.

## AITA SANTUAREN ONESPENA (EUSKERATUTA)

Batikanotik, 1925'ko Urtarrila'ren 17'n.

Jaun agurgarria:

Aita Santuaren eskeřik samur-bizienak emon bear̄ dautzudaz zuri, seme ona lez, Aitari eskiñi dautsazun Otoitz - liburu Argi Donea gaitik, zuen eri ofeitan kristiñau-bizitzea bizkortzeko berebizikoata Eleiz-araudi doneari dagokionez egiña da-ta.

Biotzen anaitasun maitagarirako argitaratu dan idazti bikain au Aita-Santuak berak atsegin andiz begiratu dau ta oso zabaldua ikusi nai leuke, ta jaungoikozko arnari (frutu) ugariak ekañiko ditualauste izanik, bere Onesprena (bendeziñoa) Eleiz-liburu onen egile zintzoari biotz-biotzez emoten dautso.

Pozgarí da niretzat, onegaz batera eskiñi dautsazun beste esku-liburu eder-bikain «Eliz-Abestiak» be Aita Santuari atsegin izan yakola zuri adieraztea, eta ni-

*ganako orioien samuraren ordez neure eskerik zintzoenak agertuaz, poztutene naz aldi au egoki datorkidalako, zuri neure oneretxiat autortu ta biotzez eskintzeko zure, J. A. oñen serbitzari.*

P. Kardinal Gasparri.

#### «ARGIA»'ren Zuzendari

Garitaonandia'tar Ritor

Jauñ agurgaría

DONOSTIA

ITZ - AURÉA

Argia sortu zan, ez asteroko bat egiteko bakanik, baita bear diran beste gauzarik asko euskaldunai euskeraz emoteko be. Gauza oneitan beárenetaikoa eleiz-liburu on eta oso-oso bat iruditu yakun, erlejiño ta arimai dagokiezan gauzak non ikasi, nondik eta zelan egin euki egien euskaldunak.

Beste eleiz-liburu asko dabiltz euskaldunen áritean, baña bape txařak diranik esan baga, ez gaitue betetan, batez be oso-osoak ez diralako, eta utsune ori bete nairik natorkizu, kristiñau euskalduna.

Oretarako Argiak batzaldi bat egin eban, eleiz-libururik egokien eta edeñena egiten ebanari mila pesetako saria eskiñirik. Liburu bi agertu ziran batzaldira, ta Epaileak, liburu au, eskuetan daukazun au-Baltzola Aitak egindakoa-aukee-  
raturu eban eta bere egileari emon yakon mila pesetako saria. Ora or zelan sortu zan liburu au.

*Eleiz-liburu au ez da izango—ori ziur—akatz bakoa: baña bape guzur barik esan gegike, mundua mundu dan ezkerotik, Euskaleriko alderdi onetan beintzat, ez dala onelako libururik, onen oso ta egokirik argitaratu, eta euskaldunok aíera ona egin ba-dagiozue, geroago ta obetuaz joango da.*

*Liburu onek zer dakařen jakin nai ba-dozu, aurkibidian ikusi zegike, baña emen be esango dautzut:*

*1'g.-Onek dakartzan otoitzik geyenak, ia guztiak, parkapen edo induljentziz aberastuak dagoz, beraz, otoitz-egiten dozunean, bide batez parkapen andiaik irabaziko dozuz, liburu onetatik egiñaz.*

*2'g.-Autortu ta Jaunartzeko era bi dakarz: bat luzea ta labuña bestea. Jaunartzeko era labuña mutil-neska guztiak batera egiteko, oso ego-kia da, otoitz ořeik guztiak batera esanaz. Era luzea norberak bakařean egiteko obea da. Autortzuko era labuña, saři egiten diranentzat da, eta luzea, ostera, noizean bein (ilean bein edo) egiten diranentzat. Era berean, azterketa edo esamiňa bi daukaz, eta azterketa luze ori nozean bein irakurtea edonori ondo letorķio: batez be, guztien Jaunartzea danean eta Pazko-aldian abadeak pulpitudik irakurtea oso ona litzake, toki batzue-*

*tan egiten dan lez. Askotan itauntxu batek ge-yago iratzaŕten dau, bakařean luzaro pentsetan egoteak baño.*

*3'g.-Kristiňau-ikasbide edo Dotriňa bariaren eran ipiňi dira Kredoa, Salbea ta gaňerakoak.*

*4.g.-Domeka ta jai guztietarako Ebangeloak be ba-dakařz, bakotxak zer esan nai dauan aurétiez adierazorik. Sermoyak ondo entzuteko, aurétiez Ebangelioa irakurtea da onena.*

*5'g.-Eleizan abesten diran Besperetako salmoak dakařz, aurétiez zetarako idatziak izan ziran esanaz: eta gaňera, latiňezko beste kanta asko be bai, eleizkizunetan kristiňau guztiak abestu dagiezan. Eleiza Ama Santuak nai dau eri guztiak parte artza, Mesa, Bespera, Tantum ergo ta beste eleizkizunetan, ez bakařik eleizara joanaz, guztiem arťean abestuaz baño. Orduan esan daiteke eleiz-jayak eri guztiaren Jaungoi-koagazko jayak dirala, Meza ta otoitzak eri guztiaren Meza ta otoitzak dirala.*

*6'g.-Gaňera, ogeta-amaika gogozko otoitz edo meditaziňo be ba-dakařz, ilaren egun bakotxera-ko bat. Gogozko otoitz edo meditaziňo bako siňesmen eta erlejiňoa, aul eta azalekoak izaten dira. Zure buru ta biotzean siňesmen eta erlejiňoaren zanak indar artza nai ba-dozu, sendo euki gura ba-dozuz, egizu egunero meditaziňo*

txiki bat «recogita corde» ta bařen-bařenera-  
ño botako dabez euren sustrayak.

Kristiñauen artean dabilen gaur-eguneko gatxik txařenetaikoa, auxe da: siñesmen otza, aula, argala, motela, azalekoia, ila, eta ořelan izanik, kristiñau zintxoa izaten gaitz da, jausten eřez.

7.g.-Azkenez, liburu onen bidez, elezkizunak eta otoitzak batera ekaři nai geunkez. Eleizako ta arimako gauza andienak toki guztietan bardin edo bardintzu egitea ondo da—eta ez batet batera, besteak bestera, nondik-nora dabiltsan jakin barik,—augaitik elezkizunak eta otoitzak batera ekaři nai geunkez, otoitz noz eta zelan egin daiteken eta egin bear dan, elizkizunetan zer esan eta zer kantaten dan, guztiak jakin dagien. Orduan izango da kristiňau euskalduna eleiz-gauzeten, bear dan lez, ondo ikasia. Ori jadetsiko ba'gendu, ontzat emongo geukez geure lan eta neke guztiak, eta ondo pozik atan be. Jungoi-koari dakiola ori ořelan izatea.

Árgia.



JAI-IGANDE ALDAKORAK

## KRISTIÑAUAREN BIZIBIDEA TA EGINBEAŘAK

Agustin Deunak bere itzaldietan auxe diño: Otoitz, oraziño egiten dakiana. zuzen biziko da (Hom 40). Kristiñau onaren biziidea azaldu nai dogun ezker, otoitza lenen aitatzea bidezkoa izango dala dirudi.

**OTOITZA.**—Guztiz beáezkoia yatzu, ene kristiñaua; loreak iñontza ta jayo-bařiak esnea lez, zuk be zerua irabazteko, otoitza beáf-beáezkoia, nai ta naiezkoia dozu. Ona emen zegaitik: siñesmen edo fedeko egia da «Jaungoikoaren laguntza barik, ezer ezin gegikela geure indař utsez» (1); baña Jaunak ez dautso emoten bere laguntzarik eskatzen dautsanari baño (AGUSTIN D). Beraz, «Otoitz barik galdua

(1) Sine me nihil potestis facere. (JOAN XV-5, VI-44.

zara, eta otoitz egiten ba-dozu, zerua irabaziko dozu, (ALF. D). Bai, otoitza guztiz beáezkoia dalako, «edonoz eta beti otoitz egiteko» diñosku geure Jaunak (Luc.XVIII) eta bardin diño Paulo bere apostoluak be:gelditu baga, atseden barik otoitz-egizue(1) Otoitza osoro beáezkoia ezeze mesede andikoa be bai-dogu. Jesukristoren itzak gai onetan benetan pozgařiak dira: «eskatu ta ařtuko dozue; deitu ta idigiko yatzue, bílatu ta aurkituko dozue: eskatzen dauanari emoten yako, bílatzen dauanak aurkitzen dau». Bai, otoitza guztiz indař andikoa da; Jaungoikoaren itza baño be indařtsuagoa, Krisostomo deunaren eretxiz, edo obeto esateko, neuri bako indařa dauko. Ester eřegiňa lez Jaungoikoaren jauregi - gelan edonoz sartzen da, ta nai dauana jadesten dau. Otoitz egizu, ba, kristiñau ořek; asko eskatu, eskatu beti.

**GOIZEAN**, jagi ta laster eskiňi egiozuz Jaungoiko Aitari, Jesus'en Biotzaren bidez, egun aretako lan, neke ta otoitz guztiak, egun baři bat ikusteko grazia emon dautzulako eskařak egiňaz... ¡Egun baři bat!

(1) I TESAL V-17.

lan egiteko, zerurako irabaziak batzeko, Jaungoikoagana biurtzeko... gitxien uste dozunean, gaua datoŕkezu, eriotzako gau ikaragaŕia, ta geyago lanik ezingo dozu egin (1) Gaiztoteiko (inpernuko) aberatzak Jaunari eskatzen eutsan Abraan bere bost anayakana bialtzeko, eriotzarako prestau eitezala esatera..., mandatari bat egunero bialtzen dautzu Jaungoikoak, zeure lo-zoŕotik iratzaŕtzeraz: goizeko argiak «jagi zaitez—diño—lotan zagozan ori»: orain dozu aukerea zure arimea salbetako, orain da aldi ona lan egiteko (2).

GABEAN, oeratu orduko, sal-erosleak egiten dabena egizu: artu-emonak aztertu, zerbait irabazi dozun ala ez jakiteko. Ez bein be oera joan eguneko uts-egite ta pekatuen parkapena Jaungoikoari biotzez eskatu barik «Jesukristo neure Jauna esanaz»; eta ori egin ezkero, Andra Maria ta Jose Deunaren magalpean be saŕtu zaitez.

MEZA DEUNA.—Zure etxe inguruuan uŕezko meatzaren bat dagoala: noznai ber-

(1) Veniet nox, quando nemo potest operari. (JOAN IX, 14).

(2) Surge qui dormis... ecce nunc tempus acceptabile, ecce nunc dies salutis. (II CORINT. VI-2).

tara joan eta luŕa atxurtuaz, beste barik, nai dozun beste uŕe batu zegikela ba’zenki (diño Ligorio’tar A. M’k) čez al da egia egun osoan antxe zebilkezala uŕea batzen gelditu barik? Biztu ta biskortu egizu, ba, zeure siňesmena: onek diňotzu: Zeruko Eŕege Altsuak zeure eskuetan iminten dituala, uŕe ta aŕi bitxi gustiak baňo askozaz be ederagoak diran Jesukristoren irabazi guztiak, meza santuaren bidez geuretu daikeguzanak. Ez esan ba, burubako gizon batzuk lez: «meza bat gora-bera, ardura gitxi» edo «igandetan meza entzutea, nai-koia da».

Ori diňoenak, Meza entzutea uskeritzat dauken oŕeik, Mezea zer dan aiztu dabe. *Meza Deuna*, opari odoltsua ez, baňia bestelan, Jesukristok gurutzean Jaungoiko Aitari eskińi eutsana ber-bera da; Jaungoikoak iňoz egin dauan miraririk andienetaikoa, ta naiz Jaungoikoaren aseŕea gozatu, zoŕ dantsaguzan mesedeaek ordaindu ta baňiak irabazteko, naiz Garbitokiko arima gaxoak su-gaŕetatik atera ta zeru-luŕak atsegin eta ondasunez betetako, biderik egokiena da.

Eta Meza deunetik aterako dozuzan mesedeaek, andiak ba-dira, Jauna-aŕtzeaz

irabaziko dozuzanak ez dira txikiagoak: batez be, laguntasun eta indaŕa: *da robur, fer auxilium.* Gure liburu santuetan irakurten dogu: Egipto'aŕen semeak ilteko Jainkoak bialdu ebazan aingeruak, ez ebezala judataŕak ikutu be, onein etxe-atarietan bildots-odola ikusi ebelako. Onelantxe, deabrua be iges doa Jesukristo Bildots Santuaren odola kristiñauen biotzetan ikusirik, Altarako mayan Jaunartzen dugunean «su gaŕa begietatik darioen leoi amoŕatuak lez urteten gara-ta (KRIStO). Ortik atera eben martiriak oñazemin ikaragafienak Jaungoikoaren izenagaitik kemen eta biotzez jasan eta eroateko indaŕa.

Eta  zenbat bidar aŕtu bear dogu Jauna? Saŕi, al dozunik saŕien, egunero al ba-dozu. Gorputza lez arimea be, janari barik auldu ta ilten da; arimearen janari Jesukristo'ren Gorputz-Odol gurgańiak dira, «Christum Regem adoremus qui se manducantibus dat spiritus pinguedinem».

Goizean Jauna zeure biotzean aŕturik, zoaz al ba-dozu, eleizara egun artean be, Jesus zeure Jaun eta laguna ikertzen (ikustera). Asko ta asko dazauguz—diño Pau-

lino santuak—Lur Santuetara doazanak, gure Eroslea jayo ta bizi izan zan tokiak ikustera, eta poz-pozik biurtzen dira andik luŕ pizka bat dakańenean»: aek baño amaika bidar zoriontsuago zu, kristiñau maite ori, bertan daukozulako Jesus zeure Erosle ta Jauna. ¡Eldu zaitez saŕi bere ingurura, aberatsetan aberatsena, ondasun guztien ituŕburu Bera da-ta!

Jesusen maitasunaz batera, bere Amaganako maitasun sutsua be zeure biotzean soŕtu bear dozu. Esaiozu biotz-biotzez Angelus-otsa entzuten dozun bakoitzean aingeruekin batera: «Agur Maria», otoitz labur baña guztiz edeŕ ori. «Gure luŕak iñoz bialdu dautsan aguŕik ezti-gozoena ta zeruko izaŕak baizen argi ta dizdiratsu dan otoiz ori». (AGUSTIN DEUNA).

Baña «Agurtza», eŕosario, santuaz batez be, Maria zeure Ama gozatu ta mesede andiak zeuganduko dozuz, *innumerabiles fructus.* Bere eskutuki edo misterioak gogoratuaz, gure siňesmena sendotzen da ta itxaromena be bizkortu. Aguŕtzak zorioneko egiten gaitu emen beian, eŕbeste oneitan, eta zoriontsuago egingo gaitu gero betiko zero edeŕean. «Agurtza eskuetan,

otoitza ezpanetan, begiak luŕean eta biotza zeruan... gauza edeŕagorik ete-dago kristiñauarentzat? iňoan gure Beŕiotxoa zorionduak. Ez, ez dago, ezin izan daiteke, ez da izango.

Andra Maria biotzez maite ba-dozu ta bere gogoko dan zerbait egin nai ba-dozu, bere Eleibazkun (kongregaziňo) ta beste anaidietan (kofradietan) saftu zaitez: oneik gaztelu jaso bat lez dozuz zeure arimearentzat: gorde-leku sendo-irmeak.

Beste gorde-leku atseginaŕi-sendoa Jesus'en Biotzean aurkituko dozu: atseginaŕi, bai, poza ta atsegina, indaŕa ta laguntasuna, guztiok batera bertan daukazuz-ta. Ona emen bere Biotzaren maitaleai Berak egin-dako agintzariak: 1.—laguntza euren egikizunetan; 2.—bakea euren sendi edo familietañ; 3.—atsegin poza naibageetan; 4.—bizitzan, eta eriotzan batez be, estalpe ta iges-lekua bere Biotzean; 5.—onespen eta laguntza euren lan guztietan; 6.—eŕuki neuŕibagea pekatarienzat; 7.—kristiňau epelak berotuko ditu; 8—beroak bere maitasunean irazegiko ditu; 9—Aba-deai pekatariak biurtzeko doia emongo dautse; 10.—bere irudia agirian dauken

etxeak bedeinkatuko ditu; 11.—bere Biotzean gordeko ditu Biotz origanako eraspena zabalduko dabenen izenak; 12.—Ilen lenengo bederatziz barikuetan Jauna-aŕtu dagienak, bere maitasun eta grazian ilgo dira.

Jesus eta Maria, Ama ta Semea maite dozuzala, Jesus'en Aitaorde, Jose Deuna be maitatu egizu ta bere laguntza eguner- ro eskatu.

Azkenez, ene kristiňau ori, zoaz igande-ro mesa-nagusia, bespera ta eleizinguru edo ibildeunetara. Zeruko Jaun Altsuak, astean egun bat aukeratu dau beretzat, domeka edo igandea, Bere seme gustiak batera guŕtu ta jauretsi dagientzat. Gure asabak, domekaz, goizeko Meza nagusira ta aŕatsal-deko besperetara joaten ziran, eta Jaunari eskerak, oraindik bizi da oitura eder au eŕi txikietan, gure urietan, zoritxafez, gal-duez badoa be.

Irabazi andi bi aterako dozuz eleizkizun onetatik: batetik, mesede ugariagoak, otoi-tzak, Jesukristok ber-berak diňoskunez (MAT. XVIII, 19-20) zenbat eta lagun geyagoen artean egiten dan, ainbat eta indar andiagoa dauko-ta, (augaitik agurtza san-

tua be lengo oitura zaŕa gordeaz, guraso ta seme-alabak alkaŕegaz esan beti); bestetik, oŕelan egiñaz (batez-be ibildeune-tan) lotsa txaŕa kenduko dozu ta siñesme-na sendotu be bai.

Goiz etxeratu zaitez gabean: ez aiztu deabruak, guzuŕaren aita eta guzurti andia dalako, ilunpeak asko maite dituala. Sugearen ondotik baño be ariñago *dantza lotutik* iges egizu: «dantzara doana—diňoskue Eleizako guraso agurgariak—garbi doa ta zikindua biurtzen da: bere gorputzak zauririk artu ez aŕen be, arimea zauriz bete-rik dakar»: ez aiztu, ene kristiñaua, Ambrosio Deunak diňoskun au: «emakume dantzari batek Joan Batiatzaŕearen burua eskatu ebala».

Guztiz laguntza andikoa izango yatzu urtero Iñazio Deunaren Iñarkunak (ejerzizioak) egitea be. Ejerzizioak egizuz—idatzi eutsan gure Santuak Miona Aba bere la-gunari—eta ez yatzu damutuko. Ez ziur, ez yatzu damutuko, kristiñau ori, zuk us-te ez aŕako mesedeak aterako dozuz-ta. Urteroko bakaŕtaldi onezaz gaňera, iloro bakaŕtaldi-eguntxu bat aukeratu egizu: egun oŕetan zeure baŕenean sartu zaitez

eta amaitu dan ilari begiratuaz, ikusi zetan zagozan, atzera ala auŕera zoazan. Onetarako eriotzaren gomutea lakorik ez dago. Jesus Gurutziltzatuaren auŕean be-launiko, eriotzea, epaya (juizioa) gaizto-teya naiz zerua gogoz auznaŕtu egizuz.

Zeure obenetaz damutu barik, negaŕ-egin barik, obea izateko asmu sendoa artu barik, gauza oŕeik ezin gogoratu ze-gikez.

Oŕa oŕ, ene kristiñaua, zelan zuzendu dagikezuzan zeure eginbeaŕ eta lan guztiak Jaungoikoaren auŕean, Bera gauza guztietan begiratzen dozula, moŕoyak be-re ugazaba begiratzen dauan lez; «sicut oculi ancillae in manibus Dominae suae».

Oŕelan egizu ta biziko zara. *Hoc fac et vives.* (PROV. IV-4).

8.—Egun bakar bat be ez itxi zeure etxekoekin batera agurtza edo eŕosarioa esan barik, eta eŕosarioa beti zeugaz era-bili.

Ameriketara joyan euskaldun gazte on batí, ain toki uŕunetara joanda gaiztotuko ete-zan bildur zala esan eutsan abadeak; baňa gazte argi arek eŕosarioa sakeletik atareaz erantzun eutsan: «Jauna, onegaz ez Ameriketan, ez Euskalerian ez naz galduko».

9.—Gabean goiz etxeratu, ta oeratu baňo len, zeure baŕena apuŕ baten azterúta begiratu, eguna zelan igaro dozun ikus-teko.

### ASTEORO

1.—Domeka ta jai-egunetan ez lanik egin eta iñoz lan-egitera beartua ba-zen-goz, al dozula beintzat ixilean egin.

2.—Jai-egunetan meza entzun barik ez itxi, ta ez edozelan entzun, ardura ta de-boziño andiz baňo.

3.—Astero, larunbatetan-edo, zeure oben edo pekatuak autortu.

4.—Egunoro Jaunartzen ez ba-dozu be,

igandero beintzat ártu egizu, ta bardin jai nagusienetan be. (Jayotz-egun eta ezkontz-egunen urte buruetan autortu ta Jaunartzea guztiz ona litzake).

5.—Domeka ta jai-egunak, Jaungoikoaren egunak diran ezkerro, besteak baňo obeto gorde bear dozuz. Beraz, meza nagusia entzun egizu ta afatsaldeko bespera ta beste elezkizunetara be joan zaitez.

6.—Jolastu zaitez, baňa arduraz eta kontuz. Ez joan zine ta beste jolastoki galgañietara, ta dantza lotuetatik alde egizu.

### ILORO

1.—Astero ezpada be, iloro beintzat zeure pekatuak autortu egizuz eta jaunaŕtu be bai, auŕetiez ondo gertuta.

2.—Egun bat iloro aukeratu, bakaŕtal-di eguna izango yatzuna, bide onean auŕeratzen zarean ala ez, egun ofetan ikus-teko.

### URTEORO

1.—Eleiz-Amaren aginduak eskatzen dautzunez, urteko pekatu guztien autoŕ-

kuntza on bat egin eta Jaunaŕtu egizu.

2.—Iñazio Deunaren Gogo - iñarkunak (ejerzizioak) Loyolan edo beste toki baten urteoro egitea be ondo izango da.

3.—Urte-azkenean zeure arimearen artu-emon guztiak gogoratu, amaitzera doan urte oŕetan zerbait auferatu dozun ala, bestera, atzerantza joan zarean argiro ikusteko.

#### ALDI-GUZTIETAN

1.—Anaidi edo kofradietan saŕtu zaitez. Oneik gaztelu gordetzaŕe izango yatzuz zeure arimearentzat.

2.—Jaungoiko ta Eleiz - Amaren agintzak arduraz zaindu ta zeuri dagokizuzan eginbear guztiak ondo betetako alegindu zaitez.

3.—Lagun gaizto, irakuŕgai nasai ta galbide guztietatik alde egizu.

4.—Beginnez jantzi zaitez, ez lotsagaldueen antzera, papaŕ eta besoak agirian dozuzala, naiz txiro ta langile izanik, aberats bai ziňan lez.

5.—Autoŕ-entzule on bat autetsi egizu, ta zeure baŕeneko kezka guztiak agertu

berari, osatzaleari zeure gorputzeko miňak adierazotzen dautsazuzan lez.

6.—Eriotz-aldian egin nai izango zeuka, egizu beti.

7.—Pekatu astunpean ez iñoz oeratu. Zoritxaŕez, ofelan auŕkitzen ba-zara, biotz-biotzez esaizu «Jesukristo neure Jauna» zeure pekatu oŕetzaz damuturik.

#### OAR GOMUTAGARIAK

1.—Jauna agirian dagoala bere auŕetik igaro beaŕ dan bakoitzean belaun biekaz eta buru-makuŕtzez agur egin beaŕ yako. Meza-emoŕleak eta abade-laguntzaŕleak belaun batez, Jaun agiriaren auŕean egiten diran elezkizunetan; baňa altaratik sa-kristira naiz emetik altarara datozaŕean, belaun biekaz agurtu beaŕ dabe. Altaran estalduta baldin ba-dago, belaun batez bakaŕik.


2.—Belaun bateko agura egin beaŕ danean; eskoiko belauna luŕeraño jatsi beaŕ da, ezkeŕeko orkatilaren aldamenean gorputza zuzen eukiaz.

Belaun bikoa egin beaŕ danean, lenengo eskoiko belauna ta gero ezkeŕekoa, luŕa

joteraño, jatsi beár dira, ta ondoren bu-  
rrua makurturik, agur egiten da.

3.—*Gloria Patri... «Aintza Aitari...»* esaten danean burua makuútu beaír da. Bardin, Semea ta Espiritu Santua, aintzatuaz, izentetan diranean eta Jesus naiz María'ren izena, eguneko deunarena, naiz Aita Santuaren aitatzen diranean be.

der Jesu Christus und der Heiligen Dreifaltigkeit  
zu Ehren und zum Andenken an die heilige  
Jesu Christus und der Heiligen Dreifaltigkeit  
und der heiligen Maria, der Mutter Jesu Christi,  
die hier auf dem Friedhof bestattet sind.  
Von diesem Kreuz ist ein Abdruck auf  
einem kleinen Stein geschnitten, der  
auf dem Grabstein verarbeitet ist.



## L. OTTOITZA

«Arerioen ekiñaldiaz ez zaitez bildurtu; gure gurasoak zelan azke urten ziran gomutaurik, otegin daigun orain zerura, ta Jauna guzaz eruki-tuko da».

(I MAC, IV a-10),

Otoitz (oraziñoa) bear-beárekoa yaku.

Ao batez irakasten dauskue Jesukristo gure Ira-  
kasle, done edo santu andienak eta gure adimenak  
berak be bai. Beáfezkoa yaku Jaungoikoari zoñ  
dautsagun guítzea emoteko.

Beárezkoa dogu ziltzaldiak (tentaziñoak) garaitzeko: «Itzá-egon eta otoitz-egin, ziltzaldian ez jausteko». (MAT. XXVI).

Beárezkoa dogu pekatu astunaren eriotzatik, iges egiteko: «Argitu nire begiak, ene Jauna, eriotzearen lo zofoan jausi ez nadin». (Ps. 12-4).

Beárezkoa dogu bide zuzenean beti irauteko: «zuzen biziko da otoitz egiten dakiana». (AGUSTIN DEUNAK).

Beafezkoa dogu, azkenez, betiko zoriona irabazteko: «Otoitz egiten ba-dozu zerua irabaziko dozu, bestela galduko zara». (LIGORIO' TAR ALFONSO DEUNAK).

Ofa zegaitik gure liburu santuetan irakuften dogun gau ta egun otoiz-egin bear dogula: «atse-den barik esku ta otoitz egizue, sine intermissione orate». (I TESAL V. 17).

Gure adimenak be orixe adierazten dausku; gauza jakiña da ba, Jaungoikoaren laguntza barik zerurako gai dañ gauzarik ezer be ezin geikel; baña otoitz barik laguntza ori ez yaku emongo. Beraz, otoitz-egitea beaf-beafezkoa dogu.

*Otoitza irabazi andikoa da.*

Otoitzaren bidez eskatzen dogun guztia emongo yaku.

«Eskatu ta emongo yatzue». (MAT. VII-7).

«Eskatzen dauen edonok átuko dau». (8)

«Gizon zuzenaren otoitz, zeruko giltza da: Otoitza igon eta Jaungoikoaren eŕukia jasten da». (AGUSTIN DEUNAK).

«Otoitzak Jaungoiko alguztiduna bera irabazten dau—superat omnipotentem—». (REMÍJIO DEUNAK).

«Otoitzak Jaungoikoaren itzak baño be indaŕ andiagoa dauko». (KRISOSTOMO DEUNAK).

Ona emen, liburu santuetatik aítuta, otoitzaren indaŕ andia erakusten dauskuen jazopen bat edo beste.

Moises'ek Jaunari eskatzen dautso bere Eŕiari parkatu dayola. Jaunak ez dautso entzun nai ta Moises'eri esaten dautso dimille me; baña onek otoitzari daragoyo ta Jauna bere alde irabazten dau.


Elias igaŕleak euririk ez bialtzeko eskatzen dautso Jaunari ta iru urte ta sei ilabetean ez dau euri-rik egingo. Gero, otoitz-egiñaz, euria eskatzen dau ta euria jausten da.

Holofernes, Betulia aítu nairik ebilela, Eliazin abade nagusiak otoitzak egiten ditu, ta otoitzak indaŕtzen dau Juditen besoa Holofernes'i burua ebagiteko.

Paulo ta Silas espetxean (kartzelan) egozala, gauerdian otoitz egiten asten dira, ta bat-batean luŕ-ikara andi bat etoŕirik, kateak austen yakez eta azke gelditzen dira.

Pedro deuna espetxean egoala, kristiňauak otoitz egiten eben, oratio autem fiebat sine intermissione... ta aingeru batek azkatu eben.

Otoitz egizu ba, kristiňaua. Otoitz egizu égunero, otoitz egizu beti. Goiz-aŕatseko otoitzak, batez be, ez itxi iñoz.



## GOIZEKO OTOITZAK

Jaungoikoak egun bafí bat emon dautzu ta zure lenengo eginena, zeure biotz eta begiak zerurantz jasotea izan bedi, astera zoazan egun bafí au Jangoikori oso-osorik eskintzeko. Beraz, jagi ta berealaxe, ur bedeinkatua artu ta kristiñauaren ezaugafía egizu, esanaz:

Gurutze santuaren señaleagaitik geure arerioakandik zaindu gaizuz geure Jaun eta Jaungoikoa.

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

50 eguneko parkamenak egiten dan bakoitzean.  
100 egunekoak ur bedeinkatuaz egin ezkero.

*Esan gero:*

NEURE Jaungoiko maitea: kristiñau onari dagokion lez gura dot gaur bizi. Zure

laguntza-eske natoí orain. Emon egidazu Jesu-Kristo gure Eroslearen biotz-nekezko irabazien bidez. Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Olantxe.

*Siñespen, itxaropen eta maitasun egintzak:*

«Zugan siñesten dot, Jauna, Egi utsa zarealako».

«Zugan daukat neure itxaropena, siñesgafí zarealako».

«Maite zaitut, Jauna, ona zarealako».

(7 urte ta 7 befogeiko parkamenak bakoitzean).

*Jaungoikoaren auréan belaunikaturik agurtu egizu.*

**J**AUNGOIKO Algutzidun eta betikoa, Aita, Seme eta Espiritu Santua, iru notin edo personetan Jaungoiko bakaña zareana! Emen zure aufean auzpazturi, zeruko done ta aingeruekaz batean biotz bañenetik agúrtzen zaitut, ene Egile ta Jaun bakaña Zeu zarealako. *Egiten dauskuzan mesedeakaitik eskerak emon.*

**N**EURO Jaungoiko maitea! Eskaí ugariak damotzudaz egin daustazuzan mesede

zana; inpernuetara jatsi ta irugafen egunean ilen artetik biztu zana; zeruetara igo eta Jaungoiko Aita alguztidunaren eskumaldean jezañita dagoana; andik biziak eta ilak epaitzera etofiko dana. Sinisten dot Espiritu Santua; Eleiza Santu katolikua; santuen alkartasuna, pekatuen parkamena, aragiaren biztuera, betiko bizitzea. Amen.

#### **Jesukristo neure Jauna**

**J**ESUKISTO neure Jauna, Jaungoiko ta gizon egiazkoa, neure Egile ta Salbagilea, zareana zarealako, ta gauza guztiak baño maiteago zaitudalako, damu dot Jauna, damu dot biotz-biotzez, zu iraindua. Asmo sendoa artzen dot ez geyago pekaturik egi teko, Zu irainduteko bide guztietatik alde egin, autortu ta oben-nekea betetako. Amen.

#### **Jesusen Biotzari Otoitza**

(eguneroko lanak eskintzeko)

**N**EURE Jesus maitea! Maria'ren Biotz garbiaren bidez, gauŕko eskari, neke ta egite guztiak eskintzen dautzudaz, egiten yatzuzan iraňen ordez eta zure Biotz santu

óren beste asmu guztietarako. Batez be Apostoladukoai il onetan izentau yaken asmuaren alde.

#### **Andra Maria'ri**

**A**NDRA Maria, neure Ama: oso - osorik eskintzen nayatzu ta neure maitasuna obeto agertzeko, neure begi, bela i, min eta dodan guztia eskintzen dautzut. Zurea naz ba, Ama Efkitsua; zeure gauza ta ogasuna lez, a en, zaindu ta gorde nagizu.

(100 eguneko parkamenak «Agu  Maria» esan ezkerro, goiz eta afatsean).

*Gero, iru «Agu  Maria» esaizuz eta ondoren:*

**Z**URE Sortze garbiagaitik, Andra Maria, neure gorputz-arima garbitu.

(300 eguneko parkamenak).

Iru «Agu  Maria» goiz-afatsetan esatea, santu askok euki daben oitura goragafia da. Ligorio'tar Alfonso deunak, eriotz on baten bidez *zerua irabaziko dauala di o*, goiz-afatsetan iru «Agu  Maria» esaten dituanak.

#### **Jose Deunari**

**G**UZAZ gomutau zadiz, Jose Doatsua, ta zeure otoitzaren bidez Jesus zeure Seme

-ordekoari gure betiko osasuna eskatu egiozu: gure alde imiñi egizu, ařen, zure emazte Birjiña Doatsua, Aita ta Espiritu -Santuagaz gizaldien gizaldietan bizi dan eta agintzen dauan Jesu-Kristoren Ama.  
 (100 eguneko parkamenak).

### Eriotza on bat jaristeko otoitza

«Zorionekoal Jaungoikoa  
besoetan ilten diranak».

**E**NE Jaungoiko maitea: ilgo nazala gauza argia da: noz, non eta zelan ilgo nazan, orixe da ziúr ez dakidana; baña pekatu astunean il ba-nadi, betiko galdua nazala ondo dakit. Maria Birjiña Doatsua, Jaungoikoaren Ama deuna, nire alde otoitz egizu, pekataria naz-ta, orain eta neur eriotz-aldian. Olantxe.

(300 eguneko parkamenak egunean bein).

**Oaña.** (Goizeko otoitz onein ondoren «Gogo -otoitza», labuňtu ba-dabe, egunero egitea, guztiz mesede andikoa izango dozu. Íleko egun bakotxeraako otoizkai edo gogapenak, liburu onen azken aldean idoroko dozuz).

### JESUSEN ARENTZA (letania)

(300 eguneko parkamenak egunean bein)

Kyrie eleison.	Jauna, efuki zakiguz.
Christe eleison.	Kristo, efuki zakiguz.
Kyrie eleison.	Jauna, efuki zakiguz.
Jesu audi nos.	Jesus, entzun gagizuz.
Jesu exaudi nos.	Jesus, ařen entzun gagizuz.
Pater de coelis Deus, miserere nobis.	Zeruko Aita Jaungoikoa, guzaz eruki.
Fili Redemptor mun- di Deus,	Jaungoiko Seme, gi- zonen eroslea,
Spiritus Sancte Deus,	Espíritu-Santu Jaun- goikoa,
Sancta Trinitas unus Deus,	Irutasun deun, Jaun- goiko bakafa,
Jesu Fili Dei vivi,	Jesus, Jaungoiko bi- ziaren Semea,
Jesu splendor Pa- tris,	Jesus, Aitaren edef- tasuna,
Jesu candor lucis æternæ,	Jesus, betiko argia- ren dizdira,
Jesu rex gloriæ,	Jesus, zeruko Eŕegea,
Jesu sol justitiae,	Jesus, zuzentasun -eguzkia,
Jesu Fili Mariæ Virgi- nis,	Jesus, Andra Mariaren Semea,
Jesu amabilis,	Jesus maitagaría,
Jesu admirabilis,	Jesus, guztiz ařigaría,

GUZAZ ERUKI

Jesu Deus fortis,  
 Jesu Pater futuri sæculi,  
 Jesu magni consilii Angele,  
 Jesu potentissime,  
 Jesu patientissime,  
 Jesu obedientissime,  
 Jesu mitis et humilis corde,  
 Jesu amator castitatis,  
 Jesu amator noster,  
 Jesu Deus pacis,  
 Jesu auctor vitæ,  
 Jesu exemplar virtutum,  
 Jesu zelator animarum,  
 Jesu Deus noster,  
 Jesu refugium nostrum,  
 Jesu pater pauperum,  
 Jesu thesaure fideliūm,  
 Jesu bone pastor,  
 Jesu lux vera,  
 Jesu sapientia æterna,  
 Jesu bonitas infinita,

## MISERERE NOBIS

Jesus, Jaungoiko indartsua,  
 Jesus, aldi etorkizunaren Aita,  
 Jesus, aolku andiko aingerua,  
 Jesus, guztiz altsua,  
 Jesus, osoro jasankofa,  
 Jesus, guztiz esane-ko,  
 Jesus, biotzez otzan eta apala,  
 Jesus, garbitasun-za-lea,  
 Jesus, gure maitalea,  
 Jesus, Jainko baketsua,  
 Jesus, bizitzaren Egilea,  
 Jesus, onoimenen eredua,  
 Jesus, arimen ardu-raduna,  
 Jesus, geure Jaungoikoa,  
 Jesus, geure igeslekua,  
 Jesus, txiroen Aita,  
 Jesus, zintzoen aberastasuna,  
 Jesus, Artzain ona,  
 Jesus, egiazko argia,  
 Jesus, jakituri betikoa,  
 Jesus amaibako ontasuna,

## GUZAZ ERÚKI

Jesu via et vita nostra,  
 Jesu gaudium angelorum,  
 Jesu rex Patriarcharum,  
 Jesu magister Apostolorum,  
 Jesu doctor Evangelistarum,  
 Jesu fortitudo Martyrum,  
 Jesu lumen Confessorum,  
 Jesu puritas Virginum,  
 Jesu corona Sanctorum omnium,  
 Propitius esto, parce nobis Jesu,  
 Propitius esto, exaudi nos Jesu.  
 Ab omni malo, libera nos Jesu.  
 Ab omni peccato,  
 Ab ira tua,  
 Ab insidiis diaboli,  
 A spiritu fornicationis,  
 A morte perpetua,  
 A neglectu inspirationum tuarum,

## MISERERE NOBIS

Jesus, gure bide ta bizia,  
 Jesus, aingeruen poza,  
 Jesus, Erkaben Erefgea,  
 Jesus, apostoluen Irakaslea,  
 Jesus, Ebangelisten Adiraslea,  
 Jesus, Ziñopen(Martirien) indaŕa,  
 Jesus, Autorleen argia,  
 Jesus, Birjiñen garbitasuna,  
 Jesus, Santu guztiengi burestuna (koroya),  
 Onbera zakiguz, parkatu eiguzu, Jesus.  
 Onbera zakiguz, entzun gagizuz, Jesus.  
 Gatz guztiatik, jagon gagizuz, Jesus.  
 Oben (pekatu) guztiatik,  
 Zure asefetik,  
 Deabruaren maltzurkerietatik,  
 Lizun-zalekeritik,  
 Betiko eriotzatik,  
 Zeure goi-argien zarkeritik,

## LIBERA NOS JESU

## JAGON GAIZUZ JESUS

Per mysterium sanctae Incarnationis tuæ,  
Per nativitatem tuam,  
Per infantiam tuam,  
Per divinissiman vitam tuam,  
Per labores tuos,  
Per agoniam et passionem tuam,  
Per crucem et derectionem tuam,  
Per languores tuos,  
Per mortem et sepulturam tuam,  
Per resurrectionem tuam,  
Per ascensionem tuam,  
Per Sanctissimæ Eucharistiae institutionem tuam,  
Per gaudia tua,  
Per gloriam tuam,

Agnus Dei qui tollis peccata mundi, parce nobis Jesu.

LIBERA NOS JESU

Zeure Gizakunde santuagaitik,  
Zeure Jayotzagaitik,  
Zeure Umezaroagaitik,  
Zeure bizitza guztiz jaungoikozaagaitik,  
Zeure nekeakaitik,  
Zeure eriotz-larfi ta nekaldiagaitik,  
Zeure gurutze ta bakaftadeagaitik,  
Zeure zauriakaitik,  
Zeure eriotza ta obiratzeagaitik,  
Zeure befbizkundeagaitik,  
Zeure Igokundeagaitik,  
Altarako Sakramentu guztiz deunaren zeure iraskundeagaitik,  
Zeure atsegin-pozakaitik,  
Zeure zeruko zorionagaitik,  
Gizonen obenak kentzen dozuzan Jainkoaren Bildotsa, parkatu egiguzu, Jesus.

JAGON GAIKIZ JESUS

Agnus Dei qui tollis peccata mundi, exaudi nos Jesu.

Agnus Dei qui tollis peccata mundi, miserere nobis Jesu.

Jesu, audi nos.  
Jesu, exaudi nos.

*Oremus*

Domine Jesu Christe qui dixisti: petite et accipietis, querite et invenietis, pulsate et aperietur vobis: quæsumus: da nobis petentibus, divinissimi tui amoris affectum, ut te toto corde, ore et opere diligamus; et a te nunquam laude cesemus.

Sancti nominis tui, Domine, timorem pariter et amorem fac nos habere perpetuum, quia nunquam tua gubernatione destituis, quos in

Gizonen obenak kentzen dozuzan Jainkoaren Bildotsa, entzun gagizuz, Jesus.

Gizonen obenak kentzen dozuzan Jainkoaren Bildotsa, eriki zakiguz, Jesus.

Jesus, entzun gagizuz.  
Jesus, afen entzun gagizuz.

*Otoitza*

Eskatu ta ártuko dozue, bilatu ta aufkituko dozue, bultzau ta idegiko yatzue» esan zeban Jesukristo geure Jauna; afen, eskatzen dautzugunoi zeure maitasun laztan - laztana emoiguzu, biotz osoz, itzez eta egitez maitatu zaiguzan eta Zu goratzeari, iñoz gelditu barik, beti ekin dayogun.

Zeure izen santuagazko bildu eta maitasun betikoa aí-erazo eigu zu, zeure maitasunean sendoro ipinten dozuzanak laguntza barik

soliditate tuæ dilectionis instituuis.

Qui vivis et regnas in sæcula sæculorum. Amen.

iñoz ez dozuz izten -eta.

Gizaldien gizaldietan bizi zarean eta agintzen dozun Jaun oék. Olan-txe.

### AINGERUEN OTOITZA (Angelus)

(100 eguneko parkamenak egunean bein)

Gure aufetiko agurgañiak, euskaldun asaba zaírak, beste oitura ederí askoren artean, «Angelus» esateko ekandu goragafi au be baetuken. Eleiz-tofe zafetik jasten zan joalearen (kanpayaren) abots lodia entzun beizen lasteí, asitako lanak itxita, txapela eskuan áiturik, guztiak, zafak eta gazteak, guraso ta umeak, «Angelus» esaten eben. Eta bardin, pelota-tokietan jolasean ebiltzanak be, bat-batean izten eben euren jokoak, «Andra Maria» aguítzeko. Euskaldun biotzekoak, geure jayoterí ederí au maite dogunok, ez daigun galtzen itxi onako oitura ederí eta garbia.

**ANGELUS Domini  
nuntiavit Mariæ**

R. Et concepit de  
Spiritu Sancto.

*Ave Maria...*

**J AUNAREN aingeruak Mariari iragañi eutsan.**

R. Eta Spiritu  
Santuaren egitez  
sortu eban.

*Aguí María...*

¶. Ecce ancilla Domini

R. Fiat mihi secundum verbum tuum. *Ave María...*

¶. Et verbum caro factum est

R. Et habitavit in nobis.

*Ave María...*

¶. Ora pro nobis Sancta Dei Genitrix

R. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

**Oremus**

Gratiam tuam,  
quæsumus, Domine,  
mentibus nos-  
tris infunde, ut qui  
Angelo nuntiante,  
Christi Filii tui in-

¶. Ona emen  
Jaunaren mirabea:

R. Zeuk diño-  
zun lez egin bekit.  
*Aguí María...*

¶. Eta Jaungoi-  
ko - Semea gizatu  
zan:

R. Eta gure aŕ-  
tean bizi izan zan.

*Aguí María...*

¶. Gure alde  
otoitz-egizu Jaun-  
goikoaren Ama do-  
ne oék:

R. Jesukristoren  
agintzariak jadetsi  
daikeguzan.

**Otoitza**

Ixuri egizu, afen,  
Jauna, gure biotze-  
tan zure grazia, Je-  
sukristo zure Se-  
mearen Gizakun-  
dea, Aingeruaren

carnationem cog-  
novimus per pas-  
sionem ejus et  
crucem, ad Resur-  
rectionis gloriam  
perducamur.

Per eum dem  
Christum Domi-  
num nostrum.

Amen.

*Aingeru-otoitz* au egunoro iru bidaí esaten da  
goiz, eguerdi ta afatsean, joalearen otsa entzuten  
danean.

Berbizkunde-aldian (Pasko-aldian) onen urengo  
doan «Regina coeli» esaten da. (Zapatu-guren eguna-  
tik, Pentekoste ondorengo larunbat eguerdi-  
rarte).

*Aingeru-otoitz* au geyenez belauniko esan beá  
ða; bañia larunbat-afatsalde ta igande edo domeke-  
tan, zutunik.

«Regina celi», zutunik beti.

### PAZKO ALDIRAKO

*Regina celi*  
(100 eguneko parkamenak,  
egunean bein).

**R**EGINA coeli læ-  
taré,  
Alleluia.

esanaz ezagutu gen-  
duanok, aren ne-  
kaldi ta Gurutzea-  
ren bidez biztuera  
aintzatsura eldu  
gaitezan: Geure  
Jaun Jesukristo ber-  
beraren bidez.

Olantxe.

*Al-*

*Resurrexit sicut*

*dixit,*

*Alleluia.*

Quia quem meruis-  
ti portare,

*Alleluia.*

Resurrexit sicut  
dixit,

*Alleluia.*

Ora pro nobis  
Deum,

*Alleluia.*

v. Gaude et lætare,  
Virgo Maria,

*Alleluia.*

¶. Quia surrexit  
Dominus vere,

*Alleluia.*

### Oremus

Deus, qui, per  
resurrectionem Filii  
tui, Domini nostri  
Jesu-Christi, mun-  
dum lætificare dig-  
natus es: præsta  
quæsumus, ut per  
eius Genitricem

Zuk zabelean eroan  
zenduana:

*Goretsi Jauna.*

Esan eban lez be-  
rribiztu zan:

*Goretsi Jauna.*

Jaungoikoari gure  
alde eskatu egiozu:

*Goretsi Jauna.*

y. Poztu ta alaitu  
zaitez Birjiña

Maria:

*Goretsi Jauna.*

¶. Jauna ziñez be-  
rribiztu da-ta:

*Goretsi Jauna.*

### Otoitza

Jesu-Kristo zeure  
Semearen berbiz-  
kundeaz luía poztu  
zeban, ene Jaungoi-  
koa; ařen eskatzen  
dautzugu, Andra  
Maria bere Amaren  
bidez, amaibako bi-

Virginem Mariam,  
perpetuæ capiamus  
gaudia vitæ.

Per eundem  
Christum Domi-  
num nostrum.

Amen.

*zitzaren poza jadetsi daigun.*

Jesu-Kristo geure Jaun berberagaitik.

Olantxe.

# JAN AURÉ TA OSTERAKO OTOITZAK

### Aurerako:

## «Aitaren eta Semearen...

*Gero aitak edo amak esan begi: Bedeinkatu gagizuz, Jaun oék, eta zeure eskutik aítu doguzan janari oneik be bardin bedeinkatu egizuz.*

*Aita qurea... Agur María... Aintza.*

Zeruko érge andiak, ango mayan aítu gaizala. Olantxe.

Jan osterako:

## «Aitaren»

Eskefak zuri, zeure mesede guztiakaitik, gizaldien gizaldietan bizi zarean eta agintzen dozun Jaungoiko Alguztidun ofi.

Aita gurea...

Jaungoikoak bere bakea emon daigula.  
Baita betiko bizitzea be.

## EGUN BITARTERAKO OTOITZ LABURTXUAK

### *Jaungoikoari:*

Aintza Aitari ta Semeari ta Espiritu Santuari. Len lez orain, beti ta amaibako egunetan. Olantxe.

(100 parkamen-egunak egunoro, iru bidaia esanaz).

Onetsia (bedeinkatua) izan bedi Jaungoikoa.

(50 parkamen-egunak, biraua entzundakoan esanaz).

### *Neure Jaungoiko ta guzti-guztia.*

(50 parkamen-egunak bakoitzean).

Neure Jaungoiko ta ondasun bakaŕa, neurea zara bete-betean: zeurea osorik nai dot izan.

(300 eguneko parkamenak bakoitzean).

### *Jesusen izenari*

*Jesus.*

(25 eguneko parkamenak).

### *Jesus, Dabid'en Semea, nizaz eŕuki.*

(100 eguneko parkamenak egunoro).

Jesus, neure Jaungoikoa, beste ezer baño maiteago zaitut.

(50 eguneko parkamenak, egunero).

### *O neure Jesus, eŕuki zakidaz.*

(100 eguneko parkamenak, egunero).

### *Jesusen Biotzari*

Jesusen Biotz guztiz santua; betorkigu zure agintza edo eŕeñua.

Jesus, biotzez otzan eta apala, egizu nire biotz au zeure oŕen antzekoa.

Jesusen Biotz guztiz deuna: zugan daukat itxaropena.

Jesusen Biotz santua: siñesten dot mai-te nozula.

Jesusen Biotz guztiz santua, guztia Zugaítik.

Onetsia Sakramentuko Jesusen Biotz guztiz deuna.

Neure Jesusen Biotz eztitsua, maite zaidala beti geyago.

Onetsia izan bedi orain eta beti Jesus gure Jaunaren Biotz oso maitakóra eta txit gozoa, ta bardin Maria bere Ama maitearena be.

(300 eguneko parkamenak, esaten dan bakotxean).

Maitatua izan bedi alde guzietan Jesusen Biotz guztiz deuna.

(100 eguneko parkamenak, egunean bein).

Jesusen Biotza, gure maitasunez iraze-gia; sutau gure biotzak zeure maitasun-ean.

(100 eguneko parkamenak, egunean bein).

Jesus neure Jaungoikoa, beste ezer baño maiteago zaitut.

(50 eguneko parkamenak, egunero).

O neure Jesus, eŕuki zakidaz.

(100 eguneko parkamenak, egunero).

Aintza, maitasun eta eskar-onaa Jesusen Biotz aguǵafiarri.

(100 eguneko parkamenak).

Jesusen Biotz eztitsua, izan zaitez nire maitasuna.

(300 eguneko parkamenak).

*Jesus, Jose ta Maria'ri*

*Jesus, Maria, Jose.*

(7 urte ta 7 befogeiko parkamenak).

*Jesus, Maria.*

(300 eguneko parkamenak).

Jesus, Maria, Jose, argitu, lagundu ta gaizkatu edo salbau gagizuez.

(100 egun.)

Jesus, Jose, Maria, zuentzat neure biotz eta gogoa.

(100 egun.)

Jesus, Jose, Maria, lagundu nagizue eriotz aldi laŕian.

(100 egun.)

Jesus, Jose, Maria, zuen alkartasunean il nai dot.

(100 egun.)

Jesus, Jose, Maria, bedeinkatu gagizuez orain eta eriotz-aldian.

(50 egun.)

*Andra Maria'ri*

Onetsia izan bedi Maria. Jaungoikoaren Ama guztiz doatsuaren orbanbak Soŕkunde santua.

(300 egun, egunean bein).

Maria, gure itxaropena, guzaz eŕukitu.

(300 egun, egunean bein).

Jaungoikoaren Ama Maria, Ama eŕukioŕa, gure ta il diranen alde otoitz-egizu.

(100 egun, egunean bein).

Maria, Jaungoikoaren Ama ta gurea,  
Jesus'en Biotzari zeuk gure alde eskatu  
egiozu, zure Seme ta gure anai da-ta.

(100 egun., egunean bein).

Mariaren Biotz eztitsua, gure gaizkapena  
(salbazíñoa) izan zaitez.

(300 egun.)

Jesusen Biotzaren Andra Maria, gure  
alde eskatu.

(100 egun.)

Lurdes'ko Andra Maria, gure alde es-  
katu.

(300 egun.)

Maitasun, naibage ta erukiaren Ama,  
gure alde eskatu.

(300 egun.)

Andra Maria atsekabetua, kristiñau guz-  
tien Ama, guretzat eskatu.

(300 egun.)

Neure Ama ta Jabea, gogoratu zeurea  
nazala; zaindu ta jagon nagizu zeure gau-  
za ta ogasun lez.

(40 egun., ziltzaldi edo tentaziñoan esanda).

*Ordua joten dauanean, esan:*

Aguí María guztiz garbia  
Jatofizko orban barik sortua.

*Lana asteko:*

Jauna, lan au eskintzen dautzut,  
Aren, onetsi (bedeinkatu) egizu.

*Ziltzaldian (tentaziñoan):*

Andra Maria neure Ama ona, zeure ma-  
galpera natoí, arerioa ni galdu nairik da-  
bil-ta.

*Kanpayak joten dauanean, esan:*


Aita betikoa: Jesukristoren odol guztiz  
guúrgaria eskintzen dautzut neure peka-  
tuen ordañez ta Eleiza Amaren beárizene-  
tarako.

(100 eguneko parkamenak).

*Meza entzuteko garayan, esan:*

Jauna: eriotz-aldian dagozan eta gauí  
ilgo diran pekatarien aldez, gauíko egun-  
ez emongo diran meza guztiak eskintzen  
dautzudaz. Jesus gure Beéreroslearen Odol  
bikaña eruki bekioe.

(Aldiro 300 eguneko parkamenak).



## AÑATSEKO OTOITZAK

Kurutze santuaren... Aitaren...

Belaunikatu zaitez gurutze baten aúrean eta esaizu:

Neure Jaun eta Jaungoiko maite ori: Sendoro siñesten zaitut eta neure itxadona zeugan daukat: biotzez guýtzen zaitudan Jaun ori, beste ezer baño maiteago zaitut: baña ¿zelan ordainduko dautzudaz Zuk egindako mesedea, batez be bizia ta Bataioa emon daustazuzalako eta gaur áfte bizirik jagon nozulako? Emoidazu, Jesus maite, gaurko neure utsegiteak ikus-teko argia, biotzez goþotau dagidazan.

Zeure bañena pizka bat aztertu egizu, zetan jausi zarean igasi daizun.

Ona emen zelan:

### Jainkoagazko utsegiteak

Goiz - aratseko otoitzak egin dozuz? Zelan? Otoitz - aufetik biotza Jaunaganantz jaso ete-dozu? Mezea entzun dozu? Zelan? Alde batera ta bestera begira... izketan... bafez? (Bear ba-da ez yatzu burrura etoñi Jauna altaran egoanik be, eta ez dozu Jaunaren auñean obea izateko asmorik be artu: onetan igañiko dozu zeure otoitzetan nagi-epela egon zarean ala ez).

### Geidearen kaltekoak

¿Guraso edo nagusiekaz lotsabako ager-tu ete-zara? erantzuer atxaík emon ete dautsezu, euren agintzak ez dozuzala beteko esan...? (Oker au zuzentzeko, gogoratu beti, nagusiak eta, batez be, gurasoak, Jaungoikoaren ordezkoak dirala).

¿Zeure seme, otsein edo moþoyai ikas-bide txañik emon ete-dautsezu? Norbaitez txarto-esaka ibili? ¿Guzufik esan dozu? Zenbat?... kaltegañiak ete?

### Zeure buruaren kaltekoak

¿Norbaitegaz asaÑatu zara? Gatzik edo eriotzarik opa izan dautsazu? Goñotorik

gorde? Bekaizkeri edo inbidiarik izan? ge-yegi jan-edan ete-dozu? Garbitasunaren kaltezko zerbait egin, autu edo izketa nasaiz, begiraka edo ikutze lotsagabez, liburu txar edo arintxuak irakuñiz...?

### **Zeure beste eginbeaŕak**

¿Zelan bete dozuz? Zeure lanetan Jaungoikoagaz gomutau zara? Bere laguntza eskatu dautsazu, batez be naibage ta laŕi-aldietan?

(Gai guzti oneik astiro ta luzaro begiratzea ez da beafezkoa; baña bai guztiz onuratsua uŕengo gauza biok ikustea).

1.—Pekatu edo utsegite oneitan ćzein ete-da geyen maite dozuna? ćzeñetan saŕien jausten zara, ori beste guztien gaňetik goŕotau dagizuntzat?

2.—Utsegite edo okeŕ onein artean, andienak txikiagoetatik berezi egizuz, aek lenen kendu daizuzan zeure biotzetik.

Utsegite guztien parkamena Jaungoikoari biotz-biotzez eskatu esanaz:

Jesukristo neure Jauna... (Ikus. 40 ofial-dean).

*Andra Maria'ri.*

(Sub tuum præsidium...)

**Z**URE ardurapean jaŕten gara, Jaungoikoaren Ama Deuna: gure eskariak entzun egizuz, aŕen, geure beaŕízenetan, eta galbide guztietatik gorde gaizuz beti, Ama garbi, goragaŕi ta bedeinkatu ofek.

(100 egun., egunean bein).

*Tru Agúr María... goizean lez.*

Jesus, María ta Jose  
Bedeinkatu nagizue  
Orain eta eriotz-laŕian.

(50 egun., bakotxean).

*Garbitokiko arimai.*

**A**ŽKENBAKO atsedena emoiezua, Jauna, eta betiko Argiak argi begioe.

(50 egun., egumero).

Maria, Jaungoikoaren Ama eŕukiora, gure ta ildakoen alde eskatu, aŕen.

(100 egun., egumero).

*Aingeru Jagoleari.*

**S**ORTU nintzanetik Jaunak neure laguntzat emondako Aingeru Santu ofek, argitu, zaindu ta lagundi nagizu. Olantxe.

## ANDRA MARIA'REN AÑENTZA

(300 eguneko parkamenak, bakoitzean. Andra Maria'ren bost jai nagusienetan, parkamen osoa).

Andra María'ren Añentza, kristiñauok Berari zuzentzen dautsagun otoitzik edeñenetaikoa da. Díñoenez, Loreto'n esan zan lenengoz eta orain agertzen dan lez Buenabentura deunak atondu eban, edo beintzat antxiña-antxiñatik datoñ. «Kristiñauen laguntza» díñoan eskaria, 1511'gáñen urtean kristiñauak turkotañen auñka irabazi eben garaitza goratzeko ipiñia da. «Jatofizko orban barik soñtutiko Eñegiña» Pio IX'gáñenak erantsi eutsan, Maria orbane soñtu zala erabagi ebanean. «Aguñta santuaren Eñegiña» Leon XIII'gáñenaren aginduz geitua da.

Guztiz osasungarri da añentza au, naiz gorputz naiz arimarentzat: izuñi, lur-ikara... ta beste gatx-okeñ guztietan. Aita Santu Gregorio Andiak, añentza onen bidez betiko uñandu eban Eñoma ondatzten asi zan izuñi zitala.

Asikeran: Maria'ri Ama deritxogunean, Jaungoikoaganako zer dan adirazten dogu, esanaz: Jaungoikoaren Ama dala, Ama guztiz garbia.

Uñengo: BIRJIÑA deritxogunean, onoimen guztien eredu edeñea dala guretzat autoñten dogu: Birjiña eñukioña, Jaungoikoaren jañleku...

Azkenean: Zerutauñ guztien Eñegiñen izenaz agurtxten dogu: «Aingeruen Eñegiña...»

Kyrie eleison.	Jauna, eñuki zakiguz.
Christe eleison.	Kristo, eñuki zakiguz.
Kyrie eleison.	Jauna, eñuki zakiguz.
Christe audi nos.	Kristo, entzun gagizuz.
Christe exaudi nos.	Kristo, añen entzun gagizuz.
Pater de cœlis Deus, miserere nobis.	Zeruko Aita Jaungoiko, guzaz eñuki.
Fili Redemptor mundi Deus, miserere nobis.	Jaungoikoaren Seme, gi-zonen Beñeroslea, guzaz eñuki.
Spiritus Sancte Deus, miserere nobis.	Espiritu Santu Jaungoiko, guzaz eñuki.
Sancta Trinitas unus Deus, miserere nobis.	Irutasun de una, Jaungoiko bakaña, guzaz eñuki.
Sancta Maria, ora pro nobis.	Maria Deuna, gure alde eskatu.
Sancta Dei Genitrix,	Jaungoikoaren Ama
Sancta Virgo Virgi-num,	deuna,
Mater Christi,	Birjiñen-Birjiña deu-na,
Mater Divinæ gratiæ,	Kristoren Ama,
Mater purissima,	Jaungoikozko es-kañaren Ama,
Mater castissima,	Ama gañbi-gañbia,
Mater inviolata,	Ama eñubagea,
Mater intemerata,	Ama kutsubagea,
Mater inmaculata,	Ama ofbanbagea,
Mater amabilis,	Ama soñtzez gañbia,
Mater admirabilis,	Ama maitagafria,
	Ama miragafria,

GURE ALDE ESKATU

Mater boni consilii,  
Mater Creatoris,  
Mater Salvatoris,  
Virgo prudentissima,  
Virgo veneranda,  
Virgo prædicanda,  
Virgo potens,  
Virgo clemens,  
Virgo fidelis,  
Spéculum justitiae,  
Sedes Sapiéntiae,  
Causa nostræ latitiae,  
Vas spirituale,  
Vas honorabile,  
Vas insigne devotio-  
nis,  
Rosa mística,  
Turris Davidica,  
Turris eburnea,  
Domus aurea,  
Foederis arca,  
Jauna cœli,  
Stella matutina,  
Salus infirmorum,  
Refugium peccatorum,  
Consolatrix afflito-  
rum,  
Auxilium christiano-  
rum,  
Regina Angelorum,  
Regina Patriarcharum,  
Regina Prophetarum,

## ORA PRO NOBIS

Aolku onaren Ama,  
Egiñearen Ama,  
Eroslearen Ama,  
Biřjīña guztiz zufa,  
Biřjīña gurgañia,  
Biřjīña goragañia,  
Biřjīña altsua,  
Biřjīña efukioña,  
Biřjīña zintzoa,  
Zuzentasun-isplua,  
Yakituriaren jaflekua,  
Gure pozaren itufia,  
Gogozko ontzia,  
Ontzi omengaña,  
Eraspen-ontzi ospe-  
tsua,  
Lařosa miragañia,  
Dabiden tofea,  
Marfilezko tofea,  
Ufiezko etxea,  
Alkartasun-kutxa,  
Zeruko atea,  
Goizeko izaña,  
Geizozen osasuna,  
Pekatarien babesia,  
Atsekabetuen poz-  
gilea,  
Kristauen laguntza,  
Aingeruen Eřegiňa,  
Efkaben Eřegiňa,  
Igařleen Eřegiňa,

## GURE ALDE ESKATU

Regina Apostolo-  
rum,  
Regina Martyrum,  
**ORA PRO NOBIS**  
Regina Confessorum,  
Regina Virginum,  
Regina Sanctorum  
omnium,  
Regina sine labe ori-  
ginali concepta,  
Regina sacratissimi  
Rosarii,  
Regina pacis,  
Agnus Dei qui tollis  
peccata mundi,  
*parce nobis Domine.*  
Agnus Dei qui tollis  
peccata mundi,  
*exaudi nos Domine.*  
Agnus Dei qui tollis  
peccata mundi,  
*miserere nobis.*

¶. Ora pro nobis Sancta Dei Genitrix:

¶. Ut digni efficiamur  
promissionibus  
Christi.

Bidalien (apostoluen)  
Eřegiňa,  
Ziňopen (martirien)  
Eřegiňa,  
Autořleen Eřegiňa,  
Biřjīnen Eřegiňa,  
Deun guztien Eřegi-  
ňa,  
Jatořizko ofban ba-  
rik sořturiko Eře-  
giňa,  
Aguńtza guztiz deu-  
naren Eřegiňa,  
Bakearen Eřegiňa,  
Jaungoikoaren Bildotsa,  
gizonen pekatuak  
kentzen dozuzana,  
parkatu eiguzu, Jauna.  
Jaungoikoaren Bildotsa,  
gizonen pekatuak  
kentzen dozuzana,  
eřuki zakiguz, Jauna.  
Jaungoikoaren Bildotsa,  
gizonen pekatuak  
kentzen dozuzana,  
eřuki zakiguz, Jauna.  
¶. Otoitz egizu gure  
alde Jaungoikoaren  
Ama done ofek:  
¶. Jesukristoren agin-  
tzariak jadetsi daike-  
guzan.

*Oremus*

Gratiā tuām, quāsumus Domine, mentibus nostris infunde, ut qui Angelo nuntiante, Christi Filii tui incarnationem cognovimus, per passionem ejus et crucem, ad Resurrectionis gloriam perducamur.

Per eundem Christum Dominum nostrum. Amen.

**DE PROFUNDIS**

(Ildakoen alde esan oi dan otoitz)

- 1) De profundis clamavi ad te, Domine. Domine exaudi vocem meam.
- 2) Fiant aures tuæ intendentes, in vocem deprecationis meæ.
- 3) Si iniquitates, observaveris Do-

*Otoitza*

Ixuri egizu, ařen, Jauna, gure biotzetañ zeure grazia, Jesukristo zure Semearen Gizakundea, Aingeruaren esanaz, ezagutu genduanok, bere nekaldi ta gurutzearren bidez, beþizkunde aintzatsura eldu gaitezan; gure Jaun Jesukristo berberagaitik.

Olantxe.

mine ¿Domine quis sustinebit?

4) Quia apud te propitiatio est, et propter legem tuam sustinui te Domine.

5) Sustinuit anima mea in verbo ejus: speravit anima mea in Domino.

6) A custodia matutina usque ad noctem, speret Israel in Domino.

7) Quia apud Dominum misericordia et copiosa apud eum redemptio.

8) Et ipse redimet Israel, ex omnibus iniquitatibus ejus.

teftu ba-dagizuz, czure auþean noř legoke, Jauna?

4) Baña zu, Jaun ori, biotz - bera zara -ta, zeure legea dala bide, Zeugan daukat neuritxadona.

5) Nire gogoak Jauñaren agintzetan dauko bere ustea eta Jaungoikoagan ipiñi dau bere itxadona.

6) Egunabaetik aratseraño Israelek Jaungoikoagan itxaron begi.

7) Jaungoikoa oso erukioña dalako ta bere parkapena guztiz ugaria.

8) Eta Berak azkatzuko dau Israel beronen gaiztakeri guzti-guztietatik.

v. Requiem aeternam dona eis Domine.

R. Et lux perpetua luceat eis.

v. Requiescant in pace.

R. Amen.

### Oremus

Fidelium Deus omnium Conditor et Redemptor, animabus famulorum famularumque tuarum remissionem cunctorum tribue peccatorum, ut indulgentiam quam semper optaverunt, piis supplicationibus consequantur.

Qui vivis et regnas in saecula saeculorum.

Amen.

v. Azkenbako atsedena emoiez, Jauna.

R. Eta betiko argiak argi begioe.

v. Bakean begoz.

R. Olantxe.

### Otoitza

Kristiñau guztien Egile ta Beñerosle zarean Jauna, zeure jaŕaitzale gizon -emakumen arimai euren pekatu guztien parkapena emoiez, beti opaizan daben parkapen ori, otoitz eŕuksitu onein bidez, jadetsi dagientzat. Beti ta beti bizi zarean eta agintzen dozun Jaun oŕek.

Olantxe.



## II. AUTÓRTZA

Lufeán lotuko dozun guztia, izango da zeruan be, eta lufeán askatuko dozun guztia, askatua izango da zeruan. (MAT. XVI-19).

Jaungoikoiari zoŕ dautsazu, ene kristiñaua, zeure gaiztakeriak betiko itxi eutzen zeruko atea, baŕiro idegiko dautzun uŕezko giltza: autoŕta edo konpeziñoa. Bere eŕukiaren eskaŕik andienetakoa dozu. Zeure bidegabekeriak autoŕtza abadeagana ezpa'zoaz, galdua, zoritxáreko zara betiko: abadeak askatzen dauana, ori bakaŕik izango da askatua zeruan. Ez, zerurako ez dago beste biderik, ez dago beste saŕerarik: edo autoŕta edo betiko ondamena.

Autoŕtzak, ba:

1.—Zeure oben edo pekatuak paŕkatuko dautzuz.

2.—«Graziaren» bizi edeŕa baŕiro emongo dautzuz.

3.—Auérantzerako indaŕ baŕiak ekaŕiko dautzuz.

Gauza andia da, ziñez, deabruaren atzamafetaktik atera ta Jaungoikoaren besoetara biurtzen gaituan Sakramentua: *Autoítza*.

Baña autoíkuntza on bat egiteko, ondo geŕtu beaŕ zara lenago eta oíetarako lagunduko dautzuen neuri batzuk ártu bear dozuz.

Ona emen eginbeaŕik nagusienak:

- 1.—Baŕena azteŕtu edo begiratu.
- 2.—Biotzeko damua soŕtu.
- 3.—Asmo baŕi sendo bat ártu.
- 4.—Obenak autoítu.
- 5.—Oben-nekea (penitentzia) bete.

### AZTERKETA.

Ondo autoítu nai ba-dozu, zeure baŕen ori azteŕtu edo begiratu egizu, zetan uts-egin dozun eta zenbat bidar jausi zarean ezagutzeko: pekatu astunak (ezeze) zenbat bidaŕ egin diran autoítza be beaŕa da-ta. Baŕena azteŕtza *pekatu astunpean ajiatzen* yakun egiñena da; baña ez geyegi nekatu, sakramento ori neketsua egiteraño.

Dakizuna esan, dakizun lez, eta zeure oben guztiak obeto ezagutu nai ba-dozuz, nondik datofkizuzan be azteŕtu egizu: au edo beste pekatura zek zaroazan: afokeriala ala guzuŕezko bildufak, nagi-keriak ala aiskitasun txaŕen batek.... sustraya kendu ezkerro, zugatzak aufki luŕa joko dau. (Azterketa egiteko bidea gerotxuago daukazu).

### DAMUA.

1.—Egindako pekatuen atsekabe ta gófto da: *maitasunezko* ta *bildurézko* izan daiteke. Lenengoa Jaungoikoagazko maitasunak soŕtu doroa gure biotzetan: bigaŕena impeŕnuaren bilduréak batez be. Lenengoa askozaz be edeŕagoa dala zetan esan be ez da; bere bidez geure pekatuak, autoítu baño be lenago parkatzen yakuz, baldin benetako damua ba-da, gero autoítzeko asmuz. Beraz, kristiñaua, pekatu astunen haten jausi ba-zadiz zoritxaŕez, benetako biotz-damua agertu egiozu Jaungoikoari, «Jesukristo neure Jauna» edo «Ni pekataria» esanaz, eta gero zoaz lenbailen autortzera.

2.—Damuak, benetakoia izango ba-da, zerutikoa beaŕ dau izan, au da, Jaungoikoaren laguntzaz sortua. Gizonaren argaltasun andia emen agiri da; berez, bere indaŕez, Jaungoikoa itxi daike; baña gero alperík egingo ditu egiñal guztiak Jaungoikoagana biotzeko, Jaunak berak laguntzen ezpa’dau. Emen-dik ikaskizun edeŕ-edeŕ bi atera daigekuz.

**LENENGOA.**—Pekatuari bildur-ikara andia artu bear dautsagula: «*Garaya elduko da* (diñosku Jaunak) *eta nire bila ibiliko zarie, baña alperík, orduan ez nozue aurkituko-ta*».

**BIGARRENA.** 1.—Benetako damua Jaungoikoak emon beaŕ dauskun ezkerro, Berari eskatu beaŕ dautsagula, begirakun gozo baten bidez Pedro ikutu eban lez, gure biotza be ikutu dagian.

2.—Benetako damuak *biotzean erne ta jayo bear* dau. Pekatu góftoatzen ezpa-dogu, alperík esango dautsagu Jaungoikoari: «*Damu dot*». Orelan gu-

zurézko damua agertzen dautsagu. Benetako damua biotzekoa da, ta ez mingain edo aozkoa. *Cor autem ejus longe est a me.* (ISAÍ. XXIX-13).

Pekatu guztietara zabaltzen dana, guzti-guztiak goñotau beaŕ doguz-ta.

Azkenez, *gaitz guztien gañetikoa*. Onek esan nai dau pekatu bakaŕ bat baño edozein okeŕ naiz kalte nayago izan beaŕ dogula.

3.—Baña damua zer dan azaltzea, bera biotz bañeanen softzea baño askoz efezago da-ta, ona emen, obeto prestau zaitezan, *bide oso egoki ta eŕeza*:

Irudimenaren indaŕez, zoaz lenen inpeŕnura. Jatsu zaitez arako leza baltz, ilun aretarra... deabruak antxe erakutsiko dautzu zeure pekatuakaz irabazi dozun tokia, ta entzungo dozu diñotzula: «betiko emen ez egotea Jaunaren efukiari zoŕ dautsazu.»

Gero, zerura igon zaitez. Begira jauregi edeŕ, apain aretan Jaungoikoak zuretzat aukeratuta eukan uŕezko aulkia. Antxe «eŕegeak baño apaňago diran» santuekaz zeukan zeure tokia; baña pektuaren bidez galdu dozu.

Azkenez, zeure begiak Kalbario-mendira itzuli. Begira antxe Jesus, gurutzean josia, lapúr biren erdian, samintasun eta oñaze gogofetan, zaurietatik odola dariola.... eta entzun itz samuŕak: Ene semea—esango dautzu—ene Seme laztana, czer egin dautzut Nik, edo zetan naibagetu zaitut, era oneitan zuk gurutzean josirik Ni ipinteko?  alperik ixuri ete-dot neure odol guztia zu irabaztea en, alpeŕik ete-da, ene semea?

Sartu zaitez zeure bañenera, ta pekatu guztiak

aúrean dozuzala, biotzez esaizt: Jesukristo neure Jauna... (40 ofialdea).

### **ERABAGI EDO ASMUA.**

Egindako pekatuen atsekabea damuaren erdia baño ez da. Ofezaz gañera, damua osoa izateko, auferantzean pekatutik ez egiteko erabagi edo asmua be beára da.

Baña damua egiazko ba-da, erabagi edo asmua be benetakoia izango da. Pekatu egin dozulako egiazko damu edo garbaya ba-doza, asmo sendoa be artuko dozu, lengo pekatuetan ez jausteko, baŕiz oŕetan ez asteko: eta cnoz aŕte baŕiz? Beti ta il arteraño.

Beraz, asmua izan bedi

Lenengo.—Sendoa: au da, bañiro pekatutik ez egiteko erabagia. Ez dau esan nai auferantzean iñoz ez zareala jausiko: jausteko bilduŕa euki aŕen, zeure biotzean ez jaustea erabagi ba-dagizu, egiazko asmua softu dozu.

Biga en:—Osoa izan bedi; au da, pekatu astun guztietara zabaltzen dana. Pekatu astun bat-edo -beste goñotatzea ez da naiko: guztiak goñotau beaŕ doguz.

3.—Egiazko asmua so tzeko asko lagunduko dautzu zetan efezago ta saŕiago jausten zarean ikustea, oŕtik zeure bizibide osoa zuzendu dagizun. «Goliat eŕaldoia azpiratu ba-dagizu, laster joango dira iges pilisteaŕak»: esan nai dau: zeure grinarik gaizto ta zitalena menperatu ba-daizu, beste gustiak be eŕez azpiratuko dozuz.

Beraugaitik:

*Asmu asko edo laregirik ez aítu, bat bakaña ta bera ona.*

*Asmu aldakoík ez aítu, zer nai dozun ondo era-bagi, azpiratu beáf dozun griña zein dan ondo ikusi.*

### **AOZKO AUTOÍKUNTZA.**

Ao-autoíkuntzak eskatzen dausku: egin doguzan pekatuak autoít-entzuleari esateko.

#### **1.-Pekatu astunak.**

Pekatu astunak gitxienez autoítzera beáfurrik gagoz. Jesukristoík berak agindu dau pekatu astun guztiak autoítzeko izan daitekezenik ezkutuenak... lotsagafienak ba-dira be.

Ez itxi, aíen, oben astunik esan barik. Badakizu abadeak bere bizia lenago emon beáf dauala autoítzan entzundako pekatuak zabaldu baño.

Zeure pekatuak argi ta garbi esan, eurak direan lez, autoít-entzuleak ondo ezagutu dagizan. Geizorrik zagozanean osatzaleari argiro azaltzen dautsazuz zeure geizoaren sustrai ta beste zertzelada guztiak. Arimen osatzale dan abadeagaz be bardin egin beáf dozu.

Pekatu astunak autoítzen diranean, zelakoak eta zeinbat diran (gitxi gora-bera) esan beáf da.

Pekatua zein dan, zeinbat bidaí egin dan eta bera aldatzen daben zertzeladak autoítzea, naiko da; (esaterako 6-gañean, bakañik ala ezkongeaz ala ezkonduaz pekatu egin dozun esan bear dozu). Pekatua zelan egin dan eta beste joan-etoíak esa-tea, ez da beafezkoa.

*Pekatuak, astuna izateko iru gauza oneik bear ditu.*

1.—Zeure eretxiz astuna dala uste izatea, bera egin baño len.

2.—Ezagura osoz egiña izatea.

3.—Nai dozula egitea.

Iru baldintza (kondiziño) oneitatik bat-zein-batek uts-eigin ezkero, pekatura ez da astuna izango.

Beraz:

Nai eztala, gogo oso nai ezaguera oso barik (amesetan edo erdi-amesetan) egiten dana, ez da pekatura astuna.

Zerbait eginda gero (ez egin baño len) pekatu dala igañten ba-dozu, ez dozu pekaturik egin eta autoítu beafik be ez dozu.

Pekatu egin dozun ala ez, egin dozuna pekatu astun ala ariña ete-dan, auferago autoítu dozun ala ez zalantza edo eztabaidan ba-zagoz, autoítu beafik ez dozu.

Aztuta itxi dozuzan pekatuetzaz geroago gomutau ba-zadiz, uñengo autoíkuntzan esaizuz. Oneik autoítzera lenbailen joatea, ondo dan aíen, ez da beafezkoia ta bitaítean Jauna artu zegike, biotzez damuturrik.

Lotsaz, bilduñez-edo, zeuk nai dozula, pekatu astunen bat esan baga itxi ba-dozu, txafto autoítu zara, ta ondorengo autoítza guztiak be txafrak izan dira. Beraz, txafto egindako autoíkuntzan itxiriko pekatuak eta ondorengo guztiak bañiro autoítu beáf dozuz; gañera, zenbat bidaí autoítu zarean eta Jauna dongaro aítu dozun be bai.

Bein ondo autoítu ezkero, ez da beafezkoia esandako pekatu astunak bañiro autoítzea.

## 2.-Oben ariñak.

Pekatu ariñak autoítzaez da bearézkoa; baña bañmesede andikoa.

Ona emen zegaitik: Autoíkuntzaren bidez.

Pekatu ariñen parkamena arin eta efezago jari-txiko dozu.

Jaunagazko maitasuna zeure bañenean geyago biztuko dozu.

Eská eta indaí bañiak Jaungoikoagandik jadetsiko dozuz.

Pekatuen zoá gitxituko dozu.

Beraz, oben ariñak be autoítza, guztiz on eta egoki da; baña oneik egiazko pekatuak izan beár dabela oaftu egizu; bestelan autoí-entzulearen az-kespena utsean jausiko litzake-ta. Autoítza pekatuak azkatzeko da-ta, pekatutik autoítu ezik, abadeak azkespenik ezin emon legiketzu. Beraz, egiazko pekatu arin bat edola be esan beár dozu.

Pekatu ariñak baño ez daukaguzanean, onekin batera auéragoko pekatu astunen bat edo beste autoítzae be guztiz ondo da, benetako garbai edo damua soñzeko.

Azkenez, safi autoítzen ba-zara, asko irabaziko dozu, autoíkuntza batetik bestera berarizko asmua ártuaz (au edo beste pekatu kentzeko asmua) ta uíen autoítzen zareanean, asmu ori zelan bete dozun autoí-entzuleari agertuaz.

## OBEN-NEKEA (penitentzia).

1.—Oben eta utsegiteak autoítza ta euren azkes-pena (asoluziñoa) aítzaez da naiko. Autoítzak

pekatua kentzen dau; baña oneik Jaungoikoari egin dautsan iraña oraindik ordaindu beár da. Ora of zegaitik autoí-entzuleak, geure éfuak autoítu on-doren, oben-nekeea (penitentzia) ezaften dauskun, pekatuen bidez Jaungoikoari egin dautsagun iraña, oben-nekeaz oídañtzezo; autoítzak pekatua kentzen dauan lez, oben-nekeak be pekatuen zoá kitu -izteko indaíra berenez dauko-ta.

2.—Oben-nekeea autoítzaren zati bat da. Beraz, ori egin edo betetea bearézkoa da, ta askotan zeregin ori pekatu astunaren bean agintzen yaku: augaitik, lenbailen bete beár da, aztu baño len, autoítu ta berealaxe al ba-da,... *ainbat lasterén*.

3.—Pekatuen zoá kitutzeko, oben-nekeaz gañera beste lan, neke, otoitz eta egikizun onak be Jaungoikoa ieskintzea oso egoki ta osasungaí da. Par-kapenak batez be, guztiz mesede andikoak yakuz eta oso efez irabazi daikeguz.

Ez aztu emen ordaintzen ez doguna, gero Garbi-tokian ordaindu beárko dogula, oñaze ta min as-kozaz be andiagoakaz.

ten baino horriak dago zurez, noloz geroz edo orduko  
etxeetako lehendaburu ditinotua zure arantzak  
eta oñazko erlaitza. (Eduardo Ibarra, 1996)

## AZTERKETA-ITAUNAK

«Aitza untxekoa, gure etxean, eta oñazko  
arantzak, eta oñazko erlaitza. (Eduardo Ibarra, 1996)

Nozik-nozera, gitxitan, autoírtu oi di-  
rarenatztat azterketa luzea.

(Ondo litzake ondoren duazan azterketa-itaunok no-  
zean bein irakutea, eta autoírzen zarean bakotxean be-  
bai, al izan ezkerro).

### I. JAUNGOIKOAREN AGINDUAK

¿Zeinbat egun ala aste dira azkenengoz autoírtu  
ziñala?

¿Ondo autoírtu ete-ziñan?

¿Autofkuntza txafík egin dozu? ¿Zenbat pekatu  
astun itxi ete-dozuz lotsaz-edo, autoírtu baga?

¿Pekatu astunean zengozala. Jauna aítu ete-do-  
zu?

¿Zure pekatuak lagunen aítean, árokeriz, esan  
ete-dozuz? ¿Egin dozuzanak ezeze, zeure burua  
goratzeaén asmaurikoen batzuk be bai beaf-bada?

**Oára.** (Lengo pekatuak gomutaurik, euretzaz  
atsegina aítu ezkerro, baíro pekatu egiten da: go-  
gozko pekatua).

### LENENGO AGINDUA

*Jaungoikoa maiteen izatea*

1.—Siñismen edo fedearren kaltezkop  
pekatuak.

¿Siñiskintza edo fedeko egirik ukatu dozu?

¿Erlejiñoko egiak ezbayan ipiñi ete-dozuz, esa-  
naz: «Nok daki oñeik ofelan diranentz?»

¿Biñtez siñistu aíen, aoz ukatu ete-dozu ofela-  
ko egirik?

¿Zeure siñeste edo erlejiñoaren kaltezelkin ete-  
-dautsazu, esanaz: «il ezkerro, guztia amaitu da...  
Inpernua... nor izan da bertan, inpernua bai-dagoa-  
la esateko...? Abadeak asmauriko guzuña da ori,  
guri bilduña sañzeko... Zerua...? bestelako zorake-  
ria! ume ta emakumai siñestu-eragiteko ona... erle-  
jiño guzuial bardíñak dira...» edo oñein antzeko  
beste gauzaen batzuk...?

¿Abade ta erlejiosoei lotsea galdurik, euren au-  
ka itz-egin al dozu, esanaz: «abadeak alpeí galan-  
tak dirala, ta erlejiosoak, bardin... aberatsen aiski-  
deak, langileen arrioak... eta abá?

¿Ofelako autuetan ebiltzenai auferapiderik emon  
dautsezu itanduaz, arpegi argia ipiñiaz naiz bañe  
egiñaz?

¿Itzaldi edo sermoyetan entzuna ukatu ete-dozu  
edo beintzat, jolastzat aítu?

¿Jaungoikoaren aufka, ona ez dala... zuzena ez  
dala, edo beste ofelakoren bat esan ete-dozu?

¿Zeruratzeko itxaropena galdu dozu?

¿Siñesteko egiak, erlejiñoko gauzak, eleizkizun-  
ak eta abá iñiz eta baíez aítu ete-dozuz?

¿Erlejiñoaren kaltez dabiltzan eguneroko albisi-  
tari (papel) eta liburu txafak erosoi, irakuñi, saldu  
edo norbaiti irakuñeko emon ete-dautsazuz? euren  
esanan siñestu ete-dozuz?

Pekatu egin eta gero, árokeriz esan ete-dozu:

«autoírtea naiko da... Jaungoikoa ona da... parkatuko daust...» edo beste ofelako zerbait?

¿Azti edo sorgiñen bategana joan ete-zara, naiz gauza ilun eta etofkizunaren bañi jakiteko, naiz gorputzeko min edo geizoak osatzeko naiz zoriona jadesteko...?

Ameskeri, sorginkeri edo ofelakorik siñestu dozu?

## 2.—Otoitzak:

¿Kristiñau-Ikaskidea bai ete-dakizu? Jaungoikoa ta Ama Eleizearen aginduak, *Aita gurea, Agur María, Siñesten dot...* eta beste otoitzak buruz ikasi dozuz? ¿Luzaroan egon zara otoitzik egin barik?

Ziltzaldian (tentaziñoan) Jaungoikoari laguntza eskatu dautsazu? ¿Goiz-afatseko otoitzak, siñespen, itxaropen eta maitasunezko egintzak egunero esaten dozuz? Zelan? Edozelan, beañ ba-da, eta zeure gogoa beste arazoen batzuetan dozula, arin-aringa, zer egiten dozun be gogoratu barik?

## Oaŕak:

1. Ez uste izan agindu bakotxean aitatzet diran gauza gustiak pekatuean agintzen diranik: onelan, goiz-aŕatseko otoitzak ez egitea, berez ez da pekatu, baña nagikeriz, naiz aŕokeriz izten ba-dira, orduan nagikeri edo aŕokerizko pekatua egiten da.

Lenengo agindu onen kaltez asko ta askok uts-egin daroe gaur-egunean, eta oituraz be ez gitxik, erlejño ta abadeen aurka txarto esanaz eta siñesteko egiak ukatuaz: orelan itz-egiten dabentz gogoŕ erantzun beañ yake, euren

aŕokeri ta jakite-uŕia arpegira jaurtiaz, lotsaturik ixildu daitezan.

## BIGAŔEN AGINDUA

*Jaungoikoaren izena alperik  
aotan ez aŕtza*

## 1.—Guzuŕezko zin edo juramentuak.

¿Epaikari edo juezaren auŕean guzuŕaz zin-egin ete-dozu?

¿Andik kanpora be, guzuŕezko zin edo juramenturik egin ete-dozu?

¿Iñoren kaltez, epaikari-auŕean guzuŕezko ziñal-tzarak (testigantzarik) esan dozu?

¿Gauzaren bat siñestu-asoteko, naiz egiaz naiz guzuŕez, ziñik egin dozu beaŕizan barik?

¿Jaungoikoa naiz bere izatea berariz agertzen daben gauzak testigutzat ipińi ete-dozuz?

¿Zin edo juramentuz emondako itz edo berbea ausi ta jan dozu?

(Pekatu dan gauzarik, zin-egiňaz agintzea era-gotzita dago, eta zin-egiňik aginduaz pekatu egin dozu: baña orelan agindurikoa ez dozu bete beañ, bestela bigaŕen pekatua egingo zeuke-ta).

Umeak, atzamaŕez gurutzea egin eta mun egiten dautsoenean naiz «Jaungoiko-rako» esaten dabean, ez dabe pekaturik egiten; baña oitura txarí ori lenbailen itxi beañ dabe, gero okefagora jo ez dагien).

## 2.—Birauak:

¿Jaungoiko, Andra Maria ta Santuen edo erlejínaren kaltez biraorik esan ete-dozu? Oitura txařori ete-daukazu eta noztik aona? Birauak ezeze, beste itz zikiñen batzuk be esaten ete-dozuz?

¿Jaungoikoaren izena edozelan aitatzetan ete-dozu, lotsa ta itzal barik?

(Birao zikiñak botateko oitura gaitzo ori atzeñitik etofiyaku: gure euskera garbiak birao-itzik ez dauko ta erdel-izkuntzatik aítzen dabez euskaldunak, Jaungoikoaren jien guigafia zikintzen daben itz loi ta nabarmenok, Jainbat lotsagařiago!)

Ardura aítu begie onetan eñietako aginta-iak, eta legeak emoten dautsen eskubideaz, biraotiok gogor jo ba-dagiez, laster kenduko dabe gure Euskaleñitik eñbesteko bedaf txař au).

## 3.—Eskintzak:

¿Gai astunean, Jaungoiko naiz santuei egindako eskintza (promesa) al dozula bete barik itxi dozu?

(Eskintza, boto edo promesak berez on-onak izan afen, ez dira arriñegi egin bear, norbere autoítza-leari bere eretxia aúfez eskatu barik, batez be betiko garbitasuna edo oñelango gauzaren bat agintzen danean. Askotan egin oi diran eskintzak, norbere burua pekatuaren bean lotzeko asmoz ez dira egiten: oneik eskintzak baño obeto asmo ta era-bagi onak dira-ta, eurak austea ez da pekatu).

## IRUGAREN AGINDUA

### Jai-egunak jai egitea

#### 1.—Mezea entzun dozu?

¿Domeka ta jayetan Meza entzun barik itxi dozu, entzun zegikeala, alpeñkeriz, zabarkeriz, edo bestelan?

¿Beste iñori Meza entzutea galerazo ete-dautsazu?

Zeure etxekoei: lanen bat emonaz edo uŕunera bialduaz edo euren tokia betetako zeu etxera beranduegi elduaz?

Naiz kanpokoai: zeure mořoi ta neskameai (otseñei) lan eragiñaz edo iñoren etxera zeu joanaz edo ostattu, bide naiz jokoan zeure lagun eta otseñak zeugaz egotera beaŕtuaz?

¿Mezatarra berandu eldu zara, Kredoa amaitu ta gero beaŕ bada? Etxean, bidean, bañiketa naiz pello-tokian egon zara Mezara berandu elduko zināla jakiñik?

¿Lenengo mezea uts-eginda, bigařena entzun ba-ga itxi dozu, ofetarako zio barik?

¿Meza-emoleak Jaunartu baño lenago uŕten zara eleizatik?

### Oarak:

Pio X-garen Aita Santuak, domekaz gañera, beste zortzi jai-egun bakařik itxi ditu:

1) Jesusen Jayotza (Lotaziñaren 25'an); 2) Urtebarri eguna (Urtañilaren 1'an). 3) Jaunaren Agerkundea edo

¿Itzaldi edo sermoyan iñi-báreka egon zara naiz zeure gogoa beste gauzeten zebala, sermolararen esanak aintzat aítu barik?

¿Al dozula meza nagusira joaten zara, itzaldi, agúntza ta beste elezkizunetara?

¿Domeka ta jai-añatsaldeak zelan igaroten dozuz? Besperetara joan beáfean, lotaldi luzea egiten dozu, gero nai dozunean, beranduegi etxera biuf-tzeko?

1-Kristiñaua, ez uste izan doi-doi ta edozelan meza labur bat entzunaz naiko egin dozunik. Jaungoiko ta Ama Eleizeagazko zeure eginbearak zintzoro bete nai ba-dozuz, ori ez dozu naiko. Taungoikoak irugáren agindu onetan bere jai-egunak gordetako agintzen dautzu, ta cuse de dozu ordu erdi bat eleizan egonaz beste barik jai-eguna gorde dozula, bere agintza zeatz bete dozula?

2-Baíro oáitu nai dot emen aitiatzen diran ainbat gauza berez pekatu ez dirala, baña bai oitura oso itxusiak, lenbailen kendu beár diranak. Ez da pekatu, berez, eleizan txistua botatea, mezea amaitu baño len eleizatik zalapartan urteitea, baña eleizea zeru-luŕaren Eŕege altsuaren jauregia dala ez aitztu.

### 3.—Domeketako lanak:

Igande ta jayetan otsein-laniķ egin dozu? Ordu bitik gora, beafízan barik?

Besteai lanik egiñazo dautsezu? Zeure seme-alaba, mofoi edo neskameai lanen bat aginduz? Edo kanpokoai, jostun, oskin (zapatañ) eta abaŕ, zeuretzat soñeko edo oñetakoak egiteko igandez lanera biaftuaz?

Jai-egunet lan-egin ařen, ez dabe pekaturik egiten: Baseritai eta baratzazanak, solo edo baratzako gauzak galdu ez daitezan lan egin beárean aurkitu ba-dadiz.

Bizar-kentzañleak, mofoi ta neskamei edo otseñak, ori ugazabak agintzen ba-dautse, baña olakorik aginduko ez dautsen beste bat bilatu bear dabe.

Jostunak agindutako lana astegunez ezin amaitu izan ba-dabe.

Lanik egin ezik, irabazi anditzua galduko leukenak.

Astegunez etxekoen jantziak garbitu edo adabau ezin izan dabezanak.

Txiro edo beáftsuei laguntzeařen lan egiten dabenak eta abaŕ.

Baña lan egin beárean aurkitzen diran oñeik, al dala, ixil edo ezkutuan egin begie.

### LAUGAREN AGINDUA

Gurasoai dedu ta lotsa izatea

Seme-alabak:

Gurasoei zoř dautsezun lotsea galdu dautsazue? Zelan?

Itz edo berba gaiztoak, lotsagabekeriaik esanaz? Gogoň eta pufustadaz itz-egiñaz? Erantzun txaŕak emonaz? Ixeka edo burlarik egin ete-dautsezu? Asefaturik egon zara eurakaz edo bekoki ilunez muxin? Eurak zu ondo aítu ařen, zuk naibagetu dozuz, itz banaka ta gogofak bakaŕik esanaz? Zematu ete-dozuz naiz itzez naiz eskuz, bultzaka edo joka?

Eriotzea opa izan ete-dautsezu, beaf bada euren ogasunak lasterago eskuratzeaén edo nasaia gozitzeaén? Añenik bota ete-dautsezu? Etxetik ataz edo kānpora gurasoen kaltez txaítio esaka ibili ete-zara?

Iñoren aufean zeure gurasoetzaz lotsatu ete-zara?

Gurasoen esanak, ardurazko gauzetan batezbe, eztsi edo gitxitan euki ete-dozuz?

¿Lagun gaiztoekin ez batzeko, meza entzun, Jaunaftu ta beste elezkizunetara joateko ta gabeen goiz etxeratzeko esan dautzuenean, euren esanak aintzat aítu dozuz ala ez?

Gurasoen ilburukoa, azken naya, bete dozu?

Irabazten dozuna emoten dautsezu ta euren gorputz naiz arimako beafizenetan laguntzen dozuz?

¿Etxeko zaíai zoí yakon begirune ta itzalik ba-dautsezu? ¿Zeure anai-aírbai gauza txafík irakatsi dautsezu, euren aufean beaf ez zana egíñaz edo oíretzaz autuak erabiliaz? Pekaturako biderik emon edo oíetara bultzau ete-dozuz?

1—Seme-alabak gurasoai zoí dautse beste inori baño geyago. Beraz, etxetik kanpora beti alai ta etxeán beti arpegi iñunaz dabiltzan seme-alabak, pekatu egiten dabe ta safitan pekatu astuna.

2—Gurasoai «ika» erantzuteko oiturea bazteftu beaf da. Semea ez da aita-amaren ideko: oneik ez dira bere lagunak: askoz geyago dira ta begirunez itz egin beaf yake.

### Gurasoak:

¿Ardurarik euki dozu zeure seme-alaba gaztexei otoiitzik beafenak albait lasterfen irakasteko? «Gurutze santuaren», «Aita gurea», «Aguí María», «Siñesten dot», Siñespen, itxaropen eta maitasun-ekzo egintzak... eta abaf.

¿Gazte-gaztetarik irakasten ete-dautsezuz siñeskintza edo fedeko egiaik: Jaungoiko bat dagoala... guztia ikusten dauana... pekatuak Bera naigabettzen dabela... badala zeru bat... baita gaiztotei edo inpernua be...?

Etxeán, irakasten dautsezu zeure umeai dotriñea, ala nagikeriz izten dozu egíñen andi au, ori abadeen zeregiña dala esanaz? (1)

¿Egunoro, goiz-afatsetan, otoiitzak egíñazoten dautsezuz?

¿Zazpi urtera ezkerro meza entzutera, eta eza-guera dabenetik autoftu ta Jaunaftzera bialdu dozuz? Aragi-izteko egunak be gordeazo dautsezuz?

¿Txafto dabiltzela ikusirik, naiz guzufak esaten naiz lagunakandik ikasitako gaiztakerien bat egiten, zuzendu dozuz bertatik, gerorako oitura txaftik aítu ez dagien?

Ez geroko itxi zeure semeak zuzentzea, oraindik

(1) Gure egunetan kristiñau-gurasoen egíñenik andiena euren seme-alabak Jaungoikoaren itzalpe ta bildu-ean aztea da. Eta oíetarako lanile beafen, nagusien eta lenena auxe da: etxeán gazte-gaztetatik umeai dotriñea irakastea. Augaitik ots-egiten dautset abade jaun aguúgafei, gai onetan gurasoak estu ta zoíotz aítu dagiezan, eginbeaf nagusi au beaf dan lez bete dagientzat.

gazteak dirala esanaz. Zugatz gaztetxua efez zuzentzen da: baña okef ari ta mardotu ba-dadi, oso nekez zuzendu daiteke.

*b)-Umeak anditzuak diranean:*

¿Lagun gaiztoakandik aldendu dozuz?

¿Eskolara naiz dotriñara doazanean, lagun gaiztoekin batzen diran ala ez jakiteko ardurarik ba-daukazu?

¿Agirian ezpa-da be, ezkutuan, gauza txafern batzuk ikusten, ikasten edo egiten ete-dabiltzan jakiteko?

Eñian bertan euren ibilera guztiak zaintzen dozuz... nogaz batzen diran, zer irakuften daben, zelako autuak darabilezan, domekea non igaroten daben eta zelan? ¿Ala itxi dautsezu kalerik-kale edozelaren ibilten, aíratseen zeure kolkorako esanaz: nire umeak ez dabe beař ez danik egingo?

¿Zine'ra joaten itxi dautsezu? Ofetarako dirurik emon? Zine'ra zeuk lagundu ete-dautsezu?

Zinerik geyenak kaltegarri dira, ta kalte andia egi-ten dabez, batez be umeetan.

¿Batzáñ gaizto, éromeri ta neska-mutilak alkafékin batzen diran beste tokietara, zainduko dituan lagun barik, joaten itxi dautsazu?

¿Illuntzera ezkerro, alabak batez be, etxeratu dozuz?

¿Senañgei edo emaztegeiaz, alabeari edo semeari bakañean egoten itxi dautsazu?

¿Pekaturako beste edozein galbidetik aldendu dozuz?

(Gurasoak jakin beař dabe, edo etxeiko edo bestekandik euren umeak zelan dabiltzan. Ba dira, ofaitik, guraso zabař eta nagiak, euren semeen baři jakiteko, beti azkenengoak diranak. Oneik; euren semeatzaz au edo bestea norbaitek diñotsenean, aseñatu egiten dira, bekaizkeriz edo gaiztakeriz diñola uste izaten dabe eta azkenez, esan daroe: «ériko edozeñenak beizen onak dira gure umeaks». Beste batzuk, ostera, oraindik gazteak dirala esanaz, naiko egin dabelakoan dagoz eta nasai-nasai gelditzen dira: «gazteak dira-diñoe... oraindik jolastu beař dabe... beste ofenbeste egin geban guk be». ¡Guraso zabař, nagi ta itsuak, ez dabe ikusten euren umeak galbidean ipiñiaz, euren buruen ondamena irabazten dabenik!)

Azkenez, guraso zoroak be ba - dira, seme-alabak éromeririk-éromeri dabiltzala jakiñik, estutu beařean, iñi-bařezko arpegiaz erantzuten dabenak: «ofelan lasterago ezkonduko dira». Ba-daitake; baña euren arimen garbitasuna be ariñago ta efezagoko galduko dabe ta, beař ba-da, euren izen-ona be bai).

*d)-Itzez edo egitez zeure umeai ikasbide txař-ik emon ete-dautsezu?*

ITZEZ: Abade, praië edo erlejiñoaren kaltez euren aüfean itz-egiñazz!

¿Edo auto loiak erabiliaz... birauak boteaz... ártu-emonetan egin dozuzan lapuñetak aitatuaz, naiz inoren utsegiteak esan eta zabalduz? eta abar?

EGITEZ: ¿Igande edo domeketan mezarki entzun ezaz edo beařizan barik lan-egiñaz, albistari

edo periodiku txaárak erosi ta irakuñiaz, moskoórtu ta berandu etxeratuaz, seme bateri besteai baño maitasun geyago erakutsiaz, beáf bada besteak baño biuifiagoa dalako, seme-alabak ez dagokien eran apainduauz? ¿Gogoñégi agintzen ete-dautsezu zeure semeai, abañatea ilunaz beti... maitasuna erakutsi beáfean, eskaígaiztoa ageñtuaz?

(Gurasoak seme-alaben aúfean itzez edo egitez pekatu egiñaz, izugafizko lan txaña dagie, orain ereiten dabean bedaí txafaren azia, gero euren buruen kaltean batuko dabe-ta: gañera, pekatu bi jaukiten dabez, txañto egiten dabelako ta besteak pekaturako bidean jaíten dabezalako).

### Ugazabak:

¿Zelako otseñak, moñoi-neskameak áftu dozuz? ¿Zeure seme-alabai beáf ez dana irakatsiko dausenak, beáf bada, min txafekoak, lotsagabeak?

¿Seme-alaben aúfean txañto mintzatzen (berba egiten) diranean, naiz gaiztakerien bat egiten dabenean, estu ta zofotz aítzen dozuz?

¿Bigun eta maitasunez áftu beáfean, gogoñ etágaratz agintzen dautsezu beti?

¿Meza entzutera, autoítza ta Jaunaitzera bialtzan dozuz?

¿Kristiñau - ikasbidea irakasten dautsezu edo beintzat beste norbaitek irakatsi dagioen ardurea aítzen dozu, domeka afatsaldeetan eskolara bialduaz, urietan oi dan lez?

¿lgandeetan lan andirik agintzen dautsezu?

¿Moñoi ta neskameak euren áltean kutunkeri lañegirik áftu ez dagien arduraz begiratu dozu?

¿Neskameai edozelako érómerietara joaten itxi dautsezu, gau-beranduan mandatuak egitera bialdu edo etxe-atarian gizasemeakaz bañíketan egoten itxi? Itz gitxitan esateko, otseñak pekaturako bideatik aldendu dozuz?

Euren sari edo irabaziak eta janari ta jantzietai beáf zana emon deutsezu aldi onez?

(Nagusi zikoitzak euren otseñei lapufetarako bidea emoten dautse).

Euren utsegiteak, beáfizan barik, agertu dozuz?

Beste etxe batera joateko bizitza onaren agiria eskuatu dautzuenean ukatu ete dautsezu, naiz ofen bañí eskuatu dautzuenai guzuñik esan?

(Ugazabak euren otseñak, seme-alabak bai liran zaindu beáf dabez, batez be gazteak diranean).

### Moñoi-neskame edo otseñak:

¿Asafez bizi zara, moñoi edo neskame zareala-ta?

¿Zeure ardurapeko gauzai galtzen itxi dautsezu? (Esan gitxi gora-bera zenbat izan diran).

¿Etxeko gauzarik áftu dozu? ¿ñiori emon edo saldu? (Gauza andi ala txikia, zenbatekoa izan dan esaizu).

¿Zeure eginbeáf eta lanak edozelan eta ardura barik egin ete-dozuz?

¿Lan egin beáfean, alperkerian luzaro egon ete zara?

¿Ugazaba edo uzandrearen kaltez txañto, esaka ibili?

¿Izilik euki beáf ziran gauzak zabaldu ete-dozuz, ugazabak luí-jota dagozala, euren áltean alkañezin aiturik dabilzela... ta oñelakoak esanazz?

¿Ugazabai lotsagabekiriz erantzun dautsezu?  
¿Zeure ardurapeko umeak ¿zelan zaindu dozuz?  
¿itz txařak entzun naiz gauza txařak ikusteko tokietara eroan dozuz? gauza itxusiak egiten irakatsi ete-dautsezu?

¿Otsein zagozan etxearen pekaturako bidean zgosalaz ezaguturik, lenbailen andik uŕtetako arduera euki dozu?

¿Etxeko seme-alaben kartak euren senargai edo emaztegaia, gurasoak ez dakiela, eroan ete-dautsezu?

¿Mandatua egiteko emon dautzuenetik edo beste tokiren batetik zeuretzat zerbait gorde dozu?

¿Emakume okeŕen esanak jaŕaitu ete-dozuz?

## BOSKAŘEN AGINDUA

Íñor ez iltea

¿Íñori kalterik egin dautsazu?

GORTZEEAN:

Jo, zauritu edo il?... ¿ófélakorik egin nai izan dozu?

ARIMAN:

Pekaturako bidea íñori emon dautsazu, pekaturak bidean zirianak eta gauza ez dala esanaz, naiz zeuk ikasbide txařa emonaz itzez edo egitez?

¿Oraindik okeŕago dana, ikasbide txařori gazte-txuei emon ete-dautsezu?  
¿Auŕekoai ixeka, iŕi ta baŕe egin dautsazu, pe-

katu dan zerbait egin nai izan ez daualako, okeŕa okeŕaz, kaltea kalteaz ordaindu, emondako itza ausi naiz zoŕa ukatu ez daualako... ta abár?

¿Norbaiti pekatu egiten lagundu dautsazu? Ze-tan?

BERE IZEN ONEAN:

Íñor ezetsi edo gitxitan euki dozu bere aufean? Itzez ala egitez? Atzean txařto esaka ibili zara, aren utsegiteak besteai agertuaz? Guzuŕez be íñoren kaltean ekin dautsazu? Besteetzaz edozelan itz-egin dozu, entzuniko bařirik txařenak zabalduaz, guzuŕak dirala jakinik? Beaŕ bada, zeuk entzun edo ikusi dozuzala esanaz?

BAKEAN BIZI DIRANAK:

¿Alkaŕegaz bake santuan bizi ziranak nastau etc.-dozuz? Batari bestearen esanak eta egiteak agertuta?

¿Lendik asefe ziranak, aiskidetu beaŕean, ez etc.-dozuz bata-bestearen kaltez geyago berotu?

¿Norbaitek txafto egin dautzunean, aňen, birau edo madarikaziňoz eŕe ete-dozu?

¿Eriotzea edo beste okeŕen bat íñori opa izan dautsazu, esanaz: «itoko al-az, gogoŕtuko al-az, ilgo al-az» edo ófélakoren bat?

¿Kalte egin dautzunari goŕtoa gorde dautsazu?

¿Parkeske etoŕi yatzunean, parkapen eta aguŕa be ukatu egin ete-dautsazuz?

¿Auŕekoari noz kalte egin aukera biŕa ibili zara edo etoŕi yakon kalteaz poztu?

Iñoren aberastasunak eta, batez be, zeure are-rioaren zoriona ikusirik čez ete-zara bekaitzez bete ta biotzez naigabetu?

#### ZEURE BURUAREN KALTEZ:

¿Naigabe edo ezbeará txiki bategaitik zeure buruari eriotza opa izan dautsazu?

¿Zeure osasunaren kaltez ibili zara, lafegi janaz eta batez be edanaz? Zeure burua il nai izan dozu?

(Gure egunetan ordikeriak galtzen dau gure Euskal-efi maite au. Moskoítien umeak aulak, makalak, geizotziak izaten dira geyenez, eta moskoítien azkena, zoro-etxea).

¿Beste zer-edo-zetan zeure edo besteen osasunari kalterik ekañi dautsazu?

¿Seindun emaztea edo alaba gazteak lan gogoír etara beárta dozuz?

### SEIGAREN ETA BEDERATZIGAREN AGINDUAK

*Aragikeririk ez egitea.-Besteren senař naiz emazterik ez gura izatea*

(Agindu bi onein kalteko pekatuak berez beti astunak izaten dira. «Berez» esan dot, beár dan besteko ezaguera edo pekatu egiteko nai osorik euki ezik, pekatu astunik ez dalako egiten.

Askok uste izaten dabe burura datofkiezan gorapen txaf gustiak pekatu dirala: gogapen lizun edo loyak, geuk nai eztogula burura datofliguza-

nean, ez dira pekatuak, oñei leku emotea eta euretan atsegin aítzea bai, ori pekatu da).

Agindu onein kaltez, gogoz, itzez eta egitez pekatu egin daiteke.

#### GOCOZ:

Gogapen edo pentamentu loyak gogoan erabilidozuz? Gauza lizun edo loyak egiteko asmurik euki ez aén, eurak gogoan erabiliaz atsegin aítu dozu? ¿Zenbat bidaí gitxi gora-bera? Gogapen txañak ezeze, asmo txañak be euki dozuz? Zenbat bidaí?

¿Len egindako pekatuak gomutauaz atsegin aítu dozu?

#### ITZEZ:

#### Bakañeán lagun bategaz:

Autu loyak, ipuin zikiñak, gertaera lizunak aitatu dozuz? ¿Zeu asi zara oñetan? Zeu asi ezpa-zara be, lagunari izketarako bidea emon dautsazu, bañe egiñaz edo bñe autuak pozik entzunaz? Alkañegaz askotan egoten zare?

#### Lagun askoren aítean:

Gauza lizunak aitatu dozuz? Autu loyak, abesti edo kantu zikiñak, gazteen eta gauza oneik ez ekiezenen aútean beár bada?

¿Zeure burua goratzearén beár bada edo besteak esate zantafok txalotu dagiezan?

#### EGITEZ:

Arima ta gorputza zikinduaz loikerizko pekaturik egin dozu? Zenbat bidaí? Bakañik ala beste

norbaitegaz? ¿Gizon, emakume, ezkongai ala ezkonduaz ala pertsona ez danaz? Begiratzez, ikutzez ala beste era batez? Zenbat aldiz?

¿Onako pekatu itxusirik egiten iñori irakatsi dautsazu? Liburu txaňak irakuňi, irudi ezaňak begiratu edo gorde dozuz? Iñori erakutsi, batez be, gazttxuei? Bilera ta efomerietan ibili ete-zara bultzaka, mosuka, laztanka, zifi ta beste loikerietan?

¿Antzoki (teatro) txaň, zine ta nasaikerizko beste tokietara joan zara?

¿Dantza lotuan ibili zara?

Dantza lotuan dabiltsanak saňi askotan pekatu astunak egin daroez, Jesukristo gure Jaunak esan ba-dau: «asmo txaňez emakume bat begiratzen daunak, pekatu egiten dauala» (nor asartuko da esaten gizasemeareen besoetan dabiňan neskea garbi urtengo dala)

¿Zeure jantzietai zelako lotsea erakusten dozu? Ez ete-zabiltz saňi kaleak-zeaň itxura bañegaitan, gona labuñegiz, papaň eta besoak agirian dozuzala?

Gure egunetan neska zoro askok, onelan jantzirik, ainbat eta ainbat gazte liñuratu ta galbidean ipinten da-bez. (Zoritzako euren buruak ondatu ezeze, iñoren gogoak be galdu nai daben oneik!... «Obe litzakeoe, bai jayo ezpa-lira»).

Ona emen Isaias igarleak onelan jazten diran emakumei agintzen dautsezan zigoňkadar. (Isai III, 17-24).

**Sion'go alabai Jaungoikoak ulea kenduko dautse ta onein buruak bilusik agertuko dira.**

Era berean, egun aretan oñetako apaňak kenduko dautsez, ispiluak, iduneko ari-pitxiak, besokoak, belařitakoak, erestun-

ak, usain-gozoak, jantzi-argiak, eta usain gozoen ordez kaskamotza ta gařikoaren ordez sakuzar bana emongo yake.

¿Ezkontzeko asmo barik, astia igaroteaen, ártu-emonik ba-daukazu?

¿Oitura txaňez berandu etxeratzen zara?

(Agindu bi onein kaltezko pekatuak autoítzuleari argiro esan beaň yakoz: pekatura zelan egin dan ez da esan beaň, baňa bai zenbat bidaň egin dan, bakaňik ala iñogaz eta zelako notin edo pertsonaez. Ondo autoítu zaitez, bakean bizi nai ba-dozu, ta begien aufean erabili beti gure Liburu Santuen itz bilduňgafia oneik): **«Zeruan ez da ziñik bat be saňtuko».** (APOG. XXI-20).

## ZAZPI TA AMARGAREN AGINDUAK

Er ostutea.-Iñoren ondasunen gurari  
bidebakorik ez eukitea

¿Zerbait ostu dozu?

Era askotara ostu le'dike: naiz iñoen gauzea ártuaz, naiz aurkiturikoa gordeaz, jabea bilatzeko alegiňik egin baga, naiz gauza ostua erosiaz edo gordeaz edo salduaz eta abarí.

¿Norbaiti bere ogasunetan kalterik egin dautsazu, mofoi ba-zara batez be, ugazabaren gauzak edozelan erabiliaz edo ostuko dabezan tokian itxiaz?

¿Zofak ordaindu barik luzaro euki dozuz, ezin ordaindu dozula esanaz?

¿Sal-erosketan bidegaberik egin ete-dozu? Emon

beáf zebana baño gitxiago emonaz edo salneurí (prezio) andiak eskatuaz... eta abar?

¿Dirutza andirik jokoan galdu dozu?

Edariak eta jokoak gure Euskaleriari ondalu beáf dabe. Gaur egunean ez bakarik aberatsak, baita peritik datozen baseiritaárak be joko-etxeetan euren eta seme-alaben irabazi guztia galtzen dabe bein baño saíago.

¿Jokoan, besteai iruzúf-egiñaz, irabazi dozu?

¿Zeure otseñak, zoí zeutsen saria ordaindu bariik, lizaro euki dozuz?

¿Ostu dozuna edo bere oídea jabeari biúrtu dautsazu?

(Emen oaftu bedi ez dala naikoa zazpigaérn agindu onen kaltezko pekatuak autoírtea: onezaz gañera, ostu dan guztia jabeari biúrtu beáf yako eta ja-bea nor dan jakin ezik, beártsu edo probeen ártean zabaldú edo beste egikizun onen batzuetarako emon. Bidegabey egin dan kalte guztia be bardin ordaindu bear da).

### ZORTZIGAREN AGINDUA

*Ez dan gauzarik iñori ez ezaítea  
ta guzuérik be ez esatea*

¿Iñoren kaltezko guzuérik esan dozu?

¿Norbaiti kalterik egin dautsazu bere utsegite ixilékoak zabaldua edo guzuézkoak asmaurik?

¿Iñorgaitik txáto esaka ibili zara, bere gauza onak txaítzat emonaz, txaíak getiuaz edo besteak goresten ebenean, zeu ixilék egonaz?

¿Norbaiten kaltez esandako txaíta atsegínez entzun dozu, edo itaunak egiñaz, gaizki esaten ziñarduanari auferapiderik emon?

¿Itz-erdika edo zeozer esan nairik lez auékoaren kaltean susmo txafík soñtu ete-dozu?

¿Alkaéen kaltez esandakoak batari ta besteari azaldu dautsezuz, bien ártean asaíea soñtzeo asimuz?

¿Iñoren eskutitz edo kartarik, bere baimen barik iñakuí dozu?

¿Ixiléko gauza astunik agertu ta zabaldú dozu?

¿Ixilékoak entzuten gogoz egon zara?

¿Besteri bere izen-ona kendu leikeon gauzarik idatzi dozu?

¿Bape eskubide barik, iñor txaíetsi edo txaítzat euki dozu?

¿Lekuko edo testigu guzuézko izan zara?

¿Guzuézko testiguak bilatu ta batu nairik ibili zara?

¿Zeure geidea (úrko-laguna) aldeztu barik itxi dozu, eírez egin zegikeala?

¿Auékoari bere izen-ona kendu ba-dautsazu, baíro biútzeko egin dozu alegiñik, óretan guzuára esan eutzuela edo zeu okeí egon ziñala esanaz?

### II. ELEIZEAREN AGINDUAK

#### LENENGO AGINDUA

*Domeka ta jai-egunetan Meza osoa entzutea*

Jaungoikoaren irugaéren aginduan esan dana irakurí bedi.

¿Jai-egunetan noz eldu zara mezara? ¿Asikeran ala Kredoa amaituta gero?

¿Noz uŕten zara eleizatik? Meza emoŕeak Jaunártu auŕetik?

### BIGAŔEN AGINDUA

Urtean bein gitxienez autoítzea, eta oŕezaz gaňera, ilteko arískuetan eta Jauna ártu baño lenago, oben astunean egon ezkero

¿Urtean bein gitxienez autoítzen zara? ¿Ondo ala autoókuntza txafen bat egiñik?

Dongaro autoŕluaz, pekatu astuna egiñaz gaňera, ez da agindu au betelan.

¿Pekatu astunean egonik, Jaunártu edo ezkondú auŕetik, autoítu zara?

Pekatu astunean ezkontzen diranak, Jaunártzen díbenak lez, donauste (sakrilegioa) egiten dabe.

¿Gexo zengozala, abadea deitu dozu, autoítu ta eleizakoak aŕtzeko?

¿Zure etxeko senide ta lagunak gaxo ikuśirik, txaŕto dagozala adierazo dautsezu, abadea deitu dagien ala guzuŕezko maitasunez atzipetu (enganaú) dozuz?

### IRUGAŔEN AGINDUA

Pazko-aldian gitxienez Jauna ártzea

¿Pazko-aldian Jaunártu dozu aurten? ¿Ondo ala dongaro?

Dongaro Jaunártuaz pekatu egiten da ta, gaňera, agindu au ez da betelan.

### LAUGAŔEN AGINDUA

Eleiza Ama Deunak agintzen dauenetan  
aragi-izte ta barau egitea

¿Al zebala, barau egin barik itxi dozu?

¿Aragi-izteko egunak gorde dozuz?

¿Olako egunean aragia janazo dautsazu iñori?

¿Al izan aŕen, buldea ártu barik itxi ta bere es-kubideak zeuretu dozuz?

### BOSKAŔEN AGINDUA

Oi danez, amaŕenak eta asikiñak  
Eleizeari emotea

¿Eŕiko eleizeari ta abadeai kristińau onari dago-kionez laguntzen dautsezu?

### III. BAKOTXAREN EGINBEÁRAK

Senaŕ-emazteak:

Alkaŕganako maitasuna ausi ete-dozue, aseŕtuaz edo bata-besteari betozko iluna ipiñiaz? Seme-alaben aufean beaŕ bada?

Senaŕa:

Zeure ondasunak zaindu ta geituteko alegintzen zara, ala edanean eta jokoan ondatzen dozuz, emaztearen ezkon-saria batez be?

¿Zeure irabaziak emazteari emon dautsazuz, etxeko gora-beratarako beaŕ daun beste beintzat?

¿Irabazpide ta beste arazo astunetan alkafit aitu dozue?

¿Emazteari eskua jaso dautsazu, zematu, jo edo naigabe andirik emon?

¿Sakramentuak saŕi aŕtza eragotzi dautsazu?

¿Emaztea seindun egoala lan geyegirik eragin dautsazu?

¿Gauetan berandu etxeratu zara?

¿Emaztearen baimen barik, ibilte luzerik egin dozu?

#### Emaztea:

¿Zeure zitalkeriz etxeko bakea ausi ete-dozu?

¿Ez ete-dozu zeure senaŕa aspeŕtzen, beti asaŕe ibiliaz, uskerien batzukaitik beaŕ bada?

¿Senaŕaren baimen barik zerbaŕt saldu dozu, alabak apaintzeaŕ-en-edo?

¿Ezkontzako Sakramentuaren kaltez utsik egiten ete-dozue?

#### Etxeko jauna:

¿Guraso zaŕak etxeian ba-daukazuz, zoŕ yaken lotsa ta begirunea gorde dautsezu?

¿Zeure puŕustada ta gogoŕkeriz ez ete-dozuz atsekabetu?

¿Jan-edan eta jazteko beaŕ dabena ukatu ete-dautsezu edo gogo txafez emon?

¿Gexotu diranean, ez ete-dozuz bazteŕturik itxi, osakairik erosi nai ez-ta?

¿Lenbailen il daitezan nai izan ete-dozu?

¿Euren ilburuko edo testamentua zintzoro bete dozu?

¿Eurak agindutako mezak atera, egikizun onak egin?

¿Guraso zaŕak beaŕtu ete-dozuz, naiz itzez naiz egitez, zuri beste anai-afebai baño geyago iztera euren ilburukoan?

#### Sendi edo familiaren burua:

Zeure seme-alabak arduraz zaindu dozuz? Ez kontzeko asmoz ebiltzanean, edozelan, edonogaz nai eben lez ibilten eta ezkontzen itxi dautsezu, aufetiez alkafit bayetza emonda egozala-ta?

¿Edo bestera, ondo ez deritxazula-ta beste barik, ezkontzea galerazo dautsezu?

¿Beaŕ badia ezkon-sari edo doterik ez emoteaŕen?

¿Edo ezkontzea luzatuazo dautsezu albait beranduen ezkon-saria emoteaŕen?

¿Zeure seme-alaba beaŕtu dozu nai ez ebanaz ezkontzera, au aberatsa zala-ta?

¿Zeure seme-alabai abade, praiile edo monja izan nai-ta, ori galerazo dautsezu edo nai ez ebela ofe-tara beaŕtu dozuz?

¿Dirua irabazteafen, baseŕitik atera ta urira, ola edo fabrikera edo Ameriketara bialdu ete-dozuz?

¿Seme-alabak otseintzan ipińi dozuzan etxeak eurak galtzeko bide izango ete-dira?

(Gurasoak; zeuen seme-alabak dirua baño mai-teago ba-dozuez maite beaŕ dozuezan lez, aŕen, zeuen umeak, ez baseŕitik urira bialdu ta gitxiago Ameriketara, nai ta ezkoa ezpa-da beintzat. Toki

uúun aetan ez dabe asko irabaziko arimearentzat eta sañi askotan gorputzarentzat bez.

Zeuen alabak edonora otsein ez bialtzeko be ardura andia eukizue, eta etxe onak, esan oi dan lez, eskintzen dautzuezanean be, al dozuela zeuen ondoan euki obe izango yatzue, onena norbere etxea da-ta).

### Eriko agintaria:

¿Arduraz zaindu dozuz lege zuzenak, eta ausi dabezanaí beaí besteko isun edo mueltea ezañi dautsezu?

¿Biraoti ta moskoñtiak, batez be, estu ta zoñotz aítzeko ardurarik euki dozu?

¿Ardantegi (tabernak) beaí dan garayan itxi dai-tezala agindu dozu eta jokoa eñian galerazo?

¿Eriko zerga edo petxuak banatzeko iru-lau jauntxuen eretxia ala zuzentasuna jañaitu dozu?

¿Auteskunde edo botaziñotan zeure menpekoak bidegabek beañtu dozuz?

¿Meza nagusi ta beste elezkizunetara joaten zara?

### Menpekoa:

¿Abade, alkate ta eriko agintariei zoñ yaken begirune tñ itzala izan dautsezu?

¿Lege onak gorde daitezan alkate ta agintariei lagundu dautsezu ala ez: esaterako, biraotiai ze-matu edo agintarien auñean salatu dozuz, lege -arauz zigoñkatu dagiezan.

Eriko petxu zuzenak ordaintzea luzatu dozu edo iruzufeñ (engañañ) ukatu?

¿Zure autañki edo botaña Erlejño ta efiañen alde geyen egingo dauanari ala diru geyago dakafenari emoten dautsazu?

### Ugazaba:

¿Zeure langileai, zoñ dautsezun saria (alogera) luzatu barik ordaintzen dautsezu?

¿Maitasunez aítzen dozuz ala gogoñ eta gañatz?

¿Domeka ta jayetan lanik egiñaz dautsezu?

¿Beañizanean aurkitu ba-dira edo gaxorik eta lanean ikusi ba-dozuz, lagundi dautsezu?

¿Zeure ola edo lantegian, birauak, neska-mutileñ aítzeko autu nasayak, abesti edo kanta zikinak... eta abañ galerazo dozuz edo beintzat ofetarako ardurea aítu dozu?

### Langilea:

¿Laneko orduak zintzoro betetan dozuz? Ugazabaren tresnak arduraz zaintzen dozuz? Ugazabari bere ogasunetan kalterik egin dautsazu? Opoñik (uelgarik) soñtu dozu edo besteak opoñera bultzau, ofetarako zio zuzen barik? ¿Iñori lan-egitea, bidegabek, galerazo dautsazu?

### Ostatari ta arda-saltzañeleak:

¿Moskoñaz edo erdi-moskoñaz egoanari eskatu aña edaten emon dautsazu, kaltegañi yakola yakiñik?

Zure ardantegira datozanai edozelan ibilten izten dautzetu, batez be zerbaiz berotuta dagozanean... zarata andia ateraten, buŕuka-egiten, añen eta biraoak botaten, abesti zikiñak abesten eta abaí?

Beste edozein jolas nasaira gaztedia bultzau dozu? ¿Zeure ostatuan ixileko karta-jokoa edo dantza lotua ipiñi dozuz, onelan neska-mutilei laztanka, mosuka, ziřika, alkaf besaŕkaturik ibilteko bidea emonik?

¿Gabaz zeure ostatua agindutako orduan itxi dozu?

(Ostatari ta ardao-saltzaileak oaftu begie euren etxeetan egin oi diran ainbat pekatuez erantzun beaŕko dabela, askotan euren efuz egin oi dira-ta. jilrabazi txaŕ bategaitik ez zeuen arimak galdu)

## AZTERKETA LABURA

### ITAKUNAK

**Lenengo agindua:** Jaungoiko maiteen izatea.

¿Siñeste edo fedeko egiak ukatu ete-dozuz? Ez siñesteko zalantza edo ezbayan egon ete-zara? Oŕeitzaz baŕez edo txantxetan itz egin dozu?

¿Albistari (periodiku) ta liburu txaŕik irakufi dozu? edo irakurteko norbaiti emon edo saldu?

¿Aztru edo sorgiňagana jo dozu etoŕki-zuna ezagutzeko-edo?

¿Eleizgizonetzaz txaŕto esaka ibili zara?

¿Jaungoikoaren aurka, ona ez dala, zuzena ez dala edo beste olakoren bat esan ete-dozu?

¿Zeruratzeko itxaropena galdu dozu?

¿Goiz-aŕatseko otoitzak egin dozuz? Eta zelan? Erlejiosoen kontra txaŕto esaten ibili zara? ¿Sermoyetan entzundakoari zeure autuetan ifi ta baŕe egin dautsazu?

¿Txaŕto autoŕtu zara? Pekatu astunean Jaunaŕtu dozu?

**Bigaŕen agindua:** Jaungoikoaren izena alpeŕik agotan ez aŕtzea.

Biraorik botaten dozu? Seme-alaba edo umeen auŕean beaŕ bada?

Zin edo juramenturik egin dozu guzuraz edo beaŕizan barik?

Jaungoikoari edo Santuei eskintzak (promesak) egin eta bete barik itxi dozuz?

**Irugaŕen agindua:** Jai-egunak jai-egitea.

Domeka ta jai-egunak zelan gorde dozuz? Nagikeriz meza entzun barik itxi dozu? Mezatara beranduegi eldu zara?

Zelan entzun dozu? Zeure otsein eta menpekoai meza entzutea galerazo dautsezu? Eleiz Ama Santuak ipiniriko barau eta aragi-izteko egunak gorde dozuz? Jai-egunetan lanik egin dozu, ordu bitik gorra, bearízan barik?

**Laugañen agindua:** Gurasoai dedu ta lotsa izatea.

Gurasoen esanak ezetsi edo gitxitan euki dozuz ardurazko gauzatan be?

Gurasoak zeure lotsabagakeriz naigabetu dozuz? Jo edo bildurúto dozuz? Eriotzariak opa izan dautsezu?

**Otseña:** Zeure eginbeárt eta lanak edozelan eta ardura barik egin eta bete dozuz? Ugazabaren gauzak alpeírik galdu?

¿Bere kaltez txaárto esaka ibili zara edo ixiléko gauzak kanpoan agertu? ¿Lan egin beárean alpeíkerian luzaro egon zara?

**Gurasoak:** Zeuen autu edo bizibide txaáraz umeai ikasbide dongarik emon ete-dautsezu? Euren ibilera ta ártu-emonean zaindu dozuez, zer irakuŕten daben, nogaz batzen diran, neska-mutilak alkaŕefkin beárt ez dan lez ete-dabiltzan, meza

entzun, autoítu, ta Jaunaítzen daben jomiteko? Etxean irakasten dautsezue zeuen umeai dotriñeaa ala zeregin andi au nagikeriz izten ete-dozue, ori abadeen egiñena dala esanaz? Itz gitxitan: Zeuen umeak galbide ta aŕiskuetatik aldendu dozuez ala nagikeriz naiñon, naiñoz eta naizelan ibilten itxi dautsezu?

Onetan arduratsuak izan zaiteze, gurasoak, bestelan zeuen seme-alabai ta sendi edo famili guztiari kalte andiak letoŕkiez-ta.

**Senaŕ-emazteak:** Alkaŕi zoŕ dautsazuen maitasun laztana ausi dozue asefatuz edo batak-besteari arpegia iluna erakutsiaz?

**SENARRA:** Zeure irabazia edo emaztearen ezkon-saria ez ete-dozuz ondatzen edanean edo jokoan batez be?

¿Noz etxeratzen zara aŕatsean? Emaztea jo ete-dozu edo atsekabe andirik emon ete-dautsazu, seindun egoala batez be-edo lan geyegi eragin oŕelako aldietan?

**EMAZTEA:** Zeure senaŕa ez ete - dozu naigabetzen, beti aseŕez eta eŕieŕtan ibiliáz; uskeriekaitik beárt bada?

**BATAK ETA BESTEAK:** Ezkontzearen kalteko gauzarik egin ete-dozue?

**Boskaŕena:** *Iñor ez iltea.*

¿Norbaitegaz aseŕatu zara? Eriotzea edo beste okeŕen bat opa izan ete-dau tsazu? Edo etoŕi yakon kalteaz poztu ete -zara? Bekaizkeriz (inbidiz) goŕotoan bizi izan zara?

¿Arerioak parkeskatu dautzunean be parkapena ukatu dautsazu edo zeure aguŕa, bidean aurkitu dozunean?

¿Norbait jo edo zauritu dozu edo iñori kalterik egin dautsazu?

¿Zeure osasunaren kaltez ibili zara, lar egi janaz eta batez be, edanaz edo zeure burua il nai izan dozu?

**Seigaŕen eta bederańzigaŕena:** *Aragik erikirik ez egitea.- Iñoren senar naiz emazterik ez gura izatea.*

¿Gauza loyak zeure gogoan erabiliaz atsegin aŕtu dozu?

Autu loi, abesti edo kanta zikiňak esan edo entzun dozuz? ¿Liburu txaŕik irakuŕi, irudi zantaŕik begiratu? ¿Antzoki (teatro) ziñe ta nasaikerizko beste tokietara joan? Dantza lotuan ibili zara? ¿Zeure jantzie tan zelako lotsa ta begirumea erakusten dozuz? ¿Ez ete-zabiltz saŕi kaleak-zeaŕ

itxura txaŕean, gona labuŕez, papaŕ eta besoak agirian?

¿Bakaŕean zeure buruaz atsegin loirik aŕtu dozu? ¿Beste norbaitegaz? ¿Gizon, emakume, ezkongai ala ezkonduaz? Begiratzez, ikutzez, beste era batera? ¿Saŕi?

Esan argiro autoŕ-entzuleari onetan egin dozuzan oben edo pekatu guztiak: zenbat bidaŕ eta zelako notin edo personeaz. Bai dakizu gai onetan pekaturik geyenak astunak dirala. Beraz, ondo autoŕtu zadiz, bakean bizi nai ba-dozu, eta erabili beti gogoan gure Liburu Santuen itz oneik: «*Zeruan ez da zikiňik bat be sar tuko*». (APOC. XXI-20).

**Zazpi ta amaŕgaŕena:** *Ez ostutea.- Iñoren ondasunen gurari bidebakorik ez eukilea.*

¿Zerbait ostu dozu edo besteri kalterik egin dautsazu?

¿Ostu dozuna edo bere ordaňa, jabeari bioŕtu dautsazu?

¿Zeure zofak ordaindu barik luzaro euki dozuz?

¿Ilburuko (testamentu) ta beste aginduak bete dozuz?

**Zortzigaréna:** Ez dan gausarik iñori ez ezaítea ta guzurik be ez esatea.

¿Iñoren kaltezko guzurik esan dozu? Norbaiti kalterik egin dautsazu bere utsegite ixilekoak zabaldua edo guzuñezkoak asmaurik? Iñoren eskutitzik (kartarik) irakufi dozu bere baimen barik?

## AUTOÍRTZA AUREKO OTOITZA

Veni Sancte Spiritus (30 egun. parkam. bakotxean)

¡Zatoz, ařen, Espiritu Santu ori! zeure siñestedun zintzoen biotzak bete ta zeure maitasunaren su-gaŕa euretan izegi ta biztu egizu.

ŷ. Zeure espiritua bialdu egizu ta zuzenduko dira.

R. Ta luŕbira osoa baŕitzauko dozu.

### Otoitza

**Z**EURE jaŕaitzaleen biotzak Espiritu Santuaren argiz irakatsi ta argitzen dozuzan Jaun ořek, ařen entzun gaizuz, eta Espiritu beroen bidez zuzena maite daigun eta bere atsegíñez beti poztu gaizan, lagun

zakiguz. Jesukristo gure Jaunaren izenean. Olantxe.

¡Neure Jaungoiko maite ořek, neure pekatuak zeatz ezagutzeko argi bizia ta guztiak biotzez górotau ta autoítzeko indaŕa emoidazuz!

¡Andra Maria, nire Ama eŕukioŕa, Jose Doatsua, neure Aingeru Jagolea, autoírtakuntza on bat egiten lagun zakidaze, ořetarako zuen laguntza ori beaŕ-beaŕkoa dot-eta!

Ondoren, zeure baŕena azteŕtu egizu, Jaungoiko ta Eleiza Amaren agintza bakotxa arakatuz, zetan uts-egin dozun ikusteko.

### Damu - egintza

Zuk aginduko zero edeŕak  
Ez naroa ni zu maitatzena:  
Beko sugáren bilduŕak bere ez  
Oben-bidetik alde-egitera.  
Gurutze baten, untzez josirik,  
Eriotz-laŕiz zakustan Jauna:  
Neke gogórez, lotsari goŕiz  
Zu ikusteak, nakaŕ Zugana.  
¡Zure eŕuki samuŕak nakaŕ!  
Sari barik be zure nintzake:  
Bilduŕ neuskizu, inpernu gabe.

Zuri dautzudan maitasun orde  
Zeru ederik ezpa'lego be,  
Bardin zinduket laztan ta maite.

*Esaten danez, Xabier'tarí Franzizko Doneak gazteleraz idatzia.*

Otoitz au egin ondoren, zoaz autoítzera. Zure auŕekoa autoítzen dan bitaŕtean, esaizu biotzez:

Nik, pekatari onek, autoítzen dautset al-guztidun Jaungoikoari, Andra Maria beti-Birjiñari, Zoriondun Migel goi-aingeruari. Zoriondun Joan Bautisteari, Pedro ta Paulo Apostolu deunai, beste Santu guztiai eta zuri, ene Aita ofí, pekatu laŕegi egin dodala, gogapen, itz eta egitez, neuré eŕuz, neuré eŕuz, neuré eŕu andiz. Augaitik eskatzen dautset Andra Maria beti-Birjiñari, Zoriondun Migel goi-aingeruari, Zoriondun Joan Bautisteari, Pedro ta Paulo Apostolu deunai, beste Santu guztiai eta zuri, ene Aita ofí, otoi-egin dayozuela nire alde Jaungoiko gure Jaunari.

### AUTORÍZEKO EREA

«Nik pekatari onek» esan ondoren, zoaz autoítzera ta belaunikaturik esaizu lenen:

*Aguŕ, Maria, guztiz garbia.*

Autoítzuleak erantzongo dautzu: *Orban ba-garik soŕtua.*

Gero esan:

Ilabete (edo astebete edo dan beste) da azkenengoz autoítu nintzala eta ez neban ezer itxi aitztuta ez lotsaz.

Azkespena ártu neban...

Aŕezkero. Lenengo aginduan... Bigaŕenean...

Eta onelan, lenengo agindutik asi-ta, egin dozuan utsegite ta pekuatua zeuk esan egizuz. Ez, asko lez, autoítzulearen itaunen begira egon...

Órelan egíñaz eŕezago ta lenago amaituko dozu, eta autoítzuleak, zuk zeurea amaitu ondoren, itaunen bat egin badaizu, erantzun egiozu apal, argi ta garbi.

Entzun gero berak emongo dautzuzan aolku edo konseju onak, oben-nekea gogoan ártu ta azkespena (asoluziňoa) emotera yoatzunean, esan biotz-biotzez: *Jesukristo neuré Jauna.*

Gero zoaz zeure lekura; astirik ba-dozu, egizu antxe emondako oben-neke edo penitentzia, ta úrengo datoŕen otoitz au esan:

### Ondorengo otoitz

*Jaungoiko Aita Betikoari Andra Maria'ren bidez*

AITA eŕukioŕ eta ondasun guztien ituŕburua! Zeure atsegíñaz dan Jesus zeure Seme maite ta gure Eroslearen Biotz Santua bide dala, gogo beroz eskatzen dau-


tzut emon daistazuzala: sinismen bizia, itxaropen sendoa ta Zeuganako ta urko-lagunagazko maitasun sutsua. Oñez gainera eskatzen dautzut: neure pekatu guztien benetako garbai edo damua ta aurrentzean Zu bein be ez iraindu ta naigabetzeko asmo sendoa: Zuk gura dozun lez beti biziteko, Zure gogo santua biotz osoz betetako ta zeure maitasunean eriotz arteraño irauteko. Olantxe.

¡Neure Erosle ta Jaunaren Ama maitea, Maria Birjiña doatsua, ařen eskatzen dautzut eřukiz emon daidazula: galbide ta lafi-aldi guztieta Zugana joateko ta zeure laguntza beti eskatzeko bearf dodan grazia.

(40 egun. parkapenak bein).



Sarearen nazioarteko maitasunaren  
ezpresa pentsatzen zegoen. Iñaki  
etxeko maitasunaren errotadarrak  
ez zituen. Ez zituen, ez zituen, ez zituen.



### III. JAUNARTZEA

«Aingeruen Ogia  
Cizonen janari».

#### I. SAREREA

1) Jesukristo gure Irakaslearen esanak. (JOAN. VI).

Joan Deunak bere Ebangilioan adierazten dausku.

Ona emen nagusienak:

48) Ogi bizia Ni naz.

49) Zuen gurasoak «manu» jan eben basamortuan eta il ziran.

50) Zerutik jatsiriko ogia auxe da: berau jan dagiana, ez da ilgo.

54) *Egi-egiaz diñotzuet: Gizonaren - Semearen (1) Aragia jan ezpa-dagizue eta bere odola edan, zeuekan ez dozue bizirik izango.*

55) *Nire aragia jaten eta nire odola edaten daunak, betiko bizia dauko ta azken egunean Nik berpiztuko dot.*

56) *Nire aragia ziñez janaria da, ta nire Odola ziñez edaria.*

57) *Nire aragia jaten eta nire Odola edaten dauana Nigan dago ta Ni beragan.*

58) *Bizi dan Aitak bialdu nauan lez eta Ni Aitaren bidez bizi nazan lez, bardin Ni jaten nauana be nire bidez biziko da.*

Gure siñeskintza edo fedeko égien ártean, itz oneik baño ederagorik eta batera pozkañagorik nekez auñkituko dozu, ene kristiñaua. Gogoan ártu egizuz eta safi irakurí zeure siñesmena biztu ta sendotzeko.

2) *Jesukristo gure gogo edo arimen bizia da.*

#### ALDE BATETIK:

*Oben astunaren eriotzatik gure arimea jagoten daulako.*

Zerutik jatsiriko Ogia auxe da: «berau jan dagiana, ez da ilgo» diño Jesukristo gure Jaunak. Eta Tren-toko batzañak deitzen dautso: *oben astunetik jagongo gaituan osakaya.* (TRIDENT. SES. XIII-2).

Auxe berau irakasten dausku Tomas Deun ja-kintsuak be. (III p. Q. 79, A. 6).

(1) Safi auñkituko dozu Jesukristok Ebangelioa «Gizonaren Semea» bere izentzat aítzen duala: izen onegaz adierazo nai dausku, ba, Beragaitik esan ebala.

Eriotza gizonari—diñauskua—edo kanpotik edo bañenetik datofkio: bañeneko gexoak janari indaítsu ta osakai egokiz osatzen ditu; kanpoko arerioakandik bere burua jagoten dau. Onantxe, Jaunaŕtzeaz gure gogoak indaír bañia aítzen dau batetik, Jaungoikoaz alkaítzen dalako; ta bestetik, Jauna bere bañenean daulaka, bere burua arerioakandik efezagaz jagon daroa.

#### BESTE ALDETIK:

*Onbide (birtute) guztiak gure gogoan sendotzen di- tualako.*

Berak emoten dauskun poz-eztiak aitzu eragiten dauskuz luéko atsegíñak. Beraz, gero ta geyago Jaungoikoagana uferatu ta luéko galbideetatik ufuntzen gaitu ta onelan, onoimenak, indaítszen dira. Gizonaren areriorik andiena dan gañamura edo aragi-zalakeria be itzali edo gitxitu daroa. *Gustato spirítu, desipit omnis caro eta beste griña gaizto guztien sukaí edo beroa be bai.*

Berak biútzten dauskuz, azkenez gogapen onak eta asmo edefak be.

3) *Sári ta egunero, al bada, Jaunaŕtu bearída.*

Trento'ko Batzaí Nagusiak (XXII-G. BILLERAN. VI-G. AZALBURUAN) erabagi au dakaí:

*Batzaí Nagusi onek, kristiñau guztiak meza entzuten daben bakotxean, Jaunaŕtzea nai leuke.*

Auxe berau eskatzen dausku Jesukristo gure Jaunak: Zuen gurasoak «maná» jan eben eta il ziran: *nire aragia jan dagianak, betiko bizia dauko.* Esan nai

dau: gogoak beaír-beaír dauala janari au saír aítzea, gorputzat ogia beaír dauan lez.

Gure Eleiza-Ama arduratsuak eta Eñomako Aita Santu guztiaak ao batez auxe berau diñoskue, eta batez be Pio X-gaerenak «*Sacra Tridentina Synodus*» deritxon bere idazki gomutagaírian.

Daniel Igaíleak: Gizonaren Semeak Jaungoiko Aitagandik dakaz eskubide, aintza ta agintzea eta lateíri, aberí ta izkuntza guztietako gizonak daíyoe, onelan Mesias gizonen Eroslea dala erakutsirik.

#### 4) Saír Jaunaítzeko zer eskatzen dan.

Safí ta egunero Jaunaítzeko duin ez dala uste izan daike norbaitek. Oneri erantzongo dautsat gai eta duin iñoz be ez dala izango ta aingeruak eurak be duin ez dirala Jaunaítzeko.

Ona emen: Pekatu astun barik, biotza garbi dauzu?

Asmo zuzenaz Jaunaítu nai dozu?

Ez yatzu besterik eskatzen. *Gauza bi oneik, biotz garbia ta asmo zuzena, naikoa dira, saír ta egunero Jaunaítzeko.*

Zetan esan bez, oíezaz gañera, maitasun beroz eta gurari andiz altarako maira uferatu ba-zadiz, irabazi andiagoak aterako dozuz, gose geyagogaz baskaltzera zoazanean, onura ta indaí geyago ate-raten dozuzan lez.

Zatoz, ba, saír, zatoz egunero, al ba-dozu, Jaunaítzera Berak emongo dautzu pekatu astunetik iges-egiteko indaí, arerio zitalen ziltzaldiak austeko kemen eta biotza.

## II. JAUNAÍTZE AUREKO TA OSTEKO OTOITZAK

### Oarák:

1.—Ufengo doazan otoitzak ez dauke beste asmorik Jaunaítzera doanari zerbait laguntzea baño: azkozaz obe da bakotxak bere biotzari eraso dayozan Jaunagaz itz-egiteko beaí dituan gogai ta gurariak.

2.—Otoitz guzti oneik esateko era ta astirik ez daukanak esan begiz Jaunaítu auréko ta osteko egintzak, «Jesus gurutzean josiari» deritxona ta «Eriots-etsipena».

3.—Jaunaítu auréko ta osteko otoitzak era bitara ipiñi dira.

Bata labuñagoa, Umeentzat oso egokia, *guztiak batera esan dagien*, toki askotan oi danez.

Bestea luzeagoa. Bakotxak bakaíean esateko Siñespen, maitasun-egintzak *bielan* ipiñi dira, ta oíezaz gañera «Jesus gurutzean josiari» ta «Eriots etsipena» be *beti esatea* ondo litzake.

## JAUNAÍTU AUREKO OTOITZAK

### ERA LABURA

Gogoratu Jaunaítu baño len zugana datoñen Jaun ori nor dan. Zeure Jaun eta

Jaungoikoa dozu, zeru-luŕen Jabea, zure Egile, zure Erosle, zure Ongile ta Maitalea.

Eta biotz-biotzez esan:

### **Siñespena**

**N**EURO Jaun eta Jaungoiko guztiz Egi-zale zarean ori! Siñesten dot orain aŕtzera noan osti oŕetan zure Gorputz eta Odola Gogo (arima) ta Jaungoikotasun ber-bera emoten daustazuzala. Ori sendoro siñesten dot, zeuk oŕelantxe esan zebalako ta ori egiztau eta aldezteáren, neure bizi au emongo neuke.

### **Zetara datorén:**

Zuri bere mesede ugariak ekaŕtera, zure zoriona emen luŕean egitera, gero zeruan be egiteko.

### **Itxaropena**

**J**AUNGOIKO dintzoa: Zeuk esan zeban Zugan bere itxaropena ipiñi dagianik ez da la galduko. Zure eskintzari dintzoetan uste osoa daukat eta sendoro itxaroten dot, orain luŕean aŕtzen ba-zaitut gero

zeruan Zugaz bat egiteko zoriona be emongo daustazula.

### **Zergaitik datorén:**

Zuri dautzun maitasunagaitik dator, ez Berak zerbait irabaziko daualakoan: zure onak dakaŕ zure biotzera, ez bere irabaziak.

### **Maitasuna**

**J**ESUS maitagarí ori: Nigaitik gurutzean zeure bizia emonez gaňera, zeure aragi garbiz ni indaŕtzera zatoŕkidaz. Neure biotz, gogo ta indaŕ guztiaz maite zaitut eta zeugazko maitasun oŕetan bizi ta ilteko zoriona eskatzen dautzut.

### **Norgana datorén:**

Zeure biotzera dator, pekataria: ainbes-te bidaŕ oben astunaz oŕbandu ta ezaindu dozun zeure gogo edo arimara. Bere arerio izan zara, eta ona emen non datorki-zun, zure gaiztakeriak aizturik, aiskitasun laztan gozoa zuri baŕiro emotera.

### **Damu-egintza**

**E**NE Jaun andia: zure anditasunaren auŕean neure ezereztasuna ezaguturik, lotsa,

garbai ta damuz auzpaztzen naz eta parkeske nagokizu. ¿Zelan ausaŕtu naiteke Zu áitzena, ainbeste bidaŕ eta ain dongaro naigabetu zaitudan eskaŕgaiztoko au? Ez, ez naz ontasun andi oŕen jabe egiteko duin, ez gitxiago be; baňa zeuk ori nai dozun ezkero, egin bedi Zeuk nai dozun lez.

### ERA LUZEA

#### Siñespena

ZERU-luŕaren Egile ta Jaun zarean Jesus, gizonen Erosle ori: orain nigana zatoz, neure biotzean áitü beaŕ zaitut. ¡Au zorion andia! Mirari aŕigafi au egia dala  nok siñestuko leuke Zeuk zeure agoz adierazo ta egiztau ezpa'zendu?

Bai, siñesten dot, ene Jauna, sakramentu onetan áitzera noana Zeu zerori zareala. Zeu zara: ateŕpe baten jayo ziňean eta gero gurutzean zeure bizia nire alde emon zeban Jaun ori zara: zeruan Zeure esku-bide ta anditasuna agiri dozuz: emen, os-tera, ogi-ardao irudipean estalduta zagoz.

Neure begiz ikusten ba'neu lez siñesten dot. Zeuk esan daustazulako, siñesten dot

eta zure itzak onetsi ta guŕtzen dodaz. Bai, neure esku-begiak igafí ez aŕen, eta nire adimenak ezin aitu dauan aŕen be, biotzez siñesten dot eta neure zentzun eta adiňa (erazoya) siñestearen menpean ipinten dodaz.

Siñesten dot, Jauna, ta egia dala autoŕtzaŕen, zeure laguntzaz neure bizi ta odola pozik emongo neukez; beaŕa ba' litz, pozik áftuko neuke eriotzea neure siñesmen eta erlejiňoaren alde.

#### Apaltasun - egintza

NOR naz, Jaun Altsua; nor naz, zeru-luŕaren Eŕegea, Zuk nigan zure begiak ipinteko? Nire Jaungoiko ta Jauna nigana etoŕteko zorion andi ori, nondik eta zelan jadetsi dot? ¡Nigana, pekatari aŕ-zikin ezereza baňo ezerezago nazan onegana Jaungo andia datof! Aingeruen Ogia jatera noa, Jaungoikoaren Gorputz-Odola artze-ra! Enaz ni duin Zu nigana etoŕteko eta iňoz be ez naz izango, Jauna.

Zeru-luŕaren Egile, Jabe ta Jauna: zure aŕfean neure burua eratsi ta apalesteň dot Zu goratzeaŕen, Sakramentu onetan

nire maitasunez, Zuk zeure burua eratsi ta apalesten dozun lez.

Zure anditasun eta neuíbako almena ta nire ezereztasuna batera autoítzen dot eta biotz-biotzez diñotzut: «Jauna, Zu ni-gana etoíteko ez naz ni duin».

### Damu - egintza

**N**IRE oben eta gaiztakeriak nigandik al-dendu bear zindukenean, nigana zatoz, Jaun eíukioí eta on ori...; baña orain, neure Jaungoiko maitea, orain zure auíean biotzez goíotatzen dodaz. Nire gaiztakeriok Zu Jaun on eta maitagafi ori iraindu ta naigabetu zaituelako, biotz - biotzez garbai ta damu naz eta ofelakorik iñoz geyago ez egiteko, asmo sendoa aítzen dot.

Parkatu egidazuz, neure Aita maite-laztan ofek, maite nozulako, Zeugana natoíela agintzen daustazu-ta. Orain autoítzaren bidez garbi nagoala deritxat; baña garbitu oraindik neure baíena, Jaun ona; kendu bertatik ofban eta zikinkeririk txikienak be: soítu nigan biotz baí bat eta, azkenez, Zuri dagokizun lez ezpa-da be,

albait ondoen aítu zaidazan beintzat, go-go garbia emoidazu.

### Itxaropena

**N**IGANA zatoz, gizonen Erosle ta Salbatzaile maite ori? Zukan baño obeto cno-gan ipiñi neinke neure itxaropena? Zu bai-zen on, Zu baizen aberats nor da?

Beraz, uste betez natoí zure auíera, neure Jaun eta Jaungoikoa, zure maitasuna zeure eskubidea baizen andia dalako, biak neurigabeak dira-ta.

Nire utsune ta bearízan guztiak ondo ezagutzen dozuz; lagun zakidaz, ene Jaun ori, ala ta gogoa ba-daukazuz-ta; zeure laguntza, eskaí eta mesedeak eskiñi daus-tazuzan ezkero, lagun zakidaz.

Neure Jaungoiko maitea: utsune ta ar-galkeriz beterik nago emen, zure auíean, itsú, maka-makal, guztiz eíukaři. Zuk in-daítuko nozu, Zuk argituko nozu, Zuk osoro aldatuko nozu. Bai, ofelan egingo dozula ziñez siñesten dot. ¿Ez al-zara ba, Zu nire Jabe bakaña? Eta bere biotzean zaukazanari czerer ukatu ete zengikeo?

### Anbrosio Deunaren Otoitzia

**Z**EURE bazkal - maira natoí gaur, Jesukristo neure Jaun maitale ta efukioía, ez neurez gai ta duin nazalako ustez, zeure efuki ta maitasunean neure itxadona ipiniñik baño. Neure gorputz ta biotza aintzat gaiztakeriz loitu dodaz... neure min, eta adiña ez dodaz arduraz zaindu; ori dala-ta, lotsa ta bilduñez natoí. Jaun efukioí, Jaungoiko andia; lañitasunez, inguratuta nagoan gixaxo au, efukiaren iturru zarean oñegana natoí; Zugana zuzentzen naz eta lenbailen zure babespean jañi nai dot neure burua, zuk osatu ta sendatu nagizun. Epaikari edo juez izango zaitudala-ta, bilduñ nazan onek, neure Beñerosle euki ta ezautu nai zaitut.

Neure zauri ta neure lotsari guztiak Zuri, ene Jaun oñi, agertu ta erakusten dautzudaz, Nire obenak asko ta andiaik dirala bai dakit eta bilduñ naz; baña zure efuki amaigabeak itxaropena emoten daust. Jesukristo neure Jauna, Betiko Eŕege, gure alde gurutzean il ziñan Jaungoiko -Gizon oñek zeure begi efukitsuok nigana biuñtu egizuz. Neure itxaropena Zugan

daukat eta, aíen, entzun nagizu: iñoz agoítzen ez dan efuki-ituria zarean Jaun ori, nire bidegabekoa eta obenetzaz efuki zaitez. Nire ta beste gizon guztien alde gurutze-ko urkamendian eskiñi ziñan Bildots osasungaria, agur dagitzut. Jesukristo neure Jaunaren zaurietatik jarion ziñan eta gizon guztien órbanak kentzen dozuzan Odol garbi ta edefori, biotzez guítzen zaitut. Zeure eskuz egindako gizona, zeure odoiez beñerosi dozula gomutau egizu, Jauna. Egindako utsegite ta obenetzaz garbai naz eta neure okeñok zuzendu nai dodaz. Aita onbera ta efukitsua, nire gaiztakeri ta pekatu guztiak nigandik kendu egizuz, Santuen Santua biotz eta gogo garbiz aírtu dagidan: duin ez nazan aíen, orain aírtzera noan zure Gorputz eta Odola neure pekatuen parkapena izan bekidaz, eta beti zure gogoko egikizunetan diardudantzat, Nire órbanak garbitu, gogamen txañak aldendu, asmo ta gurari onak soñtu ta nire gorputz eta arimea arerio guztien maltzuñkerietatik zaindu begiez. Olantxe.

Abadearen «Domine non sum dignus» entzunda, meza-laguntzaileak txiliña joten dauanean, esan zuk be iru bidar:

«Jauna, ez naz duin, Zu nire etxean saítzeko; baña itz bakaí bat esaizu ta nire arimea sendatuko da».

Gero, itz oneik ezpanetan dozuzala, zoaz begirune ta itzal andiaz Jaunañtzaera, beso ta eskuak bulaí gañean dozuzala, eta ez, asko lez, eskuak sakelean eta baztaí guztieta begira.

### III. JAUNAÑTU OSTERAKO OTOITZAK

#### ERA LABURA

Egon zaitez pizka baten ixil-ixílik, Jauna zeure biotzean laztantzen dozula eta zeure lekuan belau-nikaturik, ez besterik gogoratu Jesus zeurea dozu-la baño. Ixildu bedi miña eta itz-egin begi zure biotzak. Agúrtu egizu... eskeíak emon... parkapena eskatu... daukazun guztia eskeñi... eta batez be eskatu, eskatu asko, beá dozun guztia, zeuretzat, etxekoentzat, senide, lagun, etsai eta gizon guztientzat: ez aitzu Garbitokiko arima éfukañien alde eskatzeaz be. Esan gero, astiro-astiro, ixil-ixillka, Jauna zeure biotzean laztantzen dozula:

DILECTUS meus mihi, et ego illi.

NIRE maitea neu-rea da ta ni be-re-a.

Inveni quem diligit anima mea, tenui eum nec dimittam.

Veniat dilectus in hortum suum, et comedat fructum pomorum suorum.

Dilectus meus can-didus et rubicundus, electus ex millibus.

Guttur illius suavis-simum, et totus desiderabilis.

Ego dilecto meo, et dilectus meus mihi.

Begiratu ondo, kristiñaua: Jauna áftu auñetik zeure gogoa gertu edo prestau beá dozu, Efegeen -Erege dan Jauna áftzeko; baña Jaunañtu ondoren batez be, Jesus, zerutafen atsegíña, zeure biotzean daukazula, alak egin beaf dozuz bere mesede an-diakaitik eskeíak emoten, eta zeure biotz ori betiko eskintzen dautsazula, mesede bafiak eskatzen.

Jaun andi bati, zeure etxean áftzean, egiten dau-

Nire biotzak maite dauana auñkitu dot: ba - dautsat eta ez dot itxiko. Betoí nire laztana bere baratzera eta bere sagastien sagaíak jan begiz.

Nire kutuna zuri -goñiskea da, bes-te milen artean aukeratua.

Bere abotsa ezti -gozoa da, ta guztia da maita-gaíri.

Nire maitearena naz eta nire maitea nirea da.

tsazun aíera edo abegi ona, egingo al dautsazu  
beintzat Jaun guztien Jaunari.

### Otoitz eta egintzak

*Jauna guítzeko.*

**J**ESUS, neure zoriona! Afiturik eta pozez zoraturik nago, nigana etofiaz egin daustazun mesede andiaz eta biútu daustazun ondasunaz, Zeruko Aingeru ta Santuekaz batera, zure aufean auzpazturik, zure maitasun eta eŕukia aintzaldu, goratu ta guítu nai ditut.

*Eskeŕak emoteko.*

**J**AUNGOIKO ona: Nire ezereztasuna begiratu dozu. Gexo nengoan eta Zuk indarítu nozu: txiro ta beátsu auŕkitzen nintzan eta zeure ondasunez bete nozu. ¿Zer emongo dautzut, ene Jaungoikoa, zure eskuetatik ártu dodazan ondasunen ordez?

*Zeure burua eskintzeko.*

**N**EURE Jaun eta Jabea: nazan eta daukan dan guzti-guzzia damotzut, Zeuk guzti-guzzia lenago emon daustazu-ta.

Nire biotza nai dozu?... jaŕtu betiko,  
Jauna!

Neure adimen, oroimen, gorputz eta  
arima be zeureak dozuz.

Zure maitetasuna naikoa dot, eta oŕen-  
bestegaz oso aberatsa naz.

*Eskarí-mesede baŕiak eskatzeko.*

**B**AÑA čzer negike, Jauna, zure indarí eta  
zure laguntza barik?

¡Ene Jaun maitea! Zure Gorputz-Odol agúrgaŕiak jan-edaritzat ártu dodazan ezkerro, Andra Maria bitarteko ipiñirik, aŕen eskatzen dautzut emon daistazuzala argita indaríta, pekatuagazko bilduŕa ta arerioen ekiñaldi guztiak ausirik, zugaz bat-izateko beáŕ dodan laguntasuna.

### ERA LUZEA

*Jauna guítzeko egintza*

**J**AUNGOIKO alguztidun eta betikoa: luŕeko erége ta agintari nagusienak baldin zure aufean bildufež ba-dagoz, čzer egin neikenik, ixilik egon eta zure anditasun eta almena biotz bañenetik guítu baño besterik? Aguítzen zaitut Jaungoiko Santua,

aguítzen zaitut Jaungoiko indaítsua, aguítzen zaitut Jaungoiko ileziña.

Zure anditasuna aguítzen dot, zure eskubide ta almen osoaren ondoan emen beko anditasunak uts eta utsalak dira-ta. Zure aufean jaí ezkero, emeko indaíra, argaltasuna da: aberastasuna, txirotasun eta beaízan gofia; emengo argia, iluna baño besterik ez.

Zuri bakaík, Jaungoiko andi, Betikotasunaren Jabe, Jaun ileziña zarean ofí, dagoniztu aintza (gloria): Zuri bakaík gorapena.

Aintzatua, goretsia, bedeinkatua izan bedi Jaungoikoaren izenean datoréna. Bedeinkatua izan bedi Jaungoiko Alorodun eta Betikoaren Seme bakaára, orain nigaz bat egin dana, nire biotz bafenera etorri dana...

### Maitasuna

**N**EURE Jesus laztan-maitea: jau nire poza! orain nire bafenean zagoz, neure biotzean laztantzen zaitut, oso-osorik neurea zara. ¿Nok leukean luía baizen biotz andia Zu, beá danez, eta zu bakaík maitatzeko!

Andra Maria, Jaungoikoaren Ama, ain-

geru lirañak, Jaungoikoa zeruan maite ta guítzen dozuenok, luéan bizi zaren maitale guztiok, zuen maitasun ori emoidazue, neure Jesus laztana maite izateko.

Maite zaitut, Jauna; biotz-biotzez maite zaitut eta auérantzean beti maite zaitudala agertuko dautzut, zeure aginduak beteaz.

### Eskeíak emoteko egintza

**Ž**ELAN ordainduko ete-dautzudaz, Jauna, neure asieratik egin daustazuzan mesede guztiak, jayotza, bizia, osasuna eta, batez be, orain neure biotzera etoriaz egin daustasun andi au?

Eskeíak damotzudaz, Jauna, ainbeste mesede ta ain andiak egin daustazuzalako. Egia da asko alpefik galdu ta ondatu doda; baña auérantzean, orain afte lez, ez naz eskaí-gaiztoko izango. Beti, bai, beti gomutauko dodaz gaur egin daustazuzan mesedeak eta Zuri eskeíak emoteko alegiña, neure bizitza osoan egingo dot.

### Eskaria

**O**RAIN, Jaun ona, neure biotzean zagozan ezkero, zeure auéan belaunikatzen naz,

beá dodañan eskaí guztiak zuri eskatze-ko. Lenengo zeugazko maitasuna eskatzen dautzut eta ofetan beti irauteko, lagun-sun eta indaña; eta uéngó, beá dodañan eta mesedegañi yatazan beste on eta eskaí guztiak.

Uste betez eskatzen dautzut gure Eleiz-Amaren alde, zaindu ta lagundu dagizun beti; guzuñak uéndu, siñestebako ta pe-katariak biúrtu ta Garbitokiko arima efü-kañiak lenbailen azkatu egizuz, batez be N. N.'ren (*cipiñi emen zeure senide, lagun eta ezagunen izenak*) arimak; nire lagun eta on-gileak ondasunez bete egizuz, baita nire etsayak be.

Lagun guztietan zintzoena, ta Aita guz-tietan efükitsuena zarean Jauna: auferan-tzean ez nau iñok Zugandik aldenduko: beti zurea izango naz, zure ikasbideak jañaituko ditut beti.

Jauna, zure aragia jan dot eta zure odola edan; zagoz beti nigaz luñean, gero beti Zugaz zeruan egon nadintzat.

### **Loyola'taí Iñazio Deunak esan oi eban Otoitza**

K RISTOREN arimea, santutu nagizu.  
Kristoren gorputza, salbau nagizu.  
Kristoren odola, ase ta birlorau nagizu.  
Kristoren sayetzeko ura, garbitu nagizu.  
Kristoren nekaldia, indañtu nagizu.  
O Jesus ona, entzun nagizu.  
Zure zauri-baúan gorde nagizu.  
Zugandik alde-egiten, ez niri itxi.  
Arerio gaiztoagandik, jagon nagizu.  
Eriotz-aldian deitu nagizu.  
Eta Zugana joateko agindu dazu.  
Zure Santuekaz, Betikotasun osoan  
Zu goratzeko. Olantxe.

(300 eguneko parkapenak, 7 urtekoa egunean bein, Jaunaítu ondoren esan ezkerro. Parkapen osoa iñean bein, autoñtu, Jaun-äftu, Eleizaren bat ikertu ta bertan Aita Santuaren alde esku-tuaz).

### **Iñazio Deunaren beste Otoitza**


NIRE aukeramena osoro zeugandu egizu, Jauna: nire oroimen, adimen eta naimen osoa aítu egizuz. Daukadan eta dodan guztia, zeuk emon zeustan eta zeuri biúr-tzen dautzut: zeurea dozu ta nayen do-

zunez, erabili egizu. Zeure maitasun eta eskaŕa, aŕen, emoidazuz eta naiko aberats naz, eta oŕezaz gaňera besterik ezertxu be ez dot eskatzen.

(300 eguneko parkapenak egunean bein).

### **Jesus gurutzean josiari**

(Bere irudi aur ean esan beaŕ da)



itxaŕopen eta maitasunaren sua, neure obenen garbai zindoa eta oker oŕeik zuzentzeko asmo sendoa ezaŕi ta aŕazo daryozuzala; maitasun andiz eta garbai zintzoz zure bost zauri oŕeik gogoz ikusi ta auznaŕtzen dodazan bitaftean, Dabid igarleak zure aoan ipinten ebazan itz oneik

neure begi-aŕean dodazala: *Nire esku ta oñak zulatu ta nire azur guztiak zenbatu dabez.*

(Parkapen osoa Jaunaŕtu-ta, Aita Santuaren alde otoitz egin ezkero: Garbitokiko arimen alde be eskińi daiteke).

### **Andra Mariari**

Biurtu nigana zure begiok, Maria Birjińa goragar ia, orain zure begien atsegin poza egińik nago-ta. Eskatu nire alde zure Seme maite-maiteari, bere Gorputz-Odol osasungafia jan-edariz emon daust-eta: zure irabaziak eskińi nire uts eta beaŕizan andien ordez. Eskeŕak emon nire izenean, eta eskatu: ez daitela nire biotz-baŕenetik joan, nire gorputz eta arimea bere eskaŕ eta mesedes bete-bete egin barik. Olantxe.

### **IV. ERIOTZ-ETSIPENA**

**(ONTZAT ARTZEA)**

Eriotz-aldirako parkapen osoa, gaurdanik irabazi dagikezu, ene kristi ua. Une lafi aretan, erdi konorǵatuta zagozala, beaŕ bada parkapen oso ori irabazteko ez zara gauza izango: irabazi egizu beratik, gaur bertan: oŕetarako autoftu, Jaunaŕtu ta uengoa doan otoitzta biotzez esatea, naiko dozu.

(Pio X-gafenak 1904ko Epalaren 9'an)

### Otoitzak

**N**EURE Jaun eta Jaungoikoa: Zure gogoko dan edozelako eriotza bere lafitasun, bilduŕ eta oñaze guztiakaz, oraindixe go-go onez aŕtzen dot zure eskutik.

#### Oarvak:

- 1.—Eriotz-aldirako parkapen oso au bein baño ezin irabazi daiteke.
- 2.—Ori ta guzti be, asmo ofegaz autoŕtu, Jaun aŕtu ta otoitz ori saŕi esatea askoz obe da, ziuŕago irabatzeko.

## V. GOGOZKO JAUNAÍTZEAK

Trento'ko Batzaŕ Nagusiak, Jaunaítzea aitaten dauanean, ófetarako iru bide dagozala diňausku:

**Lenengoa.**—Egiaz bai, baña gogo órbanduaz edo pekatu astunean dagozala, aŕtzen dabenena.

**Bigaŕena.**—Altarako maira uferaturik, egiaz eta gogo garbiz aŕtzen dabenena.

**Irugaŕena.**—Gogozko Jaunaftzea da.

Jesukristo geure Jauna zińez eta egiaz ezin aŕtu dogunean, Bera aŕtzenko daukagun gogo edo gurazi bizia, eta gero geure biotzean ba-geuke lez, Be-rari agertzen dautsgun maitasun eta atsegin-poza; gogozko Jaunaítzea orixe da, Akino'taŕ Tomas deunak diňoskunez.

Ófetarako, Meza-emolea Jaunaítzera doanean, zeu be beste ainbeste egitera baiziňoaz lez, Jaunaítzeako albait ondoen geŕtu edo prestau zaitez: pekatuazko zeure gofotoa Jaunari agertu egiozu «Ni pekataria» esanaz. Egin gero Jaunaftu aŕuetik egin oi dozuzan otoitzak. Iruditu Andra Mariak edo beste santuen batek Osti-Deuna dakaŕtzula ta Jesus zeure biotzean dozula. Orduan biotzez eta astiro esan:

### Otoitzak

**N**EURE Jesus laztan maitea: altarako Sakramentu guŕgaŕi ófetan, ogiaren antz-irudipean estalduta bai, baña egiaz eta benetan zagozala sendoro sińesten dot: agúŕtzen zaitut neure Jaungoiko maite ori ta aŕtu nai zaitut; baña orain ófetarako duin ez naz-ta, zatoz gogoz beintzat nire biotz onetara: bertan ba-zendukedaz lez laztantzen zaitut, Jauna, ta Zugaz bat eginda bizi nai dot beti. Jlňoz ez al naz Zugandik aldenduko!

Edo beste au:

**Z**ATOZ, aŕen, Jesus laztana, neure atsegin, poz eta maitasuna; zatoz neure biotz otzera: zatoz nire gurariak ase ta betetara:

zatoz nire arimea santu-egitera; zatoz nigan, Jesus eztitsu ori, zatoz.

Zagoz ixilik pizka baten. Aguftu egizu Jauna, eskerák emon eta mesede bañiak eskatu.

Gauza oneik jolasak edo zorakeriak dirala norbaitek uste ba'leu, Jesusen Lagundiko Rodriguez Aita jakitunak diñoanaz erantzongo dautset: «Gogozko Jaunaítzea askotan egiazko Jaunaítzea baizen mesede andikoa izan daiteke» eta *Gogozko Jaunartze ori* gure Jesus maiteari atsegin yakola ondo dakigu. Berak erakutsi eutsan bein Sena'ko Katalina deunari, uŕezko ontzi bi eskuetan ebazala agertu yakonean: batean *egiazko Jaunaítzeak* eta bestean *gogozkoak* eukazala adierazo eutsan.

Beste santu askok be mesede guztiz andiak atera dabez, gogoz Jaunaítzen oitu ziralako.

Ene kristiñau ori: ziñez eta egiaz Jauna ártu ezin ba-duzu, gogoz gitxienez ártu egizu ta zeure gañera mesederik ugarienak ekañiko dozuz.



## IV. MEZA DEUNA

*Quam dilecta tabernacula tua, Domine virtutum!*  
Zure bizi-tokien maitagaría, Jaun Altsua.

Antzina, Lege-Záleko aldian, Jerusalen'go Eleiza nagusi edeŕa aukeratu eban Jaungoikoak gizonen artean egoteko: *nire biotza ta begiak bertan izango dira beti*, esan eutsan Jaunak Salomon eŕege jakitunari. Lege-Báñiko aldi onetan gure eleizetan dago, oŕtxe altaretan uŕezko kutxan gordeta: gure artean dago, gugaz batera bizi da. ¡Jaun Altsuaren etxe, eleiz eta altaren maitagaría! oneik bai dirala kristiñauentzat maitagaría! Jerusalen'go eleiza edeŕa ziñez maite ba-eben judatarák, askoz maitagaríago izan beaf yakuz guri geure eleiza ta altarak, ezkutukirik andiena ta miraririk aŕigafiena egunoro oŕtxe ikusten dogu-ta; MEZA DEUNA.

## I

**Mezea ȝzer da?**

Jesukristok bere Gorputz-Odolez, ogi ta ardao irudipean, Aita Jaungoikoari egiten dautsan oparia (sakrifizioa) da Mezea.

a) Lege-Záfean era eta enda askotako opariak eskintzen ziran, odoltsuak batsuk, bestea ez. Jesukristok, aek kendurik, Opari bañi guztiz ederá ipiñi dau: *mezako oparia*.

b) Meza ta Gurutzeko oparia.

1.—Meza Santuak, Jesukristok gurutzean bere eriotzeaz, Jaungoikoari eskiñi eutsan oparia gogoratzten dausku.

Kalbarioan Jesukristoren Gorputz eta Odola berrezi ta banandu ziran lez, altaran be bananduta bai legozan agertzen yakuz (1) ogi ta ardao irudipean.

2.—Baña Meza Santua ez da kalbarioko oparien gomutea bakařik: *gurutzeko oparia berbera da, altaran bañitzatzen dana*. Bietan Jesukristok bere Gorputz-Odola eskintzen ditu: Bera da bietan Eskințale ta Opari.

3.—Ofaitik be, Jesukristok gurutzean bere Odo-la ixuri eban; augaitik kalbarioko oparia odoltsua izan zan. Altaran ez dau odolik ixuñten; beraz, altarakoa odol-ixuñte bako oparia da.

Gurutzean Berak bakařik eskiñi eban oparia: al-

(1) «Berezi edo bananduta bai legozan» diñot, naiz ogi naiz arda antz-irudipean Jesukristo oso-osorik dagoala geure siñesteko egia dalako.

taran meza-emoileak eta Eleiza osoak Jaunagaz batera eskintzen dabe.

Gurutz-Oparia gizonak irabaztea egin zan: altarakoak gurutzeko opariaren irabaziak zabaltzen ditu kristiñauen aítean.

## II

**Mezea ȝzeturako da?**

a) *Lenen, Jaungoikoa guítu edo jauresteko.*

ȝZeturako deritxazu egin zaituala Jaunak, Bera guítu ta goratu dagizun baño? Ora zegaitik Jaungoikoaren lenengo aginduak «Jauna guítzeko» diñoskun. Baña Jaungoiko alorodunari dagokiozan gorapenak c̄non auŕkituko dozuz luŕean? Alpeřik ibiliko zara ořein biла. Jesukristok bakařik, Jaungoikoaren Semeak, emon dagikeo Goiko-Jaunari zoř yakon besteko guítzea eta meza santuan emoten dautso, bere Gorputz-Odola eskiñiaz.

b) *Jaungoikoari egin yakazan pekatu-iraňak ordaintzeko eskintzen da Meza Santua.*

Izugařízko andia da geure obenakaitik Jaungoikoari dautsagun zořa. Pekatu bakař batek Jaungoikoari egiten dautsan iraňa ordaintzeko, santu guztieng egi on eta irabaziak ez dira naiko, iraňa neuríbagea dalako ta oneik ez. Jesukristok bakařik, Aita lez Jaungoiko dalako, gure pekatuen zořa ordaindu dagike ta auxe da meza santuan egiten dauana, bere Gorputz-Odola eskiñiaz.

d) *Mezea Jaungoikoari eskeřak emoteko eskintzen da.*

Berari zoř dautsazuz bizia, osasuna, gorputz

-arimako doyak eta egunero egiten dauskuzan ain-bestea eskar eti grazi, guk saí ezagutu ez afen. ¿Zer emongo dautsagu, geure aldetik mesede guzti oñiek zelanbaist ordaintzeko?... *Calicem salutaris...* Meza santuko oparia, eskintza guztietan edefena.

e) *Meza eskar edo mesede bañiak jadesteko opalten den da.*

Geure obenak dirala-ta, begiak zerurantz jasoteko bildu bú ba-gara, Jesukristo meza santuan bere Aitari gure alde eske dagoala gomutau daigun. «Meza santuaren bidez, kristiñauak zerrua jadesteko beá dauen guztia irabazi dagike» diño Molina jakintsuak.

### III

## ¿Nok eskintzen dau Meza?

Lenen, Jesukristok berak, meza santua bere Gorputz-Odolareni Oparia da-ta.

Gañera, abadeak, Jesukristoren ordezko ta on-dorengoa lez.

Eleiza osoak eta kristiñau guztiak, abadearen bidez.

Oña zegaitik esaten dauen meza-emoleak altaran: «Otoitz egizue, anayak, nire ta zuen opari au Jaungoiko alorodunaren gogoko izan daiten».

Bañia kristiñau guztiak bardin ez dabe meza eskintzen. Meza-emoleagaz alkaftuago dagoz-ta, origaitik meza santuko oparian zati ta alde geyago dauke meza ateraten dabenak, meza-laguntzaleak eta entzuten dabenak.

### IV

## Mezearen balioa ta irabaziak

a) *Meza santuaren balioa berez neuígabea da: meza eskintzen dauana Jesukristo da-ta; oparia, bañiz, bere Gorputz-Odol aguigáriak.*

b) *Bere irabaziak be andi-andiak dira.*

1.—Batzuk kristiñau guztien ártean banatzen dira. Abadeak Eleizearen izenean meza-emoten dau-ta; beraz, kristiñau guztiak, naiz biziak naiz ilak, Eleiz-Amaren seme diran ezkerro, aberastasun oñein jabe egiten dira.

2.—Beste batzuk, meza entzuten daben kristiñauak irabazten dabez eta argiak (kandelak), ostiak eta abaí emoten dabezanak: oneik besteak baño ugariagoak dira, eta zenbat eta eraspen edo debozino geyagogaz meza entzuten dan ainbat eta an-diagoak.

3.—Beste batzuk, mezea ateraten daunak bakaírik irabazten ditu, naiz beretztat naiz beste edonorentzat, naiz bizientztat naiz ilentzat. Oneik auke-ratzko irabaziak dozuz. Emen daukazu bide guztiz egoki ta efeza aberaski andiak batzeko naiz zeurentztat naiz zeure etxeko senide, aide, lagun edo il diranentzat: meza santuak atera egizuz.

d) *Mezearen aberastasun eta irabazi oneik cizer dira?*

1.—Meza santuak pekatuak parkatzen ditu. Mezeak, berez pekatuak ez daula parkatzen gauza jakin da; baña «Jaungoikoa berealaxe efukitzen da meza santuaren bidez» diñosku Trento'ko Batzañak, eta laster emoten dausku egiazko damua

soitzeko beári dogun eskaŕ eragilea ta onen bidez parkapena.

2.—Gure pekatuen zoŕa kitutu ta ordaintzen dau. «Asko ta asko laguntzen dautse Garbitokiko arimai kristiñauen otoitzak eta batez be, meza santuak» diño len aitatu dogun Batzaŕak.

3.—Azkenez, mesede ta grazi ugariak irabazten dauskuz, naiz arima naiz gorputzarentzat: osasuna, giro edo eguraldi onak... eta abaŕ.

Emen oaŕtu egizu, kristiñaua, eskaŕ edo mese-deen bat edo beste loŕtzearen, zuk mezea atera, eta nai dozuzan mesedeok jadetsi ezpa-dagizuz, edo zeure arimearen kaltean izango litzakelako dala, edo oŕein ordez Jaungoikoak beste mesede andi ta edefagoen bat egin nai dautzulako. Beraz, galtzen dozula uste dozunean be, askotan, zuk ezagutu ez aŕen, uste zeban baño askoz geyago irabazten dozu.

## V

### Mesarako beári diranak

Jesukristo gure Beŕeroslea adierazten dau Meza -emoŕleak, *Sacerdos alter Christus*. Altaran Jesukristo ber-bera eskintzen da kalbarioko mendi galuŕean eskińi zan lez, mezea ta kalbario'ko oparia gauza bat eta ber-bera da-ta. Meza-emoŕea Jesukristo'ren ordeko baño ez da.

#### 1.-Altarea.

Altara-mayak (naiz aŕiuŕdin naiz zulezkoa dala) aŕi bat euki beári dau erdian, martiri edo santuren baten azúr edo gorpuzkińak dituana.

Eleizearen asieran, martirien obi-gaňetan emon oi zan meza deuna. Altarea Jaungoikoaren jaŕ-lekua lez da. Antxe dago gure aguŕ, eskintza ta eskariak aŕtzeko. Augaitik altarea luŕetik mala bi edo iru gorago jasoten da.

Altara-erdian gurutzea agiri da: bere eskeŕ-eskomar argi bi biztuten dira. Altarako gurutzeak gure Erosle maitearen kalbarioko gurutze aguŕgafia adierazten dausku: argiak kristiñau-eŕia adierazten dabe, siňesmen-argiz eta maitasun-indafez Jesukristoren gurutzea guŕtzen datoŕen eŕia. Ofezaz gańera, Jesukristo gure Jauna egiazko argia, obenaren ilunak kentzen dituan argia dala be esan nai dausku.

Altara gańeko iru zapiak, Jesusen gorputz-ila batzeko erabilí ziran zapi zurieng irudi dira.

#### 2.-Meza-ontziak.

Jesukristo'ren ilobia eta saŕerako aŕi-lozea adierazten dabez: guztiz ederak, uŕe ta zidaŕezkoak izan oi dira. Eta ez da aŕitzeko gauzea be, uŕe ta zidaŕifik garbiiena baño askozaz edefagoak diran ezkerro, eurak euki beári dabezan Jesukristo'ren Gorputz eta Odol aguŕgafia. Zure biotz ori be, ene kristiñaua, altarako sakramentua aŕtzen dozunean, Jesukristoren ilobia lez da. Ardura aŕtu egizu, ba, meza-ontziak baizen garbi egon dadin zure biotz ori be.

#### 3.-Meza-emoŕearen jantziak,

Buru-estalgia (amitua) Jaunari arpegia estaltzeko bota eutsoen zapi zuriaren iŕudi da, belaŕondo-

koak emon-eta itundu eutsoanean: «Kristo, igarri egioi nok jo auan».

Gařikoa (zingulua) Jetsemani'ko espaňuan, eskuak ezaři eutsozanean, jauřiti eutsoen txikot edo sokearen irudi da, ta gorputz-arimako garbitasuna adierazten dau.

Jantzi zuria (albea), Erodes'en aginduz, Jaunari, zoroa bai li'tzan jantzi eutsoen soñeko zuriaren irudi dozu.

Eskubitořekoak (manipulační) Jaunari bere eskuak lotzeko ezaři eutsoen lokařia dirudi.

Samakoa (estolea) gurutzea bere bizkařean eroala samatik lotu eutsoen txikotaren irudi dozu.

Ganeška (kasulea) zigofkatu ondoren, jantzi eutsoen soñeko bařegafšaren irudia da: *goria* danean, zinopá edo martiriak siňesmenaren alde ixuritako odola gogoratzen dausku. Gabon eta Pazko-aldiko jantzi *zuriak*, poza ta atsegifňa adierasten dauskeüz, Jesukristo gure Jaunaren Jayotza ta Beřibzkundea gomutaurik. Ořlegi edo berdea Pentekoste ondorengo domeketan erabilten da ta itxaropena esan nai dau. Elgaro (abendu) ta Garizuman urredin-balta: biotz garbai edo penitentzia adierazteko. *Balta*, Barieku gurenez eta iļen mezatan bakařík erabilten da.

Abade-jantzi bakotxak gurutzea dauka erdian. Onelan gure Ama Eleizeak gomutazoten dausku zeruko atea idegi dauskuna gurutzea dala.

#### 4.-Meza-liburuak.

Gure Eleiza Amaren otoitzak eta Jaungoiko berberaren mintzaldi ta itzak daukez meza-liburuak.

Ebangelioko itzak Jaungoikoarenak dira-ta, Jaungoikoaren itzak lez ařtu beař dozuz beti, begirune maitasun andiz, eta zeure biotz bařenean gorde, Mariak bere Semearen itz guztiak gordetan ebazan lez. *Conferens in corde suo*.

## VI

### MEZA ENTZUTEKO EREA

Abadeak meza emoten dauanean, Kenpis'ek diňosku, Jaungoikoa goratzan dau, aingeruak poztu ta Eleizea adoretu. Bizi diranai laguntza dakařtse, iļai atsedena.

Meza bitařtean zeruak zabalik dagoz eta aingeruak gora ta bera dabiltz, gure eskariak eroan eta Jaungoikoaren eskař eta mesedeak gugana ekařten. Mezearen bidez Jauna al danik ondoen goratzen dogu, zoř dautsaguzan mesedeakaitik eskeřak emoten dautsaguz, geure obenen parkapena jadesten dogu ta, azkenez, Jaungoikoaren laguntza irabazi.

Itz edeř ořeikaz ondo baño obeto adierazten dausku Kenpis jakintsuak:

Meza deunak, Jauna goralzen dauala.

Bere mesede ugarien ordez, eskeřak damotsoguzala.

Geure obenen parkapena irabazten dogula.

Eta eskař edo grazirik andienak Jaungoikoagandik jadesten dauskuzala.

Lau asmu edeř ořeik (diňo Porto Maurizio'ra Leonardo Deunak) beti begien auréan euki beař doguz meza entzuten dogun bakotxeán.

**VII****MEZEAREN ESKINTZA**

(300 eguneko párkapenak bakotxean)

**AITA** Betikoa; Maria, Ama atsekabetuak, kalbarioan eukazan asmo ta gogoakaz batera eskintzen dautzut gaur Jesukristo zure Semeak gurutzean eskiñi eutzun berre Buruaren oparia, orain altaran bañiztuko dana: Eta ori eskintzean lau asmo doda:

**LENENGOA:** Guítu nai zaitut eta zoí yatzun aintza emon be bai, gauza guztien Jabe bakaña zareala autoítuaz, oneik guztioik zure gogoko dira-ta, neure asmo osoa Zugan ipiñirik.

**BIGARRENA:** Uírengo, Eskeŕak emon nai dautzudaz, guri egin dauskuzuzan eta neúfririk ez dauken ainbeste mesedegaitik.

**IRUGARRENA:** Ainbeste bidegabekeri dirala-ta, zure bidezko aseŕe ori baretu ta gozatu nai neuke ta irain ófein ordezko zoŕak Zuri beaŕ dan lez ordaindu be bai.

**LAUGARRENA:** Zure eskaŕ, grazi ta eŕuka kia eskatzen dautzudaz, neuretzat... (jári

emen zeure aide ta lagunen izenak) naigabe ta negárez bizi diranentzat, pekatari eŕukaŕitentzat, gizon guztientzat eta Garbitokiko arima bedeinkatuentzat.

**MEZA - AUŔEAN**

*Meza-nagusilan, mezeari asiera emon baño len, abadeak altara-aufeán abestu edo kantau oi dabe:*

**Asperges me**

Asperges me, Domine hyssopo et mundabor: lavabis me, et super nivem dealbabor.

℟. Ps. Miserere mei, Deus:

℟. Secundum magnam misericordiam tuam.

℣. Gloria Patri, et Filio, et Spiritui Sancto.

℟. Sicut erat in principio, et nunc et semper et in sacerdotalia saeculorum. Amen.

Asperges me... (baíro).

℣. Ostende nobis, Domine, misericordiam tuam:

℟. Et salutare tuum da nobis.

- ℣. Domine exaudi orationem meam;  
℟. Et clamor meus ad te veniat.  
℣. Dominus vobiscum  
℟. Et cum spiritu tuo.

### Oremus

Exaudi nos, Dómine sancte, Pater omnipotens, aeterne Deus: et mittere digneris sanctum Angelum tuum de cœlis, qui custodiat, foveat, protegat, visitet atque defendat omnes habitantes in hoc habitaculo. Per Christum Dominum nostrum. Amen.

Berbizkunde edo Pazko aldian «Asperges»en ordez esan oi da.

### Vidi aquam

Vidi aquam egredientem de templo, a latere dextro, alleluia: et omnes ad quos pervenit aqua ista, salvi facti sunt, et dicent: alleluia, alleluia.

℣. Confitemini Domino quoniam bonus:

℟. Quoniam in sæculum misericordia ejus.

℣. Gloria...

℟. Sicut erat...

- Vidi aquam... (bañiro).  
(Ostende nobis... alleluia...)

## MEZEAREN LENENGO ZATIA

### ASIERATIK EBANGELIORAÑO

Mezearen lenengo asmua gogoratu beaí dozu emen: au da, Jaungoikoa goratu, guítu ta aintzaldu beaí dozula. Bere anditasun eta eskubidea autoftu egizuz eta bere auñean makuútu zaitez, Jaun Bera bakañik da-ta, Altsua be Bera bakañik.

### Altara auñeko Otoitzak

Meza-emoñek altara auñean zutunik «Gurutze Santua» egiten dau lenengo, bera eskintzera doan Oparia (Sakrifizioa) ta Jesukristok gurutzean Aitari eskiñi eutsona, gauza ber-bera dirala guztioi gomutau eragiteko.

Gero, altarara igoteko daukan guraria agertzen dau eta bere pekatuen parkapena eskatu «Confiteor» esanaz.

In nomine Patris  
et Filii et Spiritus  
Sancti. Amen.

Ant. Introibo ad  
altare Dei.

Aitaren eta Se-  
mearen eta Espiritu  
Santruaren izenean.  
Olantxe.

i) Jaungoikoaren  
altarara igongo naz.

R. Ad Deum qui lætificat juventutem meam.

Júdica me, Deus, et discerne causam meam de gente non sancta: ab hómine iniquo et doloso érue me.

Quia tu es, Deus, fortitudo mea: quare me repulisti? et quare tristis incedo dum affligit me inimicus?

Emitte lucem tuam, et veritatem tuam: ipsa me deduxerunt, et adduxerunt in montem sanctum tuum, et in tabernácula tua. Et introibo ad al-

e) Neure gaztetasuna poztuten dauan Jaungoikoga-gana.

i) Jauna, nire biziidea ikusi ta lagun dongeakandik berezi egizu: gizon gaizto ta guzuftiakandik jagon nagiztu.

e) Jauna, nire sendotasuna Zu zara-ta, Zugandik zegaitik urundu nozu? eta zegaitik nabil gogo - ilun, arerioak atsekabetzen nauanean?

i) Zure argi ta egia bialdu egida-zuz: eurak zuzenduta eroango nabe zure mendi santura ta zure egon-lekura.

e) Eta Jaungoi-

tare Dei: ad Deum qui lætificat juventutem meam.

Confitebor tibi in cithara, Deus, Deus meus; quare tristis es, áнима mea? et quare conturbas me?

Spera in Deo, quóniam adhuc confitebor illi, salutare vultus mei, et Deus meus.

Gloria Patri, et Filio, et Spiritui Sancto.

Sicut erat in principio et nunc et semper, et in sǽcula sǽculorum. Amen.

koaren altarara igongo naz: neure gaztetasuna poztuten dauan Jaungoikoga-gana.

i) Zure gorespenak soñuz abestuko dodaz, neure Jauna eta Jaungoikoa: zer dala-ta zagoz itun, ene arimea, eta zegaitik áltega ipinten nozu?

e) Jaungoikoga-gan itxaron egizu: oraindi eresiz goretsiko dot, neure Beferosle ta Jaungoiko da-ta.

i) Aintza Aitari eta Semeari eta Espíritu Santuari.

e) Len lez orain eta beti eta gizaldien gizaldietan. Olantxe.

Jantzi baltzaz meza-emoten danean, abadeak «Introibo» ta beroni dagokion erantzuna esan ondoren, jaŕaitzen dau:

Adjutorium nostrum in nomine Domini.

Qui fecit cœlum et terram.

Meza-emoleak «Confiteor» esaten dau ta meza -erasotzaleak erantzuten dautso:

Misereatur tui omnipotens Deus, et dimissis peccatis tuis, perducat te ad vitam æternam.

R. Amen.

Confiteor Deo omnipotenti, beatæ Mariæ semper Virgini, beato Michaeli Archángelo, beato Joanni Baptistæ, sanctis Apóstolis Petro et Paulo, ómnibus Sanctis, et

i) Gure indaŕa Jaungoikoaren ize-nean dago.

e) Zeru - luŕak egin dituana.

Jaungoiko aloroduna zutzaz eŕuki bedi eta zure pekatuak parkatu ta betiko bizitzara eroan aizalza.

e) Olantxe.

Nik pekatari onek, autoŕtzen dautset alguztidun Jaungoikoari, Andra Maria beti-Birjiňari, Zoriondun Migel goi-aingeruari. Zoriondun Joan Bautisteari, Pedro ta

tibi, Pater, quia peccavi nimis cogitatione, verbo et ópere, mea culpa, mea culpa, mea máxima culpa. Ideo precor beatam Mariam semper Virginem, beatum Michaelem Archángelum, beatum Joannem Baptistam, sanctos Apóstolos Petrum et Paulum, omnes Santos, et te, Pater, orare pro me ad Dóminum Deum nostrum.

Misereatur vestri omnípotens Deus, et dimissis peccatis vestris, perducat

Paulo Apostolu deunai, beste Santu guztiai eta zuri, ene Aita oŕi, pekatu laŕegi egin dodala, gogapen, itz eta egitez, neure eŕuz, neure eŕuz, neure eŕu andiz. Augaitik eskatzen dauts et Andra Maria beti - Birjiňari, Zoriondun Migel goi-aingeruari, Zoriondun Joan Bautisteari, Pedro ta Paulo Apostolu deunai, beste Santu guztiai eta zuri, ene Aita oŕi, otoiegin dayozuela nire alde Jaungoiko gure Jaunari.

Jaungoiko aloroduna zuetzaz eŕuki bedi, zuen obenak parkatu-ta, betiko

vos ad vitam æternam.

R). Amen.  
Indulgéntiam, absolutionem, et remissionem peccatorum nostrorum tribuat nobis omnípotens et misericors Dóminus.

R). Amen.  
¶. Deus, tu conversus vivificabis nos.

R). Et plebs tua lætabitur in te.

¶. Ostende nobis, Dómine, misericordiam tuam.

R). Et salutare tuum da nobis.

¶. Dómine, exaudi orationem meam.

R). Et clamor meus ad te véniat.

bizitzara eroan zaginezala.

e) Olantxe.  
Jaungoiko alorodun eta erukiofak bere eruki, azkessen eta geure obetenen parkapena emon begiguz.

e) Olantxe.

i) Jauna, gugana biúrturik, bizkoftu gagizuz.

e) Eta Zugan poztuko da zure eñia.

i) Zure erukia erakutsi eiguzu, Jaun oék.

e) Eta zure osasuna emoiguzu.

i) Nire otoitzentzuizu, Jauna.

e) Eta nire oyua Zugana eldu bedi.

¶. Dóminus vobiscum.

R). Et cum spíritu tuo.

Abadea altarara igoten da ta ixilik esaten dau:

OREMUS OTOITZA

Aufer a nobis, quæsumus, Dómine, iniuitates nostras: ut ad Sancta Sanctorum puris mereamur méntibus introire. Per Christum Dóminum nostrum.

Amen.

Altareari mun egiten dautso, esanaz:

Oramus te Dómine, per mérita Sanctorum tuorum, quorum reliquiae hic sunt, et ómnium Sanctorum: ut in-

Jaungoikoaren Seme maitea  
 Geu lez, gizon egin yaku,  
 ¡Auxe bai zorion andia!  
 ¡Bere anai egin gaitu!  
 Goiz, árats...



## ILEN MEZA

(In die obitus.—Norbait il dan egunerako)

### INTROITUS

RéQUIEM aeternam  
 dona eis Dómine:  
 et lux perpétua lú-  
 ceat eis. (Ps. 64).

### SARREREA

BETIKO atsedena  
 emoiez, Jauna, ta  
 amaibako argiak ar-  
 gi egin begioe. (64'  
 G. ERES).

Te decet hym-  
 nus Deus in Sion, et  
 tibi reddétur vo-  
 tum in Jerúsalem:  
 exáudi oratióñem  
 meam, ad te omnis  
 caro véniet.

—Réquiem æternam.

ORATIO

Deus, cui proprium est miseri-  
ri semper et párcere,  
te súpplices exorá-  
mus pro ánima fá-  
muli tui N. quam  
hódie de hoc sæcu-  
lo migráre jussísti:  
ut non tradas eam  
in manus inimíci,  
neque obliviscáris  
in finem, sed júbeas  
eam a sanctis An-  
gelis súscipi, et ad  
pátriam paradísi  
perdúci; ut, quia in  
te speravit et crédi-  
dit, non pœnas in-  
férii sustíneat, sed  
gáudia ætérna pos-  
sídeat. Per Dómi-

guztiok zugana  
joan bear dogu-ta.

—Betiko atsede-  
na...

OTOITZA

BETI eírukitu ta  
parkatzea dagoki-  
zun Jaun ofí, gaur  
bizitza onetatik  
eroan dozun zeure  
otsein l'ren arimea-  
ren alde zeure au-  
ean auzpaz eska-  
tzen dautzugu: ař-  
en, arerioen eskue-  
tan ez egizu ipiñi ta  
beratzaz azkenera-  
ño ez zaitez aiztu,  
aingeru deunak ař-  
tu ta goiko zorion  
-abeñira eroan da-  
giela agindu baño,  
Zugan itxaron eta  
siñetsi eban ezkerro,  
gaiztokiko nekerik  
ez dagian jasan eta

num nostrum Jesum  
Christum Filium  
tuum, qui tecum vi-  
vit et regnat in uni-  
tate Spíritus Santi  
Deus, per omnia  
sæcula sæculorum.  
Amen.

Léctio Epistolæ beá-  
ti Páuli Apóstoli ad  
Thessalonicénses

(I THESS. 4. c.)

FATRATES: Nólumus  
vos ignoráre de  
dormiéntibus, ut  
non contristémini,  
sicut et cæteri, qui  
spem non habent.  
Si enim crédimus  
quod Jesus mórtuus  
est, et resurre-  
xit, ita et Deus eos,  
qui dormíerunt per  
Jesum, addúcet

azkenbako atsegin  
-pozen jabe egin  
daiten. Amaibako  
egunetan zugaz eta  
Espíritu Santuagaz  
batera bizi dan eta  
agintzen dauan Je-  
sus kristo gure Jau-  
nagaitik. Olantxe.

**Paulo deunaren  
idazkia Tesalonika-  
tafai (I. 4)**

Il diranak beñbitzuko  
dira

**A NAYOK:** Lotan dat-  
tazanetzaz (il diran-  
netzaz) jakitun ipiñi  
nai zaituegu, itxaro-  
penik ez daukenak  
lez, naibagetu ez  
zaitezen. Jesus il  
eta beñbitzu zala  
siñesten dogun ez-  
kerro, olantxe Jesus-  
egan loak ařtu zi-  
tuanak be, Jaungoi-

cum eo. Hoc enim vobis dícimus in verbo Dómini, quia nos, qui vívimus, qui residui sumus in advéntum Dómini, non præveniémus eos, qui dormierunt. Quóniam ipse Dóminus in jussu, et in voce Archángeli, et in tuba Dei descendet de cœlo: et mortui, qui in Christo sunt, resúrgent primi. Deínde nos, qui vívimus, qui relínquimur, simul rapiémur cum illis in núbibus obviā Christo in áera, et sic semper cum Dómino erimus. Itaque consolámini invicem in verbis istis.

koak berbítzu ta Jesus beragaz eroango dauzala siñestu bear dogu. Beraz Jaunaren itzez diñotzuegu, guk, bizi garenok, il ziranai ez dautsegula aufea aítuko. Jauna bera goiaingeruaren agindu ta abotsez eta Jaungoikoaren turuta-soñuz zerutik jatsiko da - ta, Kristogar il ziranak lenen beibitzuko dira. Gero gu, bizi garenok, gelditu garenok, aekaz batera odayetan zeaŕ aidean eroanak izango gara Jesukristoren auéra, eta onelan beti Jaunagaz egongo gara. Egi oneikaz poztu zaiteze, beraz,

alkaén artean.

*Graduale.* Réquiem aeternam dona eis Dómine; et lux perpetua luceat eis.

¶ Ps. 111. In memória aeterna erit justus: ab auditio-ne mala non timébit.

*Tractus.* Absolve Dómine áimas ónnium fidélium defunctórum ab omni vínculo delictorum. ¶ Et grátia tua illis succurrente, mereántur evádere judícum ultiónis. ¶ Et lucis aeternae beatitudine pérfrui.

*Malaquena.* Betiko atsedena emoieu-zu, Jauna, ta amai-bako argiak argi-egin begioe.

¶ Ps. 111. In memória aeterna erit justus: ab auditio-ne mala non timébit.

*Luzakia.* Azkatu egizuz, Jauna, ilda-ko zintzo guztien arimak gaiztakeri guztien lokaſietatik. Eta zure grazia la-gun yakela, zure asafezko epayari iges-egin begioe-ta amai-bako argiaren zoriona jadetsi begie.

**Dies iræ**

(Sequentia)

1.

Dies iræ, dies illa  
Solvet sæclum in favil-  
[la,  
Teste David cum Sibyl-  
[la,

2.

Quantus tremor est  
[futurus,  
Quando Judex est ven-  
[turus  
Cuncta stricte discuss-  
[surus.

3.

Tuba mirum spargens  
[sonum  
Per sepulchra regio-  
[num,  
Coget omnes ante thro-  
[num.

4.

Mors stupebit, et na-  
[tura,  
Cum resurget creatura,  
Judicanti responsura.

**Sumin-eguna**

(Jaŕaikia)

1

Aseñe-egun, a eguna  
Luŕa austuko dauana  
Dabi ta Sibilen ziñaz.

2

Ikarea darioke  
Ta Epailea dakaŕke  
Oro zofotz epaitzera.

3

Turuta izugaŕiak  
Idegirik ildegiak

4

Batuko ditu il guztiak.  
Aŕituko da eriotza  
Entzutean erantzuka  
Berak ildako gizona.

## 5

Liber scriptus profes-  
[retur,  
In quo totum contine-  
[tur,  
Unde mundus judice-  
[tur.

6

Judex ergo cum sede-  
[bit,  
Quidquid latet, appare-  
[bit:  
Nil inultum remanebit.

7

Quid sum miser tunc  
[dicturus?  
Quem patronum roga-  
[turus,  
Cum vix justus sit secu-  
[rus?

8

Rex tremendæ majes-  
[tatis,  
Qui salvandos salvas  
[gratis,  
Salva me fons pietatis.

9

Recordare, Jesu pie,

## 5

Idaztia da idegiko

Guztia bertan bai dago

Gizadia epaitzeko.

## 6

Epaikaria jaŕirik  
Gauza ixilak agerturik

Ez daitekez zigorí barik.

## 7

Zer diñoket nik gai-  
[xoak?

Lafi ba-dira zintzoak?

¿Nori luzatu besoak?

## 8

Eŕege andi ta Jauna,

Duan salbetan dozuna,

Salbau naizu, eŕukioŕa.

## 9

Oroi zaite, Jesus ona,

Quod sum causa tuæ  
[viæ:  
Ne me perdas illa die.

10

Quærens me, sedisti  
[lassus:  
Redemisti, crucem pas-  
[sus:  
Tantus labor non sit  
[cassus.

11

Juste judex ultiōnis,  
Donum fac remisionis  
Ante diem rationis.

12

Ingemisco tanquam  
[reus:  
Culpa rubet vultus me-  
[us:  
Supplicanti, parce De-  
[us.

13

Qui Mariam absolu-  
[visti,  
Et latronem exaudisti,  
Mihi quoque spem de-  
[disti.

Nire aldez il ziñala:

Ez, afen, ni galdu, Jau-  
[na,  
10

Ni-bilā ziñan nekatu,  
[ne,

Gurutzan erosi nozu:

Lan ori ezpedi galdu.  
[na,

11

Epaikari zuzena, afen  
Parkatu nagizu emen  
Epaikundea baño len.

12

Obenak dauste ipiñi  
Arpegia lotsaz gofi:

Garbai naz; Jauna, az-  
[ketsi.

13

Maria'ri parka zeu-  
[tsan:  
Lapuñari be eriotzan,  
Uste bete daukat Zu-  
[gan.

14

Preces meæ non sunt  
[dignæ:  
Sed tu bonus fac benig-  
[ne,

Ne perenni cremer igne.  
[ne,

15

Inter oves locum præ-  
[sta,

Et ab hoëdis me seque-  
[tra,

Statuens in parte dex-  
[tra.

16

Confutatis maledictis,  
Flammis acribus addic-  
[tis,

Voca me cum benedic-  
[tis.

17

Oro supplex et accli-  
[nis,

Cor contritum quasi ci-  
[nis,

Gere curam mei finis.  
[nean.

Nire otoitzta ez da  
[duin,  
Baña egizu alegin  
[ne,

Gaiztokian eŕe ez na-  
[din.

15

Bildotsakaz aŕtu nai-  
[zu,  
Akeŕ taldetatik kendu,

Eskomaldera bidaldo.

16

Gaiztetsiak gaiztoki-  
[ko

Sutara jaurti ezkerro,

Deitu naizu zerurako.

17

Auzpaz autsaren ga-  
[nean

Daskatzut gaurko egü-  
[nean

Gorde naizun azke-  
[nean.

18

Lacrimosa dies illa,  
Qua resurget ex favilla  
Judicandus homo reus.

19

Huic ergo parce,  
[Deus:  
Pie Jesu Domine,  
Dona eis requiem.  
Amen.

**\* Sequentia sancti.  
Evangelii secundum Joáñem**  
(JOANN. 11 c.)

**I**N illo tempore: Dicit Martha ad Iesum: Dómine si fuisses hic, frater meus non fuisset mórtuus: sed et nunc scio, quia quæcumque poposceris a Deo, dabit tibi Deus. Dicit illi Jesus: Resúrget fra-

18  
Negaŕ utsezko eguna  
Autsetik biztuko dana  
Obendun epaikizuna.

19

Gaurko oni parka,  
[Jauna;  
Jesus on, eŕukioŕa,  
Emon eyezu zoruna.  
Olantxe.  
(Bera'tar E. M. Aba).

**\* Evangelio santuarren jaŕai pena**  
**Joanek dakaŕenez**  
(JOAN XI)

**A**LDI aretan: Martak esan eutsan Jesus'i: Jauna, emen egon ba-zíňa, nire anaya ez zan ilgo; baňa orain be badikit, Jaungoikoari eskatu dagiozun edozer, Jaungoikoak emongo dautzula. Jesusek diño-

ter tuus. Dicit ei Martha: Scio quia resúrget in resurreccióne in novísimo die. Dixit ei Jesus: Ego sum resurrección, et vita: qui credit in me, étiam si mórtuus fúerit, vivet: et omnis, qui vivit, et credit in me, non moriétur in æternum. Credis hoc? Ait illi: Utique, Dómine, ego créddi, quia tu es Christus Fílius Dei vivi, qui in hunc mundum venísti.

**OFFERTORIUM**

Dómine Iesu Christe, Rex gloriæ, líbera áimas ómnia fidélium defunctórum de

tso: zure anaya biztuko da. Martak diñotso: azken egunean biztuko dala bai dakit. Jesusek esan eutsan: Berbizkunde ta bizitza neu naz: nigan siñesten dauana, ilten ba-da be, biziko da, ta nigan bizi dana ta siñesten dauna, ez da iñoz be ilgo. ¿Au siñesten dozu? Diñotso: Bai Jauna, siñestu dot zu Kristo zareala, Jaungoiko biziaren Semea, ludi onetara etorí zarena.

**ESKEINTZA**

Jesukristo Jauna, zeruko eŕegea, ildaiko kristiňau guztien arimak inpernuko neke ta zulo sako-

poenis inférni, et de profundo lacu: libera eas de ore leónis, ne absorbeat eas tártarus ne cādant in obscurum: sed sīgnifer sanctus Michaēl repræséntet eas in lucem sanctam: \* Quam olim Abrahæ promisisti, et sémini ejus.

¶. Hóstias et preces tibi Dómine laúdis offérimus: tu súscipe pro animábus illis, quarum hódie memoria m fácimus: fac eas Dómine de morte transíre ad vitam. \* Quam olim Abrahæ promisisti, et semini ejus.

netik aldendu egizuz: leoaren aotik jagon egizuz, inpernuak iruntzi ez dagan, ilunpetara jausi ez daitezan; baña Mikel Deun buruzagiak argisantura eroan begiz; antziña Abraan eta bere ondorengoi agindu zeutsen argira.

Jauna, Opari ta gorespen - otoitzak eskintzen dautzugu: abegi onez ártu egizuz gaur goratzen doguzan arimen alde: egizu, Jaun oék, eriotzatik bizitzara igaro daitezala: antziña Abraan eta bere ondorengoi agindu zeutsen argira.

## SECRETA

**P**ROPITIÁRE, quæsumus Dómine, animæ famuli tui N. pro qua hóstiam láudis tibi inmolámus, majestátem tuam supplíciter deprecantes: ut per hæc piæ placationis officia, pervenire mereatur ad requiem sempiternam. Per Dóminum nostrum.

## COMMUNIO

Lux ætérna lúceat eis, Dómine. \* Cum sanctis tuis in ætérnum: quia pius es.

¶. Réquiem ætérnam dona eis Dómine: et lux per-

## OTOITZ IXILLA

**E**RRUKI zaitez, ařen Jauna, zure menpeko I'ren arimeaz, gorapen-oparia bere alde eskiñi dautzugu-ta, zuri Jaun andi oři eskaturik, bakezko Opari efükitsu onen bidez, betiko atsedenera eroan dagizula. Jesukristo gure Jaunagaitik.

## JAUNARTZA

Betiko argiak argi-egin begioe, Jauna, zure santuekaz amaibako egunetan, efükiofa zara-ta.

Betiko atsedena emoiez, Jauna, ta azkenbako argiak

pétua lúceat eis.  
Cum sanctis tuis in  
æternum: quia pius  
es.

## POSTCOMMUNIO

**P**RÆSTA quæsumus  
omnipotens Deus;  
ut anima famuli tui  
N., quæ hodie de  
hoc sæculo migra  
vit, his sacrificiis  
purgata, et a pec  
catis expedita: in  
dulgentiam pariter  
et requiem capiat  
sempiternam. Per  
Dominum...

**MEZA-ERASOTEKO EREA**

*Apaiak.* In nōmine Patris, et Fílli et Spíritus  
Sancti. Amen. Introíbo ad altare Dei.

*Lagunak.* Ad Déum, qui lætificat iuven  
tutem méam.

argi - egin begioe,  
zure santuekaz  
amaibako egunetan,  
érukiora zara-ta.

## JAUNARTZE-OSTEKOA

**A**RREN eskatzen  
dautzugu, Jaungoi  
ko alguztidun orí:  
gaur bizitza oneta  
tik joan dan zure  
otsein l'ren ari  
meak, opari oneikaz  
garbiturik eta peka  
tuetatik azkaturik,  
betiko éruki ta atse  
dena eskuratu dagi  
zala. Jesukristo gu  
re Jaunagaitik.

a. Iúdica me, Deus et discerne causam méam,  
de gente non sancta, ab homine iniquo et doloso  
éruer me.

l. Quia tu es, Deus, fortitudo mea;  
quare me repulisti, et quare tristis incedo  
dum affligit me inimicus?

a. Emitte lucem tuam, et veritatem tuam: ipsa  
me deduxerunt et adduxerunt in montem sanctum  
tuum et in tabernacula tua.

l. Et introibo ad altare Dei; ad Déum  
qui lætificat iuventutem meam.

a. Confitebor tibi in cithara, Deus, Deus meus,  
quare tristis es áнима mea, et quare conturbas me?

l. Spera in Deo, quoniam adhuc con  
fitebor illi, salutare vultus mei, et Deus  
meus.

a. Gloria Patri et Fílio et Spíritui Sancto.

l. Sicut erat in princípio, et nunc et  
semper, et in sæcula sæculorum. Amen.

a. Introíbo ad altare Dei.

l. Ad Déum, qui lætificat iuventutem  
meam.

a. Adjutorium nostrum in nōmine Dómini.

l. Qui fecit cœlum et terram.

a. Confiteor Deo omnipotenti, etc. Et vos fra  
tres, orare pro me ad Dóminum Deum nostrum.

l. Misereatur tui omnipotens Deus, et

dimissis peccatis túis, perducat te ad vitam æternam.

A. Amen.

L. Confiteor Deo omnipotenti, beatæ Mariæ semper Virgini, beato Michaëli Archangelo, beato Joanni Baptistæ, sanctis Apostolis Petro et Paulo, omnibus Sanctis et tibi, Pater; quia peccavi nimis cogitatione, verbo et opere; mea culpa, mea culpa, mea maxima culpa. Ideo precor beatam Mariam semper Virginem, beatum Michaëlem Archángelum, beatum Joannem Baptistam, sanctos Apóstolos Petrum et Páulum, omnes Sanctos et te, Pater, orare pro me ad Dóminum Déum nostrum.

A. Misereatur vestri omnípotens Deus, et dimissis peccatis vestris perducat vos ad vitam æternam.

L. Amen.

A. Indulgentiam, absolutionem et remissionem peccatorum nostrorum tribuat nobis omnipotens et misericors Dominus.

L. Amen.

A. Deus, tu conversus vivificabis nos.

L. Et plebs, túa, lætabitur in te.

A. Ostende nobis, Dómine, misericordiam tuam.

L. Et salutare túum da nobis.

A. Dómine, exaudi orationem meam.

L. El clamor meus ad te véniat.

A. Dóminus vobiscum.

L. Et cum spíritu tuo.

**"KYRIE," RA ELTZEAN**

A. Kyrie, éléison.

L. Kyrie, éléison.

A. Kyrie, éléison.

L. Christe, éléison.

A. Christe, éléison.

L. Christe, éléison.

A. Kyrie, éléison.

L. Kyrie, éléison.

A. Kyrie, éléison.

**"KYRIE," EDO "GLORIA," ONDOREN**

A. Dóminus vobiscum.

L. Et cum spíritu tuo.

**"OREMUS," AMAITZEAN**

L. Amen.

**"EPISTOLA," AMAITZEAN**

L. Deo grátias.

*"EBANGELIO," AN*

- A. Dóminus vobiscum.
- L. Et cum spíritu túo.
- A. Initium vel Sequéntia sancti Evangéllii se-cundum, etc.
- L. Glória tibi, Dómine.

*"EBANGELIO," A AMAITZEAN*

- L. Laus tibi, Christe.
- A. Dóminus vobiscum.
- L. Et cum spíritu túo.

*"ORATE FRATRES," EAN*

- L. Suscípiat Dóminus sacrificium de-mánibus túis, ad laudem et glóriam nón-minis stíi; ad utilitatem quoque nostram totiusque Ecclesiæ stúae santæ.

*"PREFACIO," AN*

- A. Per ómnia sæcula sæculorum.
- L. Amen.
- A. Dóminus vobiscum.
- L. Et cum spíritu túo.
- A. Sursum corda.
- L. Habemus ad Dóminum.

- A. Grátias agamus Domino Deo nostro.
- L. Dignum et iustum est.

*"PATER NOSTER," EAN*

- A. Per ómnia sæcula sæculorum.
- L. Amen.

*"PATER NOSTER," AMAITZEAN*

- A. Et ne nos inducas in tentationem.
- L. Sed libera nos a malo.

*OSTIA PUSKATZEAN*

- A. Per ómnia sæcula sæculorum.
- L. Amen.
- A. Pax Dómini sit semper vobiscum.
- L. Et cum spíritu túo.

*JAUNARTZE-ONDOREN*

- A. Dóminus vobiscum.
- L. Et cum spíritu túo.

*"OREMUS," AMAITZEAN*

- L. Amen.
- A. Dóminus vobiscum.

- L. Et cum spíritu túo.  
 A. Ite, Missa est, vel Benedicamus Dómino.  
 L. Deo grátias.

## ILLEN MEZATAN

- A. Requiescant in pace.  
 L. Amen.

## ONESPENEAN

- A. Benedicat vos... Spíritus Sanctus.  
 L. Amen.

## "AZKEN - EBANGELIO," AN

- A. Dóminus vobiscum.  
 L. Et cum spíritu túo.  
 A. Initium vel Sequéntia Sancti Evangélii secundum etc.  
 L. Glória tibi Dómine.

## "EBANGELIO," A AMAITZEAN

- L. Deo grátias.



## V. ERASPEN edo Deboziñoak

### KRISTOREN NEKALDIAGAZKO ERASPENA

#### SAREREA

*Kristoren nekauste aguúgaria, kristiñauok beti begien aufean euki beá geuken idazti edeфа da: kalbarioko mendi galúrean Jesusek betiko idegita itxi dauskun liburua; bere odolez ikaskai nagusi-eder bi idatzi ebazan bertan:*

**LENENGOA:** guztioi dauskun maitasun neurigabea.

**BIGARRENA:** obenari (pekatuari) dautsan górotor bizia.

1.—Kristoren gurutz aguáigafia, lenengo ta bein bere eŕuki andiaren, amaibako maitasunaren ezau-gaŕi da: gurutzean baño obeto ónon erakutsi dausku Jesus maiteak guzti oíto dauskun maitasuna? zek, maitasunak izan ezik, josi dau gure Erosle maite ori gurutzean? Ain egoera lafi ta negaŕgafian ipińi dauana ez da Pilatos, ez Judas, ez dira judaŕak, ezta gure obenak be: *bere maitasunak, bere eŕukiak josi dau gurutzean, alpeŕekoia izango zan ba, Judasen dolorkeria, alpeŕekoia judaŕen gófotoa, alpeŕekoia gure gaiztakeria, Berak bere gurez eta eskubide osoz, ezpaŕleu, bere burua opaldu, bere bizia emon.*

Ora zegaitik diñoskun Paulo deunak: *Maite izan gaitualako bere bizia gure aldez emon dau: Dilexit me et tradidit semetipsum pro me.*

2.—Ofezaz gaňera, Jesukristok gurutzetik obe-nari, pekatuari, dautsan gófotoa irakasten dausku, Berak lez guk be obena gótotau daigun. Obena kentzeko, pekatua ezereztuteko, obenaren ondo-rengo kalteak gugandik ufundu ta ayenatzeko, gurutzean josirik il da, izugafizko oñaze-miñez, lapúr biren erdian, lapúr eta gaizkin andi, Baŕabas bera baño be gaizto ta biuflagoa izan bai'litzan.

Ona emen ene kristiňaua, idazti edo liburu guz-tiz edeŕia; bertan ikasiko dozu beste liburuetañ al-peŕik bilatuko zeukena. Deun edo Santuen jakituria, gurutze-jakintza: óf ikasi eben Santuak zeruko bidea, óftik atera eben euren jakituri, zuŕtasun eta kemena.

Augaitik iňoan Bernardo Deunak: *Nire jakituria Jesus gurutziltzatua ezagutzea da.*

Paulo deunak be ba-diňo: *Beste gauzarik ez dauala jakin nai Jesus gurutziltzatua baño.*

Eta Felipe Benizio deunak, il-zorian egoala, bere liburua eskatzen eban: emon eutsoezan liburu batzuk; baña berak gurutzea erakutsi ta eskatu eban, esanaz: *nire liburua auxe da.* Oneik lez maite egizu zuk be, kristiňaua, Kristoren Nekaldia, Kristoren gurutze aguáigafia.

## GURUTZ-BIDEA

### S A R E R E A

1.—Kristiňauen arŕean oituak diran jayera, eraspen edo debozioñetan ez da izango beaŕ-bada, bat egi-nik be, gure Ama Eleizeak maiteago dauanik eta Jaungoikoari atsegina geyago emoten dautsanik, Gurutz-bidea baño.

Benedicto XIV-gafenak diñosku: *Jayera, eraspen onenetaiko dala, ez bakarik Jesukristoren eriotz-nekeak guŕtzeko, baita pekatariak biuŕtu, nagi-epelak berotu ta onak sendotzeko be.*

Naibage ta lanak be efez arintzen dira gure Be-erosleak kalbarioko bidean eroan eta jasan zituan oñaze nekeak gogoratu ezkerro.

Orezaz gaňera, Eŕomako Aita Santuak, Klemente XII'g., Benedicto XIII ta XIV'g., Pio IX ta Leon XIII'gafenak batez be, parkapen askoz aberastu dabe. Gurutz-bidea eraspenaz egin ezkerro, ba, an-tziňa kristiňauak Jerusalen'era joanaz irabazten ebezan parkapen ber-berak irabazi daitekez.

Noz eta zelan soítu zan ziúr eztakigu. Brigida deunak diñosku Gurutz-bidearen eraspen oni Andrea Mariak berak emon eutsola asierea, bere Se-meagaz kalbarioko bide neketsuan ibili zanean... Dana dala, gauza argia da eraspen (deboziño) agur-gaŕi au guztiz edeŕa, oso atsegina ta onuragafia dala guztioentzat.

**2.—Gurutz-bidearen parkapenak irabazteko, iru gauza eskatzen dira.**

**LENENGO,** pekatu astunean ez egotea.

Jakiña, pekatu astunean zagozala, gurutz-bidea egiten ba-dozu, ez dozu txafto egiten; parkapenik ez dozu irabaziko, zeuretzat beiñepein; baña zure egikizun ofek Jaunaren efukia irabaziko dautzu, lenbailen bide onera biuŕtzeko.

**BIGARREN:** 14 egotaldiak egitea, batetik bestera joanaz.

Emen oaftu beaf dogu, bidezko dala gurutz-bidea amaitu barik iztea, autoftu naiz jaunaŕtze-ko, gero itxi dogun gelunetik asi ta amaitzen do-gula; ta eleizea lagunez beterik dagoanean, ez dala beafezkoa gelune batetik bestera joatea be.

**IRUGARREN:** Jesukristoren Nekaldi agur-gaŕia gogoz auznaŕtzea.

Baña egotaldi bakotxean Kristoren Nekaldiaz gogoratzea, ez da beafezkoa.

Beste otoitz, gogapen, abesti ta abaŕ... otoitz-liburueta dagozanak, irabazi ugariagoak aterateko asko lagundu aŕen, ez dira beafezkoak, Gurutz-Bidearen parkapenak irabazteko.

**3.—Gexorik dagozanak,** Gurutz-Bidearen parkapenak irabazteko, ofetarako bedeinkatua dagoan

gurutzea eskuetan aŕtu, Kristoren Nekaldia gogoratu ta ogei Aita gure, Aguŕ Maria ta Gloria esatea, naiko dabe:

14 Gurutz-bidearen 14 egotaldien ordez.

5 Kristoren 5 zauri agur-gaŕien gomutaz, eta

1 Aita Santuaren asmuetarako (LEON XIII<sup>o</sup>G. 1884<sup>o</sup>KO URTARRILLAREN 19<sup>o</sup>AN).

Aita gure oŕeik ezin esan dituanak, naiko dau biotzez damutu ta esatea: *Aŕen eskatzen dautzugu, Jauna, zeure Odol edeŕez beŕerosi dozuzan zeure oŕeñak jagon daizuzala.*

Eta gero, beste norbaitek esan dagizan 3 Aita gure, Aguŕ Mari ta Glorai biotzez erantzutea. (LEON XIII<sup>o</sup>G. 1890<sup>o</sup>KO IRALLAREN 9<sup>o</sup>AN).



**Gurutze Santuaren...**

Jesukristo neure Jauna...

## ESKINTZA

**N**EURE Jesus gozo-laztana, nire maitasunez, gurutze astuna bizkafean zeroala, ainbeste bide neketsutan ibili zareana!

Kalbarioko zure oñaze-miñak gauŕ emen gogoraturik, lenen neure eskaŕ-onra erakutsi gura dautzut eta gero, Eleiza Amak eskiñitako parkapen ugariak irabazi be bai, Garbitokiko arima eŕukańtzentzat eta batez be, zure gogokoen diran eta zoŕik geyen dautzuenentzat. Lagundu nagizu, Jauna, asmo edeŕ biok albait ondoen bete dagidazan.

Toki batetik bestera zoazala esan:

Sancta Mater is-	Jesusek guru-
tud agas.	tzean
Crucifixi fig e	Arturiko zauriak.
plagas.	Ama, josi nirean.
Cordi meo vali-	
de.	

### LENENGO EGOTALDIA

#### Gure Jesus maitea iltea erabagi dabe

*Adoramus te Chris-  
te, et benedicimus tibi.  
Quia per sanctam  
crucem tuam, redemisti  
mundum.*

*Guŕtzen zaitugu,  
Jesus, eta onesten zai-  
tugu, zeure gurutze  
santuz gizadia beŕerosi  
dozulako.*

NEURE Jesus maitea, judataŕ lotsagabe ta Pilatos'en auŕean ixil-ixilík zagoz, agintari zital au zure kaltez, bidegabeko epairik gogońena emotera doanean, zu gizonik zuzenena izanik.

Aŕen eskatzen dautzut, Jauna, emoidazula neure aŕokeria menperatzeko indaŕa, erbeste onetako naibageak pozik eroanaz, jadetsi dagidan nozbait zeruko zorion edeŕa. Olantxe.

*Aita gurea, Agur María, Aintza (Gloria).*

### BIGAŔEN EGOTALDIA

#### Jesus maiteak gurutzea aŕtzen dau

*Adoramus...*

ZERU-luŕaren Egile ta Jauna: judataŕ biuŕien menpean jaŕi zara, ainbat neke gogońaen eskuetatik aŕtu ta gero, gurutze astunna sorbalda gańean eroateko...

Emoidazu, Jauna: nik be gurutzea laztantzea, au da: atsekabe, min eta ezbeaŕ guztiak biotz onez aŕtu ta eroatea, gero zero edeŕean ikusi zagidazan. Olantxe.

(Aita gurea... ta ondoren ipiñi diran beste otoi-tzak, lenengo egotaldian lez, beste guztietan besaten dira).

### IRUGAŘEN EGOTALDIA

#### Gure Jesus maitearen lenengoaz jaustea

*Adoramus...*

**N**EURE Jesus laztana! Luŕean etzana ikus-ten zaitut gurutzepean, guztiz auldu ta nekatua. Gurutze astunak eratzi ete-zaitu ba luŕera, zeru-luŕak indaŕzen dozuzan Jaun altsu ori? Ez, nire oben (pekatu) astun ta bidegabe andiak dira: orain ezagutzen dot bakotxaren gaiztakeria.

Emoidazu, Jauna, guztiak biotzez gofotatzea. Olantxe.

### LAUGAŘEN EGOTALDIA

#### Jesus maiteak kalbarioko-bidean bere Ama ikusten dau

*Adoramus...*

**A**NDRA Maria, Amarik eŕukaſiena; zure onazearen Andia, Jesus zeure Seme lazta-

na ikusirik txistuz zikindua, zauriz josia, guztiak iŕi ta baŕe egiten dautsela!

Parkatu, afen, ene Ama: nire bidegabek ipiñi dabe zure Semea oŕelan; baña orain autoŕzen ditut eta auŕerantzean beste bat izango naz. Emoidazu, Ama laztan oŕek, biotzeko garbai ta damu egiaz koa. Olantxe.

### BOSGAŘEN EGOTALDIA

#### Jesus onari gurutzea eroateko laguna damotse

*Adoramus...*

**N**EURE Jesus maite-maitea! Laguna artu dozu gurutzea eroateko, ez laguntza beaŕean zagozalako, gu oso aldakoŕak, guztiz aul eta pekatariak izanik, geure indaŕ utsez ezer ezin gegikela erakustearen baño.

Emoiguzu, Jaun maite oŕek, guztiori ain beaŕezkoan dogun zeure laguntza ori. Olantxe.

## SEIGAŘEN EGOTALDIA

**Beronikak Jesus maiteari arpegia garbitzen dautso**

*Adoramus...*

ZERUKO izan argiak eta eguzkia bera baño ederagoa zarean neure Jesus eta Jauna: čonok zure arpegi ederí ori txistuz ezaindu dau?... Neuk, pekatari onek, neure gaitzakeri ta obenez; baña damuzko zapi ederáz orain zure izerdi-loyak kendu nai dodaz.

Ezaři, Jauna, nire biotzean zure izerdi ederá, ta ez naz auferantzean Zugandik aldenduko. Olantxe.

## ZAZPIGAŘEN EGOTALDIA

**Gure Jesus maitea bigařenez jausten da**

*Adoramus...*

JESUSEK bigařen aldiz luřa joten dau, ene kristiňaua: zegaitik ete da? Adierazo nai dauskulako, asmu sendo bařiak saři aŕtu ařen, bařiro jausiko gareala, bere laguntza eskatu ezpa-dagigu. Zoritxařez ofélan izan

da; amaika bidař geure biotza emon dausagu ta beste ainbestetan bařiro ukatu dogu, Pedrok lez; bere laguntza barik, ezer ezin geinke.

Emoiguzu, Jauna gure asmu onak indar-tuko dituan zeure laguntza ori. Olantxe.

## ZORTZIGAŘEN EGOTALDIA

**Gure Jesus maiteak Jerusalengo alabai itz-egiten dautse**

*Adoramus...*

NEGARREZ ikusten ditu Jesusek Jerusalengo alabak, Bera gurutziltzatzena daroelako, ta eřukiz beterik euren buruez negař egiteko diñotse, euren buruez eta euren semeetzaz.

Geure bařuan daukagu pekatariok zertzaz negař egin: geure obenak, geure gaiztakeri ta bidegabek: ořa oř zertzaz negař -egin; ondo damutu ta negař egin ezik, betiko galduen eta zoritxařa ekařiko dauskuez-ta.

Biztu ařen, Jauna, gure biotzetan zure maitasun-gařa ta pekatuagazko damu ta gófota bizia. Olantxe.

**BEDERATZIGAREN EGOTALDIA**

**Jesus maitea irugañenez jausten da luñera**

*Adoramus...*

Ikuuskizun arígañia! Zeru-luñaren Egile ta Jabe dan, Jaun andia irugañenez luñera jausten da. Bein eta biñitan jaustea, ez ete-zan ba naikoa? Ez, beañezkoa zan bañiro ta irugañenez be jaustea, guztiok ikasi gengian gurutzea azkeneraño eroan beañ dogula, au da: beti izango doguzala neke-lanak, oñaze miñak, ezbeañ eta naibageak, baña biotz onez aña ta eroan beañ doguzala.

Jaun maite oñek, gurutzea beti gogo-onez eroateko adore ta kemenetako emoiguzuz. Olantxe.

**AMAÑGAREN EGOTALDIA**

**Jesus maiteari soñekoak kentzen dautsoez**

*Adoramus...*

BEGIRATU ta ikusi egizu, kristiñaua, Jesus zure Jaungoikoa, aingeru lirañak baño as-

kozaz garbiago dan Jauna, bilosik bere arerioen aufean... Axe bai lotsañia! zenbaterañoko naigabe samiña ártu ete-eban ain lotsagañiro bere burua ikusirik, ainbeste lagunen artean?

Oña or, zelan ordaindu nai izan dituan gure nasaikeri ta loikeriak, gure aragikeri ta lizunkeri guztiak.

iEmoiguzu, añen Jauna, biotz-garbitasun andia! Olantxe.

**AMAIKAGAREN EGOTALDIA**

**Jesus maitea gurutzean josten dabe**

*Adoramus...*

NEURE Jesus eñukioñ eta maitea: gurutzean ipinten dozuz zeure esku-oñak eta ikara-gañiko oñaze - miñez gurutzean josten zaitue boñeru biotz-gogoñ oñek... Baña zer diñot boñeruak? Ni naz, Jesus maitea, zure boñerurik andiena, gurutze oñetan amaika bidar josi zaitut-eta, pekatu egin dodan bakotxean.

Eñuki zaitez nizaz gaur, ene Jaun ori, ta parkatu, añen, nire bidegabe guztiak. Olantxe.

## AMABIGAŘEN EGOTALDIA

**Gure Jesus maitea gurutzean ilten da**

*Adoramus...*

I KARATU zaitez, kristiñau ori, Jesus gurutzean eskegita, zintzilik begiratzen dozula, ikusgañirik andiena zure begiak orain ikusten dabe-ta.

Gizon zuzena lapuñ-gaizkiñen átean, bildotsik otzanena otso amuñatuen erdian, Jaungoikoaren Semea ta Aita lez Jaungoikoa bere arerioen eskuetan... gurutzean josita, odola dariola, ofa of gure pekatiuen ordaña.

Agurtzen zaitugu, Kristo gure Jauna ta bedeinkatzen zaitugu, zure gurutze santuaz beferosi gaituzulako. Olantxe.

## AMAIRUGAŘEN EGOTALDIA

**Jesus maitearen gorputua bere Amaren  
altszoan ipinten dabe**

*Adoramus...*

A MA samindu ta naibagetsua! čnok neuritu zure oñazeak, Jesus zeure Seme laztana

zeure altzo ta besoetan ilda ikusten dozula? Ama eñukitsu maitea, zure naigabeak besteko biotz-garbai ta damua euki nai neupez, neure pekatuak goñotatzeko, zure Seme laztan ori nire obenak erail dabe-ta.

Jadetsi egidazu eskař edo grazi berarizko au: biotzez eskatzen dautzut. Olantxe.

## AMALAUGAŘEN EGOTALDIA

**Gure Jesus maitearen gorputua eortzi  
edo obiratzen dabe**

*Adoramus...*

B EGIRATU egizu azkenez, kristiñau ofek, Jesusen gorputz ila eortzi dabentz obia: obi bañia da, atitz bizian zulatua ta ari zabal-lodi batek isten dau bere sañerea: Zure biotzak be obi bañia izan beañ dau, Jesus izan ezik, beste iñor gordeko ez dauana: sañerako afiak irakasten dausku, ardura andiz zaindu beañ dogula, Jesusen etsai edo arerioak sañtu ez dakiguzan, berak emondako eskař-doyak ostutera.

Andra Maria, neure Ama, emoidazu,

afen, zure Seme ta nire Beñerosle laztana-gazko maitasun bero-sutsua. Olantxe.

### **JESUKRISTOREN BOST ZAURIARI**

Xabier'tar Franzizko deunak egin oi eban otoitza.

**N**EURE Jaun eta Jaungoiko Jesukristo: guganako maitasunak gurutzean idegi eutzu-zan bost zauriakaitik eta gurutze-bidean izan zebazan beste ezin neuŕtu ala gorputz-uŕatze minberagaitik, eskatzen dautzugu: zure odol edeŕ-aldintsuz gaizkatu-riko guztiok, zure efukia, zure laguntza ta betiko zoriona jadetsi daigula.

(5 Aita gure, Aguŕ Mari ta Aintza, ta azkenean beste bat Aita Santuaren alde).

Gero:  
Adoramus te, Christe, et benedicimus tibi,  
Quia per sanctam crucem tuam, redemisti  
mundum.  
**OREMUS**

Respice quæsumus Domine, super hanc familiam tuam, pro qua Dominus noster Jesus Christus non dubitavit manibus tradi nocentium et crucis subire tormentum.

Qui tecum vivit et regnat, in unitate Spiritus Sancti Deus, per omnia sæcula sæculorum. Amen.

### **Jesus gurutziltzatuaren bost zauriak Aguŕak**

Gorago ipiñi dan otoitzaren ordez beste au esan daiteke, Gurutz-bidea amaitzeko.

Ezkeréko oñeko zauriari:

Biotzez guŕtzen zaitut neure Jesusen zaure edeŕ ori, ta berorigaitik, eskatzen dautzut, Jauna, neure ibilera gaiztoz egindako pekatu guztien parkapena. (*Aita gurea, Aguŕ Maria ta Aintza*).

Eskoiko oñeko zauriari:

Biotzez guŕtzen zaitut neure Jesusen zaure edeŕ ori, ta berorigaitik eskatzen dautzut, Jauna, neure itz eta egite gaiztoz egindako pekatuak parkatu daiztazuzala. (*Aita gurea...*)

Ezkeréko eskuko zauriari:

Biotzez guŕtzen zaitut neure Jesusen zaure edeŕ ori, ta berorigaitik daskatzut.

Jauna, neure begi ta beste zentzunez egindako pekatuak parkatzeko. (*Aita gurea...*)

*Eskoiko eskuko zauriari:*

Biotzez guŕtzen zaitut neure Jesusen zauri eder ori, ta berorigaitik eskatzen dautzut Jaun oŕi, nire gomutamen, adimen eta naimenaz egindako pekatuak, aŕen, parkatu daistazuzala. (*Aita gurea...*)

*Bulaŕeko zauriari:*

Biotzez guŕtu ta jauresten zaitut neure Jesusen zauri eder ori, ta berorigaitik eskatzen dautzut, ene Jauna: zure Biotza aztamakil gogoŕak eta zure Amarena ez-pata zoŕotzak josi eban lez, nire arima be zure maitasunak josi dagiala. (*Aita gurea...*)

Beste *Aita gure, Aguŕ Maria ta Aintza, Aita Santuaren alde.*

## LEZO'KO KRISTO DEUNARI

Gure asaba zaŕak; euskaldun zindo ta zintzoak, oso *Gurutze-Deunaren* zaleak zirala agiri da, gure Euskaleŕiko mendi-tontoŕ eta galuferetara begiratua z beste barik be, nonai gurutze edeŕak agiri dira-ta:

Uŕkabe, Guadalupe, Igeldo, Ernio, Gorbea... eta beste amaika ta amaika, bata bestea baño andi ta edefagoak.

Baña oneik guztiok baño entzute andiagoa dau-ko *Lezo'ko Gurutze Deunak*. Lezo'ko Gurutze au Euskaleŕi guztian antziña-antziňatik ezaguna da: bertara etoŕten dira bai Gipuzkoa, Bizkaya, Araba, Napaŕoa ta Bidasoz andiko euskaldunak be. Gurutzte ori noiztik dagoan eta nondik etofia dan, ondo-ondo iñok ez daki. Lezo'ko eleizatxu eder au Bayona'ko Gotzain eta martiri Leon deunaren egunetan erégia dala diňoe batzuk.

Baña *Lezo'ko Gurutze* ori noiz eta zelan etofi yakin ezpa-dakigu be, ondo baño obeto dakiguna, auxa da: Lezo'ko Gurutze Santuak mesede guztiz andiak ekaŕi dautsazala Euskaleŕiari, eta antziña Jesusek, Iuŕean ebilela, itsuak argitu ta elbaŕitua zutindu zituan lez, Lezo'n be ofein antzeko amai-ka mirari eder egin izan dirala.

Biztu daigun ba, euskaldun onak, Lezo'ko Gurutze Deunagazko eraspen eta maitasuna: Lezo'n dau-kagu euskaldunok, ufunera joan barik, geure sendagai ona: *Kristo gure Jaun Gurutziltzatua*.

## Eresia (Ormaetxea'rena)

*Lezon daukagu, euskaldun onak  
Gure sendagai bakaŕa.  
Kristo gure Jaun Gurutzetua  
Jaungoikoaren indaŕa.*

- |   |   |
|---|---|
| <p><b>1</b><br/>Geixoak makuútu<br/>zauzana<br/>naigabe eta neke<br/>zarana.</p> <p><b>2</b><br/>Goñak emen dira<br/>ernetzen<br/>baita itsuak bere<br/>argitzen.</p> | <p><b>3</b><br/>Emen gaiztakeri<br/>andia<br/>lasterí gelditzen da<br/>garbia.</p> <p><b>4</b><br/>Beso zabal zagoz<br/>Jainko ori,<br/>agirian dagoz<br/>bost zauri.</p> |
|---|---|

### JESUS GURUTZILTZATUARI

#### Otoitzta

ANTZIÑA-antziñatik, Lezon euskaldunok guíztzen zaitugun Jesus gurutziltzatu maitea! nik orain daukadan onen antzeko beañizan asko, zuk gurutze ofetatik, efuki andiz, estaldu dozuz. Lagundu dozuzan oñei baizen gozaro diñostazu: *eskatu ta ar-tuko dozu*, ta itz onek entzunik, zure irudi auéan auzpaztzen naz uste oso beteaz: beste ofeintzat zabaldu zebazan biotz-esku oñiek afen niretzat be zabaldu gaur, Jauna; entzun nire eskaria, (ipiñi emen es-

katu nai dozuna) sorosi nire beañizana. Olantxe.

(Pio Vgarén Aita Santuaren Otoitza—60 eguneko parkape-nak bakoitzean).

Jesukristo gurutziltzatuaren irudi auéan belau-nikaturik esan biotz-biotzez.

**J**ESUKRISTO neure Jaun gurutziltzatua, Andra Maria Birjiña Doatsuaren Seme guztiz maitea, zure belañiak idegi ta entzun nagizu, zeruko zure Aita Tabor mendian entzun zenduan lez. (Kredoa esan: *Siñesten dot...*)

2) Jesukristo neure Jaun gurutziltzatua, Andra Maria Birjiña Doatsuaren Seme maite-maitea; zure begiak idegi ta begiratu nagizu, zure Ama guztiz maite, naibagetu ta samindua gurutzetik begiratu zenduan lez. (*Siñesten dot...*)

2) Jesukristo neure Jaun gurutziltzatua, Andra Maria Birjiña Doatsuaren Seme maite-maitea: zure ao bedeinkatu ori idegi ta itz egidazu, Joan Santuari itz egin zeutsan lez, zure Ama maiteari semetzat emon zeutsanean. (*Siñesten dot...*)

4) Jesukristo neure Jaun gurutziltzatua, Andra Maria Birjiña Doatsuaren Seme

laztana; zure besoak zabaldu, ařen, ni laztantzeko, gurutzean zabaldu ta luzatu zebazan lez gizadi osoa laztantzeko. (Siñesten dot...)

5) Jesukristo neure Jaun gurutziltzatua, Andra Maria Birjiña Doatsuaren Seme laztana: zure biotz ori idegi, neure au ártu ta nire eskintzariak entzun, ařen, zure gogo santuak nai ba-dau. (Siñesten dot...)

Ondoren esan:

«Aita betikoa: Jesukristoren odol agúr-gařia eskintzen dautzut neure oben edo pekatuen ordaňez, eta beste Eleiza-Ama-ren beařizanetarako».

(100 eguneko parkapenak).

Eskatu emen zuretzat, zure senideentzat eta gure Euskaleři maite onentzat.



## SAKRAMENTU GUZTIZ DEUNARI IKERALDIA

Biotzez alkař maite daben lagunak, alkař-ikus-teaz eta alkařegaz egoteaz poz eta atsegirnik andie-na dauke ta onelan noz alkař ikusiko ibilten dira, bata-bestegaz egoteko atxaki biļa beti.

Jesus gure Jauna biotzez maite ba-dogu, eta ez itzez eta mingaňez bakařik, ez dogu egunik itxiko Berari ikeťtaldi edo ikustaldia egin barik.

¿Zer, astirik ez daukazula diňozu? egin oso-luzean ordu lauren bat bederen ez ete-do zu izango, Jesus zure lagun eta aiskiderik onena ikustera joateko?

Beař bada, eleizaraño ezin joan zaitekez: baňa etxeán bertan, basefian, mendi-txabolan be gogoz eta biotzez ikeťtu zegike, agúrta zegike, Beragaz jardunean edo autuan egon zaitekez.

¡Añen eskiñi egiozu, kristiñaua, egunean ordu laurentxu bat, Beragaz aiztuta bizi diran ainbat eta ainbaten izenez eta ordañez. Eskeí mesede ugarie-nak irabaziko dozuz.

### Asierako otoitzia

JESUKRISTO neure Jaun maite, gizonen maitasunez, gau ta egin bakaí-bakaík, altaran estalduta zagozan ori, gu zugana noz etoñiko begira. Agurtxen zaitut eta siñesten dot oñtxe, altara oñetan, zagozala bizi-bizirik eta egi-egiaz. Lenen guítu nai zaitut Jaungoiko andi ori zeure auñean auzpaz, neure ezereza ezagutu ta autoñ-tzen dodalarik. Eskeíak dagitzudaz, oñezzaz gañera, gauraíte egin daustazuzan mesede guztiakaitik, eta auferantzean egingo daustazuzanakaitik, batez be, emen altaran nigaitik gelditu zarealako, zure oñetara deitu nozulako ta Andra Maria, zeure Ama berbera, neure Amatzat emon daustazulako.

Agurtxen zaitut, bai, neure Jaun maite ori; zure Biotz guígaría be guítxen dot eta gaur zure auñera etoñírik, iru asmu bete nai ditut.

*Lenengoa:* Bidezko eskaíak, eskaí ugariak emon nai dautzudaz, gure artea, gure aldamenean, gugaz batera gelditu zarealako.

*Urén:* Emen, zure etxe onetan eta batez be altarako Sakramentuan gaur aíte egin yatzuzan irain guzti-guztien ordaña emon nai dautzut.

*Eta azkenetan:* Zugaz aiztuta bizi diran gizaseme guztiak (eta batez be neure aide ta lagunen) tokia bete nai dot, euren ordez, euren izenean eskaíak eta aguñak zuri egiñaz.

Neure Jaun laztan-maite ori! biotz-biotzez maite zaitut: naibage ta garbai naz ainbeste bidai Zure Biotza mindu ta atsekabetu dodalako; ta asmu bañi sendoa aírten dot auferantzean iñoz be obenik ez egiteko; neure gogo ta biotza, neure gomutamen eta naimena (borondatea), nazan eta al dodan guzia zeureak dozuz. Bakaí-bakaík zeure maitasuna gorde nai dot eta il aíterano maitasun oñetan irau-tea eskatzen dautzut. Eñuki zaitez, Jauna, Garbitokiko arima gaixoetzaz, eñuki zaitez pekatarietzaz: aen eta onein alde es-

kintzen dautzudaz Aita Jaungoiko oñi neure irabazi apurak zure Semearen irabazi neuñibakoekaz batera: abegi onez aítu egizu, Jaungoiko andia, neure opari au eta ordañez emoidazu Zeugazko mai-tasun bero-sutsua. Olantxe.

### Gogapenak

*Deliciae mee esse cum filiis hominum.*

*Gizasemeekin egotea, nire atsegina.*

ARRITU zaitez, kristiñau ori: Jaungoiko berberak diño bere atsegíñak gizasemeekin daukazala: dirudienez, ez zan naikoa bere odol aguñgarí guztia gure alde gurutzean ixurtea eta bere bizia gure onerako emoteara: oraindik zerbait geyago itxi gura dausku eta altarako kutxan gure aítean gugaz gelditu da.

¿Eskaígaiztoko gizona — diño Teresa Deunak — ainbeste maite zaituan Jauna zeure gaiztakeriz naigabetuko dozu? neuriñibako ondonaya erakusten dautzula, iraindu egingo dozu? ¿Zer, Zeruko Jaun andiaik bere atsegíñak gugaz daukaz eta guk iges-egingo dautsagu, bakañik itxiko dogu?

Zorionekotzat daukaguz eñegeak bere etxera, bere maira deitzen dituan lagunak; baña ȝez ete-gara askozaz be zoriontsuagoak zeru-luñaren eñege andia beti geure aítean daukagun kristiñauok?

Neure Jaungoiko maitea! orain zure oñetara natoñ, gau ta egun estalduta zagozan zeure altara aufera; on guztien ituñburu, gaitz guztien osatzale, beárean da-gozanen aberastasuna ta makalen indaña Zu zara-ta: gizon guztietan beátsuen eta makalen nazan au emen naukazu; nizaz eíuki zaitez, Jaun ori: andiaik dira, egia da, nire utsegite, oben eta bidegabek; baña zure azken bako eñukiaz gomutaurik, uste oso-betez natoñkizu, Jauna.

Aguñtzen zaitut, bedeinkatzen zaitut, maite zaitut neure Jaun eta Ongile andi ori: eta mesede bat eskatzen asaítuko naz: afen, emoidazu, Jauna, auérantzean zure Biotza iñoz be ez naigabetzeko ta zure maitasunean beti irauteko eskar eta indaña: maite zaitut, Jauna, eta maite nai zaitut orain neure bizitza labur onetan eta gero, betikotasun osoan zeruan. Olantxe.

### Gogozko Jaunañtzea

**N**EURE Jesus maite-laztana! Ziúr eta sendoro siñesten dot altarako Sakramentu guýgañi onetan, ogiaren antz - irudipean estalduta bai, baña egiaz eta benetan zagozala: aguítzen zaitut, ene Jaungoiko ori, maite ta laztan zaitut; baña orain neure bulaí eta bañenean ezin áftu zaitudan ezkerro, zatoz gogoz beintzat nire biotzera; bertan ba-zengoz lez, laztantzen zaitut, Jauna, ta zugaz bat egin eta izan nai dot beti. ¡Ez al naz aldenduko iñoz geyago Zugandik!

(Zagoz apuú baten ixilik eta eskatu Jaunari beaf dozuzan mesedeak).

### JESUS SAKRAMENTUKOARI BOST IKUSTALDI

#### Lenengo ikustaldia

**A**CURTU daigun Jesus Sakramentukoak: ezkutuki ařigañi au ipiñi ebalako eskařak emonaz.

Auzpaz aguítzen zaitut Jesusen Biotz maitagañi ori Sakramentu guýgañi ořetan,

eta eskeřak emoten dautzudaz mirari guztien labuúgo ta gugazko maitasunaren berarizko agerbide au, asmau ta ipiñi dozu lako. Baña eten barik, Zuri eskeřak emoten ekiteko, zeruko zoriondun eta luřeko zuzenai dei egiten dautset, neure biotzeko maite-beroa aenaz baturik, betiraun -osoan Zu goratzen gogo-gártsez diardantzat.

Baita aguítzen zaitut, siñestebako ta kristiñau gaiztoakandik áftzen dozuzan iraňak zelanbaist ordaintzeko be: berariz, ainbeste *sagrarioan* aiztuta lez bakařik itxiaz, egiten yatzuzan eskař gaizto ta bidegabeen ordez. Guzti-guztietan emendi xek apal eta auzpaz guýtzen zaitut, eta neure oparitxu oneik gogoko izan dakizuzan, santurik zintzoenen, zure Biotza mai teen izan dabenen maitasun - luřunaz usaindu nai dodaz. Áftu, neure Jesus maite ořek, nire eskari gartsu-samuřok, emen gugazko maitasunak zaukazan Sakramentu ořetan guýtú ezkerro, zeruan be beti onetsi, bedeinkatu ta goretsi zagidazan. Olantxe. (*Aita gurea, Agur María ta Aintza*).

**Bigařen ikustaldia**

**A**GURTU daigun Jesus bere Sakramentuan, ainbeste bidař ártu dogulako, esan ezin ala on geugandua.

Neure arimearen Salbatzaře, Jesusen Biotz maitakoř-biguna! Amaibako eskeřak emoten dautzudaz, zure eskutik ártu dodazan on guztiakaitik eta batez be, ainbeste bidař nire biotzera etoři zarealako, zure eřukiak esku zabalez niri emonaz, zure Biotzko ugaritasuna iňoz agořtu barik. Ortixek bialtzen daustazuz beti ainbeste argi ta biotz-ikutze, zeugana ni deitu ta zure maitasunaren buztaři bigunera erakařteko. Emen naukazu, ba, zure menpeko au zure oňetan. Emendik aufera zure asmu eder maitetsu ořei ez natxakioe jařkiko, ez dautset gogořik egingo. Zuk bakařik agindu egizu, gure biotzetan nagusi zareala. Guztiok ezagutu ta maitatu beař zaitugu ta Zure Jainkozko Biotzaren onegiňei zintzoro erantzun beař dautsegu, guztiok maitatu ta onetsi zagiguzan zeruan be. Olantxe. (*Aita gurea...*)

**Irugařen ikustaldia**

**A**GURTU daigun Jesusen Biotza siňestebako ta siňausle edo erejeakandik ártzen dituan irařen ordez.

Siňausleen biuřkeri ta itsutasunez, Sakramentu aguřgaři onetan ainbeste irain ařtzen dozuzan Jesusen Biotz guztiz maitagaři ori! neure biotzeko indař guztiaz aguřtzen zaitut eta ainbeste irařen kitugafia zuri emoteko, zeruko zoriontsuei dei egiten dautset, euren gorapenez gizonen eskar - gaiztoa ordaindu dagizuen. Neure gurari epelak aingeru sutsuen gurari bizi ta goriekin batzen dodaz, zure maitasun aintzat ártu gabe ori, neure bizitzako une guztietan, iraingetu, onetsi ta goresteko asmoz. Egizu, Jauna, gizon guztien biotzak goratu zagiezala ta euren gorapenok, Aingeru, zorioneko ta zeure Ama guztiz santuaren biotz garbi-garbiak emoten dautsuezanakin alkařtu ta batu daitezala. Azkenez, Sakmentuko Jaun goragaři ori, Jaungoikoari zoř yakozan gorapenen Ordaintzale zeu zara-ta, zu zerori izango zara ainbeste irařen ordainbiderik egokiena be. Ártu, Aita betiko

ofek, nire eskari apalok zure Seme bakaaren Biotzak zuzentzen dautuzanakin. Bera da Zugaz eta Espiritu Santuagaz gizaldien gizaldietan bakaldun edo agintari bizi dana. Olantxe. (*Aita gurea...*)

### Laugañen ikustaldia

**A**GURTU daigun Jesus Sakramentuan, sinestudenekandik aítzen dituan lotsabikeri ta donauste edo sakrilejioen ordain-bidetzat.

Ona emen ni, neure Jesusen Biotz maitea, atsekabe ta samiñez beterik zure antidasun eregiaren auŕean, gomutaurik pekatu astunean Zu aítzera uferatzen diran ainbestek egiten dautzuen irain ikaragaría, bañiztaurik onelan jodatañen gaiztakeri ta Judas'en salkeri doloña.

Bigundu ta samuňtu zeuk, Jesus, zeure eŕukiaren indaŕaz ainbeste biotz eskeŕgabekoен gogoŕkeria: argitu, erakaŕi zeure maitasunera, gure osatzale, artzain eta Aita maitetsua Zu zara-ta. Emendik auŕera ez laketu aŕen, Jauna, kristiňaurik pekatu astunean Zu Sakramentuan aítzera uŕeratu dadin.

Zure Biotz gozo-gozo ta zure Ama mai-tetsuarenagaitik eskatzen dautzut. Eskeŕ au egidazu luŕean eta zeruan Zu ikusi ta gozatzea be emoidazu. Olantxe. (*Aita gurea...*)

### Boskaŕen ikustaldia

**A**GURTU daigun luŕeko eleiza guztietan ain aitzurik eta ain gitxitan ikeŕtu edo bizitaurik dagoan Jesus on eta maitagaría.

Gure maitez, gau ta egun, osti deun oŕetan egiaz eta benetan zagozan aŕen, gizonak ain aitzurik zaukezala ikusirik, Jesusen Biotz maitagarí ori Sakramentuan zagozan luŕeko eleiza guztietan ikeŕtu nai zindukedaz, gizonen biotz guztiak eskiňi zuri oparitzat eta neure alegin ezerezok, arima beroak luŕean eta zorionekoak zerruan egiten dautzuezan agur eta eskintza zintzoekaz batu. Zure neuŕibako aŕte ta eroapena oraintxe dazaut ondo, garbai ta damu naz miŕa bidaŕ nik be Zu, Jesusen Biotz eŕukioŕ ori aitzu ta iraindu zaitudalako. Lagun zakidaz Jaun ori, gauŕtik auŕera gaŕtsu, zintzo ta aspeŕtu gabe maite zagridazan. Argitu, afen, nire adimena, sutau nire naimena, garbitu nire biotza:

emoiguzu niri ta gizon guztiei benetako zaletasun eta erasprena, Jaungoikozko Sakramentu au itzalik andienaz jauretsi ta guztzeko, laguntza ta on guztien oxin eta ituñi berau da-ta. Ofelantxe itxaroten dot zure amaibako ontasun eta erukia bide dirala, zeruan be betiraun guztian Zu goretsia ta andiesteko.

Eta zuk, Andrea, Jaungoikoaren eta nire Ama maite orek, zure Biotz guztiz samuraren garbitasun eta Santutasunagaitik jadetsi egidazu, ařen, zure Seme maite Jesusen Biotzaganako eraspen benetako ta iraunkoŕa, beragaz estu-estu baturik, neure eginbeaf guztiak zintzoro bete dagidazan, eta biotzeko poz eta atsegin andiz beti (baña il onetan batez be) bere Biotz guztiz bigun eta erukiofaren aginduak egin dagidazan. Olantxe. (*Aita gurea...*)

### Otoitz labuŕa

*Bone Pastor, panis vere, Jesu, nostri miserere.  
Artzain ona, ogi bizia, Jesus, guzaz eŕuki.*

### Andra Mariari gogapenak

ANDRA Maria, neure Ama maite, guztiz garbia: Zugana natoř orain Jaungoikoaren

Ama zarealako, gure eŕegiňa ta pekatari eŕukaien itxaropen eta abaroa. Zure ofeñtara natoř ni pekatari andi au, neure eskef ona zuri erakustera, orain aŕte egindako ta auferantzean egingo daustazuzan ainbat eta ainbat mesedegaitik. Maite zaitut Ama laztan ori eta zure seme ona izan nai dot beti, bai beti: zure babesean aŕtu nagizu, ba, Ama eŕukitsu-maitea: eskatu nire alde Jesus zure Semeari, beragazko maitasuna egunerik-egunera nire biotzean ugaritu dadin, gero betiraun osoan zero goi-ederean ikusi dagidan. Olantxe.

### Bernardo Deunaren Otoitz

(300 eguneko parkapenak bakoitzean; osoa, ilean)

### MEMORARE

GOMUTAU zadiz, Birjiňa Maria guztiz eŕukioř ori, iñoz ez dala entzun laguntza barik itxi dozula Zugana etoři ta zure laguntasuna eskatu dauanik. Itxaropen onegaz sendoturik zugana natoř arin-aringa: zure aŕfean nago negaŕez. ¡Seme Jaungoikoaren Ama! nire eskariak, ařen, aintzat aŕtu barik ez itxi, entzun eta abegi ona egin baño. Olantxe.

### **Jose Doatsuari**

Iru aldiz esan:

Jose doatsua, neure Jagola eztitsu-mai-tea, nizaz éruki.

### **IÑAUTERI EDO ARATUZTEAK**

Ikaragañaik dira egun oneitan Jesus gure Jaun eta Jaungoiko maiteari egiten yakazan iraňak: ez bakafik bere etsai edo arerioak, baita (auxe da beretzat samiňena) bere lagunak, bere mayan je-sarten diranak, bere Gorputz - Odolaz alikatzen diranak be, zoroen antzera ibili oi dira-ta, loikerisko jai aldi oneitan. Kristiňauak dirala; au da, Kristoren Semeak, Kristoren jaňaitzaleak eta berak lez, gurutzea sorbaldan eroan beaf leukiela aitzu dabela dirudi.

Baňa ainbat eta ainbatek Jesus'en Biotza samin-tzen ba-dabe egun oneitan, ba'dira kristiňauen áitean beste batzuk pozez betetan dabenak be, eta zenbat eta geyago gaitzoak samintzen daben, ainbat eta geyago alegintzen diranak atsegin-pozez betetako. Batu zaitez azkenengo oneikin, kristiňau ona, ta iru egun oneitan zoaz al dozunik saňien eleizara, Jaun agiria ikeítzera, ta egiten yakazan irain eta pekatuak zure aldetik ordaintzera.

Ona emen egun oneitarako otoitz egoki batzuk:

### **Damu-egintza**

JESUKRISTO neure Jaun maitea: pekatuak asefatzen zaitu ta oben-neke edo penitentziak zure asaŕea ausi ta baretzen dau: entzun gaur otoitza, éruki-parkapen eske gatoz eta parkatu zeure amaibako érukiáren gure gaiztakeri guztiak. Afen eskatzen dautzugu guretzat eta, batez be, Zugandik urun bizi diranentzat, goŕoto dautzuenentzat, pekatari guztientzat.

Gure gaiztakeri ta gure guraso, anai, lagun eta etsayen oben edo pekatuetzaz.

*Éruki zakiguz, Jauna (1).*

Gure aŕokeri asaŕe, goŕoto ta biotz-gogókerietzaz.

*Éruki zakiguz, Jauna.*

Gure zikoizkeri, lapuréta, diru-ondatze ta apaindura lafegietzaz.

*Éruki zakiguz, Jauna.*

Gure nasaikeri, autu loi-zantaŕ eta aragikikeri guztietaz.

*Éruki zakiguz, Jauna.*

(1) Itz oneik orok esan begiez.  
(Nai danean otoitz au esanaz, aldiro urtebeteko parkapena irabazi daiteke.—(Pio VII'g. 1801, Garagañil 23-n).

Zine ta antzoki edo teatroetan egin oi diran pekatuetzaz, eta ainbeste nasaikeri, irudi lizun eta dantza-nastu zikiñetzaz.

*Eruki zakiguz, Jauna.*

Semeak ondo azteko gurasoen ardura-rik ezaz eta umeen lotsabagakerietzaz.

*Eruki zakiguz, Jauna.*

Kristiñau nagien epeltasunaz, esamesen bilduñaz eta siñis gogoñekoen lotsagabe-kerietzaz.

*Eruki zakiguz, Jauna.*

Kaleetan entzun oi diran añen eta biraueztaz, baita egunero papel eta liburuetan idazten diranetzaz be.

*Eruki zakiguz, Jauna.*

Jai-egunak gordetan ez diralako eta eleizetan egiten diran pekatuetzaz.

*Eruki zakiguz, Jauna.*

Masoi ta dongeak Aita Santuari, gure Eleiza Amari ta Jesukristo gure Jaunari dautsen górotua.

*Eruki zakiguz, Jauna.*

Jauna, aiztu egizuz, ařen, gure peka-tuak.

*Parkatu gure bidegabeak.*

### Otoitza

ENTZUN, Jauna, gure otoitza, beti efukioř eta parkapen-zalea zara-ta: parkatu gaur gure obenak eta gizon guztiak egin dau-tuezanak, Jesukristo zure Semearen ize-nean. Olantxe.

### Birauen ordezko gorapenak

Jaun agiria altara-kutxan saŕtu baño len esan beaf dira, belauniko, bere auŕean:

**BEDEINKATUA** izan bedi Jaungoikoa.

Bedeinkatua izan bedi bere Izen deuna.

Bedeinkatua izan bedi Jesukristo, egiazko Jaungoiko ta egiazko gizona.

Bedeinkatua izan bedi Jesusen Izena.

Bedeinkatua izan bedi bere Biotz Jaungoikozkoa.

Bedeinkatua izan bedi altarako Sakramen-to guztiz deuna.

Bedeinkatua izan bedi Jaungoikoaren Ama goragafi, Maria guztiz Donea.

Bedeinkatua izan bedi bere Soñte guz-tiz deun eta orbangea.

Bedeinkatua izan bedi Maria Birjiña ta Amaren Izena.

Bedeinkatua izan bedi bere Ezkontide  
guztiz garbi Jose Donea.

Bedeinkatua izan bedi Jaungoikoa bere  
aingeru ta Santuetan.

(Nai danean otoitz au esanaz, aldiro urtebeteko parkapena  
irabazi daiteke. (Pio VII<sup>o</sup> g. 1801, GARAGARRIL 23-n).

### JAUNAREN ONESPENA EGITEKO EREA

Jauna agirian ipinten danean: *O salutaris... Pange lingua...* edo onein antzeko beste zerbait abestu oida.

*Urén:* Egoki litzake *Tu es Petrus...* edo *Oremus pro Pontifice...* ondoren doazan lez...

### PRO SUMMO PONTIFICE

¶. Orémus pro Pontifice nóstro N...

R). Dóminus consérvet eum, et vivíscet éum et beatum fáciat éum in térra,  
et non trádat éum in ániam inimicórum  
éjus.

¶. Fíat mánus túa super vírum déxtéræ tuæ.

R). Et supra filium hominis quem confirmásti tibi.

### OREMUS

Deus, omnium fidélium pastor ei rector,  
fámulum tuum N. quen pastórem  
Ecclésiae tuæ præssé voluisti, propitius  
részpe: da ei quæsumus, verbo et exémplo,  
quibus præst profícere; ut ad vitam  
una cum grege sibi crédito, pervéniat  
sempitérnam. Per Christum...

Gero: *Tantun ergo... liburu onen azkenean da-*  
*goan lez.*

¶. *Panem de cælo præstististi eis.* (T.  
P. Alleluia).

R). *Omne delectamentum in se haben-*  
*tem.* (T. P. Alleluia).

### OREMUS

Deus, qui nobis sub Sacramento mirabilis passionis tuæ memoriam reliquisti:  
tribue, quæsumus, ita nos Corporis et  
Sanguinis tui sacra mysteria venerari, ut  
redemptionis tuæ fructum in nobis jugiter  
sentiamus. Qui vivis et regnas in sǽcula  
sæculorum. R). Amén.

## SAKRAMENTU GUZTIZ DEUNA IKERTZEAGAITIK PARKAPENAK

### 1.-Aratuzte edo iñauterietan:

Parkapen osoa autoftu, Jaunañtu eta Aita Santuaren alde otoitz egiñaz, Jaun agiriaren auŕean.

2.-Berogei orduko otoitzak egin oi diran eleizetan parkapen osoa, auferago esan dan lez.

### 3.-Eguen eta Bariku gurenez:

Parkapen osoa autoftu, Jaunañtu ta eguen gurenez edo Biztuera jai-aldean, monumentu auŕ an, Aita Santuaren alde otoitz egiñaz.

4.-Sakramento *gutziz* Deunari egiten yakon ikeŕtaldi bakoitzagaitik, baita gordea dagoala be: 300 eguneko parkapenak, 5 Aita gure, Aguŕ Mari ta beste bat Aintzakin Aita Santuaren izenean esan ezker.



## JESUSEN BIOTZAGANAKO ERASPENA

1.-*Maitasunak* maitasuna eskatzen dau ta neuŕibako ondonayak maitasun guztiz andia: Jaungoiko Semeak guztiok dauzkun maitasun andiaren ezaugafitzat, bere Biotza erakutsi dauku, baña gure au irabazteafen, bere maitasuna adierazten dauku, guk be geurea emon dayogun. Oŕa ba, maitasunari maitasunak erantzun beaŕ dautsa ta Jesusen Biotzaganako jayera, erazpen edo deboziñoa, orixe da: Berak biotz osoz maite gaituan lez, guk be biotzez Bera maite izan daigula, ainbeste maite gaituan bere Biotz aguŕgaria maitatu ta goratuaz.

2.-Baña Jesusen Biotzaren maitasun ori ez da edozelakoa: biotz erdian gurutze bat dauala agertu yaku, ofelan adierazteko, gizonen áftean asko ta askok ez dabela aintzat aŕtzen maitasun ain andi ori

ta beste askok ukatu egiten dabela: oña zergaitik Jesusen Biotza maite dogunok, zintzoro alegin egin beár dogun gizon itsu oñen eskaftxaŕa geure maitasun sutsuaz osotu ta ordaindu daigun. Maite daigun, beraz, Jesusen Biotz aguŕgaŕi ta edeŕ ori.

Maite daigun biotz-biotzez, kristiňau epel nagieng eskaŕ-gaiztoa ordaintzeko. «Ez gaitezala euskaldunok izan Jesusen Biotzaren maitatzale txienak». (*Aita Mendiburu*).

### Amabi eskintzak

- 1.<sup>a</sup> Euren bizibidean beár dabezan laguntasun guztiak, Nik emongo dautsedaz.
- 2.<sup>a</sup> Euren sendi edo familietaan bakea zabalduko dot.
- 3.<sup>a</sup> Atsekabe guztietaan Nik poztuko dodaz.
- 4.<sup>a</sup> Bizitzan eta, batez be, eriotz-aldian, euren abaro ta estalpea Ni izango naz.
- 5.<sup>a</sup> Euren egikizun guztietaan bedeinkatua lagunduko dodaz.
- 6.<sup>a</sup> Pekatariak nire Biotzean eŕukizko itxaso baztergabea auŕkituko dabe.
- 7.<sup>a</sup> Kristiňau epelak berotuko dodaz.
- 8.<sup>a</sup> Beroak nire maitasunean irazegiko ditut.
- 9.<sup>a</sup> Abadeai biotzik gogofenak biguntzeko doya emongo dautset.
- 10.<sup>a</sup> Nire Biotz-irudia agirian dauken etxeak bedeinkatuko dodaz.
- 11.<sup>a</sup> Nire Biotzaganako maitasuna zabalduguztien izenak, neure Biotzean iraŕita euki-ko dodaz.

12.<sup>a</sup> Ilen lenengo bederatzi bariku jaŕaikoetan Jaunartu dagien guztiei, neurí gañezko nire Biotzaren eŕukiak eskintzen dautse, nire asefean ez dirala ilgo, ezta eleizakoak aŕtu barik be.

### Gertrudis deunaren otoitzak

AGUR, maite zaitudan Jesusen Biotz ori. Agoŕten ez zaran eta bizitzako ura darian ituria zu zara. Jaienkotasunaren ondasunak zuk daukazuz. Jaungoikoak dauskuun maitasuna berotzen daun sutegia zu zara, ta nire gaztelu ta atsedentokia be zu izango zara. Urtu egizu, Jesus zurea urtzen dauan suaz nire biotz au. Bete egizu zure ofí dariozan grazi ta ondasunez neure biotz au, orain eta beti zuk nai dozuna baño besterik maite ez dagidan. Olantxe.

(Zeruratzeko indarra liburutik aŕtua).

### Iraňen ordezko egintza

(Ilero lenengo barikuetan, Jaun agiriaren auŕean egin daiteke).

GURE Jaun aguŕgaŕi maite, Jesus, gizon guztien Beŕerolea; zure Biotzaren gonburuzko maitasunak ipińi zaitu oŕ altaran, Osti Deunaren antz irudipean. Zure auŕ-

ean belaunikatzera gatoz, Jauna, oso nai-gabeturik, gizonak egunero egiten dautzean irain eta pekatuakaitik: zure inguruau batu gara orain, irain oŕein ordez geure maitasun sutsua agertu nai dautzungula, ta al dogun neuŕian irain oŕeik ordaintzeko, batez be zeure Eriots-Neke aldian eta altarako sakramentuan aftu dozuzanak. ¡Nok ixuri leikezan odol-negaŕak, urtu arterao, Zuri eŕege guztietan maitetsuena ta biotz guztietan onena zarean oŕi erakutsi dautzugun gaiztakeria, maitasun ordezko eskaŕ gabe andia, negaŕez ordaintzeko!

¡Parkatu Jauna, ainbat eta ainbatek biotz eta gogo epelez, edo pekatu astunean egozala aŕtu ba-zaitue!

¡Parkatu Jauna, gure biotz-gogoŕkeria, gure eskaŕgaiztoa, Zuganako epelkeri ta maitasunik-eza!

Zatoze abadeok, zatoze Jesukristoren emazte garbiok, zatoze Jesukristoren Biotzaren maitatzaleok; goazan guztiok bere auŕean belaunikatzera, bere Biotz guŕgafiarri egin dautsaguzan zauriak geure maitasunez gozatzera.

Eta Zuk, Jauna, entzun gaur gure eska-

ria, ontzat aŕtu gure damu ta negaŕak, parkatu gure gaiztakeriak, eta zeure Biotz baŕen-baŕenean aŕtu gaizuz, betiraun osoan zugaz batera Aita ta Espiritu Santua beti maitatzeko. Olantxe.

### **Alakokeŕtař M. Maria Deunaren**

#### **Eskintza**

(300 eguneko parkapenak: parkapen osoa iloro 1898-1908)

**J**ESUKRISTO neure Jaunaren Biotz Deunari gaurganik betiko neure gorputz, gogobizi, egikizun, neke ta loŕ guztiak. Nik (II, esan emen zeure izena) eskiňi ta emoten dautsadaz, eta ez dot auferantzean ezer-txu be egin nai Bera guŕtu, maitatu ta goratzeko ez danik. Jesusena bakaŕik izan nai dot beraz, eta bere maitasunaŕen gauza guztiak egin nai ditut, Bera naigabetu legiken guzia bein eta betiko itxirik.

Jesusen Biotz aguŕgafia! Zu izango zara nire maitasun bakaŕa, nire laguntzalea bizița onetan, nire argaltasunen Sendagaya, nire utsegiteen zuzentzalea ta nire iges-lekua atzenean, neure eriotz-aldi laŕian.

Zugan jaŕi nai dot, Biotz maitakoŕa, neure itxaropen edo uste osoa, neure

gaiztakeri ta argaltasunen bilduŕ naz-ta: baňa estura guztietatik zure ontasunak aterako nauala uste dot. (Zugan jaŕi nai dot...: itz oneikaz bakaŕik 300 eguneko parkapenak irabazi ledikez).

Eŕe ta kizkaldu nigan Zuri naigabe emoten dautzun guztia. Zutzaz bein be ez aztu ta Zugandik iñoz be ez alde egiteko, zure maitasun garbia nire biotzean saftu bedi. Nire izena Zugan ezaŕi daizula eskatzen dautzut zeure ontasun andi origaitik, bizitza ta eriotzan zure menpeko izatea nire atsegin-pozik andiena da-ta.

### Sendi edo familien Eskintza

**J**esus guztiz maitagaría! ontzat ártu zeure Ama gozoaz etxe onetara etoŕtea, ta zure Biotzari eskiňi yakazan sendi edo familiei agindutako mesedesz bertoko bizi-lagun guztiak bete egizuz Zuk, Jesus gure Erosle eŕukitsu ofek. Margarita Maria deunari eskatu zeutsan ainbeste, maite dogun Biotz ori geure maitasunik bero ta sutsuena emoteko. Ori dala-ta sendi oso au, zure deya entzunik, arin-aringa Zugana datoŕ, eta ainbeste eskaŕ gaiztoren or-

dez, gaurtik Biotz Deun ori Jabe ta Eŕegetzat ártzen zaitu, ta bere poz, lan, negaŕ eta naigabeak gogoz eskintzen dautzuz, orain eta beti zurea izango dala autoŕtuaz.

Bedeinkatu, Jauna, zure auŕean belauniko gagozanok. Onetsi (Zuk ofelan nai dozularik) eriotz zitalak gure ártetik eroan dituanak.

Onetsi, Jesus maite oŕek, etxetik uŕun dabiltzanak be; Maria zure Amari dautsazun maitasunagaitik, aŕen eskatzen dautzugu: zure maitasun oŕen agintza etxe onetan jaŕzeko, zure siňeste, santutasun eta garbitasunaz gure etxeko guztiak betetako.

Gorde, Zuretzat bakaŕik biotz oneik eta luŕeko zorakerietatik uŕundu egizuz. Zure Biotz eŕukitsuaren zauri santuan ártu ta gorde gagizuz guztiok, gaizkapen edo salbaziňoko ontzian lez, betiko bizitzara eldu áfteraño.

Aintzatu, maitatu ta goratua izan bedi beti gure aŕtean, Jesusen Biotz garaitzaŕea. Olantxe.

### **Urtero paíoki guzietan esan beáí dan Otoitz**

(Pio X-gafenaren aginduz, Jesus-Biotzaren egunean, Jauna agirian dala, bere aufean, Leon XIII. gafenaren Otoitz au esan beáí da).

**G**URE Jesus maitea, gizonen Eroslea! zure oñetan gagozanok erukiz begiratu gaizuz. Zureak gara, zureak izan nai dogu ta Zureak beti izan gaitezan, guitariko bakoitza gaur zure Biotzari eskintzen yako.

Asko dira, Jauna, iñoz ezagutu ez zaituenak; beste askok, ostera, zure agin-dua k ukatu-ta, baztertu zaitue: batzuk eta besteetzaz eruki zaitez, Jauna, ta guztiak zeure Biotz Santuan batu egizuz.

Guztioan Jaun eta Jabe izan zaitez, ez bakaíik Zugandik iñoz aldendu ez diranen baita zugandik uñun joan diran Seme banatzaleena be, eta gosez eta beárez il ez daitezan, biurtu lenbailen etxera.

Guzúr edo aseéreak banatu dituanen eŕege izan zaitez, egiaren kaira ekaŕzuz, guztiok siňesmen bateko izanik, auferantzean artegi bat eta áftzain bat baño izan ez daiten.

Azkenez, Jauna, siňestebako ilunpetan oraindik bizi diran guztien eŕege egin zaitez, ilunpetik argira ta Jaungoikoaren eŕeñura lenbailen ekaŕten dozuzala.

Emoiozu, Jauna, zeure Eleizeari azkatasun eta bakea, eŕiei zoriona, lurbira mustuŕ batetik bestera guztiak ozen esan dagien: Aintza, osasuna emon dauskun Jesusen Biotzari; aintza ta gorapena Berari amaibako egunetan. Olantxe.

(Parkapen osoa, autoítu, Jaunaŕtu ta Aita Santuaren alde otoitz egiňaz: autoítu barik, 7 befogeiko parkapena: Garbitokiko arimentzat be izan daitete. Pio X-gafenak 1906'ko Dagonilaren 22'an.

Ondoren Jesusen Biotzaren áfentza (letaňia) esan beáí da).

### **JESUSEN BIOTZAREN ÁFENTZA (letaňia)**

(300 eguneko parkapenak egunean bein)

Jesusen Biotzaren áfentza Alakoke'tař Margarite Maria Deunak erabili oi ebana da, zerbaít aldauta. Ogetamairu eskari daukaz, Jesukristo gure Jaunak lufeán igaro zituan 33 urteen gomutaz.

Lenengo zazpi eskariak (1-7) Jesusen Biotza zer dan adierazten dauskue (Jaungoikoaren Semea dala, Andra Mariaren sabelean soňtua. Espiritu Santuaren eleizea).

Uñengo laurak (8-12) Jesusen Biotzaren maitasuna ta beste bere onoimenak gogoratzen dausukez.

Ondorengo beste bostak (12-17) Jesusen Biotza goretsi beaf dogula diñoskue, guztiz bikain eta goragáfia dalako.

Eta azkenetik asi ta azkenerañokoak Jesusen Biotzaren mesedeak gogoratzen dauskuez. Berak gure alde egin eban guztia.

Kyrie, eleison

Kyrie, eleison

Christe, eleison

Christe, eleison

Kyrie, eleison

Kyrie, eleison

Christe, audi nos

Christe, exaudi nos

Pater de cœlis Deus

*miserere nobis*

Fili Redemptor mundi

*Deus,*

Spiritus Sancte Deus

Sancta Trinitas unus

*Deus*

Jauna, éruki zakiguz.

Jauna, éruki zakiguz.

Kristo, éruki zakiguz.

Kristo, éruki zakiguz.

Jauna, éruki zakiguz.

Jauna, éruki zakiguz.

Kristo, entzun gagizuz.

Kristo, entzun gagizuz.

Kristo, afen, entzun gagizuz.

Kristo, afen, entzun gagizuz.

Zeruko Aita Jaungoikoak, *guzaz éruki.*

Jaungoikoaren Seme, gizadiaren Eroslea, *guzaz éruki.*

Espiritu Santo Jaungoikoak, *guzaz éruki.*

Irutasun Deun Jaungoiko bakafa, *guzaz éruki.*

1) Cor Jesu Filii Patris æterni

2) Cor Jesu, in sinu Virginis Matris à Spiritu Sancto formatum

3) Cor Jesu Verbo Dei substantialiter unitum

4) Cor Jesu, majestatis infinitæ

5) Cor Jesu, templum Dei sanctum

6) Cor Jesu, tabernaculum Altissimi

7) Cor Jesu, domus Dei et porta coeli

8) Cor Jesu, fornax ardens caritatis

9) Cor Jesu, justitiae et amoris receptaculum

10) Cor Jesu, bonitate et amore plenum

11) Cor Jesu, virtutum omnium abyssus

1) Jesusen Biotza, Betiko Aitaren Semearena.

2) Jesusen Biotza, Ama Birjiñaren Sabelean Espíritu Santuak egina.

3) Jesusen Biotza, Jaungoiko-Semeagaz iza-tez bat egina.

4) Jesusen Biotza, Anditasun neuriaga-bekoa.

5) Jesusen Biotza, Jaungoikoaren eleiza donea.

6) Jesusen Biotza, Jaungoiko altsua-ren egon-leku.

7) Jesusen Biotza, Jaungoikoaren jauregi ta zeruko atea.

8) Jesusen Biotza, maitasunaren laba goria.

9) Jesusen Biotza, zuzentasun eta maitasunaren untzi edera.

10) Jesusen Biotza, maitasun eta maitasunez betea.

11) Jesusen Biotza, onoimen (birtute) guztien oxin sakona.

- 12) Cor Jesu, omni laude dignissimum  
13) Cor Jesu, rex et centrum omnium cordium  
14) Cor Jesu, in quo sunt omnes thesauri sapientiae et scientiae  
15) Cor Jesu, in quo habitat omnis plenitudo divinitatis  
16) Cor Jesu, in quo Pater sibi bene placuit  
17) Cor Jesu, de cuius plenitudine omnes nos accepimus  
18) Cor Jesu, desiderium collium aeternorum  
19) Cor Jesu, patiens et multae misericordiae  
20) Cor Jesu, dives in omnes qui invocant Te  
21) Cor Jesu, fons vitae et sanctitatis
- MISERERE NOBIS ERRIKU

- 12) Jesusen Biotz, guztiz goragaria.  
13) Jesusen Biotza, biotz guztien efege ta erdokia.  
14) Jesusen Biotz, jakituri ta jakintza guztia zeugan daukazuzana.  
15) Jesusen Biotza, Jaungoikoa bere betetasunean bi GUAZI dan tokia.  
16) Jesusen Biotza, Aitaren atsegina.  
17) Jesusen Biotza, zeure ugaritasunetik guztioi mesedeaak egiten dauskuzuzana.  
18) Jesusen Biotza, munio betikoen guraria.  
19) Jesusen Biotza, artea eruki andikoa.  
20) Jesusen Biotza, eskatzen dautzuenentzat aberatsa.  
21) Jesusen Biotza, biziota ta Santutasunaren ituria.  
22) Jesusen Biotza, gure obenak ordaindu dozuzana.  
23) Jesusen Biotza, iraiez ase-betea.  
24) Jesusen Biotza, gure gaitzakeriakaitik biñindua.  
25) Jesusen Biotza, eriotzaraño men eta esanekoa.  
26) Jesusen Biotza, GUAZI aztamakilaz zula- tua.  
27) Jesusen Biotza, ERRIKU atsegin poz guztien ituburua.  
28) Jesusen Biotza, gure bizitz eta beñbizkundea.  
29) Jesusen Biotza, gure bake ta aiskitasuna.  
30) Jesusen Biotza, peccatorum operia.  
31) Jesusen Biotza, Zugen ditxaroenen osasuna.  
32) Jesusen Biotza, Zugen ilten diranen itxadona.  
33) Jesusen Biotza, San-
- MISERERE NOBIS ERRIKU

sanctorum omnium.  
Agnus Dei, qui tollis  
peccata mundi, parce  
nobis Domine.

Agnus Dei, qui tollis  
peccata mundi, exau-  
di nos Domine.

Agnus Dei, qui tollis  
peccata mundi mise-  
rere nobis.

¶. Jesu mitis et humilis  
corde.

¶. Fac cor nostrum se-  
cundum Cor tuum.

## OREMUS

**O**MNIPOTENS sem-  
piterne Deus, res-  
pice in Cor dilectissimi  
Fillii tui et in  
laudes et satisfac-  
tiones, quas in no-  
mine peccatorum  
tibi persolvit, iisque

tu guztien atsegina,  
Gizonen pekatuak ken-  
tzen dozuzan Jaun-  
goikoaren Bildots  
órek, parkatu eiguzu,  
Jauna.

Gizonen pekatuak ken-  
tzen dozuzan Jaun-  
goikoaren Bildots  
órek, entzun gagizuz,  
Jauna.

Gizonen pekatuak ken-  
tzen dozuzan Jaun-  
goikoaren Bildots ori,  
eruki zakiguz.

¶. Jesus biotzez otzan  
eta apala.

¶. Egizu gure biotz au-  
zure Biotz ofen an-  
tzezo.

## OTOITZA

**J**AUNGOIKO aloro-  
dun betikoa, zeure  
Seme maite-maitearen  
Biotza ta onek  
pekatarien alde  
emoten dautzuzan  
gorapen eta ordain-  
gayak aintzat aítu

misericordiam tuam  
petentibus, tu ve-  
niām concede pla-  
catus, in nomine  
eiusdem Filii tui Je-  
su Christi qui te-  
cum vivit et regnat  
in unitate Spiritus  
Sancti Deus, per  
omnia sācula sā-  
culorum. Amen.

egizuz, eta zeure  
eruki eske dagozan  
onei, aíren erukitu-  
rik parkapena emon  
egiezu, amaibako  
egunetan Zugaz eta  
Espiritu Santuagaz  
batera bizi dan eta  
agintzen dauan Je-  
sukristo zeure Se-  
mearen izanean.  
Olantxe.

**Eriotz-zorian dagozanen aldezko Otoitz**

Eun eta befogei mila (140.000) giza - emaku-  
me inguru egunean ilten dira. Ogetamaka miloi  
(31.000.000) inguru urtero.

Sei mila (6.000)'tik gora ordu bete bakotxean  
eta eun (100) minutu bakotxean.

Onein guztioen alde, kristiñau órek, otoitz egizu:  
eruki zaitez orain Jaungoikoaren aufera doazan  
arima gaixo oneitzaz, Jauna zutzaz eruki dadin.

**G**URE arimak ainbeste maite dozuzan  
Jesus erukiofa, zure Biotz Deunaren lafi  
-aldia ta zure Ama erugabearen oñazea-  
kaitik, aíren eskatzen dautzut, eriotz

-aldian dagozan eta gaur ilgo diran pekatarri guztiak zeure odoletan garbitu dai-zuzala. Olantxe.

Eriotz-aldian egon ziñan Jesusen Biotz ona: iltzer dagozanetzaz efuki zaitez.

(Eskari bi oneitako bakotxagaitik 300 eguneko parkapenak Pio X-gaferenak 1907ko Lorilaren 11'an).

### **Ilen lenengo bederatzi barikuak edo Agintza andia**

#### **1.-Agintza andia:**

Asko ta andiak dira Jesusen Biotzak bere maitalei egindako eskintzak, baña guztietan bereizi ta nagusiena bat da: lenengo bederatzi bariku en agintza andia. Ona emen, Jaunaren ezpanetatik Alakoke ta Margarite Maria Deunak entzun zituan itz edefak:

Bariku goiz baten—diñosku—Jaunartu ondoren itz oneik esan eustazan Berak:

**«Neure Biotzaren neuñiz-goitiko efukiak eta nire maitasun alorodunak ilen lenengo bederatzi bariku jañayetan Jaunartuko daben guztiei agintzen dautse: nire aseéean ez dirala ilgo, ezta eleizakoak aítu barik bez, eta azken une lañi aretan nire Biotza iges-leku ziurta izango dabela».**

#### **2.-Agintzen dana:**

Jaungoikoaren aiskitasunean ilteko eskaf edo grazi berezi andia eskintzen dausku Jesukristoren

Biotz efukiofak: beraz, bederatzi lenengo bariku jañai koetan Jaunartu dagien guztiak, naiz dala lenago eleizakoak aítuko dabezalako, naiz ofeik ezin aíturi, biotz-damu egiazkoa egingo dabelako, Jaungoikoaren aiskitasunean ilgo dira ta zerua irabaziko dabe.

#### **3.-Eskatzen yakuna:**

Eskaf edo grazi berezi-andi ori irabazteko, naiko da ilen lenengo bederatzi bariku jañai koetan Jaunartza, beraz, Jaungoikoaren grazian egon ezkero, ez da beafezko ez autoítzea, ez beste otoitz edo egikizun onik egitea be. Ofaitik be, eraspen onetatik irabazi andiagoak aterateko, guztiz ondo ta egoki izango da egun ofeitan otoitz eta elizkizunak egitea, Jesusen Biotzaren opaz eta aintzaz.

(Parkapen osoa irabazten da lenengo bariku bakoitzean. autoítu, Jaunartu, Aita Santuaren aldez eskatu eta Jesusen Biotzari otoitz bat edo besete zuzenduaz).

#### **Jaunartu ondoren lenengo bariku bakoitzean esan daiteken Otoitza**

**J**ESUS samuf - eztitsua: zure Biotz ofén maitasun eta efuki andi-andiak zeure aiskitasunean ilgo dirala agindu dautse lenengo bederatzi bariku jañai koetan Jaunartu dagien guztiei; aíren, Jaun ori, efuki zakidaz, eta zeure agintza ori gomutaurik, neure

oben guztiak gorotatzeko laguntza ta zeure maitasunean ilteko zoriona emoidazuz. ¡Jesusen Biotz erukioña, zeruko ate zabaia, nizaz efuki!

¡Jesusen Biotz erukioña, aberastasunez betea, nizaz efuki!

¡Jesusen Biotz erukioña, Zugan ilten diranen itxadona, nizaz efuki!

### **Bagila, Jesusen Biotzaren ila**

Leon XIII-gaen Aita Santu omengariak askotan eskutu dausku Bagila Jesusen Biotzari eskintzeko ta gure biotzak irazegitzearén parkapen oso andia ugariaik emon ditu il onetarako: ona emen nagiunenak.

1.—7 urte ta 7 berogeiko, Jesusen Biotzaren ila egiten dala, egun bakotxagaitik.

2.—300 eguneko parkapenak bederatziúena egiñaz, egun bakoitzean, eta onen amayan parkapen osoa egun aukeratu baten.

3.—Parkapen osoa, Jesusen Biotzaren jai-egunean.

4.—Parkapen osoa, lenengo barieku bakoitzean.

5.—Parkapen osoa, il onetako egun aukeratu batzen, egunoro itz oneik esanaz: «Jesusen Biotz guztiz deuna, neure itxadona Zugan daukat».

6.—Bagilaren azkenengo domekan parkapen osoa saítu-urten aldi bakotxeán, eguneroko itzaldiz edo mixiño antzeko zortziúfenez Jesusen Biotzaren ila ospatu dan eleizetan.

7.—Izlari (sermolari) ta pájokoak Bagilaren azken eguneko mezan Eñomako Gregorio Santuaren altareska edo grazia (ad instar) irabazi legikie.

8.—Elezkizun oneik ospatzeko alegin egiten dauen bakotxak 500 eguneko parkapena aldiro, ta egunero parkapen osoa, egunero Jaunaftu ba-dagi. (Au be Garbitokiko arimen alde eskiñi daiteke.)

### Oaña:

Parkapen osoak irabazteko:

1.—Autoftu, Jaunaftu ta Aita Santuaren alde otoitz egin beaf da.

2.—Egunero edo ia egunero Jaunaftzen dabenak, autoftu beafik ez dauke Bagilaren azken-igandekoak irabazteko izan ezik.

3.—Astero autoftzen diranak ez dauke beste autoftza beafik.

4.—Elezkizunetara joateko eskatzen danean, naiz bederatziúfenera naiz ilera joatea beafezkaoa da; baña Bagilaren azken igandekoak irabazteko, ez.

5.—Zortzi egun auñetik autoftu daitake ta egun berean edo auñekoan Jaunaftu.

### **Jesusen Biotzaren anaidiak eta gutuna**

1.—Jesusen Biotzaren Goi-anaidia (artxikofradia) Porto-Maurizio'ta' Leonardo Deunak irasi eban Eñomam.

LENENGOA: 1732'gaen urtean, Jesusen Biotza-gazko maitasuna (batez be altarako Sakramentuan)

gero ta geyago zabaltzeko ta egiten yakozan irain eta eskargaitzo guztiak ordaintzeko.

Oñetarako, bazkideai agintzen yake:

a) Urteoro Jesusen Biotzaren jai-egunean autoítu ta Jaunaítzea.

b) Bardin iloro Jaunaítzea eta egun oñetako elizkizunetara joatea.

c) Bazkide bizi ta ilean alde eskatza, otoitz egitea.

d) Aita gurea, Aguirre Maria ta Aintza egunero esatea, ta otoitz labuñtxu au be bai: *Jesusen Biotz gozo-eztia, gero ta geyago maite zaidazala egizu.*

Irabazi andiak ditu: nagusienak bakañik ipiniñko dira emen.

**Parkapen osoa:** Batzañean sañtzean, Jesusen Biotzaren jai-egunean naiz urfengo igandeán, iloroko lenengo bariku naiz igandeán, ilean bein aukeratzen dan egunean, eriñotz-aldian, jai andienetan, Jesusen Biotzaren jai-egun aúfeiko naiz atzeko sei domeka naiz bariekuetan; beti, autorítua, Jaunaíta... ta abaf. (Garbitokiko arimentzat izan daitekez parkapen oneik).

2.—*Jesusen Biotzaren Zaingo omengaria* (Guardia de honor) 1864'garen urtean softua da, «Jesukristoren inguruan egunero biotz on-zuzenak batzeko, bere Biotzari egiten yakozan irañen ordez». Leon XIII-gaerenak 1878'garen urtean ontzat emon eban: aíezkero asko zabaldu da.

Eginbeañak: izena anaidi onetan emon eta.

a) Eguneko orduren bat aukeratu Jesukristogaz egoteko ta lan eta egite guztiak ordu aretan Berari eskiñi.

b) Iloro Jaunaítzera joan.

c) Egunean sañi, baña batez be bariku guren aíratsaldeko lauretan, Aita Jaungoikoari eskiñi Jesusen Biotzko odol eta ura gizon pekatarien alde.

Jesusen Biotzaren anaidiko parkapen ber-berak daukaz eta beste batzuk be bai.

### Gutuna

Alakoke'tar Margarite Mari Deunak diño: *Jesukristo gure Salbatzaleak nai dauala bere maitaleak Jesusen Biotzaren irudia biotz gañean eroan dagien. In hoc signo vinces. Ikuñ onegaz garaituko dozu* (diñosku Leon XIII-gaerenak), Konstantinok bere etsayak lez.

Onen be irabazi andiak daukaz: 60 eguneko parkapenak gutun ori norberaz eroan ezkero, otoitz edo egikizun on bat egiten dan bakotxean.

### Otoitz-Bidalguntza (Eskari-Apostoladua)

1844'garen urtean softua da ta aíezkero asko ta asko zabaldu da (1889'g. urtean 15.000.000 eta geyago bazkide bai zituan).

Onen asmua da: *Jesusen Biotzaren otoitz ta irabaziak kristiñau on-sutsuenak batu ta Aita Jaungoikoari eskintzea, bere agintza edo efeñua lenbailen luñera etofi dadin. Iru malá ditu: Otoitza, egikizun onak, safi autoítu ta Jaunaítzea, Jaungoikoaren aginduak gordeteara, Jesukristoren Biotzagazko maitasuna zabaltzea eta abaf eskatzen yake bazkideai; baña batez be;*

1.—Lenengo małakoai: eguneko lan eta nekeak Jesusen Biotzari eskintzeko, 40'gafen ofialdean jaí dan otoitzera esanaz.

2.—Bigañenekoai, ořezaz gañera: Aita gurea ta efosarioaren amáreko bat egunero esateko, Aita Santuaren alde.

3.—Irugañenekoai, ořezaz gañera: ordañezko Jaunaítza asteoro edo iloro.

(Irañazi andiak ditu: guztiak emen aitaztea luzeegi litzake: anaidiaren Zuzentzaleari itandu ofetzaz).

## JESUSEN BIOTZAREN JAURESKUNDEA (ENTRONIZAZIÑOA)

*(Sendi edo familien eskeintza or goratxuago daukazue: Jaureskunde, ostera, beste gauza bat da. Sendi kristiñau guztieii dagoenek egikizun au zer dan eta bera egiteko era emen osoroi pinten doguz, egin ez dozuen guztiok, lenbailen egin daizuentzat).*

ZER DAN?—«Jesusen Biotzaren Jaureskunde» Jesusen Biotza sendi edo familiaren efegetzat átzea da, etxeko tokirik edefenean bere irudia bataulki edo tronuan ipiñi ta guztien biotzak berari eskiñirik.

Jesusen Biotzak Alakoke'taf Margarita Maria Deunari agertuta, esan eutsan: Guztioen Efegetza nai dau nire Biotzak... eta ugari bedeinkatuoko dodaz neure irudia agirian ipiñi ta gogoz apainduko dabenen etxeak.

Auxa da Jesusen Biotza Efegetzat ártuta, etxeko tokirik egokienean bere irudia ipinten dogunean, etxeko guztien joranik andienaz egiten dogun jai ederña. Ez da ba, etxea edo lufak Jesusen Biotzaren irudiaz bedeinkatzea: bera sendi edo familiaren burutzat ártu ta bere menpean guztiak jartzea banio, ofetarako bere irudia toki agiri ta ondo apaindu batén ipiñiaz.

Egun aretan, al dala, etxeko guztiak autoftu ta Jaunaítu beáf dabe. Onelan asiko dira, Jesusenak izaten, Jaunaítzean bere Biotzaz bat egiñik.

### Jaureskundeak egiteko era

Ofetarako autetsi dan egunean sendi guztia etxeko gelarik egokienean batzen da: Jesusen Biotzaren irudi alik edefena ipinten da mai gañean edo beste tokiren baten. Jaureskunde, egiten dauana abadea izan ezik, latiñez dagozan otoitzak ez dira esaten, eta «Gurutze Santuaren» eta Jesukristo neure Jauna'gaz asi daiteke.

*Edozein abade, gizon nai emakumek egin daike.*

*Jauresten dauana abadea danean, txaramela (sobrepeliza) ta estolea jantzia, Jesusen Biotzaren irudia onelan bedeinkatuaz, asiko da:*

**Benedictio imaginis Sacratissimi Cordis  
Iesu Christi Domini nostri**

v. Adjutorium nostrum in nōmine Dómini.

R. Qui fecit cōlum et terram.

v. Dominus vobiscum.

R. Et cum spiritu tuo.

## OREMUS

Omnipotens sempiterne Deus, qui Sanctorum tuorum imágines pingi aut sculpi non réprobas, ut quoties illas oculis cörperis intuemur, toties, eorum actus et sanctitatem ad imitandum memoriae oculis meditemur; hanc, quæsumus Imaginem in honorem et memoriam Sacratissimi Cordis Unigeniti Filii tui Domini Nostri Jesu Christi adaptatam, bene + dicere et sanc + tificare digneris; et præsta ut quicunque coram illa Cor Sacratissimi Unigeniti Filii tui supliciter cōlere et honorare studuerit, illius méritis et obtentu a te gratiam in præsenti, et aëternam gloriam obtineat in futurum. Per Christum Dóminum nostrum. Amen.

(Ultimo aspergat aqua benedicta).

Kredoa guztiok batera abots beteaz esan, zeuen sinesmena autoŕtzeo.

## Biotzak eskintzeko otoitza

ZATOZ, Jesus maitagári ori, zeure Ama laztanagaz, eskintzen dautzugun etxe one-tara, ta emen bizi garenok zure Biotz Jaungoikozkoa maite daben sendiai agindutako mesedesz bete gagizuz.

¡O Jaun érükiora! Margarita zoriontsuari esan zeutsan zuk, eskar gaiztoz erantzuna izan ařen be, zure Biotz ořek gizasemeak

ainbeste maite dituala, ta mundu guztian goretsia izatea nai zeukela. Guk beintzat maite zaitugu ta pozik geure etxeko tokirik egokienean ipinten zaitugu. Ona emen guztiok batuta, zu eŕegetzat aŕturik, zure menpean jaŕten gara. Bai, gure ondoan biziko zayakuz eta gure biotzen jabe zu izango zara. Poz eta negafetan, gozotasun eta neke-lanetan, etxe onetako gora-bera guztietañ zu gure ondoan egotea nai dogu orain eta beti. Bedeinkatu Jaungoikoak gure artetik betiko eroan ebazan maiteak eta orain gugaz emen ez dagozan senide guztiak be.

Zu maitatuaz bizi gaitezala, Jauna, siňesmenez zuzen eta garbi; luŕeko zorakerietatik atera ta gure arimak zure Biotz ořetan saŕtu egizuz eta oŕtxe josi. Zure Biotzeko zauriaren erdi-erdian gorde gagizuz eta gero guztiok eroan beti zugaz bizitera! Maite, onetsi ta goratua bizi bedi Jesus gure aŕtean! Bai, afen, bai.

Ordu atsegin onetan gogora ekaŕi bear doguz etxeko guzti-guztiak, ilak eta kanpoan diranak eta euren alde esan daigun. Aita gurea, Agur María ta Aintza.

Orain aitak, amak edo etxeeko buruak arčuko dau Jesusen Biotzaren irudia, eroango dau gerturik dagoan tokira eta berak bakauleko edo tronuan jaŕiko dau. Bitartean beste enparauak «O Biotz Santu» edo beste gauzaren bat Abestuko dabe.

Bereala belaunakuturik, úrengo otoitz au esango dabe:

### Otoitz

**O**RRA or gure etxetxu au beste milen arŕtean berezi ta bere jauregitzat aftyau Jesus Eŕegea. ¡Gora Jesusen Biotza! Arŕtirik gagoz gure buru izatera etoŕiaz egin dauskuzun mesede andi onegaz: baŕen -baŕenetik poztuta zeure auŕean auzpaz makuŕtzen gara: Aita bere umeakin lez telape baten bizi gara ta gure pozetan poztutene zarean ori geure lan eta nekeetan be geugaz zagozala bai-dakigu. ¡A! Ez gara gu nor zu gure etxeen saŕtzeke; baňa zeure naya erakutsi dauskuzu ta egafiz dagoana ituŕira lez zure Biotzera gatoz, betiko bizira garoezan ur garbien bila: Zugana gatoz damuturik eta uste osoz.

¡Zagoz, aŕen gugaz, Biotz santu maitati ori. Zure egafiz dagoz gure arimak: guk eta besteak be zu maitatzea nai dogu. Or daukazu mundu guztia garbitu ta berotu

bear dauan sua. ¡Bai, bai! Betania ko etxea baizen gozo-atsegina izan bedi gure au zuretzako; emen aukituko dozuz zugaz beti egon nai daben lagun kutunak. Zure arerioak erbesteratzen zaitue, baňa ona emen Egipton lez gorde ta biziteko tokitxua, ez Zuri dagokizun bestekoa, baňa bai zintzoro gorde ta maitatuko zaituana.

Zatoz, Jesus ona, zatoz; etxe onetan be, Nazaret en lez, maite dogu Maria, zeuk emon zeuskun Ama biguna; zatoz eriotzeak gure artean itxi dituan utsak betetara. A gure negaŕezko egunetan Zu emen izan baziňa, gozotuko zebazan, bai, gure malko gaŕatzak eta Zuk dakizuzan gure biotzeko zauriak sendatuko zebazan... zatoz bai... beaŕ bada lasteŕ nekaldi negargaŕi baŕiak etoŕiko yakuz eta gaztaroko gure uste ariňak joan dira; gelditu emen gugaz, ilunabaŕa da-ta, mundu gaiztoak bere odee baltzeten saŕtu nai gaitu ta: guk Zu nai zaitugu, gure Bidea, Egia ta Bizia zarealako.

Aldi baten lez esan eiguzu: «Gaurgandik etxe onetan bizi nai dot». Bai, Jatuna; etxe onetako Eŕegea Zu zara-ta, nai ta agintzen dozuna, guztiok egindo dogu.

Zure gerizpean biziko gara; ez dogu nai bestek emen agintzerik. Zu bakafik gure Eŕegea. Goretsia izan zaite etxe onetan, ¡Gora Jesusen Biotza! Betoŕ gugana zure eŕeñua. Olantxe beti.

*Ama Birjiñaren Biotz guztiz garbiaren izean Salbe bat.*

¡Jesusen Biotz guztiz Santua, guzaz eŕuki! (3 bidaŕ)

¡Maria'ren Biotz guztiz garbia, gure alde otoitz-egizu!

¡Jose Deuna, gure alde eskatu!

¡Margarita Maria Alakoke zorionekoa gure alde eskatu!

(Abade jaunak bedeinkatuko ditu).

Benedictio Dei Omnipotentis: Patris, et Filii et Spiritus Sancti † descendat super vos et maneat semper. Amen.

OARRAK: 1.—Jaureskunde egun gogoangarí onetan etxeko guziak Jauna aŕtua beaŕ leukie eta eskatu Jesusen Biotzari eŕuki dadila munduko pekatarietaz eta bere itzalpean guziok artu gaizala.

2.—Etxe ofetakoak beatzen dira urteoro Jesusen Biotzaren egunean Jauna aŕtzeria sendi edo familiko jai andia lez gor-detera, batez be umeai zerbaiz pozagari emonaz. Baita egoki izango litzake *Lenengo Barikuetan Jauna aŕtzea*, Jesusen Biotzak bederatz iŕabatzera jaŕaituetan Jaunartzen dabenai eskińi dautsen eriotz ona jadesteko.

3.—Parkapenak.- XV'g Benedito Aita Santuak mundu guztirako emonak oneiek dira:

I. Jaureskunde egunean, pekatuen damuz eta Jesusen Biotzaganako maitasunez, auŕean dagozan sendiko guztiak 7 urte ta 7 befogeiguneko parkapenak irabazten dabez.

II. Etxeko guzti oneik egun aretan Parkapen osoa irabazi dagikie, autoŕtu, Jaunartza ta Eleizen baten Aita Santuaren alde zerbaiz otoitz eginaz.

Maitasun edeŕ au zabaltzen dabenak, Jesusen itz oneik entzun:

«Eraspen au zabaltzen dabenen izenak, neure Biotz Jaungoikozkoari iraŕita eukiko dodaz, kendu ezingo diran eran».

### **¡Saŕtu zaitez Jauna...!**

Jesusen Biotza bakaulkian ipinteau esan legike

1. Saŕtu zaitez! egin dau eguzkiak  
Eguneroko jira, ta ilargiak  
Burua agertzen dau.  
Gaba luzea da: gaňera otza:  
Zuretzat dago emen gure biotza  
Saŕtu zaitez, Jesus.

2. Baldin ba-dagoz etxeak, Zu aŕtzeko  
Ta Buru egiteko  
Gogo apurik be ez daukenak,  
Ez bildurtu, Jesus; gu bizi ezkero,  
Zureak dira, len, orain ta gero  
Emen gaozanenak.

3. Saítu zaitez: ez zara Zu eskalea:  
Gure Aita, Nagusi, adiskidea  
Egin zaitugu.  
Gogoŕ dabiltz, zure kaltez, etsayak,  
Baña gu ez: gu gara seme alayak:  
Gure Eŕege autoŕtzen zaitugu.
4. Saítu zaitez: orok maite zaitugu,  
Jaŕgoya egin dautzugu  
Gure biotzetan.  
Zu izango zara gure Eŕegea,  
Zu izango zara Jaun ta Jabea  
Bizileku landeŕtxu onetan.
5. ¡Zatoz laster, Jesus! Zińez nai geunko  
Emengo gauzen truke  
Zu saítza gure biotzetan.  
Gure aŕtean saltzalerik ez dago:  
Zu saldu naiz itxi baño nayago  
Il zure menpean.
6. Ta gure aterao, etsai gaiztoak  
Suturik baŕletoz, pozoyak joak,  
Baŕena ez beintzat.  
Galduko ditugu geure biziak  
Aŕtuko ditugu zauri guztiak:  
Ez dira oneik izango Zuretzat.

7. ¡Zatoz Jauna! Uratu gure griñak:  
Guzti-guztiok Zugaz bat-egiňak  
Poz-pozik gengokez.  
Beti asmo bardiňak doguzala,  
Untza-ormak bezala,  
Alkafi iratsita biziko gintekez.
8. Bizitz onetan izaten diran pozak,  
Datoŕkuzan samintasun zoŕotzak  
Aŕtuko ditugu.  
Atsegiňak, eskerák emoteko,  
Naigabeak, Zuri eskaintzeko  
Zure oñetan jaŕi nai ditugu.
9. ¡Saítu zaitez! gure Jesus laztana,  
Izan beti Nagusi, Eŕege, dana  
Etxetxu onetan.  
Ondasunik ez dago  
Baña bai zerbait askoz edeŕago:  
Zu maitatzea gustiok benetan.

## ESPIRITU DONEARI BEDERATZIURENA

### Otoitzak

1'goa. Argi begisku guztioi Jaun Alguztidun ofén argi-izpiak, eta Espíritu Donearen igurtziaz sendotu begiz, zure Ar-

giaren Argiak, zeure laguntzaren bitartez bixitza bañi batera jayo diran guztien biotzak. Kristo Jaunaren izenean. Amen.

(*Aita Gurea, Aguí María, Aintza (Gloria)*).

2'gna. Gaurko egunez kristiñauen biotzak Espiritu Donearen argiz jakintsu egin zenduzan Jauna: emon eiguzu, ařen, Espiritu beroñen bitartez, zuzenbidea mai-te izan ta beti bere pozaz pozturik bizi izateko bear dogun zure laguntza zeru-taňa. Amen. (*Aita Gurea...*)

3'gna. Zure amabi apostoluai Espiritu Donea emon zeutsen Jauna: emon egiez- zu zure kristiñauai bere euren eskarietan eskatzen dautzuena, eta antxiña siñismena opa zeuntsoenai, opa egiezua gaur zeure bakea. Amen. (*Aita Gurea...*)

4'gna. Bego, ařen, Jauna, gugan Espiritu Donearen indarña, gure biotzak leun- kiro garbitu ta gu etsaikeri guztietatik gorde gagizan. Amen. (*Aita Gurea...*)

5'gna. Argitu begiz, ařen, Jauna, gure biotzak, zugandik datoñen Espiritu Poz- kileak; eta eruan gagizala berak egi-itufi gozoetara, Zeukin eta Espiritu beroékin

batean betiko Eŕege bizi dan Zure Semeak agindu euskun Iez. Amen. (*Aita Gurea...*)

6'gna. Emoiozu Jaun eŕukitsu oŕek, Zure Elizari, Zuk antziña Espiritu Donearen bitartez emon zeutsan batasun edera ez dagiola iñongo arerio-ekiñaldi gaiztok uŕatu. Kristo Gure Jaunaren ize-nean. Amen. (*Aita Gurea...*)

7'gna. Ixuri egizu, ařen, Jauna, gogoz gure adimenetan zure Espiritua, bere ja- kintzagaz egin ginduzuzanok bere ardu- raz zuzendu gagizuzan. Kristo gure Jaunaren izenean. Amen. (*Aita Gurea...*)

**Andra María'ri**

Otoitz egizu, Ama, munduaren alde; otoitz egizu Eliza'ren alde; otoitz egizu Eŕoma'ko Aita'ren alde; otoitz egizu Abefiaren alde; otoitz bai, gizadi guztia- ren alde, guztioen gaňera Espiritu Do- neak bere doaiaik ixuri dagizan eta guztiok zerurako bidean ipiňi ta azkenez beti- betiko bizitzara eroan gagizan. Amen. (*Salbe*).

## IRUTASUN DEUNARI

(Deuntza laburía)

Deuna, Deuna, Deuna, gudarostien Jaun eta Jabea. Zeru ta luþak zeure aintzaz beterik dagoz. Aintza Aitari, Aintza Semeari ta Aintza Espiritu Deunari. Amen.

(Deuntza luze ta aundiagoa)

Aitaren, eta Semearen...

Jesukristo neure Jauna...

### Aita Goikoari Otoitza

¡O neure Aita betikoa! ¡Aita Alguztiduna! Zeu goresteko ta Zeure otsein izateko, egin ninduzun; eta emengo luþeko beste gauza guztiak be oþtarako xe egin zenduzan. ¡Aita samuþ eta eþukiofa! Zeure eþukiaren andiz ezer-ezetik atera ta ainbeste maitatu ginduzuzanok zeruratzeaþen, zeure Seme laztana bialdu zeuskun ezkerro, egizu aþen, Jauna, mundu onetan galdu barik, Jesukristoren irabazkiaþen eta Espiritu Deunaren eskaþez, zerua loþtu daigula, gero an beti goratu zaiguzan.

(Aita gurea ta Aguþ Maria...)

(Orain bederatzi bidar)

Deuna, Deuna, Deuna, gudarostien Jaun eta Jaungoikoa. Zeru ta luþak zure aintzaz beterik dagoz. Aintza Aitari, ta Semeari ta Espiritu Deunari.

### Seme Jaungoikoari otoitza

¡O Jaungoiko Betikoaren Seme Jaungoikozkoa eta Jakituri Amaibakoa! Zeure bitartez ezagutzen dogu Aita, eta beronegaz guk bakeak egiteaþen zerutik jatsi ta gizon egin ziñan eta zeure odola emon zenduan.

¡Gure biþerosle maitea!, Áren eskatzen dautzugu gure bidea, egia, ta bizitza zarean ezkerro, bide ofetatik zerura eroan gaizuzala, egi ori ezagutu, ta bizitza ori bizi daigula, zeure irabazi ta Espiritu Deunaren eskaþen bidez gero beti ta beti goreski zaiguzan. (Aita Gurea... Aguþ Maria ta bederatzi bidar Deuna... len lez).

### Espiritu Deunari otoitza

¡O Espiritu Deuna! ¡O maitasun Jaungoikozkoa! Jaungoikoaren ontasuna, gizonen Aldezlaria, ezeukien Aita, doe guz-

tien Emolea, biotzen Argia, Pozgile bikaña, makalen Sendotasuna, eta Eleizearen Donetzalea, Munduko pekatuak kentzen dozuzan oék zuzenetsi gaizuz gizase-meok: Jaungoiko - seme egiten gozuzan oék bañistau gagizuz, gure adimenak argitu egizuz siñesmenari eutsi dagiogun; gure biotzeta maitasuna ixuri egizu *Maitasuna* izan daigun, eta geure arimak zeure doe ta emaitz ugariz aberastu egizuz, geure bizibidean sendo ta zintzoak izanaz, gero zure Aintzan, Aita ta Semea ta Zu, ¡O Espíritu Deun ori! goratu zaiguzan, Amen. (Aita Gurea... Agur María... ta bedera-tzi bidar Deuna... len lez).



## ANDRA MARIAGANAKO ERASPENA

Norbaitek esan dau: «Euskaleñiko mendi galur bakoitza gurutze batek apaintzen dau»: bardin esan ledike: Gure Euskaleñiko ibaÑ bakoitzak Andra Maria'ren izenari eragitako Eleizaen bat daukala, euskaldun bakoitzak bere biotzean altara bat jaso dautsan lez.

Asi Laburdi'ko eñkitik eta Aduñ ibaÑa igarota Eb-Ñ ibayaren ertzeraÑo, Euskaleñian-zeaÑ goazala, gero Bizkaiko mugetatik NapaÑoa'ren mugetaraÑo jasten gareala, non-nai eleiz edefak ikusi daikeguz, gure siñesmenaren gaztelu jagolak lez, Andra Maria'ri eregiak.

Laburdi ta Zuberotafak Lurdes'ko Ama dauke.

NapaÑak Ama Bidekoa.

Estibaliz'ko Andra Mariak Araba zaintzen dau.

BegoÑakoak Bizkaya.

Eta Gipuzkoan saÑtzen gareala, Guadalupe'ko Amak Ondarabin, Korukoak Donostin, Iziarikoak Deban, Izazkungoak Tolosan, Olasko'ak Azpeitit eta batez be, Arantzazukoak Gipuzkoako mugetan argiro erakusten dauskuez gure Euskaleñiak Andra Maria'ri beti izan dautsan zaletasun, eraspen eta maitetasuna.

Nok ez daki gaÑera, gure BatzaÑ Nagusietako agintariak batzen ziran lenengo egunean zin-egiten

ebela: Andra Maria Jaungoikoaren Ama Orbange ta guztiz garbia izan zala bere SoÑkundean» siñestu, aldeztu ta erakusteko, ta jai edef au, BatzaÑ nagusien aginduz, ordutik auÑera gure aftean egin eta ospatzten dala?

Euskaldunak: «leñargiaÑ zindotasuna eskatzen dau ta odol garbiak egikizun andia nai ditu: gure asaba zaÑak lez izan gaitezan beti Andra Maria-zaleak eta biotz-biotzez maite dagigun.

## AMA NEKETSUA-STABAT MATER

1. Zutik gurutze ondoan  
Ama samiña egoan  
Ta Semea zintzilik.
2. Bere gogo gaxo iluna  
Ezpatak uÑatu ebana  
An egoan lafirik.
3. Ain estu ta atsekabea  
Seme bakaÑdun Andrea.  
¡Ama eÑukaÑia!
4. OÑavez eta naigabesz  
Seme kutunaren lanez  
Osoro samindua.
5. ¿Nok ez leuke negaÑ eingor  
Ba'lekus Amaren oingo  
OÑaze izugafia?

6. ¿Nor legoke lafi barik  
Kristo-Ama ikusirik  
Semeagaz miñetan?
7. Eñitaén oben andiz,  
Zigoíkada astiñaldiz  
Dago zauriz betea.
8. Iñortxuk bere ez laguntzen...  
Ta azken-arnasak emoten  
Dakus bere Semea.
9. ¡Ea Ama, maite-ituria,  
Zurekin samin bizia  
Aí dagidan egizu!
10. Sutau Kristoren maitean  
Biotz au, ta Aren auñean  
Atsegíña nagizu.
11. ¡Ama, nire biotzari  
Kristo-zauriak ezañi  
Añen, mami-mamian.
12. Seme oñen neke-lana  
Erdiz bialdu nigana,  
Niretzat jasan dau-ta.
13. Zurekin negaí bizian  
Naukazu, ta aren zorian  
Ilgo nazaneraño.

14. Ama samuŕ, on, biguna  
¡Zure nekeen astuna!  
¡Niri negaí eragin!
15. ¡Kristoren nekauste, eriotz,  
Zauriak ártzeko, biotz  
Aul au bizkoá egin!
16. Zauritu zeure zauriez,  
Birlorau nadin odolez  
Gurutz-ituriipean.
17. Su-gáretan eŕe ez nadin  
Nire alde otoitz-egin  
Ama, azken egunean.



*(ñiburu eta sastoi)*

**BEGOÑA'KO ANDRA MARIA'RI**

(Jai eguna Dagonila'ren 15'an)

Noz eta zelan agertu zan Begoña'ko Andra Maria'ren irudi edeŕa, ziur ez dakigu: bakaŕik esan geike: Bilbao-uria irasi zanetik bai dala, ta Andra Maria'ren irudi miragaŕi ori guztiz ezaguna zala aldi aretan: gaur aguŕtzen dan irudia baŕiz, jakitunen eretxian VIII-gaŕen edo IX-gaŕen gizaldikoa da, ta lenengo eleizea X-gaŕenekoak: oraino au XVI-gaŕenean eregi eben siňesmen andiko bizkaitar gure asabak.

Alatz edo mirari asko egin ditu Begoña'ko Amak, eta origaitik eraspen (debozioño) andia dautse Bizkaitaŕak eta beste euskaldun guztiak be bai, batez be afantzaleak.

Begoña'ko Andra Maria, laztan edeŕ oril zaindu beti gure Euskaleŕi maite-maite au, lengo oitura garbiak gorde-ta, lenbai-len jadetsi daigun lengo zorion edeŕa, Jaungoiko ta Lege-Zaŕaren itzalpean.

**Otoitza (ex officio)**

**A**RREN eskatzen dautzugu, Jaungoiko maiteal zure serbitzarien oben edo peka-tuak parkatu daizuzala, eta gure egikizunak gogoko ezpa'litzakezuz, Zugaz bate-

ra bizi dan eta agintzen dauan Jesukristo zure Semearen Amak, bere bitaŕtekotasunez, betiko zoriona jadetsi daigula. Olantxe.

**ARANTZAZU'KO ANDRA MARIA'RI****¿Arantzan Zu?**

Edefenetan edeŕena zara

Ama, ta arantzan Zu?

Arantz baten edertasun ber-bera

¿Zelan agertu yaku?

Lorarik edeŕena arantz-aŕtean

Jaunak ipinten du:

Oŕegaitik, Ama, arantz-gaňean

Agertu ziňan Zu.

Arantzak guretzat samiňak dira,

Ama, ta zuretzat

Samiňak ba-dira, czegaitik aŕtu

Zure bakaulkitzat?

Samiñak dira, bai; baña Jesusek  
asko maite ditu.

Oregaitik, Ama, arantz-gañean  
agertu ziñan Zu.

Zeru-luñen jabe beti zaralako,  
Jesus Bakaldunak  
Aítu nai izan dau guretzako  
Arantz-burestuna.  
Arantz-burestundua gurutzean  
Il zan bada Jesus.

Oregaitik, Ama, arantz-gañean  
agertu ziñan Zu.

Bere Biotz on-ona erakusteko  
Gizon gaiztoari,  
Biotzean Jesusek aítu ditu  
Arantzak ugari:  
Arantzak Semearen biotzean  
Zoñtzak dakuzuz.  
Oregaitik, Ama, arantz-gañean  
agertu ziñan Zu.

### Otoitza

ZORIONEKO Andra Maria: parkapenaren iturburua, eskaŕ, mesede ta maitasunaren Ama, gizasemeen itxaropena ta zeruko Eregiña; entzun Zugana datozan zure seemen eskariak!

i) Emoidazu, Birjiña aguŕgaria, nik beti Zu goratzea.

e) Eta neur arerioen aurka indazu indaŕa.

### Eskaria

JANGOIKO alorodun eta Betikoa, zorioneko Andra Maria'ren garbitasun oŕbanbakoa mirari aŕigaztiz adierazo dauskuzuna; bere irabazi ta otoitzen bidez emoiguzu luŕeko zorakerietatik biotza azkaturik, zure menpeko otsein zintzo izateko grazia, gizaldien gizaldietan Zugaz batera zorionekoak izan gaitezan. Olantxe.

(Arantzazu'ko Andra Maria'ren jaya, Iraílaren 9'an ospatzen dogu; 1499'gafen urtean Baltzategi'tá Rodríguez eritxon artzain gazte batek, arantza baten gañean, Arantzazu'ko Amaren irudia aufkitzen dau, eta bertatik ezin neuŕtu al besteko mesede andiaik, Zeruko Eregiňak gure Eŕiari egiten dautsaz, batez be, anai euskaldunen árteko bakea).

**Otoitz**

**A**RANTZAZU'KO Ama maitea! Guda ikaragafian alkaregaz nastauta ebiltzan Euskaldunak zure ardurapean batzeaen, Aloña mendian agertu ziñalako, eta afezkero zure eskuan daukazuzan ontasun azken-gabeak bein be eten-barik zabaltzen dozuzalako, Euskaldun eskef onekoak euren zerutar Zaindari nagusitzat ártu zinduezan.

¡Ene Ama biotz samurá! Éruki zaiteznguzaz, ártu gaizuz zeure babes atsegin-gařian eta zaindu gaizuz, geure griňa okeerén arantzaftean naspilduta, galdu ez gaitezan. Olantxe.

(Befogei ta amar eguneko parkapenak).

**GUADALUPE'KO ANDRA MARIA'RI**

(Jai eguna Irala'ren 8'an)

Jaizkibel deritxon eta Ondarabí'ko ipar aldera dagoan mendian, Guadalupe'ko eleizatzua dago. Zeruko Eřegiňa artzain gaztetxu biri agertu yaken tokian.

Guadalupe'ko Amaren agerpen au edo Arantzazu'ko baño lenago edo andik laster jazo zala ustet

da. Gure aufetikoak eraspen andia izan dautsoe beti, batez be, afantzale ta itxas-gizonak, eta onelan ikusten dogu Elcano ospatsuak bere ilburuko edo testamentuan zerbaiz diru izten dautsala Guadalupe'ko Andra Maria'ri: ez daigun ba, euskaldunok aitztuta euki ainbat maite gaituan eta ainbat laguntza emon dauskun Guadalupe'ko Andra Maria.

**Otoitz**

**Z**ORIONEKO Andra Maria Guadalupe'koa, gure Ama maitea. Egun sentiko izafak luřari adierazten dautsan lez eguzki pozgafia laster jayoko dala, olantxe zure jaoytzak zeruko eguzki Jesusen etořerea adierazo dausku.

Áren ba, entzun egizuz gure eskaria eta jaritxi eiguzu geure pekatuen parkapenaz batera, gure biotzak ez daitezala iratsi auferantzean luřeko ondasun guzuřtietara. Olantxe.

**LURDES'KO ANDRA MARIA  
ÓRBANGEARI**

(Jai eguna Zezel'a'ren 11'an)

1858'garén urtean, Aita Santu Pio IX-gařenak «Andra Maria jatorizko ofiřban barik soňtu zala» erabagi ebanetik laugafeñ urtean, Zeruko Eřegin

andia Bernardeta eritxon neskatalatxu bati aitz gañean agertu yakon Lurdes'en. Jakitun batzuk diñoenez, Lurdes'ko uri au, Bidasoz andiko Lapurdi edo Laburdi-efkian eta Euskalefian aurkitzen zan antziña, eta Bernardeta Soubirous doatsuak odol euskalduna eukan, bere abizena Zubiri edo Zubiru, jatoñiz, agian izango zala-ta.

### Otoitza

(Antif... ex officio)

ZORIONEZKO Zeruko Eřegiňa gaur luŕean agertu da; gaur bere eriari azkatasun eta bakezko baři onak ekaři dautsoz: gaur aingeru lirañak eta kristiňau onak alkafturik Sořkunde orbangea ospatzen dabela pozez beterik dagoz.

- i) Jatoñiz Eřubako Eřegiňa, gure alde eskatu.
- e) Jesukristoren eskintzariak jadetsi egiguzuz.

### Eskaria

ANDRA Maria'ren orbanbako Sořtze garbiaz zure Semeari bizitoki egokia gertu zeutsan Jaungoikoa: ařen eskatzen dautzugu, Birjiňa doatsua agertu zan eguna

gogoratzen dogunok, gorputz eta gogoaren osasuna jadetsi daigula. Olantxe.

### KARMEN'GO ANDRA MARIA'RI

ZORIONEZKO Birjiňa Eřugabea, Karmelgo aintza ta gorespna! zure gutun edo eskapularioa daroen guztiai laguntza berezia emoten dautsazuen ezkerro, biuřtu egizuz nigana zeure begi eřukiořok eta zeure magalpean, Ama, aſtu nagizu. Indaf-tu zeure laguntzaz nire makalkeria, nire adimenaren ilunak zeure jakituriz argitu, siňesmen, itxadon eta maitasuna be nigan geitu. Zuri ta zure Semeari osoro atseginak yatzuezan doyez nire gogoa apaindu egizu, ta lagundu nagizu, azkenez, neure bizitza osoan eta batez be, neure eriotzako aldi lařian. Olantxe.

### AGUÝTZA DEUNA (EROSARIOA)

Otoitz edeř guztietan edeřenetaikoa noski Aguýtza Deuna dogu: Otoitz guztiz edera, «eximia peccatorum formula» diño Leon XIII-gafenak.

Otoitz guztiz edera: ez da ba, beste batzuk lez,

gizonak asmaua, zerutik jatsia baño. Andra Mariak berak, Domingo Deunari irakatsi eutsan, Albitařak bide onera biuítzeko 1213<sup>g</sup>afen urtean, oítxe nün-bait.

Otoitz guztiz edeŕa: eskaririk edeŕenak bere baŕeanean daukazalako; *Aita gurea*, Jesukristok irakatsia, *Aguŕ María*, aingeruak zerutik ekaŕia ta *Gloria*.

Otoitz edeŕa: bere 15 ezkutukiak (misterioak) Je-sus eta bere Amaren bizitza edeŕa begien auŕean jaŕten dauskuelu, onoimen edo birtute guztiak irakasten dauskuezalako.

Ofa zegaitik Aita Santu guztiak ainbeste goratu dabent eta ainbeste parkapen, eskaŕ ugari erantsi dautsoean.

Parkapen osoa egunero, eñosarioaren 15 ezkutukiak esan ezkerro, «Eñosario Santuaren» anaidiarentzat; eta 100 egun eta 100 befogeiko, eñosarioa norberagaz eroateagaitik bakaŕik be.

### Oaŕak:

Aguŕta ondo esateko, bere eskutuki edo misterioak gogoz-naftu beáŕ dira. Geyenetan, ez da eñosario osorik esaten, bere 5 misterioko zatia baño: ona emen 15 misterio oŕeik, astearren egunetan, zegaitik banandu diran, egunero ezpada be, aste osoan beintzat guztiak esateko.

*Gure auŕetiko euskaldun zaŕak osoro eñosario-zaleak ziran.*

Eraspen (deboziño) onek, entzute andiko Deun ospatsuak soŕtu ditu gure Eŕian: Loyola ta Iñazio,

Xabier eta Martin deunak, Lizardi, Tomás eta Beñiotxo zoriondunak.

Berak gorde ditu gure Eŕian siňesmen eta oitura garbiak eta gure egunetan be, ainbat siňesge edo siňesgaldukoen artean, siňismenak gure Eŕian diziratzen ba-dau, eñosarioari zoŕ dautsogu.

*Gure asaba zaŕak lez esan daigun egunero, guztiok batera, geure etxetan, aguŕta edo eñosario deuna.*

### Aguŕta esateko erea

*Gurutze santuaren...*

*Jesukristo neure Jauna...*

1) *Domine, labia mea aperies.*

2) *Et os meum annunciabit laudem tuam.*

3) *Deus, in adjutorium meum intende.*

4) *Domine, ad adjuvandum me festina.*

5) *Gloria Patri et Filio et Spiritui Sancto.*

1) *Jauna, nire ezpanak idegi.*

2) *Ta nire agoak zure gorapena esango dau.*

3) *Jauna, lagun zakidaz.*

4) *Niri laguntze-ra bizkor zatorki-daz.*

5) *Aintza Aitari ta Semeari ta Espiritu Santuari.*

6) *Sicut erat in principio, et nunc et semper, et in saecula saeculorum. Amen.*

*Ama eskaŕtu ta eŕukioŕa, geure arerioakan-dik zaindu ta eriotz-aldian aŕtu gaizuz. Olan-txe.*

### Pozezko ezkutukiak (misterioak)

(ASTELEN ETA EGUNETARAKO)

Igoa: *Jaungoiko-Semearen gizakundea.*

Mariak, bere bizitza apal - ezkutuaz, Jaungoikoa beraganatu dau, efeka bazte-fetako loratxuak bidaztien begiak lez...

Emoiguzu, Andra Maria, geure buruak gitxitan euki ta Jaungoikoaren menpean beti biziteko beaŕ dogun laguntasuna.

*Aita Gurea, 10 Aguŕ Maria... ta Aintza.*

*Ama eskaŕtsu ta eŕukioŕa...*

II'g.<sup>a</sup> *Andra Mariak bere lenguseñari egindako ikustaldia.*

Negu otzaren biotzean, seña egiteko egoan bere lenguseñña ikeŕtzera doa.

Andra Maria: maitasunak daroa ta ez irabaziak.

6) Len lez orain, beti ta amaibako egunetan.

Olantxe.

Andra Maria, maitasunez betea! emoi-guzu geure urko-lagunetan Jaungoikoaren antz-irudia ikustea.

III'g.<sup>a</sup> *Jaungoiko-Semearen jayztea.*

Belen'go ateŕpetik diňosku Jesus ume-txuak, lufeko aberastasunak, biotzez bein-tzat, gitxitan eukiteko ta Berak lez, txiro-tasuna maite izateko.

«Zorionekoak biotzez txiroak». Lan-deŕen ártean beártsu en agertzen zayaku-zan Jesus-ume oŕek, txirotasuna maiterazo egiguza.

IV'g.<sup>a</sup> *Andra Maria'ren eleizan sártsa.*

Maria, bearízanik euki ez aŕen, Eleizara doa garbikunde-legea betetara, guztioi erakutsi nai dauskulako, zelako ardura aundiz zaindu beaŕ dogun geure arimen garbitasuna.

*Ama guztiz garbi oŕek, jagon nire bio-tzean garbitasuna!*

V'g.<sup>a</sup> *Jesus umea galdu ta eleizan aurkitzea.*

Mariak bere Semea aufkitzen dauanean, onek diňotso: ¿«Ez al zenkien neure Aita-ren gauzetañ ibili beaŕ nazala? Kristi-naua, Paulo Deunak diňotzu: «Egin beaŕ

dozun guztia, Jaungoikoaren izenean egiztu».

Jauna, zuk nai dozuna egitea izan bedi beti nire asmu bakaña.

### **Nekezko ezkutukiak**

(ASTARTE TA BARIKUETARAKO)

I'goa. *Getsemani'ko Jaunaren otoitzora-zinoa*.

Gaxtik andiena, okeŕena, gaitz bakaña, oben edo pekatua da; gure obenak ipini eben Jesus gure Béberoslea, ódol-izeŕdi patzeten Getsemani'ko espaňuan.

Aita Jaungoikoa: Zure Semearen oñazeakaitik soŕtu, aŕen, ene biotzean peka-tuagazko górotu bizia.

II'g.<sup>a</sup> *Jaungoiko-Semea zigorkadaz astindua*.

Munduaren asieran, ikaragaŕizko uyolabatek gizonen lizunkeriaik garbitu zituan; orain beste batek, Jesukristoren odol Aguŕgaŕiak aragikeri zantaŕak garbituko ditu.

¡Ama laztan atsekabetua! zure Semearen oñazeak dirala-ta, biotz garbitasuna emoidazu.

III'g.<sup>a</sup> *Jesukristoren arantzazko burestuna (koroya)*.

Aŕokeriak galdu eban aingerua zeruan eta Adan atsegin-baratzan. Jesus gure Eŕegeak, arantzazko koroya bere buruan eroala, itxura baŕegaŕi ofetan agerturik, aŕokeria menperatu dau, azkatu gaitu.

Emoiguzuz, Jauna, zeure arantzak eta áitu, oŕen ordez, geure maitasun eta dama.

IV'g.<sup>a</sup> *Jesus gurutze astunaz zamatua*.

«Nire ondoren etofi nai dauanak—diňo Jesukristok—bere burua ukatu bei ta bere gurutzea aŕturik, jaŕaitu beist». Beraz —diňo Jeronimo Deunak—aguŕ egin legikeo zenuari, gurutzerik eroan nai ez dauanak.

Jauna, zeure laguntza emoidazu gurutzearako.

V'g.<sup>a</sup> *Jesukristoren gurutzeko eriotzea*.

Jesukristok gurutzetik bere Ama on-ona, eŕukiz betea, geure amatzat emon euskun, Joan bere ikasle maiteari esan eutsanean: «oŕa oŕ zure Ama».

Maria, Jaungoikoaren Ama doatsua eta neurea: emoidazu auferantzean zure sema on beti izateko zoriona.

### Aintzazko ezkutukiak

(EGUAZTEN ZAPATU TA DOMEKETARAKO)

I'g.<sup>a</sup> Jaungoiko-Semearen berbzkundea.

Jesus gure Jauna ziñez berbzturik, urten zan ilobitik eta bañiro ez ilteko iñoz be. Ziñez berbztuko gara, geure lengo bizi bide txaña betiko izten ba-dogu, lengo gaiztakerietara bañiro ez biuñzeko.

Zure berbzkunde adigañigaitik emoguzu, Jauna, obena eta ofako bidea betiko iztea.

II'g.<sup>a</sup> Jaunaren zerura igokundea.

Luía itxi-ta zeruratzen dalarik, Jesusek diñausku: «Zuentzako toki bat gertutzaera noa»: an ikusiko dogu geure Jauna, mai-tatuko dogu, betiko geurea izango dogu.

Zeruko zorion edeŕa eskiñi dauskuzun Jauna; ori irabasteko, zeure laguntza emoguzu.

III'g.<sup>a</sup> Espiritu Santuaren etorrea.

Espiritu Santuak Jesukristoren bidaliak betetan ditu eta len lotsaturik bildu

koldaŕak, agiri ziranak, orain bildu barik, Jesusen izena autoŕtzen dabe.

Zatoz, aŕen, Espiritu Santu ori eta biztu gure biotzetan zure maitasunaren su-gaŕibiazia.

IV'g.<sup>a</sup> Andra Maria'ren jasokundea.

Luŕeko erbeste onetatik pozez doa Maria zerura: guretzat luŕ au atzeŕia izan beafean, atseden-tokia da: ez dogu nai itxi ta egunen baten itxi beaŕko dogula-ta, bildu gara.

Emoiguzu, Jauna, luŕeko zorakeri aŕtean Zeruaz ez aztuteko grazia.

V'g.<sup>a</sup> Andra Maria'ren bureskundea (koronaziňoa).

Maria, Jaungoikoaren Ama, zeruko Eŕegiňa ez eze luŕeko Eŕegiňa be bai da; zeruko eŕegiňak lagundi gengikez, luŕeko eŕegiňak lagundi nai gaitu. Ogasun eta ontasuna, eskubide ta eŕukia bere biotzean alkaŕtu ta laztantzen dira.

Maria, zeruko Eŕegiňa ta gure Ama; ainbeste ondasunen ondoren emoiguzu Jesus zure sableko Seme bedeinkatua.

Esan gero Andra Maria'ren aŕentza ta ondorengoa otoitz 64'garén oŕialdean jaŕi dan lez.

**Aguítza esateko era labuágoa****POZEZKO EZKUTUKIAK**

(Astelen eguenetarako)

1'goa. Jaungoiko-Semearen gizakundea,

*Eskaria:* Apaltasuna.2'g.<sup>a</sup> Andria Mariak bere lenguseñari egindako ikustaldia.*Eskaria:* Geideagazko maitasuna.3'g.<sup>a</sup> Jaungoiko Semearen jayotzea.*Eskaria:* Luŕeko ogasunetara biotza ez makuútzea.4'g.<sup>a</sup> Andra Maria'ren eleizan saítzea.*Eskaria:* Jaungoikoaren eta Eleiza Ama-ren legeak gordetea.5'g.<sup>a</sup> Jesus umea galdu ta eleizan auŕkitzea.*Eskaria:* Pekatuakaitik Jauna galdu ba-dogu, lenbailen auŕkitzea.**NEKEZKO EZKUTUKIAK**

(Astaíte barikuetarako)

1'goa. Getsemani'ko Jaunaren otoitzar (oraziñoa).

*Eskaria:* Pekatuen garbai edo damua.2'g.<sup>a</sup> Jaungoiko-Semea zigorkadaz astindua.*Eskaria:* Aragikeritik iges-egitea.3'gn.<sup>a</sup> Jaunaren arantzazko burestuna (koroya).*Eskaria:* Gogoeta (pentsamentu) txaferatik alde-egitea.4'g.<sup>a</sup> Jesukristo gurutze astunaz zama-tua.*Eskaria:* Naigabeak onez ártu ta eroa-tea.5'g.<sup>a</sup> Jesukristoren gurutzeko eriotzea.*Eskaria:* Jesukristoren eriotzea gure bio-tzetan pekatuaren bidez ez bañiztatzea.**AINTZAZKO EZKUTUKIAK**

(Eguazten, zapatu ta domeketarako)

1'goa. Jaungoiko Semearen berbizi-kundea.

*Eskaria:* Graziazko bizieran eriotzaraño irautea.2'g.<sup>a</sup> Jaunaren zerura Igokundea.*Eskaria:* Zeruratzeko zaletasuna.

3'g.<sup>a</sup> Espiritu Santuaren etoñerea.

*Eskaria:* Otoitza maite izatea.

4'g.<sup>a</sup> Andra Mariaren jasokundea.

*Eskaria:* Eriotza on bat egiteko Santuen antzera bizitea.

5'g.<sup>a</sup> Andra Mariaren bureskundea (koronaziñoa).

*Eskaria:* Andra Mariaganako zaletasuna.

## ZAZPI OÑAZEAK

### Otoitza

ANDRA Maria, osoro atsekabetua: Zure Semeagaz batera kalbarioan ártu zebazan neke-oñazeakaitik afen eskatzen dautzut, neure oken guztien parkapena, auferantzear ez jausteko laguntza ta zeure zazpi oñazeak gogoraturik loftu nai neuken berarizko eskaí au... (ipiñi emen eskatu nai dozuna). Olantxe.

**Lenengo oñazea:** Simeon zañaren iragañkia.

¡Ama naigabetua! Simeon igañearen itzak, Jerusalen'go eleizan, emon eutzuen oñazeagaitik, eskatzen dautzut: neure pe-

katu guztiak garbituko dituan egiazko damua jadetsi daitzazula.

(*Aita gurea... Agur María*).

**Bigañen oñazea:** Egiptrora igestea.

¡Ama naigabetua! Nazaretetik Egiptora, zure Semeagaz igesi ziñoaazanean ártu zeban oñazeagaitik, eskatzen dautzut, galbide guztietatik iges-egiteko asmu sendoa jadetsi daistazula.

(*Aita gurea... Agur María*).

**Irugañen oñazea:** Jesus umea galtzea.

¡Ama naigabetua! Semea galdu yatzunean ártu zeban oñazeagaitik eskatzen dautzut: bizirik diraudan artean ez dagi-dala Jesus galdu, gero zeruan betiko ikusi dagidan.

(*Aita gurea... Agur María*).

**Laugañen oñazea:** Jesus gurutzeaz zamautua.

¡Ama naigabetu ori! Gurutzea sorbal-dan eroala zeure Semea ikusteaz ártu zeban oñazeagaitik eskatzen dautzut, neure gurutzea pozez eroateko indarria jadetsi daistazula.

(*Aita gurea... Agur María*).

**Boskañen oñazea:** Jesus gurutzean josia.

Ama naigabetua! Zure Seme maitea gurutziltzatzen ikusiaz ártu zeban oñazeagaitik eskatzen dautzut; neure griña gaiztoak ezi ta menperatzeko laguntasuna ja-detsi daistazula.

(Aita gurea... Aguí María).

**Seigañen oñazea:** Jesus iña bere Amaren alitzoan.

¡Ama naigabetua! Zure Semearen gorputz zauritua zeure besoetan ikusirik ártu zeban oñazeagaitik eskatzen dautzut, beti biotz garbiaz Jaunañtu daidala Altarako mayan.

(Aita gurea... Aguí María).

**Zazpigañen oñazea:** Jesus maitea eoñten (obratzen) dabe.

¡Ama naigabetua! Zure Semea obian sañtu ebenean ártu zeban oñazeagaitik eskatzen dautzut, loñtu daistazula laguntza pekatau górotau ta luñeko zorakerietatik alde egiteko.

(Aita gurea... Aguí María).

**Otoitza**

ANDRA Maria, Ama txit naigabetua! neke gogoñen átean, gurutzepean soñtu ta bizia emon dauskuzun oñek erakutsi, añen, geure Ama zareala, zazpi oñaze onein asieran eskaturiko grazia irabazirik, zure Semari jaíaitu dayodan emen luñean, gero betikotasun osoan zeruan Bera goratzeko. Olantxe.

(Edozein astetan, bariku gabeko amaiketatik domika goiz bitaftén, Andra Maria naigabetua bere bakaftasunean lagundu dagien kristiñauak, 300 eguneko parkapena irabazi dagikie. Ilero, aste guztietan orixe egiñaz, parkapen osoa, bein autoñtu ta Jaunañtu ba-dagie. (Pio VII'gk. 1822'ko Bagüaren 18'an).

**Ileroko lenengo larunbata (zapatua)**

Pio X-gañenak ileroko lenengo larunbata autu eban Andra Mariaren kaltezbo birauak ordaintze-ko, egun ori Berari eskiñiaz. Parkapen osoa lenengo zapatua bakotxean irabazi daiteke, autoñtu, Jaunañtu ta edozein otoitz Andra Maria'ri esanaz eta Aita Santuaren alde otoitz egiñaz. (Garbitokiko arimen alde opaldu daiteke).

### **Andra Maria'ri eskiñitako ilak**

Iru dira:

Mayatza edo Loraila.

Dagonila (Agustua) Maria'ren Biotz garbiari eskiñia.

Eta Iraiña, Andra Maria Naigabetuaren (Doloretakoene) ilà. 300 eguneko parkapenak iru il oneitako bakotxean irabazi leiz, nai dan otoitzeta Andra Maria'ri egunero esanaz, eta il osoan ori berori egin ezkero, parkapen osoa azken egun baten autoñtu, Jaunaitu ta Aita Santuaren alde otoitz egiñaz (Pio VII-gk. 1822'ko Bagiña'ren 18'an. Pio X-gk. 1913'ko Epaiña'ren 13'an. Leon XIII-gk. 1888'ko Urtañila'ren 27'an).

## **ANDRA MARIA'REN ELEIZ -BAZKUN, ANAIDI, GUTUN ETA DOMIÑAK**

### **Andra Maria Deunaren Bazkunak (kongregaziñoak)**

Izen oneikaz ezagutzen dira: naiz «Maria'ren alabena» (neskatilentzat) naiz Luistafena (mutilen-tzat): batak eta besteak lenengo zaindaritzat Andra Maria euki bear dabe, naiz-ta beste zaindari bat (Luis Deuna edo Koska'tar Estanislao) duakela bi-gaéntzat.

Jesusen Lagundiko anai Sebastian Kabañasi'k lenengoz asmau ta irasi edo ipiñi eban Sirakusan, gaztedia pekatu - bidetik aldenduteko: Gregorio XIII-gaferenak ontzat emon eban, eta Benedito XIV -gaferenak gero eskañ-mesede andiz aberastu eban esanaz: «bazkun oneik garbitasuna zaintzen dabela, gazte galdu asko biuñtzen dabezala ta askok bertatik atera dabela Erlejíñoan sañzko asmu be». Ligorio'taf Alfonso Mariak bañiz, Jakintza -Idaztiaren itzak zuzentzen dautsaz esanaz: «On guztia oñtik etorri yataz. (Cap. VII. v. II) Ainbat eta ainbat gizon ospetsu bazkun ofeitistik soñtu dira: Aita Santu, Eñege, Agintari ta abañ. Santuen aítean: Boñomeo'taf Karlos, Sales'tar Franzizko, Ligorio'taf Alfonso, Gonzaga'taf Luis, Koska'tar Estanislao, Berchman'taf Joan... eta beste askoren izen aguñgafiaiak aurkitzen doguz: azkenengo Aita Santuen aítean: Benedito XIV, Pio IX, Leon XIII -gaferena ikusten doguz.

Bazkideen eginbeárák: lenengo izena emon eta baltsuan sañtu: ofezaz gañera:

- Goizean, oetik jagitean, iru «Aguñ María» esan, garbitasuna ta beste onoimenak eskatzeko.
- Sañi autoñtu ta Jaunaitu (Iero gitxienez, astero al ba-da).

c) Lagun gaizto ta dantza nastuetatik alde egin.

Irabaziak: Bazkideen Zuzentzaileak azalduko ditu: bakañik esango dot emen parkapen osoa irabazten dabela bazkideak: batzañean sañtzean, eriotz -aldian, jai-nagusienetan, bazkunaren bilera eguneitan; beti, autoñtu ta Jaunaitu ezkero.

(Parkapen guzti oneik Garbitolikiko arimentzat izan daitekez).

### Aguítza (eñosario) Santuaren Anaidia

Aita Domingo Santua il eta lastefé, Balentzian softu zan «Aguítza deunaren» lenengo Anaidia 1221'g. urtean; afezkero Aita Santu guztiak, baña batez be, Leon XIII-gk, asko ta asko aberastu dabe. Onen asmua da, kristiñau asko batu daitezan, eñosario santua esanaz, Andra Maria goresteko ta bere laguntza guztiak batera eskatzeko. Bazkideai auxe baño besterik ez yake eskatzen (eta au be pekatuapean ez) astero eñosario santuaren 15 ezkutu kiak (amañekoak) esatea.

Irabazi ugariak ditu: bi bakañik aitatuoko dodaz emen:

- Parkapen osoa egunero:* (Garbitokiko arimentzat izan daiteke) eñosarioaren 15 amañekoak esanaz (amañeko bat orain ta geroago beste bat esan leikez) gure Ama Eleizearen alde eskatu ta Eleizaren baten otoitz eginda.
- 100 eguneko ta 100 beñogeiko parkapenak egunean, eñosarioa eroateagaitik.

### Karmel'go Andra Maria'ren Anaidia

1251'ko Garila'ren 16'an, Simon Stok, Karmel-darren Agintariari Andra Maria agertu yakon, eskuian Karmel'go gutun edo eskuplarioa eukala, ta esan eutsan: Gaiztoki edo inpernuko su-gafetik gordeko zituala Karmel-Anaidiko bazkideak: au da, berarizko laguntasunak jadetsiko dautsezala Andra Mariak bazkide onei.

Afezkero beste sari eder bat egin dautso anaidi

oneri: Aita Santu Joan XXII-gañenari agertu yakon irurogei urte geroago ta agindu eutson: Garbitokian poztu ta andik ainbat lastefen, eta batez be il da uñengo zapatuan, aterako zituala Karmel-anaidiko bazkideak.

Lenengo saria irabazteko, bear da: Karmel'go Anaidian saítu ta il afteraño gutuna (eskuplarioa) erabilí.

Bigañena irabazteko: garbitasuna gorde, norbere bibizibidean ete Andra Maria'ren ofizio laburra eguneró esan. (Otoitz onen ordez esan leikez 6 Aita gure, 6 Agúñ Mari ta 6 Gloria).

### Soñkunde oñbange, Andra Maria'ren

#### gutun urdiña

Jesukristo berak eta bere Amak iragari eutsoen Ursola Beninkasa zoriontsuari gutun au. Eskiñita daukazan mesedeak irabazteko, gutun (eskuplarioa) beti eroan bear da, Andra Maria'ren alaitasun zindoa erakutsi ta pekatariak biuñtu daitezan otoitz egunero egin.

Izugafizko irabazi andiak daukaz, batez be *parkapen osoa* egun bakoitzean: 6 Aita gure 6 Agúñ Mari ta 6 Gloria esanaz, Andra Maria'ren Soñte eñugabearen deduz.

### D O M I Ñ A K

#### Eñosarioa

Eñosarioak ditu, bedeinkatuta ba-dago:

100 eguneko parkapenak, «Aita gurea ta Agúñ Maria» bakoitzagaitik.

100 urteko ta 100 befogeiko parkapenak, efsa-sioa norberaz eroateagaitik (Aita Domingoren Se-meak naiz ofetarako eskubidedun abaderen batek bedeinkatuak ba-dira).

500 eguneko parkapenak Aita gurea ta Aguí Maria bakoitzagaitik, gurutzedun edo kruziferden onespena ba-dauke.

### Domiña miraritsua

Orbanbako Andra Maria'ren irudia dakaí alde batetik, eta bestetik «M» bat gurutzeaz eta azpian biotz txiki bi. 1848'gaén urtean, Andra Mariak berak Katalina Labouré gazteari iragazi eutson: mirari andiak egin ditu ta oñtik etoñi yako «Domiña miraritsuaren izena». Parkapen ugariak ditu onek be: 100 egunekoa bakoitzean, auxe esanaz: «Maria orban barik soñtua, Zugana gatozan onein alde, ařen, eskatu».



## JOSE DEUNAGAZKO ERASPENA

Jaungoiko ta bere Amaren uñengo Jose Deuna jaři beař dogu, Jesukristoren Aitaordeko, Eleiz-Amaren Zaindari ta eriotz-aldian laguntzalerik onena dogu-ta.

Ez daukat gogoan—diño Teresa deunak—eskaturiko gauzarik Jose Deunak ukatu daustanik: Jaungoikoak beste Santuei beařizan bat edo bestean laguntzeko doya emon dautsela dirudi: santu andi onek, bařiz, ikusita daukat, guzietan laguntzen dauala, Jaungoikoak adierazoi nai dauskularik, luren lez zeruan be, bere esanak egiten dituala.

Maite daigun, beraz, Jose Deuna; baña ziñez eta egiaz, bere laguntza eskatu ta bere bizitzari jařituk: ezkongeak bere garbitasunean jafaitu begioe;



Agnus Dei qui tollis  
peccata mundi, *exaudi nos Domine.*

Agnus Dei qui tollis  
peccata mundi, *miserere nobis.*

¶. Constituit eum  
Dominum domus suæ.

¶. Et principem omni-  
nis possessionis suæ.

#### OREMUS

Deus, qui inefabili  
providentia beatum Jo-  
seph sacratissimæ Geni-  
tricis tue sponsum eli-  
gere dignatus es: præs-  
ta quæsumus, ut quem  
protectorem veneramur  
in terris, intercesorem  
habere mereamur in  
coelis. Qui vivis et reg-  
nas in sæcula sæculo-  
rum. Amen.

#### Otoitza

ANDRA Maria'ren Ezkontide garbi, neure  
Zaintzale zarean Jose Deuna! Zure lagun-

Gizonen obenak ken-  
tzen dozuzan Jaun-  
goikoaren Bildotsa,  
*entzun gagizuz.*

Gizonen obenak ken-  
tzen dozuzan Jaun-  
goikoaren Bildotsa,  
*eruki zakiguz.*

i) Bere etxearen  
Jaun egin eban.

e) Eta bere ogasun  
guztien nagusi.

#### OTOITZA

Jose doatsua zeure  
Amaren ezkontide iza-  
teko ardura andiz autet-  
si zeban Jaungoiko al-  
tsu oék, emoiguzu luí-  
ean geure Zaindaritzat  
daukagun Santu au, ze-  
ruan geure bitáteko  
izan dakigula: Amaiba-  
ko egunetan bizi zarean  
eta agintzen dozun Jau-  
na. Olantxe.

tza eskatu-ta jadetsi barik iñor ez dala  
gelditu gomutau egizu. Uste ofegaz zu-  
gana natof ta siñesmen biziz zure menpe-  
ko egiten naz, Jesusen Aitordea: nire es-  
kariau entzun barik ez afen, itxi, ontzat  
ártu baño. Olantxe.

(300 eguneko parkapenak egunean bein. Pio IX-gk. 1863'ko  
Urtañila'ren 26'an).

#### Garbitasuna eskatzeko Otoitza

ANDRA Maria'ren Ezkontide guztiz gar-  
bia ta Jesusen Aitorde zuzena, Jose Doa-  
tsua: gorputz-arimaren garbitasun osoa  
guretzat eskatu, edozein pekaturen órba-  
netik garbi ta eztegu-soñekoa jantzirik,  
zeruko ezteguetara saftu gaitezan, Aitaren  
eta Semearen eta Espiritu Santuaren ize-  
nean. Olantxe.

#### Uñila'ko agúntza ondorengo Otoitza

(7 urte ta 7 befogeiko parkapenak, Uñila'ko agúntza ondoren  
esaten danean: 300 eguneko parkapenak egunoro. Leon XIII  
-gk. 1889'ko Iraña'ren 21'an).

GEURE lafi - aldian zugana gatoz, Jose  
Doatsua, ta zeure emazte guztiz garbia-  
ren laguntasuna eskatu ezkerro, zure bi-  
tartekotasuna be uste osoz eskatzen dau-

tzugu. Jaungoikoaren Ama Maria oíban-geari zeutsan oneretxi ta Jesus umetxua laztandu zeban maitasun samuñagaitik apal-apalik eskatzen dautzugu: Jesukristok bere odolaz erosiriko Sendi edo famili au, erukiz begiratu daizula, ta zure eskubide ta laguntzaz lagundi gaizuzala geure beañizenetan.

Sendi Deunaren Jagola oso arduratsua! zaindu, ařen, Jesukristoren eři autetsi au, uírundu gugandik utsegite ta gaiztakerien oíban guztiak; geure Bitafteko guztiz altsual zerutik begi onez begiratu ta lagundi gagizuz, bafendiko etsayakaz darabil-gun buŕuka onetan, eta len Jesus umea eriotzako afískutik atera zeban lez, zaindu orain be Jaungoikoaren Eleiza Deuna arerioen ekiňaldi ta zoritxař guztietatik; eta guitariko bakotxa zeure ardura ta babetesean ártu egizu, zure laguntasunaz in-dafturik, zure antzera santutasunean bizi gaitezan, eriotza ona egin eta betiko zoriona zeruan jadetsi daigun. Olantxe.

### Zazpi igandeak

1. Guztiliz ezauna da gure aítean «Jose Deunaren zazpi domeken eraspena»: zazpi igande jaíaituetan autoútu, Jaunátu ta ondo-ren ipinten diran zazpi atsekabe-atsegiaňak esanaz, egiten da.

Noznai egin leike; baña obe da bere jai-aúreko domekan amaitzea.

2. Parkapenak: Parkapen osoa igande bakotxerako, autoútu, Jaunátu, Eleizen baten Aita Santuaren alde otoitz egiaňaz, ta atsekabe-atsegiaňak esanaz.

Irauküten ez dakiénak, otoitz onein ordez esan begiez: 7 Aita gure, Aguŕ Mari ta Aintza, parkapen osoa irabazteko.

100 eguneko parkapenak, egunean bein, otoitz oneik esan ezkerro.

300 eguneko parkapenak, urte osoaren eguañesten eta Jose Deunaren jai bien aúreko bederatzti egunetan.

Parkapen osoa: Jose Deunaren jai egunean eta bere zaindari-tzaren pozaldian.

### Zazpi Atsekabe-Atsegiaňak

Lenengo atsekabe-atsegiaňa.

Jose Deunak, bere Emaztea seindun ikusirik, ixilean laga ta itxi nai dau: ¡Au naigabea...!

Bañia aingeruak adirazten dautso: Espíritu Santuaren egitez Jaungoiko - Semea bere érayetan softu dala: jau poz andia!

Atsekabe-atsegiañ onein bidez emoidazu, Jose Deuna, biotz garbitasuna.

(Aita gurea, Aguŕ Maria, Aintza).

Bigaŕen atsekabe atsegiaňa.

Txiro, beaítsuen antzera, Belen'go estalpe zaŕean Jesus jayo da: jau atsekabea!

Bañia lasteř zeruko aingeruak, aítzain

eta iru efegeak aguítzen dabe: jau atsegíñ!

Atsekabe-atsegin onein bidez emoidazu, Jose Deuna, lúreko ondasunak ezerezatzat eukitea...

(*Aita gurea, Aguér Maria, Aintza*).

#### *Irugaŕen atsekabe-atsegíñ.*

Jesus umeak, jayo ta zortzigaŕen egunean ixurten dau lenengoz bere odola; jau samintasuna!

Baña aingeruak Joseri adierazten dautso, bere Seme ordeko oŕek, Jesus izen edeŕa arturik, gizonak gaizkatuko dituala; jau bai atsegíñ!

Atsekabe-atsegin onein bidez emoidazu, Jose Deuna, Jesusen izen gozoa beti neure ezpanetan erabiltea.

(*Aita gurea, Aguér Maria, Aintza*).

#### *Laugaŕen atsekabe-atsegíñ.*

Simeon igaŕle zaŕak Jesusen Nekaldi-Eriotz gogoŕa iragaŕten dau: jau oñaze-samiňa!

Baña au be adierazten dautso, bere neke ta eriotzaren bidez gizonai zerua idegi

ondoren, ilobitik berbibtua úrtengo dala: jau atsegin andia!

Atsekabe-atsegin onein bidez, egizu Jose Deun oŕek, zerua irabazi dagidala.

(*Aita gurea, Aguér Maria, Aintza*).

#### *Boskaŕen atsekabe-atsegíñ.*

Jaungoikoaren aginduz, Jose Deuna bere Emazte ta Semeagaz Egipto'ra iges -doa: jau laŕialdia!

Baña iges-egiňaz, Herodes'en aseŕeari iges - egiten dautsala gomutaurik jzelako poz andia Jose Deunarena!

Atsekabe - atsegin onein bidez, Jose Deun oŕek, pekatutik beti iges - egitea emoidazu.

(*Aita gurea, Aguér Maria, Aintza*).

#### *Seigaŕen atsekabe-atsegíñ.*

Nazaret'era baŕiro joateko aingeruak agintzen dautsanean, Jose bildur da, Herodes'en Seme biuria ango efege dala ba-daki-ta.

Baña bere bildura ezerezturen da, ez ikaratzeko aingeruak diňotsanean.

Atsekabe - atsegin onein bidez, egizu Jose Deuna, eriotz-aldian neure arimea Jesus eta Mariaren eskuetan ipiñi daidala.  
*(Aita gurea, Agur María, Aintza).*

### Zazpigařen atsekabe-atsegia.

Jose Deunak Jesus umetxua galtzen dau jau zoritxaŕa!

Baňa irugařen egunean, Eleiz Nagusian, jakitunen ártean aurkitzen dau: jau zorio na berea!

Atsekabe - atsegin onein bidez, egizu Jose Deuna, pekatu aztunez ez daidala Jesus iñoz galdu.

*(Aita gurea, Agur María, Aintza).*

(Esan azkenez Jose Deunaren afentzak amaitze-ko ipiñi dan otoitzta).

### Jose Deunaren ila

Epaila da Eleiz-Amak Jose Deunari eskiñitako ila.

300 eguneko parkapenak irabazi ledikez egun bakoitzean, Jose Deunaren opaz eta deduz otoi-tzen bat esanaz.

Eta egunero Jose Deunari otoiitz egiñaz, parkapen osoa il onen azken aldeko nai dan egunean, autof-tu, Jaunaftu ta Aita Santuaren alde otoiitz egiñezkerro.

### Jose Deunaren gutuna (eskuplarioa)

Alde batetik Jose Deunaren irudia dakaŕ itz oneikaz: «Josegana zatoz». Beste aldetik: «Jose Deuna, Eleizearen Zaindaria, zaindu gagizuz».

Jose Deunaren bitaŕtekotza andia ezagutzen dogun ezkerro, ezin daikegu gauza oberik egin bere gutuna (eskuplarioa) geugaz eroatea baňo, batez be, eriotz aldi laŕirako.

Parkapen ugoriak be baditu: 100 egunekoa, Aita gurea, Agur María, Gloria esanaz, itz oneikin: «Jose Santua, gure alde eskatu egízu».

## LOYOLA'TAR IÑAZIO DEUNAGANAKO ERASPENA

(Xabieŕ taŕ Franzisko Deunak bizi zala egin eutsan otoitzta).

NEURE arimako Aita, guztiz aguǵafía: nik belaunak luŕean josirk, auŕe-auŕean ikusiko bai'zindudaz lez, apal eskatzen dautzut, nire alde Jaungoikoari eten barik otoiitz dagiozula, bere nai guztiz santua argiro ezagutu ta osoro betetako laguntasuna emon dagidan.

i) Aita Iñazio, gure aldez Jaungoikoari eskatu.

e) Zure Seme on eta maitaleak izan gaitezan.

**Otoitz**

**Z**URE izen santuaren gorapena zabaltzeko, Iñazio santuaren bidez zure Eleiza gudariari indar baña emon zeutsan Jaungoikoa! Egizu: bere antzera ta bere laguntasunaz luíean guda eginda, beragaz zerruan sariztuak izan gaitezala: Zugaz Espiritu Santuaren batasunean betiraun guztian bizi dan eta agintzen dauan Jesukristo gure Jaun eta zure Semearen irabaziak dirala bide. Olantxe.

Eraspen eta maitasun andia zoí dautsagu euskaldunok *Iñazio deunari*, gure árteko ta odolekoa, euskaldun jatoña dalako ta bardin deun edo santu andienetaiko dalako be. Ez itxi egun bakaí bat zeure burtu ori bere ardurapean jaí gabe, bere laguntza eskatu barik: eskatu dayogun orobat gure soñtefi maite Euskaleñi onen alde be: asko maite eban Berak: 1541'gaen urtean Éromatik bere eritaiak bidaliko idazki baten, itz oneik esaten eutsezan: *Ez neban nik iñola be irabazi eta ez dautsat iñoz beař dan lez Jaunari ordainduko, eri oŕetan jayoazoaz agertu eustan ondonaya.*

*Iñazio Deuna, gure Aita ta Euskaldun leñargi ori!*

Guztioan alde ta Euskaleñiaren alde eskatu Jaunari!

## **XABIER'TAR FRANZIZKO DEUNA-GANAKO ERASPENA**

¡Benetan afigaňiak Jaungoikoaren bide ez ezagutuak!

1521'gaen urtean Irúná auíean Mikel eta Joan Jaso, Xabier'en anayak, alde batetik guda-buňukan alkaíen auíka dabilz eta antxe Iñazio zauriturik jausten da luíera, begiak idegiten ditu ta Jaungoikogana biurtxen da.

1530'gaen edo 31'gafen urtean. Paris'en aurkitzen dira Iñazio ta Xabier, aren Iruñako etsayan anaya: bañiro buňukea softzen da bien ártean; baña ez ezpata edo izkilu-buňukea, otoitz ta efezu buňukea baño ta oraingoan Iñazio Deuna garaitzale urteiten da, ta Jaungoikarentzat irabazten dau betiko Xabier.

Deun edo Santu euskaldun andi au Napañoan jayo, Sanziano deritxon Ugartean (Asian) il zan, Jaunari euskeraz otoizka. Aita Santu Pio X-gafernak misiňo ta misiolarien Zaindari autu ta izentau dau.

### **Eskeíezko (Graziazko) bederatzi uíena**

(Jesusen Lagundiko aita Mastrili'ri Deunak agindu eutsan: Epala'ren 4'tik 12'gañenera bederatzi uíenau egingo dabenak, eskatu dagioena jadetsiko dabela).

**Otoitza**

SANTU guztiz maitagafí ta maitale andi Xabier Deuna, zugaz batera itzal andiz guítu ta jauresten dot Jaungoikoa. Zuri emon eutzuzan grazi berarizkoakaitik poz naz eta orain zeruan daukazuzan atsegíñakaitik eskañik andienak emoten dautsadaz eta eskatzen dautsat: bitzitzta eriotz ona eukiteko laguntza, zure bitártze emon daidazala. Baita eskatzen dautzut jadetsi daistazula bederatzi-úren onetan eskatzen dautzudana be (ipiñi zer nai dozun): baña nai dodan ori Jaungoikoaren aintza ta nire arimearen onerako ondo ezpa'letof, biontzat ondoen datoñena jadetsi egidazu.

(*Aita gurea, Aguí María, Aintza, iru bidañ*).

**Parkapenak:**

1'goa. Parkapen osoa, Jesusen Lagundiko eleizan egiten dan bederatzi-úfenean, lagun guztientzat, autoftu ta Jaunañtirik naiz egun ofeitan naiz gero, orduan ezin ba'litz. Leon XIII-gk.

2'g. 300 eguneko parkapenak bederatzi-úfeneko egun bakoitzean eta parkapen osoa azken egunean, autoftu, Jaunañtu ta Aita Santuaren alde otoitz eginda. Pio X-gk.

*Oaña:* Otoitz ori ezin ba-dozú esan, ofén ordez bost Aita gure, Aguí Mari ta Aintza esatea naiko da.

**LUIS DEUNAGAZKO ERASPENA**

(Jai-eguna Bagila'ren 21'an)

Gonzaga'taí Luis Deuna, garbitasunaren eredu edeфа, aingeruen antzera lufeán bizi izan zan: oraindik bederatzi urte ebazala, garbitasuna beti gordeteko ziñeskain edo promesa egin eutsan Jaungoikoari; 17 urtegaz Jesusen Lagundian saftu eta sei urtetan bizibide garbi, santu ta edeфа egin eban antxe.

Benedito XIII-gk. gazte ikasleen Zaintzaile autu eban. Jesusen Lagundian igarotako 6 urte ofein gomutaz sei igandetako erasprena soñtu da.

**Sei igande edo domekak**

Eraspen onek eskatzen dau: 6 igande jañaikoetan autoftu, Jaunañtu ta otoitz batzuk Santuaren deduz esatea: bakoitzean parkapen osoa irabazten da. Klemente XII-gk. 1739'ko Lotazila'ren 11'an.

Nozai egin daiteke; baña oitura da bere jai-egun aufeko 6 igandeak aukeratzea.

**Otoitza****GARBITASUNA JADESTEKO**

(100 eguneko parkapenak egunean bein)

AINERGUEN antzeko ta garbitasunaren eredu zarean Luis santua! neure gorputz

-arimaren garbitasuna zure eskuetan ipinten dot: Jesus Bildots ofbangeari ta bere Ama Maria Eñugabe, garbienetan garbienari nire alde eskatu egiezu euren laguntza emon dagistela pekaturik ez egiteko. Ez itxi neure aingeru orek, ofbanik txikienaz neure arimea loituren: pekaturako bidean edo ziltzaldi lañian ba-nakuza, urundu nire buru ta biotzetik gogamen txafak eta gurari lizunak; ekañi nire gogora betikotasunaren eta Jesus gurutziltzatuaren gomuta osasungäfiak! josi nire biotz bañuan Jainkoagazko bilduñ santua ta kizkaldu nagizu bere maitasunaren su bizian, zure antzeko lufeán izanik, gero Zugaz batera zoriontsu zeruan izateko.

(Aita gurea, Aguí María ta Aintza).

*¶. Ora pro nobis  
Sancte Aloisi.*

*R. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.*

#### OREMUS

Cœlestium donorum distributor De-

i) Gure alde eskatu, Luis Santua.

e) Jesukristoren eskintzariak irabazi daikeguzan.

#### OTOITZA

Zeruko eskañ-doyen banatzale za-

us, qui in angelico juvene Aloisio, miram vitae innocentiam pari cum pænitentia sociasti: ejus meritis et præcibus concede; ut, innocentem non seculi, pænitentem imitemur.

Per Christum  
Dominum nostrum.  
Amen.

rean Jaungoikoa!  
Aingeru antzeko Luis gazteagan ariagañizko bizitza garbia ta gorputz-ildura miragaña alkañtu zebazan: bere otoitz eta irabazien bidezemoiguzu: garbitasunean jañaitu ez dautsagunok, geure buruak ilduratzan bere antzeko izan gaitezala, Jesukristo gure Jaunaren izeanean. Olantxe.

#### ANTONIO DEUNAGAZKO ERASPENA

Eraspen andia izan dautse beti euskaldunak santu andi oni: bera euskaleñian jayo ez zan afen, euskaldunen odola eukan amaren aldetik, batzuk diñoenez: dana-dala, guztioik dakigu gure áftean, Urkiolan bere eleiza ospe andikoa daukala ta andik eskañ ugariak zabaltzen dituala.

## Amairu astaíte edo martitzenak

Epaila'ren 13'gafen egunetik uñengo astaftean  
asi leikez, bere egunean, Bagila'ren 13'an amaitze-  
ko; beste edozein astaftetan be egin daitekez, ba-  
ñu eten barik edo igandetan.

Parkapen osoa dauka bakoitzak, autortu, Jaun-  
aftu ta otoitz bat santuaren izenean esanda: ondo-  
ren jaítzen dan au izan daiteke.

**Otoitza** (ex officio)

Poztu begi, Jauna, zure Eleizea Antonio Deunaren bitárteko otoitzak, Zure laguntzak beti indaírtu ta sendotzen dauala, zeruleko zorion azken bageak jadetsi dagizan. Zugaz eta Espiritu Santuagaz amaibako egunetan bizi dan eta agintzen dauan Jesusukristo zure Seme ta gure Jaunaren bidez. Olantxe.

# ASIS'TAR FRANZIZKO DEUNAGAZKO ERASPENA

ERASPENA

## Otoitzá

GURE biotz otzak irazegiteko zure maitasunaren su-bizian, zeure Nekaldiko bost zauriak Franzisko Santuaren gorputzean

bañiztua dozuzan Jesukristo Jaun maite orek: onen irabazi ta otoitzen bidez emoguzu gogo onez beti gurutzea eroan eta gorputz ustelkoró au ilduratu daigula; Aitagaz eta Espiritu Santuagaz batera amai-bako egunetan bizi zarean eta agintzen dozun Jaun orek. Olantxe.

## Aita Franzisko Deunaren iruga en ma a (ordena)

Asis'ko Franzizko Deun anaiak anaidi au soñtu eban: *Kristoren jaírtaileak egin bear daben bizi bide on, zuzen eta garbia, kristiñauen artean zabaltzeko. Ezingo dot goratu bear dan lez—diño Aita Santu Leon XIII-gk.*—Franzizko Deunak soñtutako anaidi au: berak soñtu dituan Santu ta Zoriondunak nik bañu obeto itz egin dagikie: Beronak kristiñau ta famili bakotxari egindako esker eta mesedeak neurigabeak dira, ta emen agiri da Iragarendañakin betetzen dala Jesukristok esandako au: «Bilatu egizue lenengo Jaungoikoaren efeñua, ta beste gauza guztiak gañez izango dozuez».

Iruagafendañai agintzen yake: jantzi apalak erabiltea, dantzta ta beste jolas galgarrietatik alde egitea, barau ta aragi izteko egunak gordetea, safi autoíto ta jaunariaztea; itz gitxitan, eredu ta jafabide izan beaí dabe beste kristiñau guztientzat.

Irabazi ta beste zertzelada guztien bari Zuzentzaleak emongo dautzue.

## OTOITZAK

### Sendi edo famili Deunari

(Jaya Jauna erakuskunde osteko I igandea)

**J**ESUS maitasunez betea! luŕean autetsi zeban sendia zeure onoimen eta ikasbide guztiz edeŕez donetu zeban oŕek, begiratu gaur zerutik gure sendia, gogoraturik zeurea dala, Zuri eskiňi ta opaldu dautzunga-ta.

Onetsi (bedeinkatu) gure lan guztiak, nekeak arindu, laŕi-aldietan lagundu gagizuz, zure Sendiaren antzeko gure au egiten beti ta beti alegindu gaitezan.

Andra Maria, Jesusen Ama doatsua, entzun gure eskaria.

Jose Santua, Sendi deunaren buru ta jagolea, zaindu beti gureau be. Olantxe.

### Joaquin Deunari

(Jai-eguna Dagoniňa'ren 16'an)

**S**ANTU guztien aŕtean zorioneko Joakin doatsua aukeratu dozu Jauna, Andra Mariaren Aita izateko; bere bidez emoiguazu; Jesus bere Semea beti maite daigula, geu-

re laguntzale izan dakigun orain luŕean eta gero, azkenbako zoriona zeruan. Olantxe.

### Ana Deuna

(Jai-eguna Garagafila'ren 26'an)

**A**NDRA Maria'ren Ama Deuna, ezkonge, ezkondu, ama ta emakume guztien eredu edera; neure eginbeaŕ eta lan guztieta lagundu nagizu, bizi bide on-on a zure laguntzaz eroan dagidan emen luŕean, Jesus eta Maria'ren besoetan eriotz edeŕ-edera azkenean egiteko. Olantxe.

### Pedro ta Paulo Santuei

(Jai-eguna Bagiňa'ren 29'an)

**L**URREAN Eleizea irasi ta siňesmena zabaltzeko Pedro ta Paulo bidali ta martiri andiak autu dozuzan Jauna: onein bidez egizu geure siňesmena zintzoro zaindu daigula, Eleiz - Amaren Seme onak izan gaitezan beti. Olantxe.

### Joan Batiatzale Deunari

(Jai-eguna Bagiňa'ren 24'an)

**M**ESIAS'i bideak gertuteko Jaunak aukeratu zinduzan Joan Santu zoriontsu ofi,

zeure otoitz-irabazien bidez, ařen eska-tzen dautzut, nik be Jaungoikoa autoftu ta goretsi dagidala, baita zuk lez neure gorputz au ilduratu be, zeruko saria ira-bazteko. Olantxe.

### B. Thomae a Spiritu Sancto Tomas Zoriontsuari

(Zumařaga'tař sendi ospetsuaren jatořiko, Gaz-teiz'en jayo zan eta Japon'go ugařtean 1622'gafen urtean siňesmenaren alde bere odola ixuri eban Pio IX-gafenak 1867'gafen urtean martiri zorion-dunen ártean jaři dau: bere jai-eguna Irala'ren 13 an ospatzen da).

### Otoitza (ex officio)

**S**IÑESMENAREN alde sutan bere bizia emon ebalako, Tomas Zoriondunari martirien koroi edeřa emon dautsazun Jaun andia! Ařen eskatzen dautzugu, bere laguntzaren bidez gure siňesmena sendotu ta Zuganako maitasuna gure biotzetan ugaritu dai-tela. Olantxe.

### Fermin Santuari

(Jai-eguna Garagařila'ren 7'an)

**N**APARROAKO lenengo apostolu, Obispo ta Zaindari zarean Fermin deuna! Jaungoiko

ta Eleiz-Amaren aginduak ondo bete ta zeruko atsegiiñak irabazteko asmu sendoa jadetsi egiguzu: luřeko ondasun galkoř guztiak itxi-ta Jesukristogaitik ilterao erakutsi zeutsan maitasunařen eskatzen dautzut.

### Prudenzio Santuari

(Jai-eguna Jofala'ren 28'an)

Gazteiz'ko goterki-zaintzale dogu, Iñazio Deu-nagaz batera.

**G**EURE Jagola Prudenzio santua! Alkařen ártean aseře dabiltzanak bakean ipinteko Jaunak emon eutzun doyagaitik, ařen, eskatzen dautzugu: zure ardurapean ga-gozař guztiok gogo-biotz batekoak izan gaitezala. Olantxe.

### Martin Santuari

(Jai-eguna Zezeļa'ren 5'an)

XVI-gafen gizaldian gure Euskaleřian jayoa da 1862'ko Bagila'ren 5'an Pio IX-gk. santuen ártean ipiní eban.

**J**AUNGOIKO ta Ebangilioaren alde Japon'go Nagasakiñ zure bizia opaldu zeban Martin Deun andia! ařen eskatzen dau-

tzut: siñesmen aldeko zure maitasunaren su-gaŕ bizia nire biotzean biztu daizula, Zuk lez gauza guztien aufetik eta guztien gain Jaungoikoa ipiňi dagidantzat. Olan-txe.

### Befiotxoatá Balentin Zoriontsuari

Jesukristoren alde bere zanetako odola ixuri da-benen átean, beste zoriontsu bat be ba-daukagu euskaldunok: Befiotxoatá Balentin Gotzaña.

Bizkaitaŕ au Elofioko urian 1827'ko Zezelá'ren 14'an jayo zan. 1858'gaŕen urtean Zenturia'ko Gotaizain (obispo) egin eben. 1861'ko Azaro edo Zemendia'ren 1'an, 34 urte ebezala, bere bizia siñesmen alde emon eben.

### Otoitzak

**S**IÑESTEBAKOEN átean Jesukristoren izen eta legea zabaltzeaŕ ainbat oñaze-neke gogoŕ aŕturik, zeure zanetako odola az-kenean ixuri zeban Befiotxoa zoriontsua! eskatu Jaunari gure aldez, gure siñesmena ta Jesukristoren izena aldezteko gertuta Jesukristoren izena aldezteko gertuta Jesukristoren izena aldezteko gertuta egon gaitezan Zu lez, eta alan beaŕ bada, geure bizi ta odola emoteko be bai. Olantxe.

### Isidro Nekezari Deunari

(Jai-eguna Lorila'ren 15'an)

JAUONGOIKO alorodun betikoa! luŕean apa-lak diranak zeruan goratzen dozuz eta emen bean aŕo diranak, zeruan beratzen: aŕen eskatzen dautzut Isidro Nekezari Deunaren bidez, bere egikizun eta lan eskutuak jaŕaiturik, apal-apala izan nadila emen luŕean, gero zorioneko izan nadin zugaz batera zeruan. Olantxe.

### Norbere izeneko Santuari

ZURE ontasunagaitik zerutaŕ artera igon zarean eta Jaungoikoak ni zaintzeko izentau zaituan Santu andia! Jaungoikoari ni-retzat eskatu: kristiňau eginbeaŕ guztiak zintzoro beteta, zure antzeko izan nadila, zure izena zikindu gabe, gero zure laguna zeruko jauregi ederéan betiko izan nadintzat. Olantxe.

(Parkapen osoa irabazten da, jayo garean urte uñeneko eguna, autoŕtu, Jaunauŕta otoitz au esanaz).

### Eguneko Santuari

ZORIONEKO Santuak, gaurko egunez erbes-teau itxi-ta abeŕira joan ziñenak, luŕerako

il eta zerurako jayoak! eŕege ta agintariak euren jai-egunetan mesede andiak egiten dabezan ezkero, egidazue gaur mesede andiren bat, zuen anditasunari dagokion bestekoa. Olantxe.

**Emaztearen otoitza, senaŕaren alde**

NEURE Jaungoiko maitea! senaŕ bat emon daustazu neure bizitz-aldian lagun izan dagidan: emoidazu Jauna, Zukan eta Zuzetzat maite daidala ta bere emazte ta lagun ona beti izan nadila. Zure laguntzaz bakezko aingeru, emazte ta ama on-zuzena izan nai dot. Zaindu egizu, Jauna, nire senaŕ maitea, eta alkaŕen áltean erdi-banatu daiguzala naiz pozak naiz atsekabeak: gorde egizu, bedeinkatu egidazu: nik lez berak be guŕtu ta maite zagizala egizu, eta azkenean biok alkaŕekin emen bean bizi ondoren, alkaŕekin zeruan geurre seme-alabakaz aurkitu gaitezala, antxe guztiok batera zure izen deuna betiraun osoan goratzeko. Olantxe.

### Ama baten otoitza bere semeen alde

NEURE Jaungoiko maitea! neure semeak eskintzen dautzudaz: Zuk emon daustazuz, Zureak dira, Zuretzat azi nai dodaz, zure izena goratu dagien: zureak izan beitez, ba, euren lan guztiak eta bizitza oso -osoa: egizu, Jaun laztan oŕek, zorionekoak izan daitezala, (au zure gogoko ba -da): baňa beintzat kristiňau egin - beaŕ guztiak beti zintzoro bete dagiezala, naiz ta neketsu ta txiro izan, eta emoezu azkenean zeruko zorion edefa euren aita -amagaz batean. Olantxe.

### Il zorian dagozanen aldezko Otoitza

AITA Betikoa! gizon guzietan, zure Aita ordeko izateko, autu zeban Jose doatsuari dautsazun maitastunagaitik, guzaz eŕuki zaitez, baita il agiñean dagozan guzietzaz be.

(Aita gurea, Aguŕ Maria ta Aintza).

(300 eguneko parkapenak egunean bein).

Seme Jaungoiko betikoa! luŕeko zeure Jagola arduratsu Jose Santuari dautsazun

maitasunagaitik, guzaz eŕuki zaitez, baita il agiñean dagozan guztietzaz be.

(Aita gurea...)

Espiritu Santu, Jaungoiko betikoa, zure emazte laztan Andra Maria guztiz garbi ta Santuaren Zaintzale arduratsu Jose doatsuari dautsazun maitasunagaitik, guzaz eŕuki zaitez eta il agiñean dagozan gizagaizoetzaz be bai.

(Aita gurea...)

«Eriotz-eguna, bat-batean eta uste ez dogunean, etoñiko yaku, lapuña gabaz etoñi oi dan lez» (I THE SAL. V. 2):

Egunero 140.000 giza-emakume inguru ilten dira Urtero 51.000.000. Minutu bakoitzean 97.

Otoitz ori osorik ezin esan ba-dozu, esan belauñiko *iru Aita gurea* Jesukristoren nekaldi ta eriotzaren oroiñez eta *iru Aguŕ Maria*, Jesukristoren eriotz-alidian bere Amak igarotako oñazeen oroiñez.

(300 eguneko parkapenak, egunean bein).

### **Eriotz-on bat jadesteko Otoitza**

(300 eguneko parkapenak egunero)

**N**EURE Jesus gurutziltzatu maite! gogo onez aŕtu egizu nire eriotz-aldirako orain

zuzentzen dautzudan otoitza, eriotzaren bildurez nire zentzun guztiak uts-egingo daben aldi labuň arretarako.

Nire begiak, nastau ta lausotuak aurkituko diranean, Zure arpegi samuŕia geyago ezin ikusi dagikeela, orduan neure Jesus laztan ori, gogoratu orain zuzentzen dautzudan begirakun samuŕaz eta nizaz eŕuki.

Nire ezpan legoŕak, zure zauri aguŕgaŕiak ezin laztandurik auŕkituko diranean, gogoratu orduan, Jauna, orain emoten dautzudazan laztan gozoak eta nizaz eŕuki.

Nire esku otzak zure gurutze maitea ezin laztandurik auŕkituko diranean, gogoratu orain biotzez laztantzen dodala ta nizaz eŕuki.

Eta azkenez, nire min lodi-motelduak geyago itzik ezin esan al izango dauan une aretan, gogoratu oraingo nire eskari au.

Jesus, Maria ta Jose, nire arimea zuen eskuetan ipinten dot.

*Ordua joten dauanean, esan:*

Aguŕ Maria guztiz garbia, oŕbanik gabe soñtua.

*Lana asteko:*

Jauna, lan au eskintzen dautzut: ařen bedeinkatu egizu.

*Ziltzaldi edo tentaziñoetan:*

Andra Maria, neure Ama laztan, zure magalpera natoř, arerioa ni galdu nairik dabil-ta.

### **Siñestebakoen aldezkko Otoitza**

(Xabierta Frantzizko Deunarena)

**G**AUZA guztien Egile, Jaungoiko betikoa, gomutau zadiz, siñestebakoen arimak be zure esku altsuak sořtuak dirala, zeure antzera egin dozuzala. Begira, Jauna, zuri lotsa emonaz bařendiko su-lezea betetan dabela, ta ez aitzu Jesus zure Semeak, oneik irabazteařen, jasan ebazan neke go góř eta eriotza latza.

Ez laketu auerantzean, Jauna, siñestebako ořeik zure Semeari iři ta bafe egin dagioen: baňa kristiňau zintzoen otoitz eta zure Semearen ezkontide Eleizearen bidez, bigundu zaite eta euren siñigabekiriaz aitzurik, egizu: ořeik be nozbait

ezagutu dagiela Jesus zure Bialdua ta gure Jauna, gure Beferosle, bizitza ta itxadona.

*Berak gaizkatu (salbau) gaitu.*

*Aintza Berari betiraun guztian.*

### **GARBITOKIKO ARIMEN ALDEZKO ERASPENA**

«Garbitokiko arimen alde egiten dozuna, zeuretzat irabazten dozu; eriotzostenan, orain emondako baten ordez, eun auřkituko dozuz». (Aubrosio Deunak)

1.—*Guzaz eruki zaiteze, diadař egiten dauskue Garbitokiko arima eřukariaik: guzaz eruki zaiteze, gitxienez be zuok gure aizkideok*. «Saltem vos amici».

Garbitokiko arima gaixoak! Urteak izango dira beař-bada, su-gařezko leza iřun aretan dagozala, euretzaz iñor gogoratzen ez dalako.

**A**LDI arelan: Jesus menditik jatsi zalarik, giza-talde andia joan zan bere jaŕai. Eta gizon usteridun bat uferatu yakon eta gurtu eban, esanaz: «Jauna, zuk nai ba-dozu, osatu nagikezu». Jesusek eskua lutzaturik ikutu eban eta esan eutsan: «nai dot, garbitu zaitez» eta bat-batean usteri barik, garbi auŕkitu zan. Gero esan eutsan: «ez iñori aitatu, baña zoaz abadeakana ta Moises'ek agindutako oparia emioiez, siñestu dagien».

Eta Kafarnaun'en saŕtu zanean, eunburu bat (100 gudarien buruzagia) uferatu yakon oyuz eta esanaz: Jauna, nire moŕoya elbaritua dago etxeán eta min andia dauko. Jesusek diñotso: joango naz eta osatuko dot. Baña eunburuak erantzun eutsan, esanaz: «Jauna, ni ez naz duin zu-

nire etxeán saŕtzeko; baña esaizu itz baŕ bat eta osatuko da. Neu be iñoren menpekoa naz; baña ba daukadaz gudariak neure agindupean, eta bateri ba-diñotsat: zoaz, joaten da; ta besteari: zatoz, eta etorten da; eta uŕengoari; egizu au, eta egiten dau». Itz oneik entzunaz, Jesus asko aŕitu zan eta bere jaŕaitzaleari esan eutsen: «egiaz, diñotzuet, ez dot Isŕael'en bertan be siñesmen ain andirik auŕkitu. Eta orobat diñotzuet: asko ta asko ipar-alde ta saŕtaldetik etoŕiko dira, ta Abraan, Isaak eta Jakobegazjesaŕiko dira mayan, zeruko efeñuan: efeñuko semeak, ostera, kanpoko ilunpetara botako dabez; an izango dira negaŕia ta agin-kiŕiskadea». Gero euntariari esan eutsan: «zoaz eta siñestu dozun lez egin bekizu». Eta ordu arantxetxé bere moŕoya osatuta auŕkitu eban.

### **Eŕege-egunaren ondorengo IV igandea**

(MAT. VIII, 23-27)

*Jesukristok, itxasoa baretuaz, bere eskubidea erakusten dau.*

**A**LDI arelan: Jesus, bere ikasleak lagun ebazala, batel baten saŕtu zan, eta bat

-batean izugaízko ekaitz andia soítu zan itxasoan, olatuak batela estaltzeraño; baña Bera lo egoan bien bitátean. Bere ikaslak uíeratu ziran eta itzaítu eben esanaz: «Jauna, gaizkatu (salbau) gagizuz, galduak gara osterantxean». Eta Jesusek erantzun eutsen: Zegaitik zarie bildu í siñeste gitxi-ko gizonok?» Gero jagi ta aize-itxasoari agindu eutsen eta bare-bare gelditu ziran.

Gizon aek, guztiz arítuta, iñoen: «Nor ete-da berau, aize ta itxasoak be bere menpean jaíten dira-ta?»

### **Eíge-egunaren ondorengo VI igandea**

(MAT. XIII, 24-30)

*Irraka edo zoragariaren ipuña.*

**A**LDI aretan: Ipuin au esan eutsen Jesus'ek bere ikaslai: zeruko bakal edo efeñua bere soloan azi ona erein eban gizon baten antzekoa da; baña otsein - moíoyak lotan egozala, etofi zan aren arerioa, ta gari artean zoragaria erein eban eta joan zan. Garia azita burura etoí zanean, zoragaria be agertu zan. Moíoyak orduan, ugazabaga joan eta esan eutsoen: Jauna, ez al zeban azi ona erein zeure soloan? non-

dik datoí ba zoragaria? Arek erantzun eutsen: nire arerioen batek egin dau ori. Moíoyak baíiro esan eutsoen: çnai dozu joan gaizan eta batu daigun? Ez, erantzun eutsen ugazabak: bestelan, bearí bada, zoragaria batzen zabiltzela, garia be aregaz batera, efotik aterako dozue-ta. Itxi biok igitaldiraño azi daitezen eta orduan igitariai esango dautset: lenengo zoragaria batu ta eskutetan ipiñi egizue eíetako; garia, osteria, batu egizue neure aletegirako.

### **Eíge-egunaren ondorengo VI igandea**

(MAT. XIII, 31-36)

*Zerba-ale ta órantz edo legamiaren ipuña.*

**A**LDI aretan: Ipuin au esan eutsen Jesusek bere jaíitzaleai: zeruko bakal edo efeñua, gizon batek bere eskuetan artu ta bere soloan erein eban zerba edo mustarda aziaren antzekoa da; ale edo azi guztietañ txikiena da berau; baña azi daitenean, beste barazki guztiak baño landara andiago egiten da, zugatz egiten da ta zeruko txoriak jatsi ta bere adaíretan jarten dira. Gero beste ipuin bat esan eutsen: zeruko efeñua, legamia lakoxea da, emakume ba-

tek aítu ta iru imilaun-urunetan nastau eban legamia lakoxea, ora guztia jagi zan aíterano.

Eta Jesusek ipuñez edo antz - irudiz azaltzen eutsazan eñiari oneik gauza guztioik eta ipuin barik ez eutsen itz egiten, Igañlearen esana bete zedin: Ipuñez itz egiteko idegiko dot neure aoa ta munduaren asieratik ezkutuan dagozan gauza aírgariak agertuko dodaz.

### ZAZPIGAREN IGANDEA

Garizuma auñeko iru igandeari zazpigareñen, sei-gařen, eta boskařena deritxoegu. Gure Ama Eleizeak aldi onetan auxe eskatzen dausku: Beñogei-karo edo Garizuman sartu baño len emen beko zorakeri ta atsegíñei agur egiñik, biotzak garbitu daiguzala. Soloetan azia erneko ba-da, luña aurétiez landu bear da; bardin, garizuman gure biotzeta rara jatsiko dan graziaren-aziak be, erne ta emai edo frutu onak emoteko, luñ ondo landua eskatzen dau.

#### Zazpigareñen igandea. Garizuma auñeko lenengoa

(MAT. XX, 1-17)

**ALDI** aretan: Ipuin au esan eutsen Jesusek bere ikaslei: Zeruko eñeñuak goiz

-goizetik bere mastirako langile bila urten zan etxejaunaren antza dauko. Eta eguneko amáfeko bana aginduta, bialdu zituan. Irugañen orduan bañiro urten zanean, beste batzuk auñkitu ebazan enparantzan alperkerian eta esan eutsen: zoaze zuek be nire mastira ta bidezkoa dana emongo dautzuet; eta aek joan ziran. Seigañen eta bederatzigareñen orduan urtenda, beste ainbeste egin eban. Azkenez, amai-kagařen orduan urten zan eta banaka batzuk aurkitu zituan lan barik, eta esan eutsen: zetan zagoze emen egun osoan ezer egin barik? Iñok ez gaitualako deitu, erantzun eutsoen. Orduan esan eutsen: zoaze zuek be nire mastira. Ilunabañian, deitu eban ugazabak langile-zaña ta esan eutsan: langileak deitu ta emon bakotxari bere alogera, azkenengoetatik asi ta lenengoetaraño. Eldu ziran lenengo amai-kagařen orduan etoñiak eta bakotxak amáfeko bana aítu eben. Gero lenengoak eldu ziran, zerbait geyago aítuko ebelakoan; baña bakotxak amáfeko bana baño ez eben aítu. Orduan mor-mor asi ziran ugazabaren kaltez, iñuela: zer, neke ta bero guztia jasan dogu guk eta ordu bete baño lan

egin ez daben oneikin bardintzen gozuz? Baña berak onetara, erantzun eutsan aetako bati: Aiskidea, kalterik egin dautzut? ez al neutzun amaáeko bat agindu? aítuizu ba zeurea ta zoaz: baña azkenengo oneri be zuri aña emon nai dautsat; éala ezin dagiket egin nai dodanik? ala zure begia okeá da ni zuzena nazalako? Eraberean, azkenengoak lenengo izango dira ta lenengoak azken: deituak asko dira, baña autuak gitxi.

### **Seigañen igandea edo Garizuma auŕeko bigaŕena**

(Luc. VIII, 4-15)

*Aziaren ipuña.*

**A**LDI aŕetan: Ozte (lagun-aldrar) andi bat efietatik etoŕena Jesusen inguruan batu zanean, onek ipuin au esan eutsen: Eraile bat urten zan bere azia ereitera eta ereiten ziarduala, azi batzuk bide baztafera jausi ziran: oneik oinperatuak izan ziran eta zeruko txoriak jan ebezan. Beste batzuk toki aŕitsuetan jausi ziran; baña erne ta laster, ezorik ez eukelako, igartu ziran.

Beste batzuk arantza-artera, eta arantzak eurakin batera azirik ito ebezan. Azkenez, beste batzuk luŕ onera jausi ziran eta ernerik, alea ugari (bateko eun) emon eben. Gero ots andi batez esan eban: entzuteko belaŕiak dituanak entzun begi. Bere ikasleak ipuin onegaz zer adierazo nai eban itandu eutsoen, eta berak erantzun eutsen: zuoi emon yatzue Jaungoikoaren eŕeñuko eskutuak ezagutzea: besteai ostera, ipuñetan, ikusirik ez dagien ikusi ta entzun aŕen, ez dagien ulertu. Ona emen ipuin ofen azalpena: azia, Jaungoikoaren itza da: bide basterera jausitako azi-aleak, bere itzak dantzuezan entzuleak dira; baña deabruak, laster etoŕi ta biotzetik kentzen dautsez, siñestu ez dagien eta ez daitezan zeruratu. Afi-artean jausirikoak, bere itzak pozik artu dabezan entzuleak dira; baña sustrairik ez dauke-ta, puzka baten siñestu aŕen, ziltzaldi edo tentaziño aldian atzera egiten dabe. Arantza aŕtean jausiaik, bere itza entzun daben aditzaleak dira; baña bizitzako ardura, aberastasun eta atsegíñak dirala-ta, ito dabe ta bein be ez dau ezer emoten. Azkenez, luŕ onean jausirikoak, biotz oneko entzuleak

dira, bere itza entzunda gordeten dabe-nak eta oneik eroapenez arnari edo frutua dakafe.

### **Boskařen igandea edo Garizuma auŕeko irugařena**

(Luc. XVIII, 31-43)

Jesukristok bere Nekaldi ta Berbizkundea iragařten ditu. Itsu bat osatu.

**A**ldi arretan: ártu zituan Jesus'ek amabi ikaslak eta esan eutsen: ona emen, Jerusalen'era goaz eta Gizonaren-Semeaz igal-lak esandako gauza guztiak beteko dira: áfotzen eskuetan ipiňiko dabe, baře ta izeka egingo dautse, zigořaz jo ta txistua bota. Eta zigořkadaz astindu ta gero, erailgo dabe; baña irugařen egunean ber-bitzuko da. Eta aek ezin uleftu ebezan gauza oneik eta itz au ezkutua zan euren-tzat eta esaten yakezanak ez ebezan ule-fetzen. Eta Jeriko'ra uŕeratu ziranean, itsu bat auŕkitu eben eske, bide baztefean. Eta onek andik etořen oztearen (lagun-aldrea-ren) zaratea entzunik, zer ete-zan itandu

eban, eta Jesus Nazaretařa etofela esan eutsenean, oyuka asi zan: Jesus, Dabid'en Seme ori, eŕuki zakidaz. Auŕetik yoaza-nak, ixilik egoteko iňotsen: baña gero ta oyu andiagoaz iňoan; «Dabid'en Seme ori, eŕuki zakidaz». Jesus orduan gelditu zan eta itsua bere auŕera ekaŕteko agindu eban: eldu zanean itandu eutsan: zer nai dozu egin daitzudan? Eta berak erantzun eutsan: Jauna, ikusi dagidan. Eta Jesus'ek erantzun eutsan: Ikusi egizu, ba: zeure siňesmenak gaizkatu (salbau) zaitu. Eta bertatik ikusi eban eta Jesus'i jaſaitu eutsan, Jangoikoa goratuaz. Eta au ikusi eben guztiak, Jauna goretsi eben.

### **BÉROGEIKAROA (GARIZUMA)**

Befogeikaraoa (garizumea) autsen egunez asten da ta bere izenak diňoan lez, befogeikaraoa edo aroa da. Jesukristok basamortuan egindako barauaren gomutaz, barau ta aragi-izteak agintzen dira, gorputza ilduratu ta bere grína gaiztoak ezi ta bezau daiguzan, oben-nekea ordaindu ta gogo-biotza garbitu daigun, zeruko sari edeŕia eskuratzeko.

**Berogeikaro edo Garizumaren lenengo  
igandea**

(MAT. IV, 1-11)

*Jesukristoren baraua ta ziltzaldia basamortuan.*

**A**LDI aretan: Gogo - Deunak (Espíritu Santuak) eroan eban Jesus basamortura deabruak ziltzau edo tentau egian: eta berogeikaro eguneko baraua egin ondoren, gosetu zan. Uferatu yakon orduan tentatzalea ta esan eutsan: Jaungoikoaren Semea ba-zara, ogi biurtu egizuz aña oneik. Jesus'ek erantzun eutsan: ez da gizona ogi utsez bizi, baita Jaungoikoaren aotik urtendako edozein itzez be. Deabruak eroan eban orduan Uri Santura (Jerusalen'era) eta eleiza nagusiaren galuáean ipiñirik, esan eutsan: Jaungoikoaren Semea ba-zara, amildu zaitez emendik bera, esana dago - ta: Bere aingeruai agindu dautse zaindu zagiezan eta eskuetan áftu zagiezan, zure oñak añaírik ez dagian jo. Baita au be esana dago, erantzun eutsan Jesusek: ez dozula tentauko zeure Jaun eta

Jaungoikoa. Bañiro eroan eban Jesus mendi-goi batera eta luéko alderdi ta edeítasun guztiak andik erakutsirik, esan eutsan: oñeik guztiok emongo dautzudaz, auzpazturik guítu ba-nagizu. Jesusek orduan esan eutson: alde emetik Satanas, esana dago-ta: «Zure Jaun eta Jaungoikoa guítuko dozu ta bera baño beste jaunik ez dozu izango». Deabruak orduan itxi eban eta zeruko aingeruak jatsirik, jaten emon eutsoen.

**Berogeikaro edo Garizumaren II igandea**

(MAT. XVII, 1-8)

*Jesukristo antz-aldatua.*

**A**LDI aretan áftu zituan Jesus'ek, Pedro ta Santiago ta Joan, onen anaya, ta mendi garai batera eroan ebazan. Eta beste antz edo irudi bat áftu eban aen aúfean; arpegiaguzkia baizen argi eukan eta bere soñekoak eduña baizen zuri. Eta Moises eta Elias agertu ziran Jesusegaz itz-egiten. Pedrok orduan Jesus'i esan eutsan: Jauna, ondo gagoz emen: iru txabola egingo dozuz, nai ba-dozu, bata zuretzat, bestea

Moises'entzat eta beste bat Elias'entzat, Oraindik izketan ziarduala, odai argi baten itzalak estaldu ebazan eta odai bañutik abots bat urten zan, iñuala: Au da nire Seme maitea, nire atsegiañak Beragan daukadaraz: entzun egizue. Ikasleak itz oneik entzunda, oso bilduúturik, auzpez jausi ziran; baña Jesus uéreratu yaken eta iku-tuaz esan eutsen: jagi zaiteze, ez bildufik izan. Eta begiak jaso ebezanean, Jesus baño beste iñor ez eben ikusi.

### **Beíogeikaro edo Garizumaren III igandea**

(Luc. XI, 14-28)

*Deabrupeko menpetasun gogoára. Zorionekoak Jaungoikoaren legea gorde dagienak.*

**A**LDI aratan: Bota eban Jesusek deabrua, gizon mutu baten gorputzetik, eta bertatik mutua itz-egiten asi zan, guztiak afituta itxirik; baña aetako batzuk iñoen: Beltzebu deabru nagusiaren indaíez bota dau deabrua; beste batzuk zirikatzen eben mirari bañi bat eskatuaz; baña Berak, aen gogoetak igañita, esan eutsen: banatuta dagoan efeñuak berez luña joko dau, eta

etxe apuítua jausiko da. Satanas bere kaltez erdibituta ba-dago cbere efeñuak zelan dirauke zutunik? Zuek diñozue ba, nik aren izenean deabruak botaten doda-zala. Eta baldin nik, Beltzeburen indaíez botaten ba-dodaz deabruak, zuen semeak cboren laguntzaz botaten dabez? Onelan ba aek izango dira zuen epaikari edo juezak; baña Jaungoikoaren indaíez botaten ba-dodaz deabruak, agiri da Jaungoikoaren agintza zuen áftera etoñi dala.

Gizon bulaítsu izkiludunak bere etxea zaintzen dauanean, daukan guztia ondo gordeta dago; baña beste sendoago bat ba-datoñi eta azpiratzen ba-dau, izkiluak (armak) kenduko dautsoz eta aren ondasunak sakabanatuko ditu. Nigaz ez dagoana, nire kaltez dabil eta nigaz batzen ez dauanak, banatzen dau. Deabru loya, gizonaren gorputza itxi dauanean, toki agoñetan dabil atseden biña ta aurkitu eziñik, onelan diño: «urten nazan neure etxera biuítuko naz»: eltzen danean, apain-garbia auñkitzen dau ta orduan ba-doa bañiro eta beste zazpi lagun, bera baño biuñagoak alkañegaz álturik, lengo etxeen sañtuta, antxe bizilekua ipinten dabe, eta

gizon aren azkena, asierea baño okeágoa izaten da. Autu onetan ziarduala, lagun aítetik emakume batek deadaí egíñik, esan eutsan: «zorionekoak eroan zaituen efa-yak eta ugatza emon eutzen bulaŕak»; baña Jesusek erantzun eutsan: «zoriontsuagoak, Jaungoikoaren itza entzun eta gordetan dabenak».

### **Beŕogeikaro edo Garizumako IV igandea**

(JOAN. VI, 1-15)

Bost ogi ta aráin bigaz Jesus'ek 5.000 gizon alikatzen ditu.

**ALDI** aretan: Jesus joan zan Galilea'ko itxasoa deritxon Tiberiades'ko oxiñaren beste aldera, eta gizozte (lagun aldra) andi batek jaŕaitu eutsan, Berak geixoen alde egindako mirariak ikusten ebezalako. Orduan Jesus mendira igoa eta antxe bere ikaslekin jasaŕi zan. Laster etoŕen Paskoa judataren jai-eguna.

Jesus'ek, begiak jaso ta ainbesterañoko lagun - talde andiak jaŕaitu eutsola ikusi ebanean, Pilipe'ri itandu eutsan: ¿non ero-siko doguz ogiak oneik jan dagien? ziri-

katzeaŕen esaten eutsan, bai-ekian ba Berak zer egin. Pilipek erantzun eutsan: bérreun amárekoz erositako ogiak be ez dira naiko, bakotxak ogi pizka bana euki dagien. Orduan bere ikasle batek, Andres'ek, Simon Pedroren anayak, esan eutsan: mutil bat ba-dago emen, bost tremes-ogi (garagaŕ-ogi) ta aráin bi dituana; ¿baña zer dira oŕeik ainbeste lagunentzat? Jesus'ek erantzun eutsan: esan gizonai jesarteko. Bedaŕ asko egoan toki aretan. Jesaŕi ziran gizonak bost mila inguru ziran. Aŕtu zituan ba, Jesus'ek ogiak eta eskaŕak emon ezkero, jesáŕirikoen ártean banatu ebezan eta beste oŕenbeste egin eban aŕaňekaz be, bakotxari nai aňa emonaz. Guztiok ase ziran, bere ikaslai esan eutsen: batu egizuez gelditu diran apúrák, ezer ez galtzeko. Batu ebezan, eta ainbeste lagun ase ondoren, bost tremes-ogi aen apúŕekaz amabi otsara bete ziran. Gizon aek, Jesus'ek egindako mirari andi au ikusirik, alkaŕi iňotsen: auxe bai dala benetan lufe-ra etoŕi beaŕ dan igaŕlea. Baña Jesus'ek igaŕi ebanean, indaŕez etoŕiko zirala Bera eŕege egiteko, baŕiro mendira iger-eigin eban berak bakaŕik.

## NEKALDI EDO PASIÑOKO IGANDEA

Nekaldi edo Pasiñoko igandea deritxo gaurko oni gure Ama Eleizeak, gaurtik asi-ta egunero gororatzan dauskuzalako gure Beferosle edo Salbatzaleak gurutzean ártu ebazan neke gogofak eta eriotz latza. Zapi baltzez jantziko ditu altarak, Jesukristoren eriotza negaígañiak gure biotzak nai-bagez bete dagizan, Jesus gurutzean josi ebenak, gure gaiztakeriak dira-ta.

(JOAN VIII, 46-59)

*Jesus'ek Jaungoiko dala adierazten dautse judatarái eta oneik aríka egin nai dautsoe.*

**A**LDI aretan: Jesus'ek esan eutsen judataren giza-taldeai: zuen árteko nok ezañiko daust pekaturik? eta egia esaten ba-dauztuet czegaitik ez dozue siñesten? Jaungoikoarena danak, Jaungoikoaren itzak entzuten ditu; baña zuek ez dozuez entzuten, Jaungoikoarenak ez zarielako. Judatarák erantzin eutsoen: czez dogu ondo esaten Samaritaña zareala ta deabrua daukazula? Jesus'ek erantzin eutsen: Ni ez naz deabrudun: nik neure Aita goratzen dot, baña zuek iraindu nozue. Ni ez nabil neure aintzaren biña: norbait ba-da bilatu

ta aldeztuko dauana. Egi-egiaz diñotzuet: «nire itzak gorde dagizanak, ez dau bein be eriotzarik ikusiko».—Abraan gure Aita zana baño andiagoa ete-zara ba? igañleak be il ziran: cznortzat daukazu zeure burua? Jesus'ek erantzin eutsen: Neure burua goratzen ba-dot, utsa da nire aintza: baña neure Aitak goratzen nau, zuen Jaungoikoa dala diñozuenak: zuek ez dozue ezagutzen, nik bai ezagutzen dot eta ez dodala ezagutzen bañiño, zuek lez guzuftia nintzake; baña ezagutzen dot eta bere itza gordeten dot. Zuen aita Abraan pozez bete zan nire eguna ikusteko: ikusi eban eta poztu zan. Judatarák esan eutsoen: zer, oraindik beñogetamañ urte ez daukazuz eta Abraan ikusi dozu? Jesus'ek erantzin eutsen: egi-egiaz diñotzuet: Abraan jayo baño lenago ni bai-nintzan. Au entzunda, añaik ártu ebezan berari jauñiteko; baña Jesus eskutau zan eta Eleizatik urten.



## ABAÍ-EDO ÉRAMU-IGANDEKO NEKALDIA

(MAT. XXVI-XXVII)

Emen gogoratu nai neuken ekandu guztiz edef bat dauke Bidasoz andiko gure anai euskaldunak.

Abaí-igandeko meza-ixil bakoitzean, meza-emo-leak altaran Nekaldi edo Pasiñoa irakuften dauen bitátean, beste abadeen batek irakastegitik (pulpitutik) orixe berori irakuften dau, guztiak entzundagien. Asko irabazten dabe oregaz meza entzuten dagozan guztiak, batetik ez diralako aspertzen, bestetik Jesukristoren Nekaldi aguúgafia osoro goratzen dabelako, urtean bein beintzat.

Beraugaitik ots-egin nai daudset emetik Euskal-eríko abade jaun aguúgafiei, ondo ba-deritxoe, oitura edef au saútu dagiela euren eleizetan: abade bakaf bat dagoan eleizetan, beste norbaitek, sakristauak-edo, bere tokitik irakuñi legike.

*Jesukristo gure Bereroslearen Nekaldia.*

ALDI aretan: Jesus'ek esan eutsen bere ikaslei: ba-dakizue egun bi baúu Pazko jaya dala eta Gizonaren Semea emongo dala gurutzean josi dagien. Aldi aretan abade nagusiak eta eríko zařenak Kaifas abade nagusiaren etxeiko atarian batu ziran eta alkár ártu eben Jesus iruzuñez árapau ta ilteko. Baña iñoen: jai-egunean, ez, bestelan matxinadaren bat erían soñtuko da-ta. Eta Jesus, Betani'an zala, Simon legenaŕdunaren etxean, u'eratu yakon emakume bat ukendu ederduń alabastro edo kelagań-ontzi bataz eta jesaŕita egoan ártean buru gañera ixuri eutsan. Bere ikaslak, au ikusita, asefatu ziran eta iñoen: zetarako ondamen ori? Ondo saldu eitekean txiroai emoteko. Baña Jesus'ek, entzunik, esan eutsen: zegaitik naigabetzen dozue emakume ori? gauza guztiz ona egin dau Nigaz. Txiroak beti zeuekin izango dozuez, baña Ni ez nozue beti izango. Onek, ukendu ori neure gorputzean ixuri dau ni eortzi edo obiratzeko. Egiaz diñotzuet: gertaera au jakingo dan toki guztietan emakume onek egin dauana

be zabalduko dabe, berori goratzeko. Orduan Judas eritxon amabietako bat abade nagusiekana joan zan eta esan eutsen: «zer emon nai daustazue eta nik Bera eskuetaratuko dautzuet? Aek ogetamaŕ zidaŕ-diru eskiňi eutsoezan eta andik auŕera noz salduko eban aukera-bila ebi-len. Eta Azimo-jayaren lenengo egunean, ikaslak Jesusgana joan ziran eta esan eutsoen: «non nai dozu Pazko-aparia gertu daigun? Jesus'ek erantzun eutsen: zoaze urira, urliegana, ta esayozue: Irakasleak diňo: zure etxean egingo dot neure ikaslakin Pazko-aparia. Iklaslek Jesus'ek agindu eutsena egin eben eta gertu eben aparia. Ilunabaŕean, bere amabi ikasleekin mayan jesári zan. Eta jaten ziarduela, esan eutsen: egiaz diňotzuet: zeuetariko batek salduko nau. Guztiak asko naigabetu ziran eta itaunka asi yakozan: Jauna, beaŕ bada ni ete naz? Berak erantzun eutsen: Nigaz batera azpílean eskua saŕtzen dauanak, órexek salduko nau. Gizonaren Semea ba-doa, Beratzaz esanda dagoan lez; baña Gizonaren Semea salduko dauanaren eŕukaŕia! Obe litzakeo jayo ezpa'litz. Judas'ek, saltzaleak berak, itandu eutsan esanaz:

Irakaslea, ausaz ni izango ete-naz? Jesus'ek erantzun eutsan: zeuk esan dozu. Apaiten egozala, aŕtu eban ogia, bedeinkatu ta zatitu eban eta bere ikaslai emon eutsen, esanaz: Aŕtu ta jan egizue: auxe da neure gorputza. Gero edontzia aŕtu ta eskaŕak egin ondoren, emon eutsen, esanaz: onetatik edan egizue guztiok: auxe da, ba, askoren aldez, pekatuen parkapenerako ixuriko dan Ziňalta (Testamentu) baŕiko neurre odola. Eta diňotzuet, ez dodala gaurdanik iňoz mastiaren ardaoriki edango, zuekin batera neure Aitaren eŕeňuan edango dodan arteraño. Eta ereserkia esanda, Olibet mendirantz joan ziran. Orduan Jesus'ek esan eutsen: guztiok Nitzaz lotsatuko zarie, gau onetan, esana dago ba: Artzaňa joko dot eta artaldeko ardiak sakabanatuko dira. Baña beŕbztuko nazanean, zuen auŕetik Galilea'ra joango naiz. Baña Pedrok erantzun eutson: Zuttazaz guztiak lotsatu ba-daitez be, ni ez naz lotsatuko. Jesus'ek esan eutson: Egiaz diňotzut; gaur gabean, olaŕak jo baño len, iru bidaŕ ukatuko nozu. Baña Pedrok erantzun eutsan: Zugaz batera il beaŕ ba' neu be, ez zaitut ukatuko. Eta beste ikas-

le guztiak be, beste ofenbeste iñoen. Jesus orduan Getsemani eritxon esparu batera joan zan eurakaz eta bere ikaslei esan eutsen: jesafi emen, nik aruntzago joanda, otoitz-dagidan artean. Eta Pedro ta Zebedoaren semeak beraz arturik, naigabatzen eta lañitzen asi zan. Orduan esan eutsen: Eriotzearen lañitasuna Nire gogora sañtu da: itxaron emen eta Nigaz batera ernai egon. Eta zerbait auferatuta, auzapatzu zan eta otoitz-egin eban, esanaz: Neure Aita, aldendu egizu, al bada, ontzi au nigandik; baña ez bedi nire naya egin zurea baño. Eta bere ikaslakana etoñi zanean, lotan aufkitu ebazan eta Pedro'ri esan eutsan: zer, ezin egon izan zarie ordu betean itzañik Ni lez. Ernai egon eta otoitz-egin, ziltzaldian ez jausteko: gogoa gertu dago, baña aragia makal. Bañiro joan zan eta bigarenez otoitz-egin eban, esanaz: Ene Aita, ezin itxi ba'negi ontzi au edan barik, zure gogoa egin bedi. Eta bañiro etofi zan eta lotan aufkitu zituan, begiak logurez astunduta eukezalako. Itxi ebazan, bañiro joan zan eta otoitz-egin eban, lengo itz berberak esanaz. Orduan ikasleakana biuñtu zan eta esan eutsen: Lo

egin eta atseden ártu: eldu da garaya ta Gizonaren Semea pekatarien eskuetan ipinia izango da. Jagi zaiteze ta goazen: ba-datoñire saltzalea. Oraindik izketan egoala, bere amabi lagunetako bat, Judas, eldu zan eta beragaz batera gizatalde andia, ezpata eta makilakaz, apaiz-nagusi ta eñiko agintariak bialduak. Saldu beá ebanak, ezaupidea emon eutsen: Nik laztduko dodan gizona, axe izango da, esan eutsen: eldu egiozue. Eta bertatik Jesus-gana uferatu zan, esanaz: Agu Irakaslea (maixua) ta mosu emon eutsan. Jesus'ek erantzun eutsan: Aizkidea, zetara etoñi zara?: baña bereala eldu ziran besteak eta eutsi ta lotu eben. Baña Jesusegaz egoan batek, eskua luzatu ta ezpatea atera eban eta abade nagusiaren moñoi bati, belaño ebagi eutson. Jesus'ek orduan esan eutsan: Sañtu ezpata ori bere zoñoan, ezpata darabilen guztiak, ezpataz ilgo dira-ta. ¿Uste al dozu ba, neure Aitari eskatu ezkerro, ez leuzkedazala berealaxe amabi aingeru-gudarozte baño geyago bialduko? ¿Baña zelan beteko litzake orduan onelan gertau beá dala esana dagoan au? Orduan Jesus'ek jente-talde aei esan eutsen: lapuñaren

bilá lez etoñi zarie nigana ezpata eta makilakaz: zuen artean egunero, eleizan agertzen nintzala, ez nozue eldu. Baña au guzti au etoñi da Igañlearen esanak betetako. Orduan bere ikasle guztiak itxi eben eta iges joan ziran. Baña Jesus elduta eukenak Kaifas abade nagusiaren etxera eroan eben eta eñiko agintari ta zañenak bertan batzandu ziran. Pedro'k uñunetik jañaitu eutsan apaiz nagusiaren etxe-atariaño. Eta bañura sañturik, moñoyakin batetxa jesári zan, zer etoñi beañ ete-zan ekusteko. Abade nagusi ta batzañeko lagun guztiak Jesus'en kaltez guzuñ bilá ebiltzan, bera ilteko asmoz. Baña ziñaldari (testigu) guzuñti asko etoñi ařen, ez eben ezer auñkitu. Azkenez beste bi eldu ziñan, iñoela: Gizon onek esan dau: Jaungoikoaren eleizea luñera eratsi negike ta iru egun bañu bañiro jaso. Eta abade-nagusia jagi zan eta esan eutsan: ¿Ez dauñtsazu ezer erantzuten, oneik zure kaltez diñoenari? Baña Jesus ixilik egoan. Eta apaiz-nagusiak esan eutsan: Jaungoiko biziañen izenean agintzen dautzut esan daiñguzula Kristo, Jaungoikoaren Semea, etc-zarean. Jesus'ek erantzun eutsan: Zuk

esan dozu: eta auxe be baidiñotzuet: laster ikusiko dozuela Gizonaren Semea Jaungoiko Alorodunaren eskumaldean jesárita eta oidei gañean datoñela. Orduan abade nagusiak bere soñekoak uñatu ta esan eban: Biraua bota dau: ¿zeturako ziñaldaririk? zeuok entzun dozue biraua, eta arek erantzun eben: ilgañia da. Orduan txistua arpegira bota eutsoen, ukabilka erabili eben eta batzuk matrالakoak beemon eutsoezan, esanaz: Igañi egiozu, Kristo, nok jo zaituan. Bienbitartean Pedro atarian jesárita egoan eta neskame bat eldu yakon eta esan eutsan: Zu be Jesus Galileatañakin zengozan; baña berak, guztien auñean ukatu eban, esanaz: Ez dakit zer diñozun. Eta atera joan zan; baña beste neskame batek ikusi eban eta an egozanai esan eutsen: Ori Jesus Nazaretañakin ebilen. Eta bañiro ukatu eban, zin-egiñaz, iñoala: Iñoz ez dot gizon ori ezaugutu. Andik laster uñeratu ziran an egozanak eta Pedro'ri esan eutsoen: Egiaz, zu be aetaikoa zara, zeure izkeran be ezaun dozu-ta. Orduan asi zan ukatzen eta zin-egiten iñoz ez ebala a gizona ikusi, eta berealaxe olañak jo eban.

Pedrok gomutau ebazan orduan Jesus'ek esan eutsozan itzak: olaŕak jo baño len, iru bidaŕ ukatuko nozu. Eta atera uŕtenda, atsakabez negaŕ egin eban. Goiza elduta, apaiz nagusi guztiak eta eŕiko zaŕenak batzaŕean batu ziran Jesus'en kaltez, Bera ilteko, eta loturik eroan eta Poncio Pilato agintariaren eskuetan ipińi eben. Orduan Judas'ek, saldu ebanak, iltera yoazala ikusirik, naigabesz, biuŕtu eutsezan apaiz-nagusi ta zaŕenai ogetamaŕ ziŕaŕezkoak, esanaz: Txárto egin dot: gizon zuzenaren odola saldu dot. Baña aek erantzun eutsoen: ¿Eta guri zer? zeuk ikusiko dozu. Eta zidaŕ-diruak eleizan jaurtirik, joan zan eta soka bategaz bere burua urkatu eban. Eta apaiz-nagusiak dirua árturik, esan eben: Ez da bidezko oneik diru-kutxan saŕtzea, odolaren salneuria dira -ta. Eta alkáŕ árturik, erabagi eben ontzile gile baten zelaya erostea, bertan aŕotzak eortzi edo lurperatzeko. Beraugaitik ari soloari gaur aŕte *Haceldama* deritxoe, au da, «Odol-zelaya». Orduan bete zan Jeŕemias igaŕleak esandakoa: «Ogetamaŕ ziŕaŕezko aŕtu dabez, salduaren salneuria, Israelgo semeak ontzat emondako neuria,

eta oneikaz ontzigilearen zelaya eroi da-be, Jaunak agindu eustan lez». Eroan eben Jesus eŕiburuaren auŕera eta onek itandu eutsan: Judataŕen eŕegea zu zara? Jesus'ek erantzun eutsan: Zeuk diňozu. Baña abade-nagusi ta zaŕak, salatzen eben aŕen, berak ez eutsen itzik be erantzuten. Orduan Pilatos'ek esan eutsan: ¿Ez dozu entzuten zenbat gauza diňoezan zure kaltez? Baña Berak ez eutsan itzik erantzun eta agintaria guztiz aŕituta gelditu zan.

Jai egun nagusian eŕiburuak preso bat askatu oi eban, eŕiak nai ebana. Eta Baŕabas eritxon gaizkin ospatsu bat eukan orduan espetxeen. Batzandu zireanean ba, Pilatos'ek itandu eutsen: ¿Zein nai dozue askatzea, Baŕabas ala Jesus, Kristo deritxona? Bai ekian ba, bekaitzez bere eskuetan ipińi ebela. Eta epai-tokian jesafita egoala, bere emazteak bialdu eutsan esa-tera: Ez ezetan saŕtu gizon zuzen oŕen gauzetañ: gaur amesetan, ori dala-ta, atse-kabe andiak izan dodaz-ta. Baña apaiz-nagusi ta agureak buruan saŕtu eutsoen eŕiari Baŕabas eskatzeko, Jesus galdu egien. Eŕiburuak baŕiro itandu eutsen: Bioetatik zein nai dozue askatzea? eta

eurak erantzun eutsoen: «Baŕabas». Pilatos'ek baſiro esan eutsen: ¿Eta Kristo de-ritxon Jesus'egaz zer egingo dot ba? Guztiak erantzun eben: «Gurutzean josi bedi». Agintariak orduan esan eutsen: Baña Berak ze kalte egin dau ba? eta guztiak deadaŕ andiagoaz erantzun eben: «Guru-tziltzatu bedi». Pilatos'ek ezer ez ebala auferatzen eta gero ta zalaparta andia-goa softzen zala ikusirik, ura eskatu ta eskuak garbitu ebazan efiaren auŕean, esanaz: Nik ez daukat zer ikusirik gizon oŕen odolaz; zeuek erantzungs dozue. Eta eŕi osoak erantzun eban esanaz: Betoŕ bere odola geu geronen eta geure semeen gañera. Orduan Baŕabas askatu eban eta Jesus zigofkadaz astindu ta gero, gurutzean josi egien, emon eutsen. Orduan eŕi - buruaren gudariak, Jesus jauregira eroan eben eta antxe aldrako gudari guztiak batu ebezan. Eta Jesusi bere jantziak erantzirk, soñeko goŕi bat jantzi eutsoen eta arantzazko koroe bat eginda, buruan ipińi eta eskomako eskuan kañabera bat. Eta gero, auŕean belaunikaturik, iŕi-egiten eutsoen, esanaz: «Aguŕ Judataŕen eŕegea ori». Eta txistu egiten eutsoen eta kaña-

berea artuta, buruan joten eben. Eta iŕi -eginda gero, soñeko goŕia kendu ta bere jantziak ipińi eutsoezan eta gero gurutziltzatza eroan eben. Eta uriko atera urten ziranean, Simon eritxon Zirene'ko gizon bat auŕkitu eben eta bere gurutzea eroa-tera beáftu eben. Eta Golgota, au da, Koskotegi (Buruazuŕtegi) eritxon tokira eldu ziran, eta ardao beastunez nastaua emon eutsoen edateko: ártu eban; baña ez eban edan nai izan. Eta gurutzean josi ebenean, bere soñekoak banakatu ebezan, zott-eginda, igafleak esandakoa bete zedin: «Nire soñekoak banakatu dabez eta azpi-soñekoa zotzetara egin dabe». Eta bere ondoan jesáfita, jagoten eben. Eta be-re buru gañean zegaitik ilten zan idatzi eben: «Auxe da Jesus, Judataŕen eŕegea». Baita lapúf bi be gurutzean josi ebezan, ba-ta bere eskoman eta bestea bere eskeŕean. Eta andik igaroten ziranak, buruari era-gin eta birauak botaten ebezan, iñoela: Ia ba, Jaungoikoaren eleizea luŕera eratsi ta iru egunean baſiro zutintzen dozun órek, zeure burua salbau egizu. Jaungoikoaren Semea ba-zara, jatsi gurutzetik». Bardin iñoen apaiz-nagusi eta agintari ta eŕiko,

zañenak be: «Besteai lagundu dautse, ta bere burua ezin askatu dau: Israeldafen eŕegea ba-da, gurutzetik jatsi bedi ta si-ñestuko dogu. Bere itxadona Jaungoikoagan ipiñi dau; lagundu dagiola Berak nai ba-dau, Jaungoikoaren Semea dala esan dau-ta». Beste oŕenbeste iňoen Beragaz batera gurutzean josita egozan lapuŕ biak be.

Baňa bigaŕen ordutik asita, bederatzigáŕen orduraño (eguerditik irurakaŕte) luŕalde osoa ilundu zan. Eta 9'gaŕen ordu inguruan (irurak aldean) Jesus'ek deadaŕ andi bat eginda, esan eban: «Eli, Eli lamma sabacthani»: au da, Ene Jaungoikoa, Ene Jaungoikoa, zegaitik itxi nozu?» An egozanetako batzuk itz oneik entzunda, iňoen: Elias deitzen dau. Eta gero, euretako batek arin joanda, belaki (esponja) bat átu eban eta ozpiñeŕ bus-tirik eta kaňabera baten erpiñeŕ ipiñirik, luzatu eutsan edateko. Eta bes-teak iňoen: Itxi, ikusi daigun Elias da-toŕen Berau askatzera. Baňa Jesus'ek baŕiro deadaŕ andi bat eginda, bere azken arna-sea emon eban (*Emen guztiak belaunikatzen dira pizka baten*). Orduan eleiza nagusiko oyala goitik bera zati bitan uŕatu zan.

Juŕ-ikara entzun zan, aŕiak zatitu ziran, ilobiak be idegi ta gizon zuzen askoren gorputzak, lurperatuta egozanak, beŕbiztu ziran eta bera (Jesus) beŕbiztutakoan ilobietatik urtenik, urira saŕtu ziran eta askori ageŕtu yakezan. Jesus zaintzen egozan eunburua ta bere lagunak, luŕ-ikara ta beste gertaera aek ikusirik, asko bilduŕtu ziran eta iňoen: «Egiaz au Jaungoikoaren Semea zan». Antxe egozan, uŕunetik begira, Galilean asi ta, Jesusi laguntzeko, bere jaŕai etoŕi ziran emakume asko; eu-ren arŕean, Maria Madalenea ta Maria Jakob'en eta Joseren ama eta Zebedeo'ren semeen ama. Ilunabaŕtu zanean, eldu zan Jose Arimateaŕfa, gizon aberatsa, Jesus'en jaŕaitzalea be bai zana. Au Pilatos'gana joan zan eta Jesusen gorpua eskatu eutsan. Pilatos'ek emoteko agindu eban; eta gero, berak beretzat, aŕi bizian eginda eukan ilobian ipiñi (eortzi) eban. Eta aŕi andi bat ilobiaren saŕeran jaŕi ta joan zan. Baňa Maria Madalenea ta beste Maria an egozan jesáŕita, ilobiaren auŕean. Biaramonean, Paraskebe egunaren uŕengoan, apaiz - nagusi ta fariseotaŕak Pilatos'gana joan ziran, iňoela: Jauna, gomutau gara

gizon guzuŕti arek; oraindik bizi zala, esan ebala: «Iru egun baŕu beŕbiztuko naz». Agindu egizu ba, ilobia jagon dagiela irugáfen eguneraŕte; bestela beaŕ-bada, bere ikaslak etofiko dira, ostuko dabe ta eŕiarri esango dautsoe: «ilen aŕtetik beŕbiztu da», eta orduan onelan bigáfen guzuŕ au, lenengoa baño kaltegáriago izango da. Pilatós'ek erantzun eutsen: «Txinelak ba-daukazuez; joan ba, ta zaindu egizue zeuek dakizuen lez». Joan ziran, beraz, eta afiari seluak ezaŕi eutsoezan eta jagolak ipińi ebezan.

### **EGUEN GURENA**

(JOAN XIII, 1-15)

Jesus'ek bere amabi ikaslai (bidaliai) oñak garbitzen dautsez. Altarako Ikuŕton edo Sakra mentua.

**P**AZKOA, jai andiaren auŕeko eguna zan, eta Jesus'ek luŕ au itxi ta bere Aitagana joateko aldia bai etoŕkiola igaŕi ebanean, luŕean egozan bereak, auŕerago lez, azkeneraño be maite-maite izan ebazan.

Apal ostean ba, Simon Iskarioteren se-me Judas'i deabruak saŕtu eutsan biotzean

bere Jauna saltzeko asmua; baňa Jesus'ek bai ekian Aitak gauza guztiak bere eskuetan imińi zituala eta Jaungoikoagandik etoŕi zan lez, Jaungoikoagana joango zala; lagi zan ba, orduan maitik, kendu zituan bere soñeckoak eta esku-zapi bat aŕturik, gaŕian lotu eban; botaten dau gero ura ontzi batera eta asten da bere ikaslén oñak garbitzen, eta gaŕian lotu eban zapiaz legoŕtzen.

Eltzen da Simon Pedrogana; baňa onek diňotso:  cer Jauna, zuk niri oñak garbitu? Jesus'ek erantzuten dautso: «Orain egiten dautzudana, zuk ezin daikezu uleŕtu; baňa geroago igaŕiko dozu». Pedrok diňotso: «Ez daustazuz bein be oñak garbituko». Jesus'ek erantzuten dautso: Ez ba-dautzudaz garbitzen, ez dozu Nigaz aŕtu-emonik izango. Orduan Pedrok diňotso: Jauna, ez oñak bakaŕik, baita eskuak eta burua be». Jesus'ek diňotso: Garbi dagoanak, oñak garbitzea naiko dau; beste guztia garbi dago-ta. Eta zuek garbi zagoze: baňa ez guztiok; nok salduko eban bai-ekian-ta, oŕegaitik esan eban: «Ez zagoze guztiok garbi».

Oñak garbitu eutsezanean, jantzi zituan

bañiro bere soñekoak, jesáfi zan mayan eta esan eutsen: ¿Ba dakizue zer egin dautzuedan? Irakasle ta Jauna deitzen nozue eta ondo egiten dozue, izan be ba naz-ta. Baña, nik, zuen Irakasle ta Jaun nazan onek, oñak garbitu ba-dautzuedaz, zuek be alkafí garbitu beár dautsezuez. Ikerbea emon dautzuet ba, Nik zuoi egin dautzuedan lez, zuek be egin daizuen.

### **BERBIZKUNDE-ALDIA**

Berbizkunde-igandeak beste aldi edo aro bat asten dau, Pentekoste ondorengo lenengo domenak amaitzen dana: aldi edo aro adigaí onek, Jesukristoren biztuera gogoratzentzaukularik, bere antzera gu be, bizibide bafi batera biztu gaitezala diñosku: «Si consurrexistis cum Christo, quæ sursum sunt quærите»; Jesukristogaz batera biztu zarenok, emen beko gauza ustelkoí oneik itxi-ta, zeuen begi ta biotzak zeruan ipiñi egizuez.

### **Berbizkunde-igandea**

(MARC. XVI, 1-17)

*Maria Madalenea ta beste emakumak Jesusen ilobira doaz.*

**A**LDI aretan: Maria Madaleneak eta beste Maria Santiago'renak eta Salomek ukendu

-usaindunak erosi ebezan, joan eta Jesus igúrtzi edo gantzutzeko. Eta goizean-goiz, astearen lenengo egunean ba-doaz obira eguzkiaren urteieran. Eta alkafí iñotsen: Nok kenduko ete-dausku ilobi - saíeran dagoan aíria? Eta begiak jasorik, aíria kenduta egoala ikusi eben: oso andia zan berria. Eta ilobira saíturik, eskoma - aldean, gazte eder bat jesafita ikusi eben zuriz jantzia, eta ikaratu ziran. Baña berak esan eutsen: Ez ikaratu; Nazaret'eko Jesu gurutziltzatuaren bila zatoze: berbiztu da, ez dago emen: oña orí imiñi eben tokia.

Zoaze ba, ta Pedro ta beste ikasleai esan: zuen aufetik Galileara joango da: an ikusiko dozue, agindu eutzu lez.

### **Berbizkunde-ondorengo I igandea**

(JOAN XX, 19-30)

*Jesus apaltokian biritan agertzen yake bere ikaslai.*

**A**LDI aretan: Astearen lenengo egunaren iluntz-aldia zan, eta ikaslak batzanduta egozan toki edo gelako ateak, Judataren bildufeaz, itxita egozala, Jesus agertu zan

eta aen aítean jaífi zan, esanaz: Bakea zuoi. Eta itz oneik esanda, eskuak eta alboa erakutsi eutsezan. Iklaslaik asko poztu ziran Jauna ikustearaz. Berak baíiro esan eutsen: Bakea zuoi. Nire Aitak bialdu ninduan lez, Nik be bialtzen zaituet. Gero arnasa-emon eutsen, esanaz: Ártu Espíritu Santua; zuek askatuko dozuezanen pekatua, askatuak izango dira, eta lotuko dozuezan aenak, lotuak. Baña Tomas, Didi-mo eritxona, ez egoan aekin Jauna etofi zanean. Beste ikaslak esan eutsen: Jauna ikusi dogu; baña berak erantzun eutsen: Untze-zuloak bere eskuetan ikusi ezpa-dagidaz, untze-zuloetan neure atzamára saítu ezzpadagit eta neure eskua alboko zaurian, ez dot siñestuko.

Zortzi egun igaro ziran eta ikasleak baíiro batzanduta egozan eta Tomas be bai eurakin batera. Eta ateak itxita egozala, Jesus saítu zan, aen aítean jaífi zan eta esan eutsen: «Bakea zuoi». Gero Tomas'i diñotso: Saítu emen zeure atzamára ta ikusi nire eskuak: ekazu zeure esku oria ta saítu egizu nire alboan, eta ez zaitez siñes-gogoáa izan, siñesteduna baño. Tomas'ek erantzun eutsan: «¡Ene Jaun eta

Jaungoikoa!» Orduan Jesus'ek esan eutsion: «Ikusi nozulako, Tomas, siñestu dozu; zorionekoak ikusi barik siñesten dabenak».

### **Beñbzkunde-ondorengo II igandea**

(JOAN X, 11-17)

#### *Artzain ona*

ALDI aretan: Jesus'ek fariseotáfai esan eutsen: Artzain ona neu naz: artzain onak ardiakaitik bere bizia pozik emoten dau. Alogerekoak ostera, ta artzain ez danak, ardiak bereak ez dituanak, otsoa datoéla ikusirik, ardiak izten ditu ta iges doa, ta otsoak ardiak ostu ta banantzen ditu. Sari-artzaña iges doa alogerekoa dalako ta ardietzaz zer ikusirik ez daukalako. Artzain ona neu naz; neure ardiak ezagutzen dodaz eta nire ardiak ezagutzen nabe. Aitak ezagutzen nauan lez, nik be Aita ezagutzen dot eta ardiene alde pozik bizia emongo dot. Badaukadaz beste ardi batzuk be, artalde onetakoak ez diranak; baña Nik ekaífi beár dodaz, nire itza entzungo dabe eta artalde bat eta artzain bat izango dira.

**Beñbzkunde-ondorengo III igandea**

(JOAN XVI, 16-23)

*Naigabe ondorengo poza*

**A**LDI arelan: Jesus'ek bere ikaslai esan eutsen: Oraindik pizka bat, eta ez nozue ikusiko, ta bañiro beste pizka bat eta iku-siko nozue, neure Aitagana noa-ta. Bere ikaslak alkafí iñotsen orduan: Zer esan nai ete-dausku itz oneikaz: «Oraindik pizka bat eta ez nozue ikusiko, ta bañiro beste pizka bat, eta iku-siko nozue, neure Aitagana noa-ta?», eta bañiro itandu eben: «Zer esan nai ete dau *pizka bat* itz oregaz? Ez dakigu zer esan nai dauan». Jesus'ek igarí eban zerbait itandu nai eutsoela eta erantzun eutsen: Alkafí itaunka zabiltze zer esan nai ete-dodan itz oneikaz: «Oraindik pizka bat eta iku-siko nozue, ta bañiro beste pizka bat eta ez nozue geyago ikusiko». Egi-egiaz, diñotzuet, ba: negar egingo dozuela zuek, baña mundua poztuko dala. Emakumea, seña egiteko dagoanean, naigabek auñkitzen da, bere garaya bai-dator-kio-ta; baña seña eginda gero, ez dautso lañitasunari begiratzen, pozik dago-ta, gi-

zon bat munduari emon dautsalako. Orelan zuek be orain ilun-lafi zagoze; baña laster bañiro ikusiko zaituet eta zuen biotza poztuko da; ta poz ori iñok ez dautzue kenduko.

**Beñbzkunde-ondorengo IV igandea**

(JOAN XVI, 5-14)

*Jesus'ek Gogo Deuna (Espíritu Santua) agintzen dau*

**A**LDI arelan: Jesus'ek bere ikaslai esan eutsen: Banoa bialdu ninduanagana eta zuetatik iñok be ez daust itanduten: ¿no-ra zoaz? Baña itz oneik esan dautzueda-zalako, naigabek bete da zuen biotza. Baña egia diñotzuet: Zuoi ondo datorki-zue Ni joatea; joango ezpa'nintz ba, Gogo Deuna ez litzakezue etoñiko; joan ba-nadi, bañiz, Neuk bialduko dot zuekana. Eta Bera datorrenean, munduari agirian ipiñiko dautsoz bere pekatua, zuzentasuna ta epai edo juizioa. Pekatua, Nigan ez daualako siñestu. Zuzentasuna, Ni Aitagana noa ta geyago ez nozuelako ikusiko. Epaya (juizioa) mundu onetako nagusia epaituta dagoalako. Beste gauza asko dau-

kadaz, zuoi esateko; baña oraindik ezin daizezuez ulertu. Baña Egiadun Gogoa (Espíritu Santua) datoñkenean, Berak irakatsiko dautzuez egi guztiak; ez dau ba berenez itz egingo, baña Berak entzun dauan guztia esango dautzue ta etoñki-zuna agertuko dautzue. Berak aintzatuko nau, Nigandik arturikoa zuoi adierazoko dautzue-ta.

### **Beñbikunde-ondorengo V igandea**

(JOAN XVI, 23-30)

Otoitzaren indára

ALDI aretan: Jesus'ek esan eutsen bere ikaslei: egi-egiaz dirautzuet: Nire izanean Aitari zerbaite eskatu ba-dagiozue, emongo dautzue. Orain áfte ez dautsazue eskatu nire. izanean: eskatu ta aítuko dozue, zuen poza osoa izan dadin. Auérago ipuñen bidez itz-egin dautzuet; baña eldu da garaya ta orain ez dautzuet ipuñez itz-egingo; baña argiro azalduko dautzuedaz neure Aitaren gauzak. Orduan nire izanean eskatuko dozue ta ez dautzuet esaten Neuk neronek Aitari zuen alde eskatuko dautzadanik, Aitak berak maite zai-

tue-ta, zuek maite nozuelako ta Aitagan-dik urten nazala siñestu dozuelako. Bai, Aitagandik úrten eta luéra etoñi naz; orain bafiro lur au itxi-ta, Aitagana noa. Bere ikaslak esan eutsoen: oña orain argiro itz-egiten dozu, ez len lez ipuñetan: orain ezagutzen dogu guztia dakizula ta iñok ezer itandu beañik ez daukazula: berau-gaitik siñesten dogu Jaungoikoagandik úrten zareala.

### **Jauna'ren igokundea**

(MARC. XVI, 14-20)

Jesus'en azkenengo itzak. Bere igokundea

ALDI aretan: Jesus agertu yaken bere amaika ikaslei mayan jesárita egozala eta aurpegira jaurti eutsen euren siñesgabe-keri ta biotz-gogoñkeria, Bera beñbiziuta ikusi ebenai, ez eutselako siñestu nai izan. Azkenez esan eutsen: Luñbiria osora zoaze ta giza - emakume guztiai Ebangeloia irakatsi. Siñesturik bateatu daitena, zeru-ratuko da; baña siñestu nai ez dauna, galduko da. Siñestuko dabenai mirari oneik lagunduko dautse: Nire izanean deabruak botako dabez, izkuntza bañiak mintzatu-

ko dabez, sugeak kenduko dabez, eta edari pozoiduna edan ba-dagie be, ez dautse kalterik egingo: geixoa! eskuak ezañiaz, osasuna biuítuko dautse». Itz oneik esan ondoren, Jesus gure Jauna zerura igon zan eta antxe jesárita dago Jaungoikoaren eskomaldean. Bere ikaslak joan ziran eta alderdi guztietan Ebangeloia irakatsi eben, eta Jaunak laguntzen eutsen eta euren itzak indaritu eroazan mirarien bidez.

### Igokunde ondorengo I igandea

(JOAN XV, 26-27—XVI—1-4)

*Kristo'ren jaŕaitzaleak nekeak jasan bearititu*

**ALDI** aretan: Jesus'ek esan eutsen bere ikaslai: Nik Aitagandik bialduko dautzue- dan Parakleto edo Pozkilea, Aitagandik datoén Egi-Espiritua, etoŕiko danean, Berak emongo dau nitzaz siñispide edo testigantzea ta zuek be testigantza ori emongo dozue, asieratik nigaz zabiltze-ta. Gauza oneik esan dautzuedaz, nizaz lotsatu ez zaitezen. Batzaŕ-tokitik (Sinagogetatik) botako zaitue; eta aldia datoŕke, ilgo zai- tuen edozeñek, oŕetan Jaungoikoari atse-

gin emon dautsala uste izango dauana. Gauza oneik egingo dautzuez, nire Aita ta Ni ez gabezalako ezagutzen: Baña gauza oneik esan dautzuedaz, euren aldia datoŕkenean, nik iragáfi neutzuezala go- mutau daizuen.

### Pentekoste-Gogo Deunaren (Espíritu Santuaren) etoŕerea

(JOAN XIV, 23-31)

**ALDI** aretan: Jesus'ek bere ikaslai esan eutsen: Norbaitek maite ba-nau, nire itza gordeko dau ta nire Aitak maitatuko dau ta beragana etoŕiko gara ta beragan geldituko gara. Maite ez nauanak, nire itzak ez ditu gordeten. Eta entzun dozuen itza, ez da nirea, bialdu nauan neure Aitarena baño. Gauza oneik esan dautzuedaz zeue- kin nagoala. Baña Aitak bialduko dauan Espíritu Santu Pozkileak, arek irakatsiko dautzue guztia ta nik esandako guztia gogoraziko dautzue. Bakea izten dautzuet, neure bakea damotzuet; nik emoten dautzuet, ez munduak emoten dauan lez. Zuen biotza ez bedi bilduŕtu. Entzun

dozue esan neutzuela: Banoa eta banatoñizue. Maite ba - ninduzue, poztuko zeintekaze ziuñ, Aitagana noalako, Aita ni baño andiagoa da-ta. Eta orain jazo baño len esan dautzuet, jazo daitenean siñestu dagizuen. Emendik auéra ez dot zuekin askorik itz-egingo: bai-datorí ba, mundu onetako nagusia (deabrua) ta ez dauko Nigan zer-ikusirik. Baña munduak ezagutu dagian Aita maite dodala ta Aitak agindu eustanez, olantxe egiten dodala: Jagi zaiteze ta goazan emetik.

### Pentekoste-ondorengo I igandea

Lenengo Ebangeloa (MAT. XXVIII, 18-20)

*Jrutasun Deunaren ezkutuki edo misterioa  
Jesus'ek irakasten dau*

ALDI aratan: Jesus'ek esan eutsen bere ikaslei: Eskubide osoa emon yat zeruan eta luñean; zoaze ba, ta gizadi guztiari irakatsi egiezue, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izanean bateatuaz, nik zuoi aginduriko guztia betetan irakatsiaz. Eta ona emen Ni zuekin egongo naz egunoro, munduaren azkeneraño.

### Azkeneko Ebangeloa

(Luc. VI, 36-42)

*Maitasuna ta apaltasuna*

ALDI aratan: Jesus'ek bere ikaslei esan eutsen: Efukiorák izan zaiteze, zuen Aita efukioña dan lez. Ez iñor epaitu (juzgau) ta ez zarie epaituak izango: ez iñor gaiztetsi (kondenau) ta ez zarie gaiztetsikoa. Parkatu egizue ta parkatuak izango zarie. Emoiezue ta emongo yatzue, neuri on, bete, gonburu-gañezka dagoana emongo yatzue zeuen magalera. Zuek auñekoa neurtu dagizuen neuri ber-beraz neurtuko yatzue zuoi be. Baita beste antz-irudi, au be esan eutsen: Itsu batek beste itsurik bidez eroan ete-dagike? Ez ete-dira biak leza-zulora jausiko? Ikaslea ez da bere Irakaslea (maixua) baño andiago: eta edozein ikasle ornidua izango da, bere Irakaslearen antzekoa ba-da. Eta zeure lagun úrkoaren begietan czegaitik ikusten dozu samaña, zeure begietan agea be ikusten ez dozula? Edo czelan ausaftzen zara zeure anayari esaten: anaya, zure begietatik samañ

ori kentzen itxidazu, zeuk zeure begietan agea ikusten ez dozula? Aizun ori (jipokrita ori!), lenengo zeure begitik agea kentzu egizu ta zeure anayaren begitik samaña kentzeko, gero sayatu al izango zara.

### **Jesukristoren Gorputz Deunaren jaya**

(Joan. VI, 56-60)

*Jauna-añten d'auana Jesukristogaz bat egiten da ta bere bizitzaz bizi da*

**A**LDI aretan: Jesus'ek esan eutsen bere ikaslei: Nire aragia janari egiazko da, ta nire odola egiazko edaria: nire aragia jan eta nire odola edan dagiana, nigan izango da ta ni beragan. Ni bialdu nauan Aita bizi dan lez, eta Ni Aitaren bidez bizi nazan lez, olantxe Ni jan nagiana be, nire bidez biziko da. Zerutik jatsiriko ogia, auxel da. Zuen gurasoak basamoñtuan mana jan eben eta il·ziran. *Ez da o'relan izango:ogi au jaten dauanak, betiko bizi-tzea izango dau.*

### **Pentekoste-ondorengo II igandea**

(Luc. XV, 14-24)

*Apaitera deiturikoen ipuña*

**A**LDI aretan: Ipuin au esan eutsen Jesus'ek fariseotarai. Gizon batek apari andi bat gertu eban eta asko deitu zituan. Eta apari orduan bialdu eban bere moñoia, deituai etoíteko esatera, guztia gertu egoala-ta. Eta guztiak, orobat, atxakiak ipinten asi ziran. Lenengoak esan eban: Basetxe bat erosi dot eta bera ikustera joan beaí dot; azketsi, aíen. Bigafernak esan eban: bost idi-buztaí erosi dodaz eta eurak ikustera noa; azkesteko eskatzen dautzut. Beste batek esan eutsan: oraintxe ezkondu naz; beraz ezin joan naiteke. Biuítu zan moñoya ta guztia adierazo eutsan bere ugazabari. Orduan etxeko jaunak, aseñaturik, esan eutsan bere moñoyari: oa bereala uriko zelai ta auzoetara ta ekafi egizak ona txiro, argal, itxu ta elbañituak. Eta moñoyak esan eutsan: Egin dot, Jauna, zuk esan dozun lez eta oraindik tokia bai dago. Eta Ugazabak esan eutsan moñoyari: Joan adibide ta etxadietara eta saínerako

egioek, nire etxea bete dadin. Zuei diñotzuet ba, deituak izan diran gizon aetatik batek be ez dauala nire aparia dastatuko (probauko).

### Pentekoste-ondorengo III igandea

(Luc. XV, 1-10)

*Ardi galdua. Zerutařen poza pekataria biuritzten danean*

ALDI aretan: Zergari (publikanu) ta pekatariak Jesus'gana uferatu ziran berari entzuteko. Eta fariseo ta eskribak moŕ-moŕ asi ziran, esanaz: Onek pekatariak aŕtzen ditu ta eurakin jaten dau. Eta Jesus'ek ipuin au esan eutsen: Zuen aŕteko norbaitek, eun ardi ba-ditu eta bat galtzen ba-yako: ez al da, laŕogeta emeretziak basamortuan itxita, galdu danaren bila joango, aufkitu aŕte? Eta aufkitutakoan, pozez bizkaŕean ipinten dau ta etxeratzen danean, aiskide ta auzoai dei-egiten dau-tse, esanaz: Poztu zaitezne neugaz batera, neure ardi galdua aufkitu dot-eta: Nik diñotzuet: oŕelakoxe atsegia izango da zerruan: damutzen dan pekatari batetzaz, damutu bearik ez dauken laŕogeta-emere-

tzi zuzenetzaz baño andiagoa. Eta emakume batek, amaŕ drakma eukirik, bat galtzen ba-dau, ez ete dau argia biztuko ta etxe guztia garbitu ta azteŕtuko, aufkitu aŕte? eta aurkituta gero; bere lagun eta auzokoak deitzen ditu eta diñotse: Poztu zaitezne neugaz batera, drakma (diru) galdua idoro dot - eta. Era berean—diñotzuet—Jaungoikoaren aingeruak be poztuko dirala damutzen dan pekatari bakaŕ bategaitik.

### Pentekoste-ondorengo IV igandea

(Luc. V, 1-11)

*Miragarizko aŕantzua. Jesus'ek bidaliak (apostoluak) deitzen ditu*

ALDI aretan: Jenezaret'eko itxaso inguruau Jesus ebilela, lagun-aldrak paŕastaka yoakozan; Jaungoikoaren itza entzuteko leyaz. Eta ikusi zituan itxas-ertzean egozan ontzi bi: aŕantzaleak ontzitik jatsita, sare-garbiketan ziarduen. Simon'en ontzia zan bata eta ara igonik, eskatu eutsan itxas-baztaretik baŕurago eroateko. Eta ontzi-baruan jesafita, andik asi zan lagun-aldreari irakasten. Eta itzaldia amaitu on-

doren, Simoni esan eutsan: Eroan egizu itxaso zabalera ta zareak bota ařantzara-ko. Simon'ek erantzun eutsan: Irakaslea, gau osoan, alpeřik nekatu ařen, ezer be ez dogu ařtu: baňa Zeuk agindu dozulako, sareak botako dodaz. Eta ori egin ebe-nean, ařain pilo andia ařapau eben eta sareak uřatzena yoazan. Orduan beste on-tzian egozan lagunai dei-egin eutsen, la-guntzera etoři eitezan. Eta etoři ziran eta ontzi biak bete ebezana, ia ondatu agiňean ipiňi ařterano. Simon Pedro, au ikusirik, Jesus'en ofnetan auzpaztu zan, esanaz: Jau-na, alde egizu Nigandik, gizon pekataria naz-ta. Egin eben ařantza ugariaz izututa gelditu ziran ba, bera ta beragaz egozan guztiak: eta bardin, Zebedeoaren seme Santiago ta Joan, Simon'en lagunak be. Eta ontziak leořera ekaři ondoren, gauza guztiak itxi ta Jesus'i jařaitu eutsoen.

#### Pentekoste-ondorengo VI igandea

(Mat. V, 20-24)

#### Maitasun-lege nagusia

**ALDI** aretan: Jesus'ek bere ikaslai esan eutsen: Zuen zuzentasuna eskribá ta fari-

seotařena baňo andiagoa ezpada, ez zarie sařtuko zeruko eřeňuan. Entzun dozue antziňekoai esana: «Ez dozu iňor.ilgo: iňor il dagiana ba, auzzi-epaigaři izango da». Baňa nik diňotzuet: bere anayagaz aseřatu daitena, auzzi-epaigaři izango dala. Eta be-re anayari «burugabea, ţaka, esaten dau-tsana, batzařaren auřean eřudun izango dala. Eta eroa, fatue, esaten dautsana, bař-endiko sugaři izango da. Zure oparia alta-ra auřean eskintzen ba-dozu ba, ta an gomutau ba-zaitez zure anayak zerbait badauala zure kaltez, itxi bertan altara auřean zeure oparia ta zoaz lenengo zeure anayagaz aiskidetzena: ta orduan etofirik, eskiňiko dozu zeure oparia.

#### Pentekoste-ondorengo VI igandea

(Marc. VIII, 1-9)

Bigařenez ogi-ařain banaka batzukaz 4.000  
gizon alikatzen ditu

**ALDI** aretan: Ozte (lagun - aldra) andia egoan Jesus'egaz eta zer jan ez eukela-ta, bere ikaslak deiturik, esan eutsen: Ozte onetzaz eřuki naz: iru egun badira ba, nigatz dabiltzala ta jatekorik ez dauke, eta

euren etxeetara baraurik bialtzen ba-dodaz, bidean aulduko dira, batzuk uñunetik etofiak dira-ta. Eta ikasleak erantzun eutsoen: ¿Nok eta zelan basamortu onetan, oneik ogiz ase? Eta berak itandu eutsen: ¿Zenbat ogi daukañuez? Zazpi, esan eutsoen. Eta lagun-aldrareari luñean jañi-eragin eutsan. Eta zazpi ogiak añtirik, eskeñak emonaz, zatitu ebazan eta bere ikaslai emoten dautsez lagun aldrareari banatzeko ta banatu eutsezan. Añaintxu batzuk bebai-ebezan, eta bedeinkatu zituan eta bardin emoteko agindu eutsen. Eta jan eben eta ase ziran eta ondakiñakaz zazpi otzarra bete ebezan. Jan ebenak bai-ziran lau mila inguru: orduan bialdu ebazan.

### Pentekoste-ondorengoko VII igandea

(Mat. VII, 15-21)

*Guzurézko igarleak eta guzurézko kristiñauak*

ALDI arelan: Jesus'ek bere ikaslei esan eutsen: Guzurézko igafleetatik zeuen buruak jagon egizuez, otso lapurak izanik, ardi jantziz agertzen dira-ta; euren egikizunetan (frutuetan) ezagutuko dozuez. Eloñietatik matsak, edo sasietatik ikoak

batzen ete-dira? Orelan: edozein zugatz onek arnari-garau onak emoten ditu: zugatz txañak, ostera, arnari (frutu) txañak dakañz.

Zugatz onak ezin emon daike arnari txañik, ezta zugatz txañak be arnari (frutu) onik. Arnari onak emoten ez dituan edozein zugatz, ebagi ta surtara botako da. Euren frutuetatik ezagutuko dozuez beraz. «Jauna, Jauna» diñoen guztiak ez dira zeruko eñeñuan sañtuko, zeruetan dagoan nire Aitaren naya bete dagiana baño: orixe sañtuko da zeruko eñeñuan.

### Pentekoste-ondorengoko VIII igandea

(Luc. XVI, 1-10)

*Etxezain (ogasun-zain) biuria*

ALDI arelan: Ipuin au esan eutsen Jesus'ek bere ikaslai: Gizon aberats bat zan etxezain bat eukana, ta jakin eban onek bere ogasunak ondatzen ebaziala. Dei-egin eta esan eutsan, ba: ¿zer da zutzaz entzuten dodan au? Azaldu egizuz zeure añtu-emon guztiak, gaurtik aurera nire ogasunik ez dozu zainduko-ta. Eta etxezañak berekautan onelan iñohan: ¿Zer egingo dot ugazabak etxe-zaintzea kentzen

daustan ezker? atxuñketan? ez naz gauza: eskean ibili? lotsatzen naz. Ba-dakitz er egin, etxe-zaintzea kendu daistanean, euren etxeetan aítu nagien. Bere ugazabaren zoñdun guztiak deiturik, ba, lenengoari itanduten dautso: ¿Zenbat zoñ dautsazu ugazabari? eta arek diñotso: Eun zagi orio. Jesaí zaitez, diñotso, eutsi zeure agiria ta idatzi egizu «bérógetamaí». Gero beste bati diñotso: Eta zuk zenbat zoñ dautsazu? Onek erantzuten dautso: Eun anega gari. Aítu zeure agiria—diñotso orduan—eta ipiñi oñ «larogeit». Eta goretsi eban ugazabak etxe-zain gaiztoa, gizon zuñ eta bizkoña agertu zalako; gizarte onetako semeak, euren egikizunetan, argiaren semeak baño zuñagoak diralako. Eta nik be ba diñotzuet: Aiskideak egizuez gaiztakerizko ogasunez, ez dozuezanean (ilgo zarienean) betiko egoitzetan (zeruetan) aítu zagiezan.

### Pentekoste-ondorengoko IX igandea

(Luc. XIX, 41-47)

*Jerusalen ikusita, Jesus'ek negar egiten dau*

**ALDI** arretan: Jesus Jerusalen'era uératu zanean, negar-malkoak ixuri ebazan, uria

ikusirik, esanaz: ¡Ba-zenki, gauñ beintzat, oraindik aldi danean, zek emongo dautzun bakea!... baña orain zure begientzat eskutauta dago. Etoñiko dira ba, zuretzat egunak, eta zure etsayak zure inguruian, esiak ipiñiko dabez eta alde guztietatik estutuko zaitue: zu ta zure semeak ondatuko dabez eta aírik ari gañean ez da zugan geldituko, Jaungoikoa ezagutu ez dozulako, zuganatu danean. Gero eleiza nagusian saúturik, sal-erosleak andik bota zituan, ezanaz: Idatzita daga, nire etxea otoiñ-etxea dala; zuek, ostera, lapur-zulo egin dozue. Eta egunoro asi zan eleiza-nagusian irakasten.

### Pentekoste-ondorengoko X igandea

(Luc. XVIII, 9-14)

*Fariseotára ta zergaria. Jaunak biotz  
barúa ikusten dau*

**ALDI** arretan: Bere buruak zuzentzat eta besteak gaiztotzat eukezan gizon batzuei Jesus'ek ipuin au esan eutsen: Gizon bigon ziran Eleizara, otoiñ-egiteko; bata fariseotára ta bestea zergaria. Fariseotarak zutunik, onelan iñohan bere aítean: Jauna:

eskefak zuri, beste gizon lapur, bidegabeta ezkontzausleak langoa ez nazalako. Astean biŕitan barau-egiten dot: neure ogasunen amaŕenak emoten dodaz. Zergaria, ostera, an urunean egoalarik, ez zan auzartzen bere begiak zerurantz jasoten be; baña bere bulaŕa joten eban, esanaz: Jaun ori, eŕuki zakidaz, pekataria naz-ta. Eta nik diňotzuet: Deunduta jatsi zala au bere etxera; baña ez bestea; bere burua goretsi dagiana ba, apaldua izango da, eta apaletsi dagiana, goratua.

### Pentekoste-ondorengo XI igandea

(Marc. VII, 31-37)

#### Goŕ-mutua osaturik

**A**LDI arelan: Tiro'ko mugaldetik urten eta Sidon'en zeaŕ, Dekapolis'ko eŕi-taldektik barne, Galilea'ko itxasora etoŕi zan Jesus. Eta ekaŕi eutsoen goŕ-mutu bat, eskuak ezaŕita, aŕen, osatu egian. Eta lagun aŕtetik bazteŕtuta, bakarik aŕturik, bere atzak belaŕietan saŕtu eutsozan eta txistua atereaz, min-gaŕean ikutu eutsan. Eta zerurantz begiak jasorik, antsi-egin eban, esanaz: *Efectu, au da, Idegi adi.* Eta bat-

tean, aren belaŕiak idegi ziran eta minganeko koropiloa be azkatu yakon, eta argita garbi itz-egiten asi zan. Eta agindu eutzan iñori ez esateko. Baña zenbat eta geyago agintzen eutsan, ainbat geyago zabaltzen eban eta gero ta geyago aŕitzen ziran, esanaz: Guztia ondo egiten dau; gorai entzumena emoten dautse ta mutuei mintzoa (itz-egitea).

### Pentekoste-ondorengo XII igandea

(Luc. X, 23-37)

#### Biotz-oneko Samaritaŕaren ipuňa:

Ziňesko maitasuna

**A**LDI arelan: Jesus'ek esan eutsen bere ikaslai: Doatsuak, zuek ikusten dozuena, dakusen' begiak. Nik diňotzuet ba: igaŕle ta eŕege askok ikusi nai izan ebela, zuek dakutzuen, ta ez ebela ikusi; baita entzun be, zuek entzuten dozuena, eta ez eben entzun. Jagi zan orduan lege-gizon bat zirikatzen ebala, esanaz: Irakaslea, betiko bizițea jadesteko  zer egin beaŕ dot? Jesus'ek erantzun eutsan:  Legean zer dago idatzita?  zelan irakuŕten dozu? Arek erantzun eutsion, esanaz: Maite egizu

biotz-biotzez, gogo-gogoz, alegin guztiaz, adimen osoz zeure Jaun eta Jaungoikoa ta zeure burua lez, zeure geidea (urko laguna). Jesus'ek erantzun eutsan: Edeŕto erantzun dozu; orixe egizu ta biziko zara. Baña arek, burua garbitu nairik, esan eutsan Jesus'i: Ta nor da neure urko-laguna? Orduan Jesus'ek esan eutson: Ba-yoyan gizon bat Jerusalen'dik Jeriko'ra ta lapufern eskuetan jausi zan; onék kendu eutsoen eroyana ta zauriz beterik erdi ilà itxita, joan ziran. Bai-etoñen, alan beárt-ta, bide aretatik apaiz bat (judataŕa) ta bera ikusi aŕen, auŕera jo eban. Bardin andik yoyan apaiz-lagun (*lebita*) batek be ikusi eban baña *jaramon barik* auŕera joan zan. Baña' bidazti Samaritaŕ bat eldu zan ara, eta onek ikusi ebanean, eŕukiturik eta uŕeraturik, ardaorioz igurtzi ta lotu eutsazan zauriak eta gero, mando gaŕean ipińi ta ostatura eroan eta zaindu eban. Biramonean deitu eban ostataria ta amaŕeko biemon eutsazan, esanaz: zaindu egizu gizon ori, ta zerbait geyago zoŕ ba-dauztut, neuk itzuliko nazanean, ordainduko dautzut. Iru gizon oneitatik zein deritxazue izan zala urko-lagun lapufern eskue-

tan jausiriko gizon arentzat? — Beragaz eŕukitu zana erantzun eutsan lege-gizonek.—Zoaz ba, esan eutsan Jesus'ek, eta alantxe egizu.

### Pentekoste-ondorengoko XIII igandea

(Luc. XVII, 11-19)

*Amaŕ legenaŕdun sendatuak*

**A**LDI aretan: Jesus Jerusalen'era joateko, Samaria ta Galilea erditik yoyan. Eta alderdi baten zaŕtzerakoan, amaŕ legenaŕdun (lepradun) bidera uſten yakozañ, uŕun gelditurik, eta diadaŕka asi ziran, esanaz: ¡Jesus irakaslea, gutzaz eŕuki! Ikusi ta bertatik esan eutsen: zoaze ta abadeakana agertu. Eta yoazala, garbirik auŕkitu ziran. Aetako bat, bere burua garbirik ikusi ebanean, atzera itzuli zan, Jauna oyuka goratuaz, eta bere oñetan auzpaztu zan, eskeŕak emonaz; samaritaŕa zan bera. Eta Jesus'ek erantzun eutsan, esanaz: Ez al dira garbituak amar? beste beideratzia aek non dira, ba? Atzeŕitaŕ au baño beste iñor ez da itzuli Jaungoikoari aintza emotera. Gero diňotso: Jagi zaite ta zoaz: zeure siňesmenak gaizkatu (salbau) zaitu.

**Pentekoste-ondorengo XIV igandea**

(Mat. VI, 24-33)

*Jaungoikoak guztioen ardurea dauko*

**A**LDI arelan: Jesus'ek esan eutsen bere ikaslai: Iñok be ezin daikez ugazaba bi otseindu (serbidu); edo bata goñotauko dau, ba, eta bestea maite, edo batari entzungo dautso ta besteari jaramonik ez. Jaungoikoa ta dirua ezin zengkiez otseindu. Beraugaitik diñotzuet: ez arduretan ibili zer jango dozuen biziteko, ezta gorputza zegaz jantziko ete-dozuen be. Bizi tzea ez al da jana baño geyago eta gorputza jantzia baño? Begira goiko egaztiak: ez dabe ereiten, ez batzen, ez aletegietan saftzen, eta zeruko zuen Aitak alikatzen ditu. Ez ete-zarie zuek, aek baño askozaz geyago? ¿Nor da zuen artean bere asmo guztekaz, ukondo bete azi daitekenik? ¿Eta jantzia zegaitik zabilte arduratsu? Begira zelayetako lirioak: ez dabe lanik ez goruetarik egiten; nik diñotzuet ordea: Salomon bera, bere aintzaldirik andienean be, ez zala oŕeitako bat lez jantzi. Beraz, gaur zuzen dagoan eta biar labara botaga

ko dan landa-bedaŕ bat Jaungoikoak ofe-  
lan janzten ba-dau, izenbat geyago zuek  
siñeste gitxidunok! Ez ba kezkarik izan;  
zer jango dogu,edo zer edango dogu,edo  
zegaz jantziko gara esanaz. Zinge edo  
siñeste bakoak ibilten dira gauza guz-  
ti ofein bila. Ondo daki zuen Aitak ofeik  
guztiok beaŕ dozuezala. Bilatu egizue len-  
engo Jaungoikoaren eŕeňua ta bere zuzen-  
tasuna, ta beste gauza guztiak be emongo  
yatzuez.

**Pentekoste-ondorengo XV igandea**

(Luc. VII, 11-16)

*Nain'go alargunaren seme berbiztua*

**A**LDI arelan: Nain eritxon urira yoyan Je-  
sus eta beragaz yoazan bere ikasleak eta  
beste lagun asko be. Eta uriko atera uŕe-  
ratuaz batera, ildako bat ekaen eortzi  
edo luŕperatzeko. Ilá seme bakaŕa zan eta  
bere ama alarguna, ta lagun asko yoazan  
beragaz. Jaunak alaŕguna ikusi ebanean,  
erukiturik esan eutsan: «Ez negaŕik egin». Eta uŕeratu zan eta ikutu eban zefaldoa  
(atautea) eta eroyenak gelditu ziran. Or-  
duan esan eban: «Gaztea, zuri diñotzut:

Jagi zaitez». Eta ilik egoana jagi ta itz-egiten asi zan, eta Jesus'ek bere amari emon eutsan. Guztiak ikaratu ziran, eta Jaungoikoa goretzi eben, esanaz: Igarlé andi bat softu da gure aítean, eta Jaungoikoak bere efia ikerdu (bisitau) dau.

### Pentekoste-ondorengo XVI igandea

(Luc. XIV, 1-11)

*Jesus'ek lotsaturik izten ditu fariseotarak.*

*Apalak goratuak izango dira*

**A**LDI arelan: Jesus fariseotařen nagusi (andiki) baten etxera joan zan baziak zelatzen begira egokiozan. Eta gizon ugeridun (hidropesidun) bat egoan bere auréan. Orduan Jesus'ek lege-gizon eta fariseotakana biuŕturik, itandu eutsen: Zilegi (bidezko) ete da zapatu-egunez osatzea? Baňa aek ixil-ixilik egozan. Berak, ostera, ikutu, osatu ta bialdu eban. Gero fariseotakana bařiro biuŕturik esan eutsen: Zuen aíteko bati astoa naiz idia leza - zulora jausiko ba'litzakeo čez ete -leuke lenbailen aterako, zapatua izan ařen? Eta zer erantzun ez ekiela gelditu

ziran. Geroago, baziak lenengo tokien bila ebiltzala ikusirik, ipuin au esan eutsen: Eztegutara zoazanean, ez mayan lenengo tokia aítu; bestelan, beár bada, zu baño andiagoren bat deitua ba-dago, etofiko yatzue biokana nagusia ta esango dautzu: emon oni zeure tokia, eta orduan lotsaturik azkenengo tokira joan beárko dozu. Norbaitek eztegutara deitzen zaituanean ba, azkenengo tokian jesári zaitez, nagusia datókizunean, esan dagitzun: aiskidea, zatoz gorago, ta orelan maikideen auréan goratua izango zara. Bere burua goretzi dagian edonor, eratsia izango da ba, ta bere burua apaletsi dagiana, goratua.

### Pentekoste-ondorengo XVII igandea

(MAT. XXII, 34-46)

*Maitasun-lege nagusia. Jesus*

*Jaungoikoaren Semea*

**A**LDI arelan: Fariseotak eldu ziran Jesusgana eta aetako lege-gizon batek, ziltzatuaz itandu eutsen: Irakaslea člegearen agindu nagusiena zein da? Jesus'ek erantzun eutsen: Maiteko dozu zeure Jaun

eta Jaungoikoa biotz osoz, arima guztiz eta adimen guztiz. Agindurik nagusien eta lenengoa orixe da. Bigaŕena bafiz, ofén antzekoa da; zeure burua lez, zeure geidea (úrko laguna) maiteko dozu. Agindu bi oneitan batzen da lege guztia ta igaŕ-leak (*cigarleak dakaŕena*). Eta fariseotáfak alkaŕegaz batuta egozala, Jesus'ek itandu eutsen, esanaz: Kristo nor dala deritxazue? ¿Noren semea ete-da?—Dabid'ena, diñoe. Jesus'ek erantzuten dautse: Beraz čzelan Dabid'ek goi-argiz deitzen dau Jauna, esanaz: «Nire Jaunari, Jaunak esan eutsan, nire eskomaldean jaŕi zaitez, zeure arerio guztiak oinperatuko dautzudazan arte? Dabid'ek «Jauna» deitzen ba-dau ba, čzelan da bere semea? Eta iñok itzik ezin eutsan erantzun, eta egun onetatik auŕera, iñor ez yakon azartu itaun baŕirik egitera.

### Pentekoste-ondorengoa XVIII igandea

(MAT. IX, 1-18)

*Elbaŕitua (perlesiduna) sendaturik. Jesus'ek obenak parkatzen ditu*

**A**LDI aretan: Jesus, untzi baten saŕturik, itxasoaren beste aldera joan zan, bere

efíra (Kafarnaun'era). Eta oean zetzan elbaſitu bat aufkeztu eutsoen. Eta aen siňesmena ikusirik, Jesus'ek elbaſituari esan eutson: Semea, uste osoa eukizu, zeure pekatuak parkatzen yatzuz. Eta bereala, īdazle (eskriba) batzuk euren ártean iñoen: biraua esan dau onek. Eta Jesus'ek, euren gogamenak igafirik, esan eutsen: ¿Zegaitik oldoztu edo pentzeten dozue txaŕto zeuen biotzeta? čzer da ba, eŕezago «zeure pekatuak parkatzen yatzuz» esa-tea ala «jagi zaitez eta zoaz»? Jakin dai-zuen ba, Gizonaren Semeak ba daukala lufeau pekatuak parkatzeko almena (esku-bidea) orduan elbaſituari diñotso: «Jagi zaitez, aŕtu zeure oe ori ta zoaz etxera». Eta jagi zan eta bere etxera joan zan. Au ikusirik, ikaratu ziran eta gizonai ofén-besteko eskubidea, damotsen Jaungoikoa goretsi eben.

### Pentekoste-ondorengoa XIX igandea

(MAT. XXII, 2-14)

*Ezteguen ipuña*

**A**LDI aretan: Apaiz nagusi ta fariseotáfai, ipuñez itz egiñaz, esan eutsen Jesus'ek:

Zeruko efeñua, bere semearen ezteguak egin zituan efegearen antzekoa da. Bialdu ebazan arek moroyak, bazkaldañak deitzera, baña oneik ez eben etoñi nai izan. Bañiro beste moñoi batzuk bialdu zituan, esanaz: Bazkaria gertu dago, idi ta arakiak ilak dodaz, guztia prest dago. Zatoze ezteguetara. Baña aek erantzun be ez eutsen egin eta joan ziran, bata bere base-txera, bestea sal-erosiko irabazietara; bestek bañiz, efegearen moñoya eldu-ta, bidegabekeri asko egin ondoren, erailebezan. Eta efegeak gauza onein bañi jakin ebanean, asefaturik eta bere gudarosteak baturik, jo ta zuzitu zituan iltzale aek eta euren efia kiskaldu eban. Orduan bere moñoyai esan eutsen: Ezteguak gertu dagoz: baña deituak izan ziranak, ez ziran gai. Zoaze beraz, bide-buruetara ta aurkitu daizuezan guztiak, deitu egizuez.

Urten ziran ba moñoyak bideetara eta aurkitu ebezan guztiak, onak eta txaŕak, batu ebezan eta ezteguetako maya bete zan bazkaldañez. Gero efegea sartu zan jantokira, etoñitakoak ikustera, eta eztegu-jantzi barik egoan gizon bat ikusi eban. Eta esan eutsan: Aiskidea, eztegu-jantzi

barik çzelan sartu zara emen? Eta ixilik egoan. Orduan efegeak bere ordekoai esan eutsen: Oin eta besoak loturik, kanpoko ilunpera bota egizue: An bai izango dala negaÑa ta agin-kiñiskadea! Asko dira ba deituak; baña autuak gitxi.

### Pentekoste-ondorengoa XX igandea

(JOAN IV, 46-53)

*Kaparnaungo gudari nagusiaren semea  
Jesus'ek osatzen dau*

ALDI aretan: Jesus etoñi zan bañiro Galilea'ko Kana'ra, lenago ura ardaotan biurtu eban tokira. An aurkitzen zan Kaparnaun'en bere semea geixorik eukan efegetxu bat. Efegetxu au, Jesus Juda'tik Galilea'ra eldu zala entzun ebanean, joan yakon eta eskatu eutson Kaparnaun'era jatsi ta bere semea osatu egiola, il-aginéan egoala -ta. Jesus'ek esan eutson: Zuek miraririk ikusten ezpa-dozue, ez dozue siñesten. Efegetxuak erantzun eutson: Jauna, zatoz afen, nire semea il baño len. Jesus'ek diñotsio: Zoaz, zure semea ondo dago. Gizonak, Jesus'ek esandako itza siñestu eban eta ba-yoyan. Eta bidean yoyala, moñoyak

beragana etoñi yakozañ eta bere semea ondo egoala adierazo eutsoen. Itandu eutsen beraz ze ordutan bizkortu zan eta erantzun eutsen: Atzoko zazpiretan jatzi yakon sukaña. Aitak ezagutu eban ordu axe zala Jesus'ek esan eutsanean: «Zure semea ondo dago», ta berak eta etxeko guztiak siñestu eben.

### Pentekoste-ondorengoko XXI igandea

(MAT. XVII, 113-35)

#### *Moñoi biotz-gogoña*

ALDI arretan: Ipuin au esan eutsen Jesus'ek bere ikaslei: Zeruko efeñua bere moñoyaz kontu-garbiketa egin nai eban efeñegearen antzekoa da. Kontuak garbitzen asi zanean, ekañi eutsoen amarí mila talento zoñ eutsazan bat. Baña zegaz ordaindu ez eukalako, nagusiak agindu eban aren emazte, seme-alaba ta eukan guztia saldu ta zoñak ordaintze. Baña moñoi arek auzpazturik, ařen eskatzen eutsan, esanaz: Nizaz ártea ártu egizu, ta guztia ordainduko dautzut. Bere nagusia eñukitu zan, itxi eban eta zoñ parkatu eutsan. Moñoi arek ostera, andik urten zanean, eun denario zor eu-

tsazan bere moñoi-lagun bat aurkitu eban, eta eldurik itoteko zorian eukan, esanaz: Zor dokana ordaindu egik. Eta moñoi-kideak auzpazturik, eskatzen eutsan, esanaz: Nizaz eroapena artu egik eta guztia ordainduko dauat. Baña arek ez eban nai izan: bestera, joan zan eta espetxera (presontegira) bialdu eban, zoñ oñdaiindu arte. Baña beste moñoi-lagunak, zer jazo zan ikusirik, oso naigabetu ziran; eta nagusiagana etoñirik, jazoera guztiaaren bañi emon eutsoen. Orduan onek deitu eban eta esan eutson: Moñoi zikoitza (txaña), zoñ guztia parkatu dauat, eskatu daustalako: beraz, ez ete-enduan ik be eure lagunaz eñukitu beñ, ni itzaz eñukitu nazan lez? Eta nagusiak, sumindurik, zigorkariakana (boñeruakana) bialdu eban zoñ guztia oñdaiindu arte. Zeruko nire Aitak be orixe egingo dautzue, bakoitzak biotzez bere anayari parkatu ezpa-dagiozue.

### Pentekoste-ondorengoko XXII igandea

(Mat. XXII, 15-21)

*Jaun bakoitzari zoñ yakona biurtu bear yako*  
ALDI arretan: Pariseitañak joan eta alkarekin itundu ziran Jesus izketan ařapatzeko

asmuz. Oñetarako euren ikasleak Erodes-táfakin, bialdu eutsoezan esatera: Irakasle; ba dagiku egitia zareana ta Jaungoikoaren bidea egiz irakasten dozuna, ta iñortzaz ajolarik ez dozuna: ez dozu ba zuk nor nor dan begiratzen. Esan egiguzu bada: ¿Zesar'eri zega emotea zilegi? (bidezko) da ala ez? Jesus'ek baña, aren' gaiztakeria ezaguturik, onelan erantzun eutsen: Azalutsok (ipokritok) ¿cer dala-ta ziltzaten nozue? Erakutsi egidazue zerga-dirua. Ta denario bat erakutsi eutsen. Eta Jesus'ek diñotse: ¿Norenak dira irudi ta ikutíitz au? Zesar'enak, diñotse. Orduna esan eutsen Jesus'ek: Emon egiozue ba Zesar'i Zesar'ena ta Jainkoari Jainkoarena.

### Pentekoste-ondorengo XXIII igandea

(Mat. IX, 18-26)

*Geixorik egoan emakumea osatu. Jairoen alabea berbiztu.*

**A**LDI areten: Jesus osteari (lagun-aldearei) itz-egiten egoala, gizon andiki bat uferatu yakon eta guítu eban, esanaz: Jauna, nire alabea oraintxe il da; baña zatoz, ezafí egiozu eskua ta biziko da. Jagi zan

Jesus ta bere ikaslakin jaíaitu eutsan. Eat ona emen, amabi urtean odol-erionaz geixorik egoan emakume bat atzetik uferatu yakon eta jantziaren ertza ikutu eutsan. Berakautan esaten eban, ba: bere soñekoa bakañik ikutuko ba'neu be, osatua nintzake. Eta Jesus biurtu zon eta ikusirik esan eutsan: Uste betea eukizu, ene alabea; zeure sinismenak osatu zaitu. Eta bertatik emakumea osatuta aurkitu zan. Eta Jesus jaun-andiaren etxera eldu zanean eta ile-tariak eta, jentearen iskanbilä ikusi zituanean, esan eban: Urten zaiteze: neskatal ori lo dago, ez dago ilda. Eta iri-bañezka egokiozan guztiak. Baña jentea bota eba-nean, saítu zan eta eskutik artu eban eta neskatilea biztu zan. Eta mirari onen bafia eírialde guztian zabaldu zan.

### Pentekoste-ondorengo XXIV igandea

(Mat. XXIV, 15-35)

*Munduaren azkena.-Jesukristoren etorerea*

**A**LDI areten: Jesus'ek esan eutsen bere ikaslai: Daniel igañleak aitaturiko ondamen nardagaña toki donean ikusi dagizuenean, irakurten dauanak ulertu begi; orduan Ju-

dean dagozanak mendietara igon begie ta sabayan dagoana ez bedi jatsi etxera zer-bait aítzera; ta soloan dagoana ez bedi biurtu soñeko bila. ¡Zorigaitza, égun aetan seña-egiteko ta seña-azten dagozanentzat! Eta egun aek labuútuko ezpa'lira, iñor ez litzake gaizkatuko (salbauko); baña autuakaitik egun aek labuútuak izango dira. Orduan norbaitek esango ba'leutzue: ona emen edo ara an Kristo, ez siñestu. Kristo aizunak eta igaflé aizunak (guzafezkoak) jagiko dira ba, eta al ba'litz, autuak be okeítzerañoko ezaugaria ta mirari andiak egingo dabez. Ora zuei auréz esana. Beraz ba-diñotzue: Ara an basamortuan dago, ez urten. Ora óf zokoetan, ez siñestu. Bada gizasemearen etoñerea eguzki aldetik urten eta sañkalderaño agertzen dan tximista lez izango da. Gorpua aurkitzen dan tokian, batuko dira aíanoak be. Egun aetako lañialdi ondoren bereala eguzkia ilunduko da; ilargiak bere argirik ez dau emongo, zero-ortzetik izañak jausiko dira; zeroaren sendotasuna kordekatuko (lokatuko) dira, ta orduan zero-goitik agertuko da Giza-Semearen ezaugaria, eta orduan negar-zotin egingo

dabe luéko gizeli (tribu) guztiak eta ikusiko dabe gizonaren Semea, oidei ártean almen eta anditasunez beterik datoñela. Eta bialduko ditu bere aingeruak, turuta joaz eta ots-eginaz, eta batuko dabez berre autuak lau aizeetatik odai-ertze goyenetik euren azkenetaraño. Aítu egizue ba, irudiki bat iko-zugatzetik: Bere indaÑa guritu ta ofiak softzen diranean, udea uñ dagoala bai dakizue: zuek be oñelantxe, oneik guztiok ikusi dagizuezanean, jakin egizue (gizonaren Semea) laster dala atean. Egiaz diñotzuet: Oneik guztiok jazo árte, gizaldi au ez dala igaroko. Zeru-lufak igaroko dira; baña nire itzak ez dira igaroko.

### BESTE JAI OSPATSUENETAKO EBANGELIOAK

**Lotazilaren 8. Andra Maria'ren Sorkunde  
garbia**

(Luc. 1, 26-28)

*Gabriel aingeruak Jaungoikoaren auŕean María agurtzen dau.*

**ALDI** arretan: Jaungoikoak bialdu eban Gabirel aingerua, Nazaret eritxon Galilea'

ko uri batera Jose izenezko Dabid efegearen etxeko gizaseme batekin ezkonduta egoan Birjiña, bategana: one izena Maria zan. Eta bera egoan tokira aingerua saftu zanean, esan eutsan: Aguŕ, ezkafez betea, Jauna zugaz, bedeinkatua zu emakumeen aŕtean.

#### **Epala 19.- Jose Deunaren jai-eguna**

(Mat. 1, 18-22)

*Jose Deunari aingeruak adierazten dantso, Espiritu Santuaren egitez Maria seindun dagoala,*

**MARIA** Jesus'en Ama, Josegaz ezkonduta egoala, alkaŕganatu baño lenago, Espiritu Santuaren egitez, seindun aufkitu zan. Baňa Jose bere senarafak, zuzena zalako, ez eban galdu nai izan eta ixilik bialtzeko asmua eukan. Eta gogoeta oneikin ebilela, Jaungoikoaren aingerua agertu yakon amesetan eta esan eutsan: Jose, Dabiden Semea, ez bildurik izan: artu egizu zeure emazte Maria; beragan sortu dana, Espiritu Santuarena da-ta. Seme bat izango dau ta Jesus izena ipińiko dautsazu: Berak gaizkatuko dau, ba, bere eŕia euren pekautetatik.

**Berbirkunde ondorengo II asteko egus-tena. Jose Deun zaindariaren jai nagusia**  
(Luc. III, 21-24)

*Jesus, Jaungoikoaren Semea, Jose Deunaren Seme-ordea.*

**ALDI** aratan: Efínguztia bateatu zanean, Jesus be bateatu zan; eta otoizketan egoala, zerua idegi zan; orduan Espiritu Santu, usoaren antzez, bere gañera jatsi zan eta zerutik jatsiriko abotsa entzun zan: zu zara nire Seme laztana: zugan dodaz neure atsegińak. Ogetamaŕ urte inguru eukazan Jesus'ek bere lanak asi zituanean, eta guztiak Jose'ren semetzat euketan:

#### **Bagilaren 24.-Juan Bateatzale Deuna**

(Luc. I, 57-69)

*Joan Ugutzalearen (Bateatzalearen) jayotza miragarria.*

**SEINDUN** egoan Elisabeti eldu yakon seña egiteko aldia ta seme bat regin eban. Eta bere senide ta auzoak asko poztu ziran, Jauna beraz efukitu zala yakin ebenean, eta zorionak emoten eutsoezan. Zortzi-garen egunean, seña bibilebatera eroan eben eta bere aitaren izenaz Zakarias, deitu nai

eben. Baña bere amak esan eutsen: ofelan ez yako eretxiko, Joan Baño. Eta erantzun eutsoen: Baña zure senitañtean ez dago izen ori daukanik. Orduan bere aitari itandu eutsoen keiñuz, zelan nai eban deitu egikion, eta onek idatz-ola eskatu ta idatzi eban: Joan da bere izena. Guztiak afitu ziran. Eta bat-batean mingaña azkatu yakan eta Jauna goresten asi zan. Orduan bere auzoko lagun guztiak ikaraz bete ziran eta Judeako ibar-mendi guztietan bafi oneik zabaldu ziran, eta entzuten ebezan guztiak, biotz bañenean auznañtzen ebezan, alkañi iñotsela: Nor deritxazu sein au izango dala? bada Jaungoikoren eskua beragaz egoala agiri zan. Eta Zakarias bete aita Espiritu Santuak bete eban eta iragarri eban esanaz: Donetsia (bedeinkatua) Jauna, Isael'go Jaungoikoa, bere eñia ikertu eta beñerosi daualako.

#### **Bagilaren 29.-Pedro ta Paulo Deunak**

(Mat. XVI, 13-19)

Pedrok Jauna autoñtzen dau ta onek Gotzainburu egiten dau.

**A**LDI aretan: Jesus etorri zan Zesarea Fili-poko alderdietara ta bere ikaslai itandu

eutsen: Gizonak, nor dala diñoe Gizonaren Semea? Aek erantzun eutsoen: Batzuk, Joan Bateatzalea, besteak Elias, Jeremias edo igañlaren bat. Jesus'ek diñotse: ¿Eta zuek nor nazala diñozue? Pedrok erantzu-tentautso: «Zu Kristo, Jaungoiko bizia-ren Semea zara». Jesus'ek orduan diñotso: zorioneko a zara, Simon Bañ Jóna, ez dautzu ba, zeure aragi ta odolak diñozun ori irakatsi, zeruko neure Aitak baño: nik bañiz diñotzut: zu zareala Pedro (añia) ta añi onen gañean neure eleizea jasoko dodala eta inpernuko ateak (indarak) ez dabela garaituko. Zuri emongo dautzudaz, zeruko eñeuaren giltzak: luñean lotuko dozun guztia, lotua izando da zeruan eta luñean askatzen dozuna, zeruan be askatua izango da!

#### **Dagonila 15.-Andra Mariaren Yasokundea**

(Luc. X, 38-43)

*Marta ta Maria aizlak Andra Mariaren irudi.*

**A**LDI aretan: Eñi txiki batera joan zan Jesus eta Marta eritxon emakume batek bere etxeán afitu eban: Aizta bat eukan

onek Maria eritxona eta au Jaunaren oñetan jaŕita egoan bere itzaldiak entzuten. Bein bitartean Marta lafi ebiŕan bear ziran (gauza) guztiak gertutzen, eta Jesus-gana etofi zan eta esan eutsan: Jauna čez dozu ikusten nire aizteak bakaŕik itxi nauala etxeko lanetan? esayozu ba, lagundu nagiala. Baňa Jaunak erantzun eutsan, esanaz: Marta, Marta, asko leyatzen zara ta gauza azkotaz urduri zabiltz; baňa, egi-egiaz, gauza bat bakaŕa da beaŕezkoa. Mariak egiňen obea aukeratu dau ta bein be ez yako kenduko.

#### Irala 9.-Arantzazu'ko Andra Maria, Gipuzkoako'ko zaindari nagusia

(Luc. 1, 26-39)

Aingeruak Maria agurtzen dau ta Espiritu Santuaren egitez soŕtuko daudela adierazten dautso.

**A**LDI arelan: Jaungoikoak bialdu eban Gabriel aingerua, Nazaret eritxon Galileako ūri batera, Jose eritxon gizaseme bategaz ezkonduta egoan Birjiňa bategana; onen izena, Maria. Eta bera egoan tokira aingerua saŕtu zanean, esan eutsan:

Aguŕ, eskaŕez betea, Jauna zugaz, donetsia zu emakumeen ártean. Itz oneik entzunda, lafitu zan, eta aguŕ ofegaz zer esan nai ete - eutsan egoan bere artean. Baňa aingeruak esan eutson: ez bilduŕtu Maria, Jaungoikoaren gogoko zara - ta; Seindun aurkituko zara eta Jesus izena ipiňiko dautsazun seme bat sortuko dozu. Andia izaago da Bera ta Altsuaren Semea deituko dautse ta Jaungoiko Jaunak Dabid bere Aitaren jaŕ-lekua emongo dautso. Jakob'en etxeen (ondorengoean) aginduko dau beti, ta bere Agintzeak ez dau azkenik izango. Mariak esan eutsan aingeruari: čzelan izan daiteke ori gizonezkorik ez dot ezagutzen-ta? Eta aingeruak erantzun eutson: Espiritu Santua zugana etofiko da, ta Altsuaren indaŕak itzal-egingo dautzu. Eta beraz, zugandik jayoko dana, Jaungoikoaren Semea izango da (deituko dabe). Ara, Elisabet zure lengusinak bere zaŕtzaoran, seme bat soŕtu dau eta seinge zana, seigafen ilabetean dabil, Jaungoikoaren auŕean ba, ez dago gauza eziňik. Mariak orduan esan eban: Ona emen Jaunaren mirabea; egin bedi nigan zuk diňozun ori.

**Garagañila 25.- Santiago Deuna**

(Mat. XX, 20-24)

*Joan eta Jakobaren Ama Jesusi eskatzen.*

**A**LDI aretan: Zebedeoataren ama bere seme biekin Jesusgana etorri zan eta bere aurrean auzpaztu zan zerbait eskatu nairik. Jesus'ek esan eutsan: ¿Zer nai dozu? Arek erantzun eutsan: Agindu egizu nire seme bi oneik, bat zure eskomaldean eta bestea zure eskeéan jesáfi daitezala zure ereñuan. Jesusek erantzun eutsan: Ez dakinue zer eskatzen dozuen. Nik edango dodan edontzia edan ete-dagikezue? Aek esan eutsoen: Bai, edan dagikegu. Orduan esan eutsen: Nire edontzia edango dozue bai; baña nire eskoman naiz eskeéan, jesaítea, ori ez dago nire eskuan zuoi emotea, neure Aitak gertu dautsenai baño.

**Garagañila 31.- Loyola'tarí Iñazio Deuna****Gipuzkoa ta Bizkai'ko Zaindaria**

(Luc. X, 1-10)

Jesus'ek bere bialduai erakusten dautse érirkí -éri zelan ibili.

**A**LDI aretan: Jesus'ek autu ebazan beste irurogeta amabi lagun eta biñaka, bera

baño aurérako, bialdu zituan gero ikusiko ebazan eñi ta urietara. Eta esaten eutsen: Uzta ugaria da, baña langile gitxi; uzta-jabeari eskatu ba langileak bialtzeko. Zoaze; ona emen ardiak otsoetara lez bialtzen zaituet. Ez zoñorik artu, ez dirurik ezta oñetakorik be, ta bidean ez iñori agurík egin. Saúl zarien etxeán lenengo esan: Bakea etxe onetako bizi lagunai, eta bakezaleak ba-diria bertokoak, onein gañiera zuen bakea jatsiko da; bestela batiz, zeuekania biuñtuko da. Etxe aretan egon zaiteze, bertakoakin jan-edanaz, langileak lan-saria bidezkoa dau-ta: ez etxerik etxe ibili. Saúl zarien eñian, baldin aítzen ba-zaitue, jan egizue emongo dautzuena: geixorik dagozanak, osatu ta jente aei esan: Jaungoikoaren eñehua uferatu yatzue.

**Azaroa (Semendia) 1.- Deun guztien****jai - eguna**

(Mat. V, 2-13)

**Zoriontasunak**

**A**LDI aretan: Jesus, berari jaŕaitzen eutsan oztea (lagun aldrea) ikusirik, mendira igon

zan eta antxejesaŕi zanean, bere ikaslak inguratu eben. Orduan irakasten asi zan, esanaz:

Zorionekoak biotzez txiroak, zeruetako eŕeňua eurena dabe-ta.

Zorionekoak otzanak, lúraren jabe egin-go dira-ta.

Zorionekoak negaŕ-dagienak, poztuak izango dira-ta.

Zorionekoak zuzentasunaren gose-egarí diranak, aseak izango dira-ta.

Zorionekoak eŕukioŕak, eŕukia jadetsi-ko dabe-ta.

Zorionekoak biotz-garbiak, Jaungoikoa ikusiko dabe-ta.

Zorionekoak baketsuak, Jaungoikoaren semeen izena emongo yake-ta.

Zorionekoak zuzentasunagaitik jazaŕtuak, zeruko eŕeňua eurena dabe-ta.

Zorionekoak izango zarie, Nigaitik gizonak madarikatu ta jazaŕtuko zaituenean, eta guzuŕez, txaŕto-esaka zuen kaltez ibiliko diranean; poztu zaiteze orduan, zeruetako zuen saria oso andia da-ta.

## Kristińau-ikasbide laburpena

### UZKURTZ EDO ERLEJÍOAREN

#### ONÁRÍ-EGIAK

##### 1) Jaungoiko bakára, betikoa ta alguztiduna.

Bere izatez betikoa da-ta, Jangoikoak ez asierarik ez amairik ez dauko: beti izan da ta izango be bai: Nazana naz Ni. Neuribagea da-ta, Jaungoikoa toki guztietaan dago, ta aren begiak biotzetako zokondorik eskutuenak be argiro dakusez. Goiko-Jaunonen bikaintasunak neuribageak dira, ta gauza guztietaan: anditasun, jakituri, zuzentasun, almen, zorion eta enparuetan, azkenbagea da. Arek egin eztuan gauzarik ezer be eztago, Jangoiko bakára Bera da-ta. Ezertxu be ezta jazoten Aren agintza edo baimen barik, diran guztien ardurea dau-ta Txoririk be ez da lúfera jausten Jangoikoaren baimen: barik, esan eben Josu gure jaunak.

##### 2) Iru notin edo pertsona Jaungoikoagan.

Iru notin edo pertsona banak dira Jaungoikoagan: Aita, Semea ta Goteuna edo Espíritu Santua. «Zoaze ta enderí guztiak bateatu egizuez Aitaren eta Semearen eta Goteunaren izenean.

Semea, Aitak softua da, aren aintzaren diñdira ta  
aren izatearen irudi lez.  
Goteuna, Aita ta Semeagandik datof, bioen áfte-  
ko maitasuna lez.

### 3) Izadia ta gizona.

Asieran zerua ta luña irazan ebañan Jaungoikoak  
sei egunetan, au da, sei ekiñalditan. Seigafenean  
irazan eban gizona. Onetarako, Idazteunak diñoa-  
nez, lur pizka bat artu ta len-gizonaren soña are-  
gaz egin eban: gero arpegira arnasa emon eta adi-  
mendun gogo edo arima ilezkor eta Bere antz-irudi-  
koa erantsi eutsan gizonari. Adan'en sayets-azufaz  
egin eban Eba. Gure lenengo gurasoak onelantxe  
egiñak dira.

### 4) Jatorízko obena.

Adan eta Eba grazi donetzaleaz apainduak ira-  
zan ebañan. Jaunak eta grazi ofegaz batera jatofi  
-zuzentza ta il eziteko doya be emon eutsezan.

Grazi donetzaleak gure arimeari Jangoiko-bizi-  
tza damotso ta bizitza óregaz batera betiko zorion-  
aren eskubidea be bai.

Adan eta Eba'ren grazi donetzalea, jatofi-zúzen-  
ta ta il eziteko doyak guk be izango genduzan,  
aek nai izan ba'lebe.

Ojetarako Jaungoikoaren esana egin bear eban:  
Jaunak esan eutsen: Jan egizue atsegin-báratzko  
zugatzen edozein arnari, baña on eta txafa jakiteko  
zugatzarenik, ez; ori jan ezkerro, il egingo zarie-la.

Bañar erioak atzipetuta, gebendutako arnari  
ori jan egin eban Ebak eta Adan'i emon eutsan eta

onek be jan egin eban. Gizonakaz Jangoikoak zi-  
tuán lenengo asmuak. Adanen pekatu onek ondatu  
ebazan. Oben au zala-ta jaurti ebañan Jaunak gure  
lenengo gurasoak lufeko atsegintegitik eta galdu  
ebezian eurentzat eta ondorengointzat be grazi  
donetzalea, zerurako eskubidea, naimen-zuzentza  
ta il barik biziteko emaitza. Orain, Adan'en ondo-  
rengoa jayotzaz daben grazirik-ezari, jatofizko  
obena deritxo, ta zuzenik-ezari, griñaz.

### 5) Eroslea.

Jangoikoak ez eban gizona beronen zoritzafean  
bertan bera laga: biotz-garbaiz eta Eroslearen itxa-  
ropenez zerura bidea bañiro idegi eutsan.

Jangoikoak erabagitako garaya eldu zanean,  
Adan'ek oben egin-ta, milaka urteak geroago, Au-  
gusto agintariaren befogei ta bigafern urtean jayo  
zan Jesu, Aitaren Seme betikoa jaugoikotasunez  
eta egiazko Gizonaren Semea gizatasunez: Juda'ko  
Belen'en jayo zan, Abraan, Isak, Jakob eta Dabid'  
en oideletik, Joakin eta Ana'ren alaba ta Jose Deu-  
naren ezkontide zan Andra Mari Biñiñagandik.  
Jesu, izen onek, salbatzalea esan nai dau.

Jesu, Jaungoiko-Gizonak izate bana bi ditu: au-  
gaitik adimen bi ta naimen bi, jangoikozko bata  
ta gizonezko bestea. Izate biok notin edo per-  
tsona baten, Jangoiko-Semarenean, neste barik  
alkartuta dagoz.

Ogei ta amar urtean Nazaret'en bizi izan zan  
Jesu, Andra Mari ta Jose'ren etxearen bizitza ezku-  
tua egiñaz. Gero azken-iru urteetan Bidali edo  
Apostoluak batu ebañan eta Judea ta Galilea'n

alatz edo mirarien bidez, bere jaungoikotasuna adierazo ta egiztau be bai.

### 6) Erosketa.

Erosketa-ordua eldu zanean, Jesu'k bere burua arerioen eskuetan laga eban, onéik nekaldi ta eriotzea aferazo egioezan.

Judas'ek saldu, efiko-zañak gaiztetsi ta Pilato efomatar agintariak eriotzara epaitu eban. Zigor-katu, arantzaz burestu, soñeckoak kendu ta gurutzean josi eben eta lapur biren erdian il zan Josu. Ordu aretan Iufa ikaraz dardar asi zan eta afiak alkar joka zatitu ziran, eleizako estalkia erdibitu, ilak berbiztu...

Afi-ilobi bafian eortzi eben Jaunaren gorputa, baña eriotzatik irugafen egunera, berberak iragazi ebanez, ilobiko aña irauli-ta, bizirik urten zan andik, eta befogei egunez agertu yaken, berbiztu ta gero, Bidaliei ta beste siñesmendun askori.

Azkenez, Berbizkundetik befogeigañen egunean zeruratu zan Josu, beronen ikasle guztien aufean... Adan'ek galdu euskun zerua, Jesu'k ipiñi eban, bafiro gure eskumenean.

### 7) Kristiñau uzkurtz edo Erlejiñoa.

Kristiñau-Uzkurtza Jesu'k, gu gaizkatu edo salbetako gurutzean il zan Jangoiko-semeak irasi ta ipiñitako uzkurtza dogu. Jesu'k idatzita ez eban ezer itxi. Ikaslei ta efiei itzez agertu eutsen Jaunak bere Bañi Ona ta Judi osoan zabaltzeko egiñena Bidali edo Apostoluei itxi eutsen, itz onein bidez:

Zoaze ta eñi guztiei irakatsi egiezue nik agindu dautzue-dan guztia... Siñestu dagiana gaizkatuko da: siñestu eztagiana, ostera, galduko da.

Kristiñau-Uzkurtza baño beste egiazko erlejiñorik eztago, bat egiñik be. Au egia dala siñestu era-giteko, onexek be naiko dira: 1n. Jesukristo'ren eta Apostoluen alatz edo mirariak: 2'gn. gizostea ain laster kristiñau egitea, gizonen griñak eta gi-zarteko iendañak aurka zirala: 3.gn. Kristiñau-Uzkurtza egiztatzeako bizia emon eben Apostolu, ikasle ta milaka siñesmendunen autorák.

## II

### AZAGA EDO AZKENKIAK

#### 8) Zerua.

Gu guztiok zerurako egiñak gara. Zerua, aingeru ta zoriontsuak, Jaungoikoa ikusiaz, betiko atseginetan bizi diran zoriontegia da.

Zerua betirakoa ta bakaonda; baña guztioen zoriona ez da bardiña izango. Irabazi dauan zorion-neuria emongo dautso Jaungoikoa bakotxari. Uñi erein dagianak gitzi batuko dau: ugari erein dagianak, ostera, batu be ugari.

#### 9) Garbitokia.

Orbandurik ezertxu be ezin sartu daiteke zeruan.

Oben egiñaz Jaungoikoa iraindu dauanak eta obenaren zoñak, neke-ilduraz ta egite onez Jaunari

osoro ordaindu ez dautsazanak, Garbitokira joan beaf izango dau, zofak osoro ordaindu ta oben-orbanak guztiz garbitu arte.

### 10) Gaiztoki-Inpernua.

Pekatuaren menpean, grazi donetzaile barik, il daitena, inpernura doake, an bere obenai dagokien zorigatxa jasateko. Era bitakoa da inpernuko zorigatxa: kalte-zorigatxa edo Jaungoiko barik bizi-beaafa (*calde nigandik gaiztetsiok*) eta zentzun-zorigatxa edo sua (*zoaze betiko sutara*).

### 11) Banango epaikunde ta guztiena.

Il eta berealaxe epaituko dau Jaungoikoak bakotxaren arimea, ta epaikunde onen ostean arimea edo zerura edo garbitokira edo inpernura joango da, irabazi dauanez. Baña munduan azkenean, Jaungoikoaren zuzentasuna argi ta garbi agertu daiten, gizaseme guztien epaikunde nagusia egingo da. An batzanduko gara guztioak, bakotxa bere gorputz eta arimaz, ageriko epaya artzeko.

### 12) Berkizkundea.

Gizaseme oro berbiztuko gara, edo aintzarako edo lotsarako. Gorputz eta arima egin eban Jaungoikoak gizona, ta orduan be, gorputz eta arima artuko dau gizonak, edo betiko saria edo betiko zigofa. Epaikunde aufetik izango da, berbizkundea.

### III

## AGINDUAK ETA AOLKUAK

### 13) Zeruratzeko nai ta naiezkoa: Jaungoikoaren Legea betetea.

Betiko bizitzan sartu nai ba dozu, aginduak bete egizuz. Jaungoikoak gizonoi emondako lenen-legea, bañen-legea da. Bañen-lege onek, zerbait egin aufetik, egitera goazana ondo ala txarto dagoan adierazten dausku: egin ondoren, bañiz, ondo egiña txalotu ta txarto egiña kezkaz zimikotu daroa.

Bañen-legearen ilunbe, zalantza ta ezbayak Sinai-mendian emondako legearen bidez argitu ebazan Jaungoikoak. Lege onek amar agindu ditu.

### 14) Jaungoikoaren Legeko amar aginduak.

Jaungoikoaren Legeko lenengo iru aginduetan Jaunagazko doguzan eginbeaفا sartzen dira: geure geide edo projimua ta geure buruagazkoak, beste zazpiretain.

## Jaungoikoagazko eginbeaفا

1.º) Jaungoiko bakaFa gurtuko dozu ta maiteen Berriau izan egiyu. Jaungoikoari siñesmena zor dajtsagu, egi utsa da-ta; uste ta itxaropena, bere eskintzarietan zintzo-zintzoa da-ta; goi-matasuna, azken barik on eta maitagarifa da-ta. Gure Egile, asiera ta irakasle nagusi dalako, jaurespina zor dajtsagu ta emaitza.

eta mesede oro Beragandik datorkiguzalako, otoi  
edo eskaria.

2<sup>GN</sup>. Jaungoikoaren izena alperik aotan ez egui  
artu.

Jaungoikoaren Aunditasunari, Deuntasunari ta  
Egiari zor yakon itzalaen, eragotzita dago Jaun-  
goikoa, beafizan eta egi barik, diñogunaren testi-  
gu ekarrea, baita Jaungoikoaren izenean zin egi-  
naz Agindutakoari uts-emotea be.

3<sup>GN</sup>. Jai-egunak jai egin bear dozuz.

Guri egindako mesede ta on ugarien ordez zor  
dautsguzan menpetasun eta omena, gizonak obeto  
agertu dayoguzan, astean egun bat beretzetat gorde  
dausku Jaungoikoak. Lege Zafean larunbata zan,  
izadiaren sortze-gomutaz: Lege bafian igandeara  
(domekea), Jesu Eroslearen Berbizkunde-gomutaz.

### Geideagazko eginbeaŕak

4<sup>GN</sup>. Gurasoai dedu ta lotsa izan egiezuz.

Jaungoikoaren legeko laugaen aginduak sem-  
-alabak gurasoai izan bear dautsezan lotsa, itzal eta  
maitasuna agintzen ditu, umeak euren aziera ta  
ezierea gurasoakandik artu bear dabezt-ta. Era be-  
rean agindu onetan sartzen dira menpekoak uga-  
zaba ta agintarietzaz dabezan eginbeaŕak bere.

5<sup>GN</sup>. Iñor ez egizu il.

Boskaen aginduak geide edo projiunari kalte.  
gaŕi yakon edozer egitea galerazen dau.

6<sup>GN</sup>. Aragikeririk ez egitea.

Seikaen aginduak norberagan nai bestegan gaŕ-  
bitasunaren aurka dan edozer egitea galerazen  
dau: beraz, egite loyak eta itz eta begiratze lizun-  
ak.

7<sup>GN</sup>. Ezer ez ostutea.

Geidearen ondasunak eta aren eskubide ta jabe-  
tzea aintzat artzeko agintzen dau zazpigaen agin-  
duak.

8<sup>GN</sup>. Eztan gauzarik iñori ez ezartea ta guzuŕik be  
ez esatea.

Bear dan aldi ta tokian egia esateko ta geidearen  
egiteak al bestean ontzat eukiteko agintzen dau  
zortzigaen aginduak, eta iñoren izen onarentzat  
kaltegari dan edozer, zearo galerazen dau.

9<sup>GN</sup>. Besteren senaŕi nai emazterik ez gura izatea.

10<sup>GN</sup>. Iñoren ondasunen gurari bidebakorik ez eu-  
kitea.

Seigaen eta zazpigaren aginduen aurka diran  
gurari ta gogo txaŕak gebentzen dabez bederatzi  
ta amáfgaen aginduok. Gurrialak egitera eroan oi  
gaitue-ta, origaitik egitea ez eze egiteko gogoa be  
eragotzi egin dau Jangoikuak.

15) Eleiza Amari zor yakon menpetasuna.

Jesukristo gure Jaunak, gizadia zerura - bidean  
zuzentzeko irasi ta eratu eban Eleiza Amagazko  
menpetasuna; kristiñau - eſlejíñoaren ezaugafirik  
onena ta bearena, orixe da. Ebangelioa irakatsi ta

Jaunaren aginduak bete eragitea, orixe da Eleizearen egiñena. Zoaze ta enderi guztiel irakatsi egitezue. Iragarri Bariona gizaki guztiel... Irakatsi agindu dautzuedana egiten... Lu'rean lotu dagizuena, zeruan be lotua izango da, ta lu'rean askatu dagizuena, zeruan be askatua geldituko da. Zuek entzun zagiezanan, Neu nantz, ta zuek ezetsi zagiezanan, Neu ezesten nau... Siñelsi dagiana gaizkatuko da ta siñelsi eztagiana, galduko da.

### 16) Aita Santua Eleizearen buru ta zuzen-tzaile.

Bidali edo Apostoluei era batera emondako aginpile nagusia, Bidalien buru, Pedro'ri emon yakon berariz, eta Pedro'gaz onen ondorengo Eñoma'ko Gotzañai. Eleiza ondatu-eziñaren oñai senboa Pedro da.

«Zu (Pedro) Atxa zara ta aitz onen gañean erejiko dot neure Eleizea ta inpernuko indaírak eztabe bein be menperatuko. Zaindu egizuz nire bildotsak, zaindu nire ardiak. Ziñesmenean sendotu egizuz zure anayak.»

### 17) Jesukristo'ren egiazko Eleizearen ezau-garíaik.

Jesukristo'ren egiazko Eleizearen ezaugáriak onexek dira: Bat eta Deuna, katolikua ta apostoluekandikoa izatea. Bat da, aren irakaspidea bat eta bardíña, ta aren aginpilea be bat eta bakaña dalako.

Deuna (Santua), Kristo'rena izanik, Eleizearen irakaspidea nai ta ez deuna da-ta: gañera, eleizta-rentan deun asko ta andiak izan ditu beti ta oitura ta

siñeste-gayetan be utsik ezin dagike Katolikua, ludi-ko efi guztietara zabaldua baitago ta zabaldu beafa baita.

Apostoluekandikoa, eten bako jaíapenez izan baitira Apostoluen egunetatik gaur arte Eleizan agin-pidea izan daben Gotzañak eta berariz Eñomakoak.

Eñoma'ra, Eñoman il zan Pedro deunaren ondo-rengó Eñoma'ko Gotzaña, Eleizearen buru ta zu-zentzaile, beti orixe izan da-ta.

### 18) Eleizearen aginduak.

Eleizearen aginduak, Jaungoikoarenak obeto beteten laguntzeko dira. Bost dira Eleizearen agin-du nagusiaik:

1) Lenengoia, jai-egunai dagokiena da. Oben astunpean Meza osoa entzun bear da jai-egune-tan. Domekak eta beste zortzi egun dira ludi oso-rako, nai-ta-naiezko jai-egunak: Jesu'ren Jayota, Urtebañi, Eñegen, Igokunde, Sortze garbi, Jasokunde, Pedro ta Paulo deunen eta Domusantu.

España'rako beste iru geyago: Jose deuna, Gor-pu-usti ta Santiao-egunak.

Eta Euskaleñian oneizaz gañera: Gipuzkoa ta Bizkayan, S. Iñazio eguna; Araba'n S. Prudentzio-rena ta Napañoan Xabier deunaren eguna.

2'gn. Graziazko bizitza nai-ta naiezko da ze-ruratzeko ta bizitza ori da lege guztiaren elburu: oñegaitik Eleizeak, bere bigañen aginduan, urtean bein gitxienez autortzeko agintzen dausku, autor-tzaren bidez, bear izan ezkerro, Jaungoikoaren gra-zia gure arimetan bañiztatzeke.

3'gn. Eukaristia da, bañiz, grazi-bizitzaren jarnari. «Gizasemearen aragia jan eta odola edan ezpa-da gizue, eztozue zeukan bizirik izango. Oregaitik agintzen dau Eleizeak bere irugareñ aginduan urtean bein gitxienetik, Paskoaldian Jauna artzeko.

4'gn. Eleiza-Amak agintzen dauenetan aragi-izte ta barau-egitea.

5'gn. Oi danez amañenak eta asikiñak Eleizeari emotea.

Kristiñau guztiak dagoz, bakotxak al dauan era ta neuriñan eta Eleizeak agintzen dauanez, eleizkizun eta eleiz-gizonentzat zerbait emotera bearantuak. Al izan eta ezer ez emotea, obena da.

### 19). Ebangelio-aolkuak.

Kristiñau-bizitza oso ta bikañera eltzeko biderik egoki ta onena Ebangelio-aolkuak dira. Edozein Gopatzeko iru eskintzariak osotzen dabe bide ori. 1) Gogozko txirotasuna, au da Jaungoikoaren lufeko ogasunak iztea.

2'gn. Garbitasuna, Jaungoikoaren ezkontza ta aragi-atsegiañak iztea.

3'gn. Menpetasuna, Jaungoikoaren, onen ordezkoaren menpean norbere naya ta aukeramena ipin-eara.

«Osoro ona izan nai ba-dozu, saldu egizu dozun guztia ta emoyezu txiroai, erdu ta jarai nagizu ta ondasuntegia zeruan izango dozu».

### 20) Obena edo petakua.

Jaungoikoaren legeko agintzak eta Eleiza Amarenak ez betetea, oben edo pekatu da. Jaungoikoar-

ren agindua, jakinaz gañera ta norbere guraz, gauza astunean ez betetea, oben astuna da. Eriozkiña deritxo oben oni, grazi-donetzalea kenduaz, oben dagianaren arimea ilik izten daualako. Pekatu astuna egin-ta, grazi ori barik ilten dana, betirako impernura baztartzen dau Jaungoikoak. Jaungoikoaren agindua, ardura gitxiko gauzeta nai gauza astunean, baña ezaguera argi nai gogo oso barik, ez betetea, oben ariñ da.

## IV

### BIDEAK

#### 21) Otoitza.

Kristiñau guztiak otoitz-egin bear dabe, euren buruak gaizkatu edo salbau nai ba-dabez beintzat, Jaungoikoagandik eskar eta mesedeak jaristeko bidea, geyenez otoitza da-ta. «Eskatu ta jadetsiko dozue, bilatu ta aurkituko dozue».

Gogoaren gaizkapena ta oretarako laguntza ta grazia estaku dagiozanari, beti emoten dautsaz Jaungoikoak. Eskintzari ziuria da: Eskatu egizue ta artuko dozue.

#### 22) Meza deuna.

Kistañentzat grazi-biderik bikañena, Meza deuna da: Gurutzeko opari berbera dalako ta aren indaria be ba-daualako.

Mezeak dakartzan on eta mesedeak Mezemolearen esku dagoz lenen, nai dauan asmu ta elburura.

ko izan daitezen, eta Meza-entzuleen esku, ufenago.

Meza santua lau gauzetalako da:

- 1) Jaungoikoa gurtu ta gure Jaun eta Jabetzat ezagutzeko.
- 2'gn. Eskeŕak emoteko.
- 3'gn. Ontarte edo mesedeak eskatzeko.
- 4'gn. Parkapena yadesteko, bai pekatuena ta bai onein ordain-nekearena be.

### 23) Sakramentuak.

Jesukristo gure Jaunak irasi ta ipiñiriko grazi-bide bereziak dira Sakramentuak. Grazia guztia emoten dabe, edo zeruratzeko bear-beaŕa (done-tzalea) edo laguntzalea. Sakramentuak zazpi dira, Bateoa, Sendatza, Eukaristia, Autortza, Azken-igortza, Abadegintza ta Ezkontza.

### 24) Bateoa (Ugutza).

Bateoak jatofizko obena kentzen dau, ta eza-gueran sartu ta gero, bear diran siñesmen eta damuz artu dagianari, baita berak egindako pekatuak be. Iñor be ezin daiteke gaizkatu edo salbau bateo barik: «Urez eta Goteunez birjayo eztanik, ezin daiteke zeruan sartu».

Estuardietan bere senean dagoan edonok bateatu daike, umeari al dala, burura ur utsa ixuriaz eta bateatzeko asmuz esanaz: *Nik bateatzen zaitut Aita-ren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izanean.*

### 25) Sendatza.

Sendatza'k Goteuna edo Espiritu Santua emoten dausku grazi ugariekin, bide batez Jaungoiko-semetzan sendotu egiten gaitu ta kistar-bizitzarako indartu. Kistar-gudari-ezaugafia ezarten dausku Sendatzak eta bein baño ezin daiteke artu.

### 26) Eukaristi deuna.

Eukaristia da sakramentuetan bikañena, Eukaristian Jesukristo gure Jauna, grazi-egile ta emolea berbera dago, gorputz, odol, arima, jaungoikotsun eta guzti.

Sakramentuaz gañera, Eukaristia Oparia be batata, Opari danez Mezea deritxo. Meza deunean, ogi ta ardaoa Jesu'ren gorputz eta odol biurtuaz egiten da Eukaristia.

Eta Jaunartzearen bidez Eukaristia gure arimen janari da: «Nire aragia ziñez janari da ta nire odola edari. Zinziñez diñotuet: *Giza-Semearen aragia jan eta bere odola edan ezpa-dagizue, ezlozue zeuekan bizirik izango*».

Ofegaitik Eleizeak: 1) Ezagueradun kistar guztiei urtean bein, Pasko-aldian jaunartzeko agintzen dautse; 2) Sañi eta egunero, bear dan prestaereaz, jaunartzeko eskatzen dautse.

Jauna ondo artzeko gaua bi bear dira: Jaungoikoaren grazia ta asmu zuzena. Erioz-aldian be Jaunartzera beartuak gagoz, arerioen aurka azken-bufukan indartsuago izateko.

### 27) Autorítza.

Bateatuaz gero egindako obenak, parkatzen ditu Autortzako Sakramentua. Lau atal ditu Autoritzak:

1) *Damu*: damu barik eztago parkapenik. Zubenzuzena dan Jaungoikoak ezin parkatu legikeo damu eztanari.

2'gn. *Autorkuntza*: oben astunak beintzat guztiak esan bear yakoz, parkatzeko eskubidea dauan auto-entzuleari. «Zuek parkatu dagiezuezanai, parkaturik geldituko yakoz euren obenak. eta zuek lotu dagiezuezanai, toturik.»

Oben astunen Auto-kuntza bakafrík da beáfezkoa; baña oben ariñak autoftzea be egoki ta onurragafi da, oben-sustrayak galtzeko ta garbai—penitentzi—egiteko.

3'gn. *Auto-entzulearen azkespena*.

4'gn. *Ordaña*: auto-entzuleak bakotxari ezafí dagion oben-neke edo penitentzia beteteko asmu zindoa.

### 28) Azken-igoírta.

Ilteko aíriskuan dagozanai pekatuen aztefen eta orbanak kendu ta arerioen ziltzaldien aurka indaferako, Jesukristo'k irasi ta ipiñi eban Sakramenteko, Jesukristo'k irasi ta ipiñi eban Sakramentua da Azken-igoírta.

1) Pekatuak ariman soñtutako auleria da oben-orban ori. Azken -igoítzak gorputz - osasuna bebiustu dagike, arimearen onerako egoki ba deritxo. Jaungoikoari.

2'gn. Gorputz-osasuna emotea berez dagokio Azken-Igoítzari, aitaturiko baldintza ofekin ba-da bere.

### 29) Abadegintza.

Eleiz-zeregiñak egiteko eskubidea ta zeregiñok egoki ta euren deuntasunari dagokionez egin al izateko grazia emoten ditu abadegintza deritxon Sakramentua.

### 30) Ezkontza.

Kristiñau-artean giza-emakumen alkaftzea onesti ta ezkonduen alkafekin bakez bizi ta seme-alabak ondo azi ta eziteko grazia emoten dautsen Sakramentua da Ezkontza.

Sakramentua Eleizan ipiñi ebazan Jesukristo'k, Eleizeak bere gogora egin eta emon egizen: augaitik Eleizak bakafrík dau kristiñau-árteko ezkontzeari buruz legeak emon eta baldintzak ipinteko eskubidea.

Efi-agintariak ezkontzaren izateari buruz eztabe eskubiderik, agintariok efiari dagokiozan eskontza-ondorenetañ baño eztabe ikustekorik.

Kristiñauak, eleiz-legeak alde batera itxirik, egiten dabezan ezkontzak, utsalak dira ta sasi-ezkontza zantañ batzuk baño besterik ez.

Ezkontza jatofa ausi-eziña da ta ezkontz-austea Jaungoiko-legeak eragozten dau: «Jaungoikoak batu dauana, ezpegi gizonak banatu».

Obenik egin baga ezkondu al izateko:

1) Bizien sakramentua baita, ezkongayen arimak grazian, pekatu astun barik, egon bearf dabe.

2'gn. Ezkongayetariko bat edo besteak bizi dan tokian egin beaŕ da ezkontza. Emen geyenez emaztegeyaren eŕian egin oi da.

### 31) Paŕkabenak.

Pekatariak bizitza onetan edo garbitokian, bere pekatuen okeŕa zuzentzeko, ordaindu bear dauan aldiko neke - zoŕaren azkespena, orixe da paŕkabenak.

Autoŕkuntza-azkespenak pekatua ta pekatu astunari dagokion betiko neke - oñazea parkatzen dauz; baňa geyenetan Jaungoikoak ebatzi oi dauan aldiko neke-zoŕa oraindik ordaintzeko gelditzen da.

Paŕkabenak irabazteko nai-ta-naiezkoa da Jaungoikoaren grazian egotea.

Oŕezaz gañera Jaunartzea agintzen danean, Jaunartze bakaŕa da naikoa egun aretan irabazi daitekezan parkaben guztietarako.

Autoŕkuntza agintzen danean, egunero Jaunaŕtzen dabenak, astero nai amabostik bein egindako autortza naiko dabe parkabenak irabazteko.

Paŕkaben geyenak irabazi daitekez garbitokiko arimen alde, oŕegaitik paŕkaben asko irabazi ta arima asko zeruratu daitekez batera.



admirabilis et nobilissima genitrix cordis  
admirabilis et nobilissima genitrix cordis  
admirabilis et nobilissima genitrix cordis  
admirabilis et nobilissima genitrix cordis



## VIII. GOGAKETAK

(MEDITAZIÑOAK)

### GOGO-OTOITZA

Otoitzaren bidez, biotza Jaungoikoagana jazo-ten dogu, mesedeak berari eskatzeko.

Era bitakoa da:

Bata.—*Aozkoa, itzez egiten dana.*

Bestea.—*Gogozkoa, gogo utsezko otoitzta.*

Biaik edeŕak, oso edeŕak dira, azkenengo au batetz be gure egunetan. Nondik datof ba, kristiñauen aŕtean asko ta asko Jaungoikoagandik uŕun bizi izatea bere aginduetzaz oso aiztuta, epel eta nagi..? «quia nullus est qui recognitet corde» baŕena iñok be azterzen ez daualako (Jerem. XIII, 31).

«Ordu lauren bat egunero gogo-otoitzari emoiozu ta zerua zeurea dozu» diño Teresa Deunak.

Ofa of zerua ondo merke irabasteko bidea.

### Gogo-otoitza ondo egiteko erea

Goizeko otoitzak amaitu ondoren, jafi zaitez Jaungoikoaren aufean, guítu egizu ta otoitza ondo egiteko laguntza eskatu.

1'n.) Irakuí gero, astiro-astiro, gogoan ondo aítzen dozuzala, berago ipíñiko diran gogaketak (31 dira, ilaren egun bakotxerako bat).

2'n.) Ondoren zeure buruari itandu:

¿Ez al da *egia* orain irakuí dodan guzu tu au?

¿Jesukristo ta Doneak ez al dabe oí eskatzen dana *egin*?

¿Ez al da oso *egokia* niretzat, oso mesedezkoa, guztiz beafízan andikoa, oso efeza beste ofenbeste egitea?

¿Eta zer egin dot orain aíte?

3'n.) Zure adimenak lan egin dau; orain zure, naimenak (borondateak) berea egin begi.

Außerantzean obeto egiteko asmu sendoak aítu, emen aufkituko dozuzan eragozpen edo gaiztasunak auíez ikusi ta ofeik austeko neuriak aukeratu.

4'n.) Baña zure asmu onak uts-egin ez dagien, Jaungoikoari, Andra Mariari, Jose Deunari, azkenet, laguntza eskatu. Emen biotzak jardun beá-dau eta zenbat luzaroago, ainbat obe.

Otoitza amaitzeko, gogaketaren azken aldean ipíñi diran asmua ta oldozpena (pentsamentua) irakuí ta buruan aítu, egunean saíti gogoratzeko.

«Aita gureaz» amaitu zeure otoitza.

### LENENGO EGUNERAKO

#### Siñesmena (Fedea)

1). Siñesmenak irakasten dauskun guzti-guztia, Jaungoikoaren itzak on-egiten dau. Jesukristoren aotik aítu ditu gure Ama Eleizeak siñestuazoten dauskuzan egiak; beraz, ezin okeí ibili geintekez, Egia berbera dan Jaunak, bidea erakusten dausku-ta. Norbere adimen edo efazoya siñesmenaren menpean ipintea baño gauza zuzenagorik ez dago.

2) Siñesmena daukala esanaz ¿cer irabaziko dau kristiñauak, bere egikizunak zuzendu ezpa-dagiz? Jaungoikuak irakasten dauskuna, eztabaidan edo 'zalantzán ipintea, zorakeri andia da. Martirien odlak eta mirari andienak egia dala diñoškue, ta deabruak berak be, bein baño saítiago, orixe berori autoítu dau: baña siñestaren esanak egizkoak dirala autoítu ta guzuíezkoak bai'liran bizitea, askozaz zorakeri andiagoa da. Deabruak beste ofenbeste egiten dabe: siñestu ta Jaungoikoari menpetasuna ukatu.

3) Neure bizibide osoa, siñesmenak zuzenduko dau auferantzean. Berak uka-

tzen dauna, ukatu ta diñoana egingo dot. Munduko eskubide zoroen aufean, Jaungoikoarenak jaíaituko dodaz. Bere esanak jaíaitzeko  munduak zer diño? «*laster ilgo gareala-ta, jan eta edateko nasai.*» (Sap. lib. II, cap. II, 6-8). Jesukristok  zer diño? gurutzea laztandurik, neke ta lanak biotz onez eroateko.  Non dago egia, Jesukristo ala munduaren aldetik?

*Asmua.*

Jaungoikoari eske k emon Eleiza-Amenaren magalean jayo zarealako ta esan astiro «Si nisten dots» edo «Kredoa» zeure si nisenmena auto tzeko.

*Quid prodest si quis catholice credat et gentiliter vivat.* «Zer auferatzten dozu, si nisenmena eukirik, si neste bakoak lez bizi ba-zara?»

## 2'GAREN EGUNERAKO

### Gizonaren azkena

1) Gure azken edo elburu baka a. Jaungoikoa da. Berak beretzat egin gaitu ta beste i norenak ezin izan gaitekez. Gure

biotzak Jaungoikoa eskatzen daualarik ezin ukatu gengikeo.

2) Bakotxak zo  yakona be  dau: Jaungoikoa gure Jauna da. Izan gaitezan bereak beti. Onean eta geure gurez edo bestela, txa ean eta inda ez, beraean izan be ko dogu: semeen antzera nai ba-dogu: bestelan, menpeko ta mo oyak lez. Edo bere maitasunak edo bere zuzentasunak (zigor k) erabiliko gaitu. Bietatik  zein nai dozu, kristi naua?

3) Gauza bakotxa bere azkenak zuzendu be  dau.  Zetarako eguzkia, argirik egingo ezpa leu? Kaltezkoa litzake ez bai barik eta bardin gizonaren biotza be. Jaungoikoak beretzat egin dau: Jaungoikoagana ezpa doa, ez da ezetarako ona, oke dabil, kaltega i da. Eta zelan bizi naz? Jaungoikoarentzat ete-dodaz neur gogoeta guztiak, neur asmuak, neur lanak?  Ene  ruka ia, gitxi, oso gitxi emon dautsat Jaungoikoari oraindi o-ta..!

 Zeratako bizi naz ba, lu ean neur regi a betetan ezpa-dot?

*Asmua.*

Auferantzean Jaungoikoa baka ik bila-

tuko dozu ta Berari zoí yakon guzti-guztia emongo dautsazu. *Dominus meus et Deus meus.* «Neure Jaun eta Jaungoikoa».

### 3'g. EGUNERAKO

#### Mundua ukatu beár da

1) Mundua maite dabenak ez dira egizko kristiñauak. Mundua, andi-zalea da; zorakeri ta atsegin galgariak maite ditu ta Jesukristoren areriorik aindiena da. Aren esanak eta aren agintzak Kristo'ren esan eta agintzakaz buñukan dabiltz. Bioi ezin jaíaitu gengikeoe, bata edo bestea ukatu beár dogu.

2) Munduaren esanak jafaituaz, bat eoan egindako eskintzak uratzen dozuz: orduan deabrua ukatu zeban, bere esanak, bere árokeriak, eta batera, mundua bera be ukatu zeban. Eta orain bafiz catsegin biña, zorion biña zabiltz luñean, zeruak eskintzen dautzuzan atsegin-pozak ezetsi-ta? ¡Ori zorakeri andia!

3) Eta ézer dauko munduak, ilgo ez dan gogo edo arimearentzat ona danik? Ezer ez, guzuñezko aberastasunak izan ezik. Guzuñezkoak, bai; bere atseginak

bere zorionak, pizka batekoak dira-ta, egun batekoak lez; baña ezin bete, ezin ase dabe biotzaren gose-egafía: guzuñezko ogasunak; edo obeto esateko, txañak, kaltegariak, askotan zorionaren ordez, nai-gabe ta zoritxáfa aberatsai ekarten dautsiez-ta. Malko ugariak, artzain txabolan ezeze, eŕege-jauregietan be ixuri oi dira.

*Asmua.*

Jaungoikoari eskatu, munduaren zaletasuna, zure biotzetik kendu ta aren tokian bere maitusuna biztu dagiala.

*Væ bis qui hæserint transeuntibus, quoniam simul transeunt! «Zoritxáfekoa luñeko gauzai iratsiko yakena, eurekaz batera doa-ta».*

### 4'g. EGUNERAKO

#### Eriotzea

1) Ikaratu zaitez, kristiñau onari dagoion lez bizi ezpa-zara. Laster, bai, oso laster ilgo zara. ¿Zer erantzungo dautsazu orduan Jaungoikoari? Bere aserean il nai zeunke? Beragandik urun? ¡Eriotzearen bilduñgaría Jaungoikoaren asaíean dagoarenzat!...

2) Zer nai zeunke egin izan eriotz-zori lafi aretarako? Egizu orain aldiz, orduan ezin egin izango dozuna. Bertatik asi zaitsez lanean, gerorako itxi barik; aldi edo denporea aufera doa ta beragaz batera, guztiok goaz. Gaurko eguna eskuetan daukat, biarkoa ez dakit: etoŕkizuna Jaungoikoarena da; oraingoa, nirea: betiko zoriona, oraingo egite onen saria.

3) Zelan begiratuko dozuz aberastasunak eriotz-auŕean? Gaurganik begiratu egizuz orduan ikusiko dozuza, lez. Eriotzea egi-zalea da: bizitza saŕi, guzuŕtia. Bizi garean bitaŕtean ogasunak zerbait ba-dirudie; eriotz-auŕean, utsak dirala, ezer ez dirala argiro agertuko da. Osasunean maite doguz; eriotz-lafian ez doguz eztan eukiko.

### Asmua

Eriotz auŕean gogoz jaŕi zaitez, il zorian ba-zengoz lez eta zeure buruari itandu ilteko gertu edo prest ete-zagozan. ¿Ezetz erantzuten dautzu? Lenbailen gertu zaitez, uste barik eriotzea gauŕ bertan etoŕi litzaikezu-ta. 51 miloi giza-emakume ilten

dira urtero luŕbira osoan—150 mila egunoro—100 minutu bakotxean.

Eriotzea lapuŕa lez datorkigu: itzaŕ egon. *Vigilate.*

### 5.g. EGUNERAKO

#### Guztioen azken-epaya (juizioa)

1) Azken - epai egunean Jesukristo Epaikari zuzen eta zoŕtzaren auŕean egongo naz. Onek nire egikizun guztiak begiratu ta azteŕtuko ditu: onak eta txaŕak. Orixea baño egi ziúŕagorik gure Eban-gelioan ez dago. Siñesten dot, bai, eta adaŕ-ots bilduŕgaŕia dagoaneko entzuten dodala dirudit.

2) Zer erantzungs dautsat Epaikariari, ainbeste gogapen lizun, ainbeste egitade okeŕ, ainbat eta ainbat gaiztakeri arpegira jauftiko daustazanean? ¡Bilduŕgaŕizko eguna, Jaungoikoaren aseŕe-eguna! ¡Ikaragaŕizko eguna, nire oben edo pekatu guzti-guztiak, gizaseme guztien auŕean agertu ta azalduko dituan eguna! Zuzenak bilduŕafern daŕ-daŕ egongo ei-dira, ceta pekatariak?

3) Gero Epaikariak bere epaya emongo-dau, betikotasun osoan ezin aldatu izango dana.

Eta pekatariai: *Zoaze zuok, madarikatuok, zoaze betiko sutara, esango dautse. Epaya bera ikaragaña ba-zan, auzi au galtzea, gure kaltezko erabagia čzer ete?*

Jaungoikoagandik urun... suítan... betiko oŕa oŕ obenaren ordea.

*Asmua.*

Irudimenaren inafez, Jaungoikoaren epai-tokira zoaz. Guztien auŕean zagoz. Zure oben guztiak antxe agiri dira. Jaungoikoak epaya berealaxe emongo dau. Zer aginduko dautzu? *čZoriona, zoritxára, zerua, inpernua?* Zeuk nai dozuna izango da, ene kristiňaua: Epaikaria adiske egizu.

*Ante faciem indignationis ejus, quis stabit?*  
*«Arpegi aseŕatuaren auŕean čnor zutik egon?»*

*Horrendum est incidere in manus Dei vivens. «Jaungoiko biziaren eskuetan jaustea ikaragaña da».*

## 6'g. EGUNERAKO

*Gaiztokia (inpernua)*

1) Gaiztokia, oben astunean ilten diranen tokia da. An gaitz guztiak dagoz eta onik ezer bez. Galduak an ikaragañiko oñazetan, su-gaŕetan, beti izango dira. Aen oyuak, aen gaŕaxiak, basoko piztitzar gosetuenen antzekoak gitxienez, miňagoak ezpa-dira be. Euren obenak autoŕtuko dabez; baňa alpeŕ-alpeŕik, berandu izango da-ta.

2) Ez iñoz Jaungoikoa ikustea, utan beti eŕe ta kiskaltzen egotea, oñaze-min gogoŕenak, atseden barik, eten barik eta batera aŕtza, deabru itxusi zikiňak beti begi auŕean ikustea, naigabea gorputzean, amurúa biotzean jikaragañizko bizibidea!

3) Baňa aen oñaze-min gogoŕenetari-ko bat čzein deritxazu izango dala? Ona emen: ain eŕez irabazi egikien zerua, uskeri bategaitik, zorakeri bategaitik beti -betiko galdu dabela gogoratzea.

*Asmua.*

Irudimenaz jatsi zaitez pizka baten inpernura. Begira, čikusten dozu deabruak

an darabilen lana? Galduai nekeak aŕerazten diardue. Oraindik toki utsak ba-dagoz; beár bada, oŕeitarikoen bat zurea da; pekatu bat geyago ta galdua zara betiko.

*De p̄ena in p̄enam transeunt. «Oñaze bateik urten eta beste oñazean saŕtzen dira».*

### 7'g. EGUNERAKO

#### Inpernuko oñaze betikoak

1) Jaungoikoaren aseŕea, batez be, onetan agiri da: oben astunean ilten diranai beti-betiko oñaze-miňak emoten dautsezalako; zorigaiztokoa izan beaŕa, Jaungoikoa Jaungoiko dan arte guztian; jau bai zoritxafík zoritxafen!

2) ¡Betikotasuna, betikotasuna! Zu bai zareala itz guztietan sakonena! Gaiztokiko su-garétan dagoan galdu batek urtero negaŕ - malko bat botaten duala kontu egizu, ta negaŕ-malko oŕeik batuta, miloi ta miloika urteren buruan itxaso zabala beteten dabela; ia neuŕtu ezin leikezan urte guzti oŕeik Betikotasunaren aŕean  zer dira? Ezer ez. Ur tantatxu bat itxaso zabalaren aŕean baño gitxiago.

3) Gañera, inpernuan dagqanak, une bakotxeán Betikotasun osoaren oñazeak aŕtzen ditu:  zegaitik jakin nai dozu? Ara: Betikotasuna begien aŕean beti daukalako; bere oñaze guztietan Betikotasunaren beaztun mingoitza auŕkitzen dau oñaze oŕeiz gañera, berez naiko samiňak ezpailiran. Gaiztokiko su-leza ori ikaragaría da; baña betikoa ez izatera ez litzake ain bildurgaŕi.

#### Asmua.

Ezin ulertu ba-dozu be, inpernuko oñaze-miňak betikoak direala siñestu egizu-biotz-biotzez.

*Momentaneum quod delectat, ceterum quod cruciat. «Une bateko atsegina, betiko oñaze-miňa».* (S. JOAN KRISOST.)

### 8'g. EGUNERAKO

#### Zerua

1) Zerua! Izen andia! Zeruan ez dogu atsekaberik izango, ez naigabe, min edo geixo txiki bakaŕ bat be. Au siñesmenak argiro irakasten dauskun gauzea da: «Jaungoikoak bere Santuen negaŕak leoŕtuko

ditu eta auérantzean ez da negafrík izango, ezta gañaxi-min edo oñazerik be; atsekabe miñak joanak dira betiko» (APOC. XXI). ¡Au zorion andia!

2) Zeruan gañera ondasun guzti-guztiak esku betez eta aukera emongo yaku: begiak ikusgañirik edeñenak ikusiko dabez: adimenak ezkutuko gauza gatxenak be argiro ezagutuko ditu: gomutamen Jaungoikoaren mesedeak gogoratuta, zoraturik lez egongo da: naimen edo borondateak nai dauan guzti-guztia euki-ko dau, zeru-luñaren Jaun Altsua berea izango dau-ta. Bai, zeruan atsegin-ondasun guztien Iturriburu ta Egilea, gure Jaungoiko maitea ikusiko dogu, maitatuko dogu, geurea izango dogu eta onelan gure zorionak beti iraungo dau: *sic semper cum Domino erimus.*

3) Zer dira ba, eñbesteko ezbeaÑak, zer emen beko neke-lan eta naigabeak, zeruan emongo yakun sari eder ofén ondoan?

Nekeak egun batekoak dira: atsedena beti-betikoa.

Lanak, egiñalak, pizka batekoak: saria, bañiz, ez da iñoz amaituko.

NegaÑak joan dira: poza ez da bein be amaituko.

Kristiñau ofek, maitatu egizu gurutzea, zeruko atea onek idegiko dautzu-ta. *Per crucem ad lucem.*

*Asmua.*

Zeure lanetan begiak zerura sañi jaso ta lan ofeik sari edera irabazten dautzuela gogoratu.

*Si labor terret, merces invitet.* «Lanak bilduritzten ba-zaitu, sariak bizkoítuko zaitu».

#### 9'g. EGUNERAKO

##### Jaungoikoa beti begira dagokigu

1) Nagoan tokian nagoala, noranai noala, nabilanaz nabilala, Jaungoikoa beti begira daukat, luñbira zabalean neu bakafík bizi ba'nintz lez. Guzti-guztia ikusten dau. Etoñkizuna lez igaro dan aldia be ikusten dau; edo obeto esateko, bere begien auñean ez etoñkizunik, ez igaro dan aldirik ez dago; bat-batean ikusten dau guz- tia, igaro dana, oraingoa ta etoñkizuna.

2) Luŕeko eŕege edo agintarien auŕean lapurétan egiteaz lotsatuko ziňake, kristiňaua, čta bape lotsa barik, bilduŕ barik, gaiztakeri andienak Jaungoikoaren auŕean egiten dozuz? čala uste dozu zeuk Bera ikusten ez dozulako, Berak be ez zaituala ikusten?

3) Argia estaltzeko, gabeko ilunik baltenak ez dira naikoa. Jaungoikoak ikussten ez dauan toki ezkutu bakaŕ bat be ez dago. Gizonakandik iges-egin zegike, báñia Jaungoikoa beti ta edonun aurkituko dozu.

*Asmua.*

Ziltzaldi edo tentaziňo aldian zeure buruari esayozu: «Jaungoikoa begira daukat».

*Si peccare vis, quare ubi non te videat Deus, et fac quod vis.* (S. Agust.) «Oben-egin nai ba-dozu, Jaungoikoak ikusiko ez zaituan tokira zoaz, eta zeure asmua orduan bete egizu».

### 10'g. EGUNERAKO

#### Gogoaren gaizkapena (arimearen salbačiňoa)

1) Gauzarik bearéna, eginbeaŕik andiena, nagusiena, bakaŕa, zerua irabaztea da. Beste egikizun guzti-guztiak, eŕege-lanak, jakitun-lanak, guda, bake... zorakeriak dira, ume-jolasak oŕen ondoan. ¿Zer auŕeratzen dau gizonak luŕ-alde osoa eskuratuaŕen be, bere arimea galdu ba-dagi?

2) Gauza guztiak oŕetarako egiňak dira: euren bidez eta laguntzaz zerua irabazi daigun. Beraz, beste edozetan erabilten doguzanean, alperékoak doguz, kaltegarí ezpa-dira be, zoriona irabazi bearéan, ondamendira garoez-ta.

3) Arimea gaizkatu edo salbetea: auxeda gizonaren eginbeaŕik nagusiena, lan bakaŕa. Ori ta guzti be, gizonak beste gauza guztietan alegintzen diralarik, auxe bakaŕik ez dabe aintzakotzat ártzen. Batek abertzsa izateaŕen, izerdi patsak aterako ditu; besteak egiňalik andienak egingo ditu, jakituna izateaŕen... čnok egiňalak egin, beste oŕein antzera, bere gogoa gaizkatu eta salbeteko?

*Asmua.*

Askotan gogoratuko dot gaur arima bakaŕ bat daukadala, ta ori galdu ba-dagit, betiko galdua nazala.

«Begi bi daukazuz, kristiñaua, esku bi, belaŕi bi; bat galdu aŕen, besteak lagunduko dautzu; baña arimea galtzen ba-duzu. ¿Zer gelditzen yatzu?» (KRISOSTOMO DEUNAK).

### 11'g. EGUNERAKO

#### Obenaren kalteak

1) Uréz beteriko sakeltxu bat galtzen dauan gizonak, asko galtzen dau. Bere ondasun guztiak itxasoan naiz sutan galtzen dituanak baŕiz, geyago galtzen dau. Eta Jaungoikoa galtzen dauan pekatariak, luŕbiran diran uré-gorí ta aŕi bitxi edef guztiak baño askozaz geyago ez ete-dau galtzen?

2) *¡Pekatua!*: i bai gorótopografi azala ta ori ta guzti be, gizasemeak maite abe! Gizonak jolasean lez ártzen dau pekatua, ta jolas onek betiko galdu mendira daroe-la ez dau igaŕten.

Gixaxoak nai leuke pekatua ta Jaungoikoa, biok batera, maite izan; beso bataz pekatua laztandu ta besteaz Jesus gurutziltzatua. ¡Itxutasun bilduŕgaŕia pekatarriarena!

3) *¡Ikuskizun negaŕgaŕia da benetan Jesus Bildots otzana lapúr eta gaizkiñen ártean gurutzean josita ikustea!*

Baña arima bat pekatu astunez josita ikustea, askozaz be negaŕgaŕiago litzake, beronek josi dau ba, Jesukristo gurutzean oŕen era txaŕean.

*Asmua.*

Ziñez, egi-egiaz siñestu egizu: eŕbeste neketsu onetan gauza gaitz eta samiña, bilduŕgaŕia ta kaltegaría bat bakaŕa dala: pekatua.

*Quasi a facie colubri, fuge peccatum.* «Suge zitaldunai baño ariñago, pekatuari iges-egiozu».

### 12'g. EGUNERAKO

#### Norbere burua ilduratzea

1) Arerio gaiztoa garaitzeko lenen egin beaŕ dozun gauzea, zeure burua ezi, ildu-

ratu edo *mortifikatzea* da. Ez dau areriorik garaituko, ez dau zeruko ondasunik jadetsiko, laztasun edo ildurarik egin nai ez dauanak. «Nire ondoren etoñi nai dauanak—Jesus onak diño—ártu begi bere gurutzea ta jañaitu beist edo betoñ neure ondoren». (MENDIBURU).

2) Santuak bañdin diñotzue, onaren ornitasun, onoimen edo birtuteak, berak deroan ilduraz edo bere buruari aferazten dautsazan atsekabeakaz neuñtu dabez-ta. Loyolako Iñazio Deunari, norbait santua zala esaten eutsoenean, erantzuten eban: «ori órelan izango da, bere buruaren etsai andia ba-da». Nekearen bidez lantzen ez dan luñean ez da birtuterik jayoten eta jayo dana be lasteñ igañtzen da, nekeak berak zerutik dauan ura ta janaria ekañten ezpa-dautso. (MENDIBURU).

3) Pekatuak bere ordaña eskatzen dau: edo emen luñean edo geroago garbitokian: utsegiterik ez dago. Garbitokiko su-gaí bilduñgaiari iges-egiteko, ene kris-tiñaua, ezi ta ilduratu egizu zeure gorputz ori.

*Asmua.*

Zeure pekatuen zoña ordaintzeko, egunorlo ilduratzte edo penitentziren bat egiztu, txikia ba-da be.

*Nisi pœnitentiam habueritis, omnes similiter peribitis.* «Gorputza ilduratu ezpa-dagizue, guztiok orobat galduko zarie».

### 13'g. EGUNERAKO

#### **Jaungoikoagana biuñtzea ez uñengorako itxi**

1) Jaungoikoagana biuñtzea asko ta asko luzatzen dot: bere eskuetatik iges joan nai dodala dirudi. ¿Zer? kaltegañi ete yat ba, Berea izatea? Beti pekaturean ego-tea ¿ez ete-da niretzat askozaz kalte an-diagoa?—«Biañ, biañ»... ¿zegaitik ez gaur? ¿Zergaitik gaur bertan asi negiken lana, beti biarko itxi?

2) Jaungoikoagandik uñun ¿zek nauko luñari lotuta? Neure bizikerea aldatu beañak emoten daustan bilduñak. Jaungoikoagana biuñtzeko nekea ártu beañko dodala? Baña neke oñeik zeruko ondasunen ondoan ¿zer dira? ¿Eta Jesus'ek ez al ditu nigaitik nekeak ártu?

### 15'g. EGUNERAKO

#### Norbere buruari bilduŕ izan beaŕia

1) Gizonaren etsairik andiena, gizona bera da. Bere aulkeri edo makalkeria bilduŕ geyago emon beaŕ dautso, inpernuko deabruen ekiñaldi guztiak baño be. Salomon, jakitunen aŕtean jakitunena, jausi ba-zan; Pedro Deunak, Apostoluetan lenengoak, Eleizearen oin-aŕfi zanak, bere Jauna ukatu ba-eban:  zelan ez gara bilduŕtuko gu, zume ta kañaberak baizen aulak gareanok?

2) Geyenetan, gizona buŕukatu barik jausten da. Bere griňa gaitzoak eta batez be, bere biotzak, galbidean jarten dabe beti. Biotzak, deabruaren egiñal guztiak baño gizon geyago galdu ditu. Estutze-nekeak menperatu ta euren biotza menperatu ez ebelako galdu ziran gizon asko ezagutu doguz.

3) Done edo Santurik andienak bilduŕ andia izan dautse beti euren buruari, euren gorputzari, euren biotzari batez be. Azkenengo ordu laŕian be bilduŕ ziran ordurarte beti Jaungoikoaren aiskidetasunean bizi izan ziran Santu aek  eta gu na-

sai gagoz, geure biotzak eskatzen daus-kun guzti-guztia emonaz?

*Asmua.*

Galbideetatik alde - egizu, ta ez aiztu Jaungoikoak diñoskun au: «galbidea maite dabenak, ortxe jausiko dira».

*Qui se existimat stare, videat ne cadat. «Zutik dagoanak, ez jausteko, ardurea aŕtu begi».*

### 16'g. EGUNERAKO

#### Jaungoikoaren eskaŕak zelan aŕtu beaŕ diran

1) Egunero aŕtzen dozuzan eskaŕ edo graziak eta gaurdaño aŕtu dozuzan guzti-guztiak, Kristoren odol guŕgafiarri zoŕ dautsazuz, kristiňaua. Oñaze-miňetan gurutzean josirik egoala, bere zaurietako odol tanta bakotxa zerura zuzen-zuzen yoyan guretzat eskaŕ oneik irabazteko. Begira ba, ez dagizun ezerezttat aŕtu edo oinperatu eskaŕ txikienetatik bakaŕtxu bat be.

2) Ez bakaŕik aŕtu dozuzan eskaŕak, baita, zeure aldetik eragozpenik ez ipin-

tera, aítuko zebazan guztiak be Jaungoikoari zoí dautsazuz. Eguzki dizdiratsua argi dagoanean, leyoak isten doguzalako bere berorik aítzen ezpa-dogu, ori geure érúa da. Bardin, Jaungoikoaren eskefai eragozpenak ipinten dautseguzanean be.

3) Zenbat urte ete-diria Jaungoikoak au edo bestea eskatzen dantzula, ta zu egin barik zagozala? 10, 20, 30 beá ba-da... ¡Az lotsagaaría! Espiritu Santuaren es-kolan ainbeste urtez ibilirik, ain gitxi auferatu zara? ¿Zergaitik ete-da, uskerien bat-tegaitik ezpa-da? Berak emondako eskaónuragáfiak aintzat be aítu ez dozuzala-ko? Gogoratu, goiz edo berandu oneik guztiok ordaindu beáfean auikituko za-real...

#### *Asmua,*

Eskaónak emon Jaunari aíturiko mese-deakaitik eta parkapena eskatu, ainbat eta ainbat ezetsi dozuzalako.

*Cui multum datum est, multum queretur ab eo.* «Asko emon yakonari, asko eskatuko yako». (Luc. XII).

#### 17'g. EGUNERAKO

##### **Astia (denporea) zelan erabili**

1) Asti edo denporea alpeírik galtzea, gatxik okeénenetaikoa da. Gure bizitz au labuña izanik eta asti-unerik txikiena ain gauza edeá, egiñenik ezpa'geuko edo iñoz il beá ezpa'gendu lez, bizi gara...

2) ¡Ene! Gaizto kiko galdu bateri emongo ba'litzakio zuk ain eíez galtzen dozun asti edo denporearen une txiki bat — minutu bat, esaterako — zerua irabazi dagian, ézenbat uste dozu aleginduko litzakela une labuña óretan betiko zoriona eskuratzeko? Eta zuk azkenbako zorion orи zeure eskuetan daukazularik, beste gauza guztietaן alegintzen zara éta aú ba-kañik baztertuta izten dozu?

3) Okeí zagoz, kristiñaua, guztiz okeí, zerurako baño erbesterako aberastasunak batzen arduratsuago ba'zabiltz. Irabazirik andieneko eguna, geure egunik onena do-gunik ez uste izan, Jaungoikoaren auferan geure egiñenak ondoen bete doguzan eguna baño.

Alegindu zaitez ba, auferantzean, egun guztiak eta ordu bakotxa onelan ondo

erabili ta beteten. Egun aítean iñok itandu ba-dagizu: ¿zeten diarduzu? erantzun zengikeo: «Jaungoiko ta neure buruaren alde lan egiten».

*Asmua.*

Gogoan ondo aítu: Jaungoikoaren alde igaroten ez dogun astia, asti galdua dala.

*Regnum Dei vim patitur et violenti rapiunt illud.* «Zerua indaíez aítu beár da, ta ale-gintzen diranak, irabaziko dabe. (Mat. XI, 12).

#### 18'g. EGUNERAKO

##### Sakramentuak zelan aítu

1) Ikuúton edo Sakramentuen bidez Jaungoikoak, bere Semearen Odol deunak zuretzat irabazitako eskaí ugari edeák emoten dautzuz: beraz, arimea zeruratzeko osora beárezkoak dozuz. Dongaro aítu ezkero, Kristoren odola ta irabaziak, mesedezkoak ez, kaltegäfiaiak bai, kaltegäfiaiak izango litzakezuz, jolasean lez eta txaárto erabiliko zeunkez-ta.

2) Eta Paulo Deunaren itz zoíotz oneik, batez be, ikara-laíi andia emon

beáí dautzue: «Arima loyaz edo obenpean Kristoren aragi-odola aítu dagizanak, bere betiko ondamenaren epaya jaten eta edaten dau». Eta Jaunak Kain odolzaleari lez, bere Semearen odolaz zer egin dozun itanduko dautzunean čzer izango da zuttzaz? Eta ez bein edo biítan, askotan baño, odol deun ori ezetsi ta oinperatu ba-dozi čnora itxuliko zara bere aseñeari iges-egiteko?

*Asmua.*

Zeure bañenori azteftu egizu, safi autoítu aíren ain gitxi auératzea ta sañi Jau-na aítu aíren, ain epel-nagi egote ori, nondik datoíkizun ikusteko.

*Probet autem seipsum homo.* «Bere bañena, bere biotza azteftu begi gizonak». (I Cor. XI).

#### 19'g. EGUNERAKO

##### Meza Deuna

1) Meza Deuna čzer da? Jesukristok gurutzean Aita Jaungoikoari eskiñiriko oparia (sakrifizioa) ber-bera (ez antz-irudi bakařik) egunero gure altaretan bañiz-

tetan dana. ¡Meza Deuna bai dala gauza andia! Gure luſaldean egin daiteken gauzarik andiena ziúr, eta guretzat onuratsuena, uſe-meatza baño askozaz aberatsagoa.

2) Zetan jakin nai dozu, ene kristiñaua?

a) Jaungoiko-alguztidunak bere mirarietan baño eskubide askoz andiagoa erakusten dau abadeak meza emonaz. Arek, gauza guztiak ezerezetik ateratzean, bere menpekoai agindu eutsen: onek, Jaungoiko ber-berari agintzen dautso ta Jauna menperatzen yako.

b) Mezearen bidez, Jaungoiko gure Egilea gurtzen dogu. Egin dauskuzan mese-deakaitik eskaŕak emoten dautsaguz. Gure pekatuen zoŕa ordaintzen dautsogu. Eskaŕugariak eskatzen dautsaguz.

d) Mezearen bidez, Garbitokiko arima gaxo érufaŕiak azkutu ta zeruratzengozuz. Bere irabaziak andiak dira, zero, luŕ eta garbitokiraño zabaltzen dira-ta.

3) Baña jau itsutasun negaŕgafía! Jesukristo gurutzean il zanean, atxak erdibituziran, eta altaren eskintzen danean, kristiñau askoren biotzak, atxak baño be go-

goŕagoak agiri dira. Kalbarioan il zanean, ilobiak idegi ziran: altaran opaltzen danean, kristiñau-biotzak itxiak dagoz. Kalbarioan emakume tu gudarien begiei negaŕa darioe: gure eleizetan, ostera, kristiñau askok ezpanetan baŕea erakusten dabe ta begietan aspertuta dagozala...

#### Asmua.

Meza entzutera zoazanean, Kalbarioan, Jesukristoren iltamuan zagozala, iruditu egizu.

*In omni loco offertur nomini meo, oblatione mundu* «Toki guztieta nire izenari opari garbia eskintzen yako». (Malach. I-11).

#### 20.g. EGUNERAKO

##### Txiroai (beáitsuai) lagundu beár yake

1) Guztiz asko zoŕ dautsogu Jesukristo gure Jaun maiteari. Berari egin nai izango geuskion guzti-guztia, txiro edo pobreai egin dayoegun, oneik bere tokian itxi dauskuz-ta. Altaroko mayan gordeta dago, guk guŕtu daigun eta gure janari izateko; txiroetan, baŕiz, Beraz érufikitu gaitezan eta jaten emon dayogun. Bada-kizu, ba, kristiñaua, Jesukristo txiroetan

soñeko zaípean estalduta dogoala. Bein baten Martin Deun andiak ofelantxe ikusi eban, bere soñekoa erdibitirik eskeko bati emon eutsanean. Uréngo goizean Jesus etoñi yakon eskañak emotera, jantzi eban eskekoa Bera zala adierazoaz.

2) Aberatsai emonda, beañ-bada galduko dozu: Jaungoikoari emonda, bein bez. Berak esan dausku, bere izenean emondako ur pizkatxua be, ez dauala ordaindu barik itxiko. Len aberatsak izan ařen, jokoan edo jan-edanetan ibili diralako, txanpon barik asko aufkitu dira. Txiro beartsuai lagundu dautselako, esku-utsik aurkitu danik, nik dakidala ez dago: gero ta geyago irabazteko bidea, txiroai emotea da.

3) Emon dauskuzan ondasunetzaz erantzuteko, Jaungoikoak azken-epai egunean eskatuko dausku. Jaunak, euren goñkeria arpegira botako dautsenean, ainbat eta ainbat biotz gogoñeko aberatsek čer erantzongo dautse orduan? «Zoaze —esango dautse—zoaze aberats madari-katuok bañendiko sutara, ba gosez nengoan eta ez zeunsten jaten emon, bilosik nengoan eta ez ninduzuen jantzi».

Biotz gogoñ, zeken eta zikoitzak galduak dira: esku zabaleko gizonak, zerua irabaziko dabe. Gure gaiztakeriak andiak ba-dira be, Jauna guzaz érnikituko da, gure soñekoak bere gorputzean eta gure ogasuna bere eskuetan ikusi-ta. Ez, ez daukagu zetzaz bilduñtu, txiro-beañtsuak gure alde ba-dagoz.

#### Asmua.

Zugana datoñen eskekoa beañzanean aufkitzen ba-da, ez bein be esku-utsik bialdu.

*Beatus qui intelligit super egenum et pauperem: in die mala liberabit eum Dominus.* «Zorionekoak beartsu ta txiroen laguntzalea; Jaungoikoak egun lañian jagongo dau».

#### 21'g. EGUNERAKO

##### Ziltzaldia (tentaziñoa)

1) Iñok ezin legikeo ziltzaldiari iger-egin. Naiz aberatsa naiz txiroa izan, naiz jauregi edeñeán jayoa naiz artzain, txabolan; naiz luñeko zorakerietan bizi naiz beañzanean, toki ta aldi guztietan ziltzal-

dia aurkitzen dau gizasemeak, non-nai galbidea. Ziltzaldia etxe baúan, ziltzaldia kanpoan, bere inguruan lez bere bafenean be. Ziltzaldi-legeak giza - emakume guztiak beártzen ditu ta Jesukristo berari be basamorturaño jaíaitu eutson.

2) Baña ziltzaldi-menpekoak guztiok garean ařen be, ez gara ořenbestez laŕitu beaf. Ziltzaldia, berenez, ez da ez ona ez txařa: lotuta dagoan txakuŕ gaitoaren antzekoa da: zaunka egin daike, baña aginka iñori bez, uferatzen ezpa-yako.

Gaňera ziltzaldiak mesede andiak ekaŕten dauskuz. Batetik, gure argaltasunaren baři emoten dausku, gure indaŕen neuri ta ezaguereira.

Bestetik, ziltzaldia garaitu ta menperatzeko alegintzen ba-gara, Jaungoikoak bere laguntza ez dauskula ukatuko ziltzaldiak erakusten dausku.

3) Ziltzaldia menperatu edo azpiratzeko, iru gauza eskatzen dira:

Lenengoa.—Galbide edo ařiskutik alde egitea. Eba, gure lenengo ama, baldin suge madarikatuaz autuan asi ezpa'litz, eta Pedro Deuna Kaifas'en etxeán angó neskameaz, beaf bada, ez bata ez bestea ez zi-

ran jausiko pekutan, jausi ziran lez. Gogoratu Jaungoikoaren itz adigaři oneik: «Galbide edo ařiskuak maite dituana, euren tan ilgo da».

Bigařena.—Otoitza: ona zegaitik Jesukristok ez dauskun esaten «begiratzeko» bakařik, «otoitz» egiteko baño. *Vigilate et orate*. Ziltzaldian, Jesukristogana joten ba-dozue, Mariaren magalpean sartu ba-zaitze, onek eta bere Semeak zuen arerioen eginal guztiak ez dabezala ausiko čuste ete-dozue? Esan ba ziltzaldian Pedro Deunagaz batera: «Jauna, lagun zakidaz galtzera noa-ta.

Irugařena.—Saři Jaunaŕtzea. Jesukristok berak diňosku: «Zeruko ogia jan dagienak, ez dira ilgo. Bera da gure gogo edo arimen janari, indaŕ eta kemena, «Jaunaŕtzen dauanak begietatik su-gařa darion leoi amuŕatua dirudi». (KRISOSTOMO DEUNAK).

*Asmua.*

Galbide ta ařiskuetatik ainbat lasterén iges-egizu.

*Et ne nos inducas in temptationem. Ez eiguzu itxi ziltzaldian jausten.*

**22'g. EGUNERAKO****Oben ariñak**

Pekatu astunetatik alde egitea naiko dala uste dabe askok: oneik pekatu ariña aintzat ez dabe aítzen: gauza txikia dala diñoe, uskeri bat, ezer ez... ¡Uskeria, gauza txikia, Jaungoikoaren naya ez egitea! Matrañekoak be uskeriak dira, gauza txikiak, beintzat ez dautse iñori bizia kentzen: baña ȝgauza txikia ete-da norbere amari arpegira txistu egitea edo matrañekoak emotea? Jesukristok bere nekaldian aíturiko matrañako ta txistuak gure pekatu ariñak dirala deritxat, ene kristiñaua.

2) Uskeria, oben ariña, gauza txikia, ezereza...? Bere ondorenak begiratu egizuz:

Oben ariñak arimea ofbandu, gure go-go argia, Jaungoikoaren antz-irudira egina dan gogo au loitzen dau. Soñeko uratutz eta arpegi zikiñez gain-gañeko jentearen auréra agertzen lotsatuko zeintekoz, eta pekatu ariñez arimea loitura dozula Jaungoikoaren auréra joaten ȝez ete-zara lotsatuko?

Oben ariña gaitz zitala ta geizo bilduŕ-

gaŕia da arimearentzat, uste barik eriotzara daroalako. Untz argalak urteakaz aratxik sendoena be ito egiten dau. Estul txiki batek buruko min andia sortzen dau, eta pekatu ariñak astiro-astro, geldi-geldika, pekatu astunera, eriotzara eroaten gaitu.

3) Entzun azkenez erakusbide ta itz adigaŕi batzuk:

Moises, Jaungoikoaren aiskide andia, ez zan Kanaango luŕaldean saŕtu, oben arin bat zala bide.

Gaizki-esaka txiki bat zala-ta, bere aŕeba Maria, oñetatik bururaño izugaŕizko izuŕi zikiñez bete zan.

Gonzaga'tar Luis Deuna, bein, autoŕtzen asi zala, konoŕte barik ia jausi zan, bere gazteroko oben arin batzuk gomutau-ta.

Anselmo Deunak esaten eban inpernu edo pekatu arin bakaŕ bat aukeratu beárean egon ezkerro, berak lenengoa, betiko gaiztokia, autuko leukeala.

*Asmua.*

Jaungoikoaren naya ukatzen dauan eta zeuri ainbeste kalte dakaŕtzuzan pekatu

ariña, gauza txikia danik, ez uste izan auérantzean.

*Observa diligenter ne incurras plagam lepræ.*  
«Legenan-izuria batu ez dagizun ondo begiratu egizu».

### 23'g. EGUNERAKO

#### Neke-lanak zelan eroan

1) Ez uste, ene kristiñaua, atsegijetan biziteko edo aberastasunak batzeko, kristiñau egin zareanik, Bateoa ofetarako ártu dozunik.

Kristiñau - izenak čer esan nai dau? Kristoren seme, bere jaŕaitzale zareala ta, beraz, arek lez neke-lanak ártu beaŕ dozuzala, gurutzea eroan beaŕ dozula čez ete-dau orixe esan gura? Zetarako bestelan, kristiñau egin, deabruari jaŕaitzekotan?

«Krstiñauak (Tertuliano argiak diño) eriotzarako gizon gertuak dira».

2) Ebangelioak zer diño? Zorioneokoan negar egiten dabenak; zoritxaŕa zuri, aberatsa, zeure poza emen bean auŕkitzen dozu-ta. ¿Uste dozu, negar dagienak, nai-

gabe ta neke-lanak daroezanak zorioneoko ta aberatsak, ostera, zorigaiztoko dirala? Ez noski: ori ta guzti be egia da, siñesmen egia, beste edozein fedeko egi baizen siñesgarí ta siñesbeaŕa.

3) Jaungoikoaren Semea, zerura igon baño len, lufera jatsi da, gurutzea eroan dau: beste deun edo santu guztiak be gurutze-bidea ártu dabe zerura joateko. Eta Jaungoikoaren Seme ta doneak, ainbeste neke, ainbeste oñaze ártu ba-dabez zerua irabatzeko, čneke lan barik uste dozu an sartuko zareala? Ez, ez, kristiñau ofi; «neke-lof andien bidez zeruan saŕtuko garea-la» diño Paulo Deunak. Beraz, Jeronimo deunak jaŕaitzen dau, «aguŕ esan legikeo, betiko zeruari neke - lanik eroan nai ez dauanak».

*Asmua.*

Jaungoikoak neke-lanen bat bialduko dautzunean, oŕek zerua irabatzeko asko lagunduko zaituala gogoratu. *Qui vult venire post me... tollat crucem suam.* «Nire jaŕai etofi nai dauanak... ártu begi bere gurutzea».

**24'g. EGUNERAKO****Jaungoikoaren erukia**

- 1) Jaungoikoaren erukia, guztiz andia, bazteŕ bagea, neuŕibagea da pekatarien-tzat. Entzun emen gure Liburu Santueta-ko bost itz oroigaŕi oneik: «Biurto zaitez, pekataria, ta biziko za-ra». «Pekatariaren eriotzarik ez dot nai, biurtu ta bizi dadin baño». «Biurto zaitez, pekataria, ta ziñez ezpa-dautzut parkatzen, guzuŕtia nazala esan». «Zure pekatuak arimea baltzitu ba-dau-tzue, zuri-zuri biurtuko dautzut».

Eta azkenez, guztietañ eztitsuena:

«Pekataria nigana ba-datoŕ, bere gaiz-takeri guztiak erabatera aitzuko dodaz».

Bai; andia, neuŕibagea da Jaungoikoaren erukia.

- 2) Eta Lege-Záŕean, bilduŕezko Lege-pean, Jaungoikoak ori esan ba-eban, czer deritxazu esango dautzula Lege-Baŕian, maitasunezko Legepean?

Entzun baŕiro bere itz gozoak: «Ez naz gizon zuzenak bilatzera etoŕi,

